



*eus* **237**  
**Jakin** **238**

herria kultura hizkuntza martxo-ekaina  
2020

# Joxe Azurmendi Pentsamenduaren ur-jauzia

JOSEBA ZULAIKA  
IDURRE ESKISABEL LARRAÑAGA  
EDUARDO APODAKA OSTAIKOETXEA  
JOSEBA SARRIONANDIA  
ANDONI OLARIAGA AZKARATE  
AGNÈS CUGNO  
IÑAKI SOTO NOLASKO  
ANTONIO CASADO DA ROCHA  
MAITANE NEREKAN UMARAN

ITSASLORE YARZA LOPEZ  
MARKOS ZAPIAIN AGIRRE  
ARANTZA ETXEBERRIA AGIRIANO  
JUAN IGNACIO PÉREZ IGLESIAS  
MIKEL URDANGARIN IRASTORZA  
ANDONI EIZAGIRRE  
MIREN AZKARATE VILLAR  
ELENA MARTINEZ RUBIO  
ELIXABETE GARMENDIA LASA

## **EGUNEN GURPILEAN**

ITZIAR UGARTE IRIZAR · JAIME ALTUNA RAMIREZ  
ALBA GARMENDIA CASTAÑOS

**Jakin** *•eus* **237**  
**238**  
herria kultura hizkuntza martxoa-ekaina  
2020



JAKINEko idazlanez inon baliatzerakoan  
aipa bedi, mesedez, iturria



aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez  
idazleen iritziekin bat

#### LEHENDAKARIA

Joan Mari Torrealdai

#### OHOREZKO KIDEAK

Paulo Agirrebaltzategi, Joxe Azurmendi, Joseba Intxausti

#### ZUZENDARIA

Lorea Agirre

#### ERREDAKZIO BURUA

Xabier Eizagirre

#### KONTSEILU EDITORIALA

Lorea Agirre, Haizea Barcenilla, Harkaitz Cano, Xabier Eizagirre,  
Idurre Eskisabel, Patxi Juaristi, Joanmari Larrarte, Maialen Lujanbio,  
Imanol Murua, Andoni Olariaga, Olatz Osa, Gexan Sors,  
Joan Mari Torrealdai, Eguzki Urteaga

#### IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Martin Ugalde Kultur Parkea

Gudarien etorbidea, 29

20140 Andoain

Tel. 943 21 80 92

[jakin@jakin.eus](mailto:jakin@jakin.eus)

[www.jakin.eus](http://www.jakin.eus)

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAIA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

*Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua*

Jabegoa: Jakín Fundazioa. Donostia. Lege gordailua: S.S. 25/1977. ISSN: 0211/495X  
Inprimaketa: Leitzaran Grafikak, S.L., Gudarien Etorbidea, 8. Andoain (Gipuzkoa)

SUMMARY

**5**

ZUZENDARIAREN HITZAK

**11**

GAI NAGUSIA Joxe Azurmendi  
Pentsamenduaren ur-jauzia

NAZIOA

- 15** Arbola beltzaren poema: Azurmendi,  
euskal mende hautsiaren lekuko  
Joseba Zulaika  
Gerraondoko euskal belaunaldiek beren pentsamenduan eta nortasunean izan dituzten kontraesanen aurrean Azurmendik izan duen testigantza intelektuala aztertzen da, bere lekukotasuna haustura horiek argudiatu eta subjektibatzeko orduan.
- 29** Feminismotik naziogintzara hurbilketa bat  
Azurmendi bidelagun  
Idurre Eskisabel Larrañaga  
Gaur eta hemen nazioaz, herriaz, naziogintzaz eta herrigintzaz taxuz pentsatu nahi bada, ezinbestekoa da sexu-genero aldagai aintzat hartu eta feminismoarekin elkarrizketan gogoetatzeari. Halaber, feminismoak gaur eta hemen egitasmo emantzipatzaile osoa izan nahi badu, ezinbesteko du naziogintzaz eta herrigintzaz pentsatzea. Azurmendiren pentsamenduan badira elkarrizketa horretarako zenbait giltzadura.
- 43** Mamu, momia eta zonbiak. Bizi osteko biziak  
Eduardo Apodaka Ostaikoetxea  
Euskal Herriaren edo euskal izatearen bizitasuna nola irudikatu edo figuratu den aztertu eta gero, egungo egoera ulertzeko erabilgarriak izan daitezkeen figurazio batzuk proposatzen dira.

- 69** Azurmendiren inguruko sei-zazpi ideia eta beste hainbeste galdera

Joseba Sarrionandia

Azurmendiren obraren ezagutza egiten da, haren pentsamenduan giltzarri diren ideia batzuk aztertuz: askatasuna, krisia, normaltasuna, urritasunari dagokion elkarlana, komunikazioa eta derrigorrezko zintzotasun intelektuala.

#### ETIKA ETA POLITIKA

- 85** Nola pentsatu etika orain eta hemen?

Zentzu komuna, etika formala eta giza eskubideak

Andoni Olariaga Azkarate

Galdera honi erantzuten zaio: nola pentsatu etika, gaur eta hemen? Auzi praktiko baten aurrean gaudela, teorikoa baino, defendatzen da.

- 97** Indarkeria eta identitate politikoa

Agnès Cugno

Identitate politiko bat definitu al daiteke 'bestea' ukatzen duen indarkeriarik –sinbolikoa, besterik ez bada– gabe? Azurmendiren Indarkeria eta balio berrien bilaketa saiakeratik abiatuta, badirudi identitatearen birdefinizioa posible dela: norbere buruaren interpretazio librea den heinean, posibilitate kultural eta politikoen matrize infinitua da.

- 111** Don't Think of 'Foro de Ermua'

Iñaki Soto Nolasko

Filosofiaren eta kazetaritzaren erdibidean, Azurmendiren *Demokratak eta biolentoak*, *Oraingo gazte eroak* eta *Euskal Herria krisian* gida gisa hartuta, liburu horien garaiko giro politikoa- ren eta gaur egungo zenbait argudio etikoen arteko alderaketa egiten da. Gai horiei buruzko Azurmendiren idatziak, tonua eta espiritua goratzen dira.

- 121** Pentsamenduaren marruskadura: etika eta praktika komunitateak aroztegiko batzarrean

Antonio Casado da Rocha

Komunitatean oinarritutako etika baten bila, *U teoria* eta Azurmendiren hainbat testu alderatzen dira. Mugimendu kooperatibistari buruzko bere gogoetak direla medio, helburua da praktikaren bidez berrikuntza sistemikoak ulertu eta abian jartzea.

- 137** Heriotzarekin bizitzen ikastea  
Maitane Nerekan Umaran • Itsaslore Yarza Lopez  
Norbere buruaz beste egitearen begirada filosofiko bat aurkezten da, bizitzaren eta heriotzaren zentzuak lotuz. Suizidioan askatasunak duen tokiaz hausnartzen da, eta etsipenaren pisuari aurre egiteko prebentzio estrategia batzuk proposatzen dira.

#### GIZABEREA

- 147** Bizitzaren zentzuaz  
Markos Zapiain Agirre  
Konstatazio harrigarri honetaz dihardu artikuluak: nire baimenik gabe bota ninduten mundu honetara eta zenbait urteren buruan hilko naiz. Ba ote du zentzurik nire bizitzak? Zertarako bizia, oro har?

- 161** Gizaberea, eboluzioa eta kooperazioa  
Arantza Etxeberria Agiriano  
Juan Ignacio Pérez Iglesias  
Azurmendiren gizabere kooperatiboaren oinarri biologikoa aztertzen da eboluzioaren teorian eta biologia orokorrean: altruismoaren inguruko zailtasunak, biziaren antolakuntza eta gizakiaren eboluzioan sortu diren lankidetzarako joerak.

- 179** Gizabere kooperatiboa krisian bizitzeko mito gisa: zaugarritasuna, interdependentzia eta erantzukizuna  
Mikel Urdangarin Irastorza  
Krisian irautetik krisian bizitzera, Azurmendiren gizabere kooperatiboa proposatu eta aztertzen da, zaugarritasun, interdependentzia eta erantzukizun kontzeptuen bueltan hainbat autorerekin elkarrizketan jarriz eta horien argitan sakonduz.

#### KOOPERATIBISMOA

- 193** Pertsona burujabea Arizmendiarrietaren asmoan eta egitean  
Andoni Eizagirre  
Arizmendiarrietaren pentsaeran eta jokabidean pertsona burujabe gai zentrala da. Ideia hori ulertzeko argibideak ematen dira, Azurmendik gizakiaren historiaz eta moralaz irakatsita-koak bidelagun hartuta.

## HIZKUNTZA

- 207** Azurmendi: euskara batuaren bilbe eta irazki  
Miren Azkarate Villar  
Azurmendik euskararen batasunari pauso bakoitzean eginda-  
ko ekarpena aztertzen da: eredia hautatzean, kodifikazioan,  
inplementazioan eta elaborazioan.
- 221** Hizkera filosofikoa hizkuntza gutxiagotu baten  
testuinguruan  
Elena Martinez Rubio  
Hizkera filosofikoaren auzia aztertzen da euskara bezalako hiz-  
kuntza gutxiagotu baten testuinguruan. *Volksgeist - Herri gogoa*  
liburuan Azurmendik jorratutako hizkuntzari buruzko tesien  
ildotik, Theodor W. Adorno eta Günther Andersen arteko es-  
kutitzak aztertzen dira, non biek hari horretara elkarri kritika  
egiten dioten.

## ZEGAMA ETA ARANTZAZU

- 233** Zegamatik Arantzazura, pentsalariaren  
lehen paisaiak  
Elixabete Garmendia Lasa  
Azurmendiren lehen bi paisaiak aurkezten dira, Zegama eta  
Arantzazu, toki horiek bere idatzi eta adierazpenetan utzi du-  
ten arrastoari jarraituz.

## EGUNEN GURPILEAN

- 251** Kultura  
Itziar Ugarte Irizar
- 257** Soziolinguistika  
Jaime Altuna Ramirez
- 264** Glokalia  
Alba Garmendia Castaños

## KONTRAZALA Unai Iturriaga Zugaza-Artaza

## JOXE AZURMENDI. THE CASCADE OF THOUGHT

### The black tree poem: Azurmendi, witness to the broken Basque century

The writer and anthropologist Joseba Zulaika analyses Azurmendi's intellectual testimony when arguing and subjectivizing the contradictions and splits in thought and identity of the post-war generations. [Joseba Zulaika](#)

### An approach by feminism to nation building in Azurmendi's company

The journalist and member of the Jakin Editorial Board Idurre Eskisabel Larrañaga argues that, if one wishes to think properly about nation, people and nation building, it is essential to take into account the sex-gender factor and to engage in dialogue with feminism. Likewise, if the aim of feminism is to take the form of a complete emancipating project in the here and now, it needs to reflect on nation building. To this end, Azurmendi's thought contains several keys to such a dialogue. [Idurre Eskisabel Larrañaga](#)

### Ghosts, mummies and zombies: lives after life

The Social Psychology lecturer Eduardo Apodaka Ostaiakoetxea, after analysing how the vitality of the Basque Country or the fact of being Basque has been represented or depicted, proposes several figurations that may prove useful in understanding the current situation. [Eduardo Apodaka Ostaiakoetxea](#)

### Six or seven ideas and further questions about Azurmendi

The writer Joseba Sarrionandia presents Azurmendi's work by analysing some of the key ideas attached to his thought: freedom, crisis, normality, cooperation in minority issues, communication and intellectual honesty. [Joseba Sarrionandia](#)



## How do we view ethics in the here and now? Common sense, formal ethics and human rights

The Doctor of Philosophy Andoni Olariaga Azkarate answers the following question: how do we view ethics in the here and now? The author maintains that we are facing a practical issue rather than a theoretical one. [Andoni Olariaga Azkarate](#)

## Violence and political identity

The Philosophy lecturer Agnès Cugno embarks on her reflection via the following question: can a political identity be defined other than through violence –at least symbolically– involving a denial of the ‘other’? According to Azurmendi in his essay ‘Indarkeria eta balio berrien bilaketa’, the author defends the possibility of redefining what identity is: insofar as it is a free interpretation of itself, it refers to an infinite matrix of cultural and political options. [Agnès Cugno](#)

## Don't Think of the 'Ermua Forum'

Iñaki Soto Nolasko, editor of the daily *Gara* and a graduate in Philosophy, compares the political climate of the late 90s, halfway between Philosophy and journalism and taking Azurmendi's three books (*Demokratak eta biolentoak*, *Oraingo gazte eroak* and *Euskal Herria krisian*) from that time as guides, with some current ethical arguments. The author extols the virtues of Azurmendi's writings, tone and spirit with regard to these issues. [Iñaki Soto Nolasko](#)

## The friction of thought: ethical communities and practices in the carpentry assembly

The Ethics lecturer Antonio Casado da Rocha, in the search for community-based ethics, compares the Theory U with several texts by Azurmendi. The author tries to understand and to set in motion systematic new features through practice via his reflections on the cooperative movement. [Antonio Casado da Rocha](#)

## Learning to live with death

The Philosophy lecturers Maitane Nerekan Umaran and Itsaslore Yarza Lopez pursue a philosophical outlook about suicide, linking meanings of life with death. They reflect on the role of freedom in suicide, and some preventive strategies are put forward to help deal with the burden of desperation. [Maitane Nerekan Umaran • Itsaslore Yarza Lopez](#)

## On the meaning of life

The writer and Philosophy lecturer Markos Zapiain Agirre starts off with an astonishing confirmation: I have been thrown into this world without my permission and I will die in some years. Does my life have any meaning? Generally speaking, what is life for? [Markos Zapiain Agirre](#)

## The human animal, evolution and cooperation

Arantza Etxeberria Agiriano, lecturer in Philosophy and Biology, and Juan Ignacio Pérez Iglesias, Professor of Physiology and Chair of Scientific Culture at the UPV/EHU, analyse the biological foundations of Azurmendi's human animal in the Theory of Evolution and in general Biology: the difficulties surrounding altruism, the organisation of life and cooperative tendencies that have emerged over the course of human evolution. [Arantza Etxeberria Agiriano • Juan Ignacio Pérez Iglesias](#)

## The cooperative human animal as a myth with regard to living in crisis: vulnerability, interdependence and responsibility

The PhD student in Philosophy Mikel Urdangarin Irastorza proposes and analyses Azurmendi's cooperative animal as a means for moving on from remaining in crisis to learning to live in crisis, engaging in in-depth conversation with several authors about the concepts of vulnerability, interdependence and responsibility. [Mikel Urdangarin Irastorza](#)

## The sovereign individual in Arizmendiarieta

The Philosophy lecturer Andoni Eizagirre explains the central nature of the sovereign individual in Arizmendiarieta's thought and actions, accompanied by Azurmendi's teachings about history and human morals. [Andoni Eizagirre](#)

## Azurmendi: woof and warp in the unified Basque language

The linguist and full member of Euskaltzaindia (Academy of the Basque Language) Miren Azkarate Villar analyses the contributions made by Azurmendi at each stage of the Basque language unification process: choice, codification, implementation and drawing up of the model. [Miren Azkarate Villar](#)

## Philosophical language within the context of a minority language

The writer, editor and Doctor of Philosophy Elena Martínez Rubio analyses the issue of philosophical language within the context of a minority language such as Basque. Following on from the theses about language developed by Azurmendi in *Volksgeist - Herri gogoa*, the author analyses the correspondence maintained between Theodor W. Adorno and Günther Anders, in which they criticize each other on this issue. [Elena Martínez Rubio](#)

## From Zegama to Arantzazu: first landscapes of the thinker

The journalist Elixabete Garmendia Lasa presents Azurmendi's two leading landscapes –Zegama and Arantzazu– following the traces left by these places in his writings and declarations. [Elixabete Garmendia Lasa](#)

## NEWS TODAY

This gathers together cultural information focusing on the present from various areas and perspectives. This year we shall be closely following culture, sociolinguistic and globalization matters. This section draws on various specialists: Itziar Ugarte Irizar, Jaime Altuna Ramirez and Alba Garmendia Castaños. [Various authors](#)

**P**entsatzen jarri gintuen joan den urteko abenduaren 11, 12 eta 13an Donostiako San Telmo Museoa egin zen *Joxe Azurmendi. Euskal pentsamenduaren ur-jauzia* kongresuak. Bertan, 50 bat hizlari eta 240 entzule inguru bildu ziren, aurrez aurre bildu ere, gaurtik begiratuta irrealia dirudien moduan. Kongresu interesgarri eta beroa izan zen, bai egin ziren ekarpenen aniztasunagatik eta baita eztabaida eta solasaldiengatik ere. Euskal Herriko Unibertsitateak eta Jakin Fundazioak elkarlanean antolatu zuten, babesle nagusi Gipuzkoako Foru Aldundia izan zen, eta laguntzaile Donostiako Udala, Donostia Kultura erakundea eta San Telmo Museoa. Kongresua iazko udan EHUko Filosofia Sailaren baitan sortutako Joxe Azurmendi Katedraren arnasaldiaren ondorioz etorri zen. Eta kongresuarekin osagarritasunean, Joxe Azurmendiren obra osoa Jakinen atari digitalean ([www.jakin.eus](http://www.jakin.eus)) eskura jarri zen formatu aberastu, osotu, erabilgarri eta edertuan. Baina ez da haria hor bukatzen: oraintsu kaleratu dute Joxe Azurmendi Katedrak eta Jakinek haren azken liburua: *Pentsamenduaren historia Euskal Herrian. Eskolaren eta gogoetaren lana gizaldiz gizaldi*, eta obra horrekin *Ur-jauzia* bilduma abian jarri. Hori guzti hori.

Eta zergatik, bada, hori guzti hori? Zergatik Joxe Azurmendi? JAKINEN orriotan galdera hori egitea erabat lekuz kanpo badago ere –1961etik Jakin Taldeko kide baita–, eta esan beharrik ez badago ere, esan egin behar da: Joxe Azurmendi filosofo, pentsalari eta idazle handi eta oparoa da. Bere ekarpena sustraitua eta noranahikoa aldi berean eta halabeharrez. Beti euskaraz, beti euskaratik. Filosofia, politika, zientzia, teknika, historia, zuzenbidea, artea, gizarte, kultura, hizkuntza, ekonomia, literatura, erlijioa eta beste landu ditu 42 liburu, 118 liburu atal eta bostehundik gora artikulutan.

JAKINEN zenbaki monografiko honetan, kongresuan Azurmendiren ekarpenaz eta euskal pentsamenduaz eman ziren hitzaldien auke-raketa bat duzu. Guztira hamasei, gaikako sei ataletan banatuta: Nazioa, Etika eta politika, Gizaberea, Kooperatibismoa, Hizkuntza eta Zegama eta Arantzazu. Besteren artean, Joseba Zulaika, Idurre Eskisabel, Joseba Sarrionandia, Agnès Cugno, Arantza Etxeberria, Andoni Eizaguirre eta Elixabete Garmendiaren artikulua dituzu.

Txoko bat ere atondu dugu Jakinen atari digitalean monografiko honen osagarri, non kongresuko hitzaldi guztien bideoak eta hitzaldien testuak dauden.

Pentsatzeko garaiak beti dira, baina batzuetan *betiago*, eta oraintxe bizi gaituen distopia honi txertoa pentsamendua lantzetik ere etorriko da; zalantzarik gabe, Joxe Azurmendi leku eta amu eder bat da pentsamenduaz elikatzeko eta pentsamendua pentsatzen hasteko. Unai Iturriagak kontrazalean *Frankenstein doktore* bihurtu du Azurmendi, Euskal Herria pentsatzeko formularen bila: «Mito pixka bat –libertatez–, utopia apal bat, eta mundua gure aurrean zabalik».

Zenbaki guztietan legez, *Egunen gurpilean* atalak Alba Garmendia, Jaime Altuna eta Itziar Ugarteren begiradak dakartza. Pentsatzen jarraitzeko.



# Arbola beltzaren poema: Azurmendi, euskal mende hautsiaren lekuko

**I** Joseba Zulaika  
*Antropologoa eta idazlea*

**P**aradisua galdu eta Joxe Azurmendi deskubritu nuen nik. Esplikatuko naiz. Londresen gertatu zen batik bat, non poema bat idaztea erabaki nuen, paradisu galdua gai harturik eta Milton eta Blakeren eraginpean. *Adanen poema amaigabea* jarri nion izenburua. Neure esperientzia pertsonalean hain oinarritua izanik, ez nekien zer egin nire poemarekin. Ezer balio ote zuen? «Holakoak, idatzi ondoren, paper ontzira botatzea duk onena», gomendatu zidan nirekin bizi zen lagun batek.

Horretan ezagutu nuen ustekabeen Azurmendirekin Munsterren bizi zen Jesus Mari Mujika. «Joxeri erakutsiko zioat», esan zidan. Esan eta egin. Eta handik hilabetera, nire harri-durarako, Azurmendik nire poemari idatzitako epilogo luzea iritsi zitzaidan. Paradisua galdu ondorengo enkontrua zen. Tauromakian esaten den bezala, Azurmendik eman zidan *alternativa* euskal idazleen plazan. Bera izan zen nire irakurle oinarritzkoa, nire poema beste inork ez bezala ulertu zuena. Poema horrek euskal idazle egin ninduen. Bereganako transferentzia behar izan nuen hasieran idazle bihurtzeko. Gero ere nire euskarazko lanetan beti bere oniritziaren bila ibili izan naiz, nahiz eta jakin nire zenbait lan ez zituela

agian bere gustuko. Eta jakin nahi nuke beste zenbat idazlek dioten antzeko zorra Azurmendiri. Horregatik nago hemen.

Ni ez naiz Azurmendiren lanean espezialista inondik ere. Ez daukat berak duen ezagupen filosofiko eta historikorik bere lana juzgatzeko orduan. Baina hemen niri inporta zaidana ez da Azurmendiren erudizioa; horretaz beste batzuk arituko dira ni baino ezagupen gehiagorekin. Azurmendik gerraondoko euskal belaunaldien pentsamenduaz eta subjektibitateaz izan duen testigantza interesatzen zait, gure azken mendeko hausturen lekukotasuna berak barnetik nola subjektibatu duen bere obran.

### **Arbola beltzaren poema**

Nire Adamen poema bidali nion urte berean, 1971n, Azurmendik bere poema liburu bakarra, *Hitz berdeak*, argitaratu zuen. Poemategi horretan agertzen da Azurmendiren sorrera idazle bezala, gero bizi eta aztertuko zituen haustura guztien genesisia. *Arbola beltzaren poema* da zaharrenetakoa bilduma horretan, eta Azurmendiren gaztetako barne giroa ondo erretratatzeko duena. Gordin esateko, hogeitertekin Azurmendi Arantzazuko fraidea da, laster profesia egitea tokatzen zaio, eta bere baitan fedea galdu duen atea sentitzen da. Adibideak edonon daude: «Ai, umetako fedearen/ sinismen bigun haren misterioa.../ Jaurtitzen zaitudan fede,/ amagandiko arnas triste,/ adio betiko./ Zurekin bizi naiz triste,/ areago menturaz zu gabe!/ Adio betiko, fede adiskide» (Azurmendi 1971: 54-55). San Joan Gurutzekoaren antzo, «Baso estua zehar/ [...] irten naiz etxetik/ Jainkoaren bila/ [...] Jainko ehiztari», baina ondorio desberdinean amaitzen da Azurmendiren ehiza: «Ni Jainko deika/ basoetan larri./ Deietan joan zait/ neukan fedearen/ azken izpi» (*ibid.*: 58-59).

Azurmendik Gandiaga poeta zuen lagun min Arantzazun, eta horrek zerbait harrigarria kontatzen du: Azurmendiren poemak irakurri ondoren, hain aurkitu zituen ausartak gaiez



eta formaz, «hordukoz gorde egin zitzala eskatu nion», dio Gandiagak, zeren poema «haiek agertzea fraileetan sartzeko eragozpen bihur litzaiokeala iruditu zitzaidan» (*ibid.*: 11). Alegia, fedea galdu duela errepikatzen duen poeta fraidetzarako ez zutela onartuko abisu ematen dio sen onarekin bere lagunak. Nola uler daiteke Arantzazuko fraide profesia egitera doan poeta gazteak, eta gero hiru hamarkadetan frantziskotar izaten jarraituko duenak, dirudienezko fede galtzearen aitoren horiek egiten dituela bere poesian? Fedearen fenomenologia ez da gauza sinplea; sarritan ez dakigu benetan zer sinesten dugun; sinestea eta fedea edukitzea ere ez dira berdinak: zuk sorginetan edo horoskopoetan federik ez izan arren, sinets dezakezu funtzionatzen dutela jende askoren esperientzian, zeugan ere bai inoiz agian. Fe-

tixismoaren formula oso da arrunta: «ondo dakit ez dela egia, baina hala ere...». Ordena sinboliko batean sinesten dugunean, erlijioan edo politikan edo edozein alorretan, amankomuneko fikzio baten partaide gara, eta ez daukagu ordena horren Beste handian sinetsi beharrik komunitatearen sare sinbolikoen konpromisoaren lotura bizitzeko. Sinesteak sarritan esan nahi du «suposatzen da sinesten dudala» (Zi-

zek 2001: 110). Azken batean, geure sinesmenetan sinetsi ala ez erabaki behar izaten dugu. Gure belaunaldiko bati baino gehiagori ateismoa suertatu zaio bere ekintzarik erlijiosoena, eta batek esan lezake pertsonaia adierazgarrienak kristau eta ateo zirela batera.<sup>1</sup> Azurmendi talde horretan sartuko nuke nik. Ernst Blochen hitzetan: «Ateo bat bakarrik izan daiteke kristau ona; kristau bat bakarrik izan daiteke ateo ona» (Bloch 200: viii).

Azurmendik  
gerraondoko  
euskal belaunaldien  
pentsamenduaz eta  
subjektibitateaz izan  
duen testigantza  
interesatzen zait,  
gure azken mendeko  
hausturen lekukotasuna  
nola subjektibatu duen

Gertakizun traumatiko bat dago poema hauen bihotzean, poetaren fede-galtzearekin zerikusi estua duena: hamalau urte zituela, lan istripu baten ondorioz, aitaren heriotza. Lehen koadernoko poemetan aita hilaren presentziak zirrara eragiten du: «Aita hil, aita hil. Aita/ hil dit Jaungoikoak./ Nola datorkidan/ gauez eguzkia./ Aita hil,/ Jaungoikoak aita./ Izar malkoak gauez/ zerutik behera./ Eta egunez euri/ eta gauez ilargi./ Zazpi urte dira/ hil zitzaidanetik./ Eta urtero berriz/ ta egunero berriz,/ ta gauero berriz/ ta berriz hiltzen dit» (Azurmendi 1971: 51).

Gure Aita omen den Jainko hori hiltzaile bihurtzen du poetak. 'Beltza' adjektiboak protagonismo berezia du: «Jainkoa beltza da» (*ibid.*: 45); heriotza ere beti «beltza» da; eta bere subjektibitatea deskribatzen duen poema, *Arbola beltzaren poema*. Gertakizun katastrofiko horretan aurkitu zuen Azurmendik bere konozimendurik intimoena, hizkuntzan edo sinboloetan kabitu ezin dena, lacandarrek 'erreal' deitzen dutena, ezinarekin batera trauma berekin daramana.

Baina hemen inporta zaiguna esperientzia traumatiko horrek Azurmendiren idazle genesian eta bere ondorengo obran eragingo dituen ondorioak dira. Espirituz frantziskotar eta intelektualki ateo, egoera horren jasanezina Azurmendiren suzko bataioa izango zen. Kierkegaarden bertsioan, Isaaki gertatu zitzaion antzekoa gertatzen zaio, baina aita eta semearen rola trukaturatuta. Azurmendiren Jainkoak aitaren sakrifizio esplika ezina eskatu dio semeari, eta horrek, gehiegikeria horren aurrez, fedea ukatzen dio: «Gero aita hil zen./ Harrez gero ez dit/ Jainkoak erantzun» (*ibid.*: 109). Erljioa madarikatzeraino iristen da une batean.

Baserrri munduko beste asko bezala, eskolatuak izateko seminario eta komentuetara eramana, Azurmendik Arantzazun ikusten du bere burua hogeigarren mende akaberako aro posterlijiosoan. Fededun edo fedegabe, irtenbide gabeko ataka ilunean dago poeta. Poema bortitz batek adieraziko du 'kate' bikoitz horren predikamendua, Letek kantu bihurtuko zuena: «Kate honek lotzen nau/ kate honek hiltzen nau,/ kate honen

gogorak/ nau ederragotzen./ Kate honen erpetan/ bizitza bizitzen,/ deabruzko fede hau/ luzaro sofritzen» (*ibid.*: 85).

Urte horietan ezagutu zuen Azurmendik Aresti Arantzazun; Arestik Azurmendiri dedikatu zion bere *Harri eta Herri*; bertako zenbait poema ere harentzat ziren; ematen du ondo ikusi zuela poeta bilbotarrak frantziskotarraren katea, zeren honako bertso hau darama poema horietako batek, Laboak kantatzen zituen lerroak barne: «Joxepe lagun maitea:/ Nun da zeruko atea?/ Kanta dezagun batea!/ Apur dezagun katea!» (Aresti 1969: 88).

## **Manifestu atzeratua: Euskal Herria eskribitzen**

Gure gurasoentzat ez bezala, irakurtzea eta eskribitzea oinarrizko gertatu zen gure belaunaldiarentzat, deskonbertitze modu bat, gure hasierako konbertsioaren antidotoa. Azurmendirentzat ere idaztea gertatu zen bizitzako zeregin inportanteena, erabaki oinarrizkoena. Deskonbertitze hori guztiz suntsitzailea zen, konozimenduaren eta nortasunaren hondakinekin konfrontazio mingarri eta luze bat. Sartrearen kasuan bezala (1964), ateismo berri hori ez zen egongune finko bat, prozesu eta proiektu bat baizik. Ez da berdina, hala ere, atea sentitzea Parisko unibertsitatean edo Arantzazuko komentuan. Esperientzia traumatiko horrek egin zuen Azurmendi idazle; ez du idatziko karrera bat aurrera atera nahi duelako, baizik eta bere demonioetatik libratzeko, bere arima eta bizitza arriskatuz aldakuntzak eta hausturak onartzeko, eta transformazio horien bidez gaztetako izaera eta sorterriari fideltasuna gordetzeko. Montaignek idatzitakoa aplikatzen zitzaion, «nik nire liburua adina, nire liburuak ni egin nau». Hogeigarren mendearen berezitasun nagusia *errealarenganako grina* dela idatzi du Badiouk (2007: 33). Gerraondoko euskal belaunaldiei ere ez zaie grina hori falta izan. Hemen kokatzen da Azurmendiren lekukotasun berezia, Euskal Herria helburu duena, baina betiere European jarritz bere talaiia.

Euskal subjektibitatea  
eraldatuko duen  
gertakizuna izango  
da Gernika eta gerra  
galtzea, eta gerra  
ostean ETaren borroka  
armatuak jarraituko du  
euskal subjektibitate  
hori moldekatzen

*Manifestu atzeratua* argitaratu zuen Azurmendik 1968an. Garai hartako sentimendu larria hor azaltzen da: «Gure herriak ez dauka kondairarik./ Pobreza da. Ez dauka/ pirata koxkor pare bat,/ langile sofritu batzuk,/ muga zentzuga-be asko,/ mila zorigaizto/ besterik. Ez da gutxi». Hala ere, bere ezerezean libertatea nahi du herri ukatuak, Lauaxetaren agindua jarraiki: «Dana eman bear jako maite dan askatasu-

nari». Sentimendu agoniko unamunianoa dago hemen azkenean, lehenago ere Salvatore Mitxelenari *Arantzazu* poeman erruz zeriona.

Euskal mendea diodanean, Gernikaren erreketarekin hasi eta ETaren akaberarekin amaitzen den aroa esan nahi dut batik bat. Eta mende horren paradigma zer izan liteke gerra ezik? Euskal subjektibitatea eraldatuko duen gertakizuna izango da Gernika eta gerra galtzea, eta gerra ostean ETaren borroka armatuak jarraituko du subjektibitate hori moldekatzen. Abertzaletasunak eta horren izeneko biolentziak bere erreakzioak sortuko ditu. Borrokaleku amaigabea izan den euskal mende hori eskribitzen saiatu da Azurmendi bere lan zabalean, betiere euskaraz, eta ez da harritzekoa bere obran ez dela falta samindura eta etsipena eta polemikaren haserririk.

Baina zein da liburu horiek bere gelako bakardadean idazten ari den autorea? Michel Leirisek idaztea tauromakiarekin konparatu zuen; idazle izatea, letretako gizona beste gabe, ez da aski; zeregin aspergarria da hori, arriskua falta zaio. Plazan zezenaren aurrean bakarrik dagoenaren antzeko izan behar du idazleak, bizitza arriskatzeko eta adarkadak hartzeko prest. «Idatzi beharrak beldurra ematen du», aitortzen du Azurmendik (1997: 12). «Euskal Herriak ez du bozkariorik ematen:

kixkali egiten du» (*ibid.*: 14), dio Gandiagaz ari delarik. Edozein orritan irakurriko diozu «krisia totala» aipatzen, edo «krisiaren –eta espezifikoki balioen krisiaren– gaia... poesian, nobelan, saioan eta polemika politikoan bertan», eta «gaur beti krisian bezala bizi gara», eta bide batez idazle horien erresistentzia ez dela «utopiaren dirdaitik bizi, desesperantzaren ilunetik baizik», eta antzekoak (Azurmendi 1998: 32, 67, 92, 69). *Krisia* da hitz ikurra. Hogeigarren mendearen azken urtean argitaratzen du liburua *Euskal Herria krisian* tituluarekin (Azurmendi 1999). «Ez ote du soluziorik herri honek?» (Azurmendi 1997: 123, 125), galdera egiten du. Hurrengo urtean beste saiakera batean erantzungo dio bere buruari:

Hondamendi honetatik irtenbide bakarra, geratzen diren hondarrekin birreraikitzen hastea izango dugu. Ezaguturik, Jainko zaharraren ondoren, jende askorentzat, Estatu modernoaren jainkotasuna ere hila dela. (Azurmendi 1998: 155)

### «Euskal Herriak ihes egin ote zion?»

Azurmendik gerra ondoko Euskal Herriaren egoera larriaz idatziko du aspergabe, idazle esankorrenak ikur harturik: Orixe, Mirande, Aresti, Nemesio Etxaniz, Txillardeggi, Gandiaga. Arantzazun bertan hamarkada bat lehenago oihartzun handiko idazlea zuen Azurmendik, eredu nahitaezkoa: Salbatore Mitxelena. Aprezio berezia izango dio Azurmendik, baina neurri bateraino bakarrik jarraituko dio. Unamunoren «sendimen trajikoa» Euskal Herriaren heriotza agoniari aplikatuko zion bete-betean Mitxelenak. Azurmendiren hitzetan:

Salbatorek pasio bat bizi zuen idazle gisa, kalbario bat... eta kalbario are gaitzagoa, bere bihotzean Euskal Herriaren kalbario guztia sofritzen zuenez. Bi kalbariook espresatzen zaizkigu Mitxelenaren obra guztian: *Guruzbidea*, *Erri bat guruzbidean*, *Confixus*... Arantzazu, euskal Golgota; Unamunoren sentimentu tragikoa; *Aberriak min dit*. (Azurmendi 1977: xxix-xxx)

Mitxelenaren kalbarioan, Gurutze Arbola Gernikako Arbola da.

Zer egingo du Azurmendik Arantzazun bertan jaso zuen tradizio agoniko horrekin? Azurmendi ere unamunozale izan da beti. Baina Mitxelenaren «esplosioaren» aurrez Azurmendik mirespena bai baina atzerapauso bat ere ematen du. Azurmen-direntzat lamara bat izan zen Mitxelena, beti *gauza bat* bakarra zuena esateko –Euskal Herriaren kalbarioa–. Puntu horretan Azurmendik eransten du: «Hortxe dago Mitxelenaren handitasuna. Beharbada hortxe ttipitasuna ere. Mugak behintzat» (*ibid.*: XL). Zergatik isiltzen da Mitxelena 1955 aldera, galde-tzen du Azurmendik. «Beharbada, sortzen ari den Euskal Herri berria, ez da ‘berrea’?». Urte horietan sortu zen *Egan* aldizkaria, eta erbestean *Euzko Gogoia*, baina Mitxelenak ez du aldizkari horietarako idatzi nahi. Ez al zen *Egan* diktadurarekiko konpromiso bat? Ez zen egokitzen Euskal Herri biktimaren iru-diarekin. Azurmendiren komentarioa gupidagabea da:

Euskal herria ez dago gurutzean: kalean dabil, edozein bezain zintzo eta edozein bezain petral; edozein bezain axolakabe eta fribolu, folklorez eta festaz, kalbario kontzientzia gutiz. Mirande, Txillar-degi, Aresti sinbolista, oso Mitxelenagandik urruti dabilta... Bizitza normalduz doa. Eta Mitxelenari, kalbariotik banaliterata pasatzea iruditu zitzaion, apika, gerratik normaltasunera iragatea...

Eta Azurmendi galdera horrekin gelditzen da: «*Mitxelenari bere Euskal Herriak ihes egin ote zion?*» (*ibid.*: XLI; azpimarra erantsia).

Baina, Mitxelenari eskainitako hitzaurrean, Azurmendik beste ohar bat ere egiten du, nahiko adierazgarria. Euskal Herri naufragoak Mitxelenari ihes egin bazion, Azurmendik ihes horren gaurkotzea dakar ondoren, juxtu Franko ondoren, 1977ko urte erabakigarrian, lerro hauekin konparaketa trazatuz:

Postfrankismo honetan euskal ezkerrari gertatzen ari zaiona: bazuen Euskadiren irudi bat, etsaiaren irudi bat, eta irudi honekin eraman du bere borroka urteotan. Ganbiotxo batzu, eta errealtateak ez dira gehiago irudi harekin guztiz egokitzen. Krisi gorria sortzen da. ‘Egunerokotasun’ berri batetara jarri behar. (*Ibid.*)

Alegia, berriro ere bere hurbilekoenei kritika egitera ausar-tuz, Euskal Herriak ezkerrari ere ihes egiteko arriskua zuela.

Galdera hori egiteko gai izan zen Azurmendi agian ondo ulertu zuelako gaztetan kristau ona izateak ateismora eraman zezakeela bat, eta Beste Handi delako bati gure bizitzako ezintasunen ardura botatzea errealitateari ihes egitea dela. Azurmendiren kritikak apuntatzen zuena, beste hitz batzuetan esateko, gurutze-bidea bera Mitxelenari pasio eta adikizio antzeko bat gertatu zitzaioa, gozamen ezkutu bat, agian. Modernian bizitzeko, sakrifizioa bera sakrifikatu behar dela diote gaur egun zenbait pentsalari ezagunek.<sup>2</sup> Horientzat, Hegelen «ukazioaren ukazioa» logikari jarraituz, sakrifizioaren sakrifizioa da ekintza etiko benetakoa. Hori egin zuen Azurmendik erlijioaren kausa sakratua sakrifikatu zuenean gaurkotasunean bizitzeko.

## Aitaren Etxea. Amaren Unibertsoa

Ezin ahaztu Arantzazun izan zuela Azurmendik bere lehen edukazio bitala. Gandiagari dedikatutako liburuaren lehen paragrafoan dio: «Bi historia diferenteegiak izan gara biok... baina biok Arantzazu izan gara, edo gara» (Azurmendi 2009: 5). Azurmendi poetaren patua izan bazen hogei urterekin Arantzazun ateo sentitzea, orain zahartzaroan Azurmendi filosofoaren egitekoa da postateistotik sakratuaren esanahia pentsatu eta hilzorian dagoen bere anaia frantziskotarraren bizitzari zentzu betea ematea. Hil aurretik Gandiagari bisita egiten dio, eta Azurmendik kontatzen digu nola Gandiagari «Arantzazuko paisaia errebelazio berri bat bezala agertzen zitzaion begien aurrean, halakoa inoiz ikusi ez balu bezala» (*ibid.*: 213). Baina Arantzazu, lehenik, jakina, Ama

Azurmendi poetaren patua izan bazen hogei urterekin Arantzazun ateo sentitzea, orain zahartzaroan Azurmendi filosofoaren egitekoa izango da postateistotik sakratuaren esanahia pentsatzea

Birjinari kultua ematen zaion tokia da. Arantzazu proiektzio bat dela dio Azurmendik, eta bertako basilika unibertso baten sintesia, pasarte honetan laburbildua:

Harriaren sendoa zut, zuraren beroa zehar, aurrean gora absidea, kreazioa etxe barruaren intimitatean bildua daukazu: ama, birjina. Arantzazuko basilikan unibertsoa zure etxe handi da – ‘amaren etxea’. (*Ibid.*: 208)

Baina bertoko bisitari Arestiren poemagintzako bertso ezagunena zein izan zen ondo dakigu: «Nire aitaren etxea defendituko dut». Gero Txillidak Gernikan erantsiko zuen bere eskultura, *Gure aitaren etxea*. Etxeak babesten ditu gure iraunkortasun ustearen imajinak, gure memoriak eta eguneroko ametsak (Bachelard 1969: 6, 8, 17). Euskaldunon imajinarioan etxe fundazional hori aitarekin bezainbat amarekin loturik egon da; Azurmendirentzat ere «aitaren etxea» Zegaman utzi zuen ama alarguna izan behar: Milosz poetaren hitzetan, «Nire ama esaten dut. Eta zutaz pentsatzen dut, oi, Etxea. Nire haurtzaroko uda ilun zoragarri haien etxea» (O. V. Milosz, aipatua in *ibid.*: 45); eta ez da harritzekoa Arantzazuko basilikari ere «amaren etxea» deitu diola.

Aresti aitaren defentsan altxatzen da hirurogeiko hamar-kadako haustura urte haietan, noiz eta aita izatea frakasoa bat zenean ideologia iraultzailean. Aita inpotentzia zen. ETarentzat aita inpotente hori PNV zen, eta lehenik aita hil beharra zegoen iraultzaile osoa izateko. Etxebarrieta anaiek Jose Antonio Agirre bera ere «xalo simplista»-tzat zuten. Azurmendiren Arantzazuko Jainkoa ere figura inpotente bat zen, poema honetan irakur daitekeen bezala: «Zu bezain ahaltsu banintza ni,/ Jauna, ez litzake munduan/ tristurarik izango, ez litzake/ ume itsurik jaioko,/ ez litzake maitasuna nekatuko,/ [...] eta ni Zu bezain ona banintza/ onago izango nintzake Zu baino/ [...] Ez zan mundu hau holakoa izango, ez» (Azurmendi 1971: 149).

Psikoanaliaren sorrera aitaren figuraren gainbeherarekin lotu izan ohi da. Neure aitari entzun nion: «gerraondoko



gizonok ez gaituk existitzen». Aita izatea azkenengo egitekoa zuten ETako mutil gazteek. Azurmendik bere autobiografiatik zekien ondo zer den aitaren ausentzia. Freudek parrizidioaren mitoa kristautasunaren egiturarekin lotzen zuen, non «gizonaren jatorrizko bekatua ziur asko Aita Jainkoaren aurkako bekatua den» (1980: 155). Dostoievskiren *Karamazov anaiak* nobelak eragin handia izan zuen Etxebarrietarengan eta gure belaunaldiko idazle askorengan; hor ere gertakizun nagusia parrizidioa da. Bai kristautasuna abandonatu, bai guraso derrotatuak mespretxatu zituen ETaren belaunaldiarentzat, parrizidio bikoitz hori gure barne munduaren erdian zegoen, kulpa inkontzientea sorrarazten; zama horretatik libratzeko modu nagusia autosakrifizio erlijioso edo politikoa zen. Deleuzek idatzi zuen: «masokismoaren formula ez al da aita umiliatua?» (2001: 64). Konfigurazio kultural horretan, maskulinitateak semearen rola hartzen du eta feminitatea amaren rolera proiektatzen da. Ordena simbolikoa (erlijioa, abertzaletasuna, familia) amaren ordena bezala esperimentatzen da: eta Ama da Semearen sakrifizioa exijitzen duena. Hortik Oteizaren Pietà enblematikoa Arantzazuko frontisean, Etxebarrieta gogoan zuela egina. Aita erabat ausente dago hor.

Salvatore Mitxelenak, Arantzazuko historia idaztean, izenburu hau aukeratu zuen: *Ama-semeak Arantzazuko kondairan*. Txillardegiren lehen nobela *Leturiaren egunkari ezkurtua*-n agertzen da Mitxelenaren sublimazio erotikoa erlijiosoaren bertsio politikoa. Leturia kulpante sentitzen da Miren abandonatu duelako. Mirenek gaixo larria du eta Leturiak egiten du promesa, Miren bizirik irteten bada, «Maitasunaz jautuko ditut nere pekatuak» (Alvarez Enparantza 1957: 138, 139, 142): Azkenean Miren hil egiten da eta Leturiak bere buruaz beste egiten du. Txillardegi ETaren sortzaileetakoa zen eta hasierako bere intelektual ezagunena; Azurmendirentzat euskal pentsalari hurbilenetakoa izan zen. Lehen nobela hori bere belaunaldiaren egoera subjektiboaren «lekukoa» zela aitortu zuen Txillardegik. Militante horiek emakumea

idealizaturik bakarrik onar zezaketen urte haietan. Hori da errealitatearen ihesaren beste dimentsio erabakigarria. «Euskal Herriak ihes egin ote zion?» galdera egitean, Azurmendik problematizatu egiten ditu Amaren idealizazio eta Semearen sakrifizioaren arteko kalbario harreman eta Pietà irudiak.

## **Amaiera: euskal pentsamendua eta Platonen Errepublika**

Azurmendiren Euskal Herria ez da inolaz erromantizismo koloretako betaurrekoz ikus daitekeena. Ez duzu sumatu-

Azurmendiren Euskal Herria ez da inolaz erromantizismo koloretako betaurrekoz ikus daitekeena. Nahiago du euskal politikari eta pentsamenduari gaurkotasun urgentziazkotik heldu

ko Barandiaranen tradizioko mitologiarik edo magiaz kutsaturiko paisaiarik. Nahiago du euskal politikari eta pentsamenduari gaurkotasun urgentziazkotik heldu.

Zer nolako mitologia politikoa dagokigun izan da, adibidez, euskaldunok zatitu gaituen esparru bat. Nazioa, estatua, soberania eta nozio politiko fundatzaile horien inguruan ikuspegi desberdinak izatea espero daitekeena da, eta Azur-

mendiren ekarria funtsezkoa izan da alor horietan. Baina, bestalde, Azurmendi bera izango da lehena aitortzen ezin dela ahaztu konozimenduaren paradigmak aldaketa handia jasaten ari direla.

Inoiz nekea edo haserrea sumatzen zaio Azurmendiri. Euskal Herriko Unibertsitatearen barruan egon den talka politikoa kontuan hartu beharko litzateke. Baina sakoneko arrazoi intelektualak ere ezin ahaztu: etikaren eta politikaren arteko kontraesan soluziogabeak, adibidez, edo bizitza pertsonal eta publikoaren arteko konponezinak. Bere aporia eta inplikazio guztiekin ere, Azurmendik garbi utziko dizu

bere tokia: «Gerraren –bortxaren– apologiarik egitea ez da inoiz nire lana izango» (Azurmendi 1998: 51). Baina Azurmendik bere lagun minenak torturatuak ikusi ditu hogeita batgarren mendean euskalgintzan lan egitearren, eta bera ez dago isilean gelditzeko, injustiziaren aurka borrokatzeko baikik, borroka ez «sinesten dugunaren alde, ikusten dugunaren aurka baikik» (Azurmendi 1997: 102, 1998: 54).

Ezer erakutsi badigu Azurmendiren obra osoak, pentsamendu dialektikoaren garrantzia izan da euskal munduak aurrera egin dezan, pentsamendua eta teoria inoiz baino beharrezkoago eta interesgarriago direla. Bere izena eramango duen katedra ezin zitekeen beharrezkoagoa izan. Euskal pentsamendu berri hori gauzatzekoan, Azurmendiren «Euskal Herriak ihes egin ote digu?» galdera izan daiteke hasiera modu bat. Galdera horrek beste galdera bat ezkututzen du niretzat: zein da euskaldunon benetako desira eta nola irakur dezakegu desira opako hori, hitzean bakarrik gorpuzten ez dena?

Amaitzeko: Platonen *Errepublika* da Azurmendiren mila aipamen filosofikoen artean irakur daitekeen bat, askoren ustetan Mendebaleko pentsamendu politikoaren urrats gorena den testua. Azurmendi gizon eta pentsalari zuzena dela ondo dakigu bera ezagutzen dugunok, eta Platonek hau dio gizon zintzoaz Sokratesen ahotik bere *Errepublika*-n: «gizonik onena eta justuena da baita ere gizonik zoriontsuena» (Badiou 2012: 297). Hemen eztabaidatzen ari garen autoreari ere, gizon apal eta idazle distirantari, euskarari, sorterriari eta bere lagun eta ikasleei leialtasun osoa azaldu dien maisuari, euskal mende hautsiaren testigu paregabe honi, amaitzeko nik ez daukat beste ezer esatekorik bere irakurleon izenean: lanean jarrai dezala, baina baita ere bizi dezala ondo merezi duen Platonen gizon justuaren zoriona, pentsalari egiazalearen poza. Ez dezala ahaztu Arestik beretzako idatzi zuen bertsoa: «Joxepe lagun maitea:/ Nun da zeruko atea?/ Kanta dezagun batea!/ Apur dezagun katea!». 🎵

### **Oharrak**

1. Hala argudiatu dut Bilboz egindako etnografian (Zulaika 2014). Hegelen pentsamenduari jarraiki, kristautasuna ateismo forma dela argudiatzeko, ikus Zizek (2012: 116).
2. Ikus, batik bat, Hegel eta Nietzsche jarraiki, Lacan, Derrida, eta Zizek; baita ere Kierkegaard, Bataille, Blanchot, Levinas, Kristeva eta Irigarayren obra (Keenan 2005).

### **Bibliografia**

- Alvarez Enparantza, Jose Luis (1957): *Leturiaren egunkari ezkutua*, Bilbo, Euskaltzaindia.
- Aresti, Gabriel (1969): *Harri eta Herri*, Bilbo, Kriselu.
- Azurmendi, Joxe (1968): 'Manifestu atzeratua', *Olerti* 3-4, 18-27.
- (1971): *Hitz berdeak*, Oñati, EFA.
- (1977): 'Salbatore Mitxelena bere lekuratzeko', in Salbatore Mitxelena: *Idazlan guztiak I*, Oñati, EFA, xxvii-lvii.
- (1997): *Demokratak eta biolentoak*, Donostia, Elkar.
- (1998): *Oraingo gazte eroak*, Irun, Luma Liburuak.
- (1999): *Euskal Herria krisian*, Donostia, Elkarlanean.
- (2009): *Azken egunak Gandiagarekin*, Donostia, Elkar.
- Bachelard, Gaston (1969): *The Poetics of Space*, Boston, Beacon Press.
- Badiou, Alain (2012): *Plato's Republic. A Dialogue in 16 Chapters*, New York, Columbia University Press.
- Bloch, Ernst (2009): *Atheism in Christianity. The Religion of Exodus and the Kingdom*, Londres, Verso.
- Deleuze, Gilles (2001): *Presentación de Sacher Masoch. Lo frío y lo cruel*, Buenos Aires, Amorrortu.
- Freud, Sigmund (1980): *Tótem y tabú. Obras Completas. Vol. XIII*, Buenos Aires, Amorrortu.
- Keenan, Dennis King (2005): *The Question of Sacrifice*, Bloomington, Indiana University Press.
- Sartre, Jean-Paul (1964): *Les Mots*, Paris, Gallimard.
- Zizek, Slavoj (2001): *On Belief*, Londres, Routledge.
- (2012): *Less than Nothing. Hegel and the Shadow of Dialectical Materialism*, Londres, Verso.
- Zulaika, Joseba (2014): *Vieja luna de Bilbao*, Donostia, Nerea.

# Feminismotik naziogintzara hurbilketa bat Azurmendi bidelagun

Idurre Eskisabel Larrañaga

*Kazetaria eta UPV/EHUko Kazetaritza II Saileko irakaslea*

## Nazioa feminismoarekin elkarrekinztan pentsatu beharraz (eta alderantziz)

«Berdin da aberriaz ari zaren edo maitemintzeaz, genero arauak dena zeharkatzen dute». Beste hainbat gauzaren artean horixe esan zuen Karmele Jaio idazleak joan den urte hondarrean (zehazki, 2019ko abenduaren 10ean) *Aitaren etxea* liburuaren harira ETB1eko *Ahoz aho* saioan Ilaski Serrano kazetariak egin zion elkarrizketan. Esaldi berean jarri zituen Jaiok aberria eta maitemintzea; esaldi berean eta elkarrekin harremanean. Ez da sarri gertatzen. Ez, behintzat, metafora epikoren batean maitemina aberriarenganako ez bada. Osterantzean, ondo bereizita agertu ohi zaizkigu aberria eta maitemintzea: auzi handien eremuko esaldietan lehen-dabizikoa; egunerokotasun txikiari lotuta bigarrena...

Nolanahi dela, gure jendardean asko pentsatu dugu aberriaz, nazioaz, herriaz...; komunitatea eta kolektiboa antolatzeke modu behinenez. Esango nuke, hain zuzen ere, aberriaz, nazioaz hainbeste pentsatzeak eraman gaituela gaur arte herri gisa irautera; oraindik ere, milaka jenderen gogoaren eta bizi praktiken bidez, egunero-egunero Euskal

Herria egikaritzera. Pentsatzeak, eta, jakina, egiteak –pentsatzea egiteko modu bat dela ahaztu gabe–.

Gainera, gogoeta-ekintza hori ez da linbo batean egin, baizik eta denbora eta leku zehatzean kokatuta: lurralde konkretuan iltzatuta eta garai bakoitzeko munduarekin elkarriketan nahiz eztabaidan; sasoian sasoiko pentsamendu ildo eta praxi politikoekin elkarrekintzan. Esaterako, nazio auziaren eta marxismoaren arteko harreman, gurutzaketa eta tentsioez zenbat ez ote zen pentsatu, idatzi eta egin hamarkada luzetan, bereziki joan den mendeko 60-70ekoetan eta 80koen hasieran.

Aldiz, feminismoarekin elkarriketan, elkarrekintzan nahiz eztabaidan oso gutxi pentsatu da nazioaz, aberriaz, herriaz –Euskal Herriko mugimendu feministaren zati batek landutako ildoak salbuespen–. Izan ere, aberriaz, nazioaz, herriaz pentsatu duten horiek ez diote feminismoari aitortu munduari –hau da garaian garaiko bizi baldintza eta jendarte harremanen antolaketari– osotasunean begiratzeko besteko kategoriarik; ideologia zutointzaile izateko gaitasunik. Ez diote aitortu mundua esplika dezakeen paradigma izaerarik. Aitzitik, albo (edo azpi) problematika baten pentsamendutzat eduki dute: *emakume* izendatutako *beste* partikularren kontutzat.

Baina Karmele Jaiok dioen moduan, gaur egun saihestezina zaigu ikustea generoak, sexu-genero sistemaren antolaketa zehatzak –eta hartatik eratorritako menderakuntzek– guztia zeharkatzen dutela: ohikotan eremu erabat intimoan kokatu eta kudeatutako maitemintzea bezala, baita eremu publikoaren goiko puntara altxatutako aberrigintza ere. Hau da, saihestezina zaigu mundua ulertzeko eta harekin elkarriketan eta elkarrekintzan aritzeko feminismoa aintzat hartzea. Batetik, hainbeste urtetan metatutako pentsamendu, ekintza, borroka politiko nahiz genealogia zabalak –eta horren denaren ondorioz bizi praktikan eragindako aldaketek– ukaezina egiten dutelako feminismoaren zilegitasuna ez ezik ezinbestekotasuna. Bestetik, azken boladan, munduaren

gure parte honetan, mobilizazio eta saretze gaitasun handienetakoa duen ildo politikoa dela erakutsi duelako, eraldatze ahalmenez betea.

Horrenbestez, egun, nazioaz taxuz pentsatu nahi bada, ezinbestekoa da feminismoarekin elkarrizketan pentsatzea. Eta feminismoak ezinbestekoa du nazio auziaz pentsatzea, baldin eta bokazio duen bezala ideologia eta praxi politiko emantzipatzaile holistikoa, orohartzailea izango bada. Are eta gehiago aintzat harturik askatze bide orohartzaile hori osatzeko bidean dekolonialismoa dela feminismoari lortu zaion azken barne ziztada. Funtsean, ardatz geopolitiko mendebaldar nagusitik bazterreko feministek (afrikarrek, asiarrek, latinoamerikarrek...)

feminismoaren ildo nagusiaren mendebaldezentrismoari egindako kritika zorrotza; besteak beste, estatu-nazio handi eta azpiratzaileen eredura moldatuta egoteari eta horien logikara egokituta pentsatu eta ekiteari. Orobat, feminismoak ezinbestekoa du nazio auziaz pentsatzea, kontuan izanik Euskal Herriko V. Jardunaldi

Egun, nazioaz taxuz pentsatu nahi bada, ezinbestekoa da feminismoarekin elkarrizketan pentsatzea. Eta feminismoak ezinbestekoa du nazio auziaz pentsatzea

Feministetan (mugimenduaren bat-egite ekitaldi nagusian) gai horri buruzkoa izan zela eztabaida handienetakoa.

Sen (eta kezka) horretatik abiatutako proposamena da honakoa: feminismoaren eta nazio auziaren arteko elkarrizketa eta eztabaidarako giltzadura batzuen zirriborroa. Eta, nola ez, gonbidapen bat hona dakarzkidan bateragune posibleez gainerako beste batzuk bilatzekoa eta bien arteko harremana zabaltzekoa. Niri dagokidan honetan, Joxe Azurmendi hartu dut bidelagun. Batetik, nazioaz eta herriaz pentsatzeko haren ildo aspaldidanik zaidalako oso iradokitzailea, eta, bestetik, haren muineko pentsamenduan sumatzen ditudalako pentsamendu feministaren hondoko itsaslasterren arrastoak.

Ildo horretatik, aurrera egin baino lehen ezinbestekoa zait Sandra Harding edota Donna Haraway pentsalari feminis-tek epistemologia garaikideari egindako ekarpena aipatzea: hots, ezagutza guztia dela kokatua, eta proposatzailearen testuinguruak (sexu-generoak, arrazak, jatorriak, klaseak, kulturak...) baldintzatuko duela. Hots, norberaren bizipen, sentipen, nahi eta helburuek.

Beraz, argi gera bedi proposamen hauen oinarria dela feminista eta abertzalea naizela. Alegia, emakume naizen heineko bazterketen bizipenek lagundu didatela jabetzen herri ukatuko eta hizkuntza azpiratuko kide gisa bizi izan ditudan hainbat bazterketaren nondik norakoaz, eta alderantziz. Hor loratu direla nire min politikoak, hor loratu direla nire borroka politikoak, eta hor loratu dela beste menperakuntza batzuekiko nire kideasun eta elkartasun politikoa.

## **Nondik gatoz, non gaude**

Herrigintzaren eta feminismoaren arteko egungo giltzadurak non egon daitezkeen ikusi aurretik, nago inportantea dela orain artekoan gertatu denari bistadizoa botatzea, ulertzeko nola gauzatu den bien arteko harremana, ezarian bada ere. Hori ulertzea ezinbestekoa begitantzen baitzait datorkeenari artez heltzeko.

## **Nola ikusi du naziogintzak, abertzaletasunak, sexu-generoaren auzia?**

Karmele Jaioren baieztapenera itzuliko naiz: sexu-genero sistemak dena zeharkatzen du, maitemintzea bezala, baita aberrigintza ere. Teoria feministaren eskutik oraintsu iritsi gara ideia hori nazio eta herriaren inguruko azterketa eta praxi politikora aplikatzera; hau da, ideiarene jabekuntzara, formulaziora eta aplikaziora. Baina gertakaria, nahiz eta ikusezin, hor zegoen lehendik. Beraz, sexu-genero sistemak betidanik eragin du nazio auzian aldaera bikoitzean: batetik,



eragin du aberria, herria, formulatzeko, eraikitzeko, eusteko eta iraunarazteko ibilbidean. Bestetik, eragin du ifrentzuan: herri, nazio edo aberri gisako zapalkuntzan. Bi ondoriotan laburbilduko nuke: 1) Nazioaren eraketa eta berriraketa prozesu etengabekoan beti egon dela eta egongo dela eragiten sexu-genero sistema. 2) Nazio zapalkuntza prozesuan etengabe egon dela eta egongo dela eragiten sexu-genero sistema. Baina, nola gertatzen da? Nola operatzen du prozesu horietan?

Miren Llona historialariak Euskal Herriko langile klaseak bere identitatea nola eraikitzen duen aztertzeko baliatutako ideia batetik abiatuta saiatuko naiz hurbilketa egiten. 'La construcción de la identidad de la clase obrera en el País Vasco. Género y respetabilidad de clase, dos realidades inseparables' artikuluan dio XIX. mende barrenean langile klasearen aurka genero eduki estigmatizatzaileak baliatu zituela klase ertain sendotzen hasiak harekiko diferentzia eta nagusitasuna markatzeko. Bizkaiko Meatzaldeko langileen gainean klase ertainetik egindako irudikapenak eta jaurtitako epaiak jartzen ditu adibide.

Finean, beren bizimodu eta bizi baldintzetatik abiatuta –jende kopuru handia aterpe berean bizitzen sexu bereizketa gabe eta familiara mugatu barik, domestikoez aparteko jardueretan aritu beharra...–, moralitate urri eta promiskuotzat epaitzen zituzten emakume haiek. Hau da, klase ertainak zedarritutako feminitate arautik erabat kanpokotzat. Gainera, epai horren bidezko genero estigma ez zen emakumeetara mugatzen, baizik eta, aldi berean, langile klaseko gizontasunak gaitzesteko –eta maskulinitate arau egokitik uzteko– bidea zen. Izan ere, klase ertainaren begietara ez ziren, batetik, emakumeen promiskuitatea eragozteko gai, eta, bestetik, hartaz baliatzen ziren. Azken buruan, emakumeak estigmatizatuz, langile klasearen sexu-genero sistema osorik jartzen zen ituan, gizatasunarekin baino piztiekin berdinduz. Horrenbestez, erraza zitzaion klase ertainari bere burua haien gainetik eta oso bestelako ikustea.

«Klaseen arteko muga eta hesi modernoan eraikuntzan genero eduki estigmatizatzaileen erabilera ohikoa izan da», ondorioztatzen du Llonak horretatik guztitik. Angela Davisen *Emakumeak, arraza eta klasea* liburuan ere jasotzen da no-

Klasearen eta arrazaren araberako azpiraketan ez ezik, nazio zapalkuntzan ere erabiltzen da sexu-genero estigmaren bidezko menderatze estrategia. Euskal Herrian badakigu zerbait horretaz

la sexu-genero estigmatik gaitzesten, gutxiesten eta azpiratzen diren AEBetako beltzak. Han ere, promiskuitatea emakumeak itsusteko eta, horren hurrenkeran, piztien pareko gizon deskontrolatuak.

Orokorrean, ausartzen naiz esatera gure zibilizazio men- debaldar-patriarkal honetan behin eta berriro saiatu eta frogatutako azpiratze estrate-

gia dela mendeen hartu beharreko kolektiboaren sexu-genero sistema gaitzestea. Promiskuitatea, piztiekin berdintzea, irrazionalitatearekin. Emakumeak bereziki estigmatizatzen dira gizonetzako ituan jartzeko, eta, funtsean, menderatutako kolektibo osoaren gutxiagotasuna eta ez-askitasuna agerian uzteko.

Beraz, klasearen edo arrazaren araberako azpiraketan ez ezik, nazio zapalkuntzan ere erabiltzen da menderatze estrategia hori. Euskal Herrian badakigu zerbait horretaz; pentsa nola irudikatu duten mendeetan hemengo biztanleen sexu-genero antolakuntza gure bertsio ofiziala idatzi duten Frantziaren eta Espainiaren begiek: sexu irriks neurrigabeak hartutako jende talde piztitua, Codex Calixtinusen jasotzen denez; deabruaren menpeko lizun diren sorginen lurraldea, De Lancre eta, oro har, Inkisizioaren arabera...

Balirudike iraganeko kontuez ari naizela erabat; baina, orainera etorrita, azken urteetako hemerrotekei begirada bat botatzea aski da ohartzeko emakume abertzaleen nolako irudikapena egiten duten Frantziako eta, batik batik, Espainiako kronista ofizialek: edo promiskuo/limurtzaile –Idoia

Lopez Riañoren bizkar eraikitako estereotipoa–, edo itsusi/mari-mutil –*las nekanes* izendatutako estereotipoan barne bildutakoak–. Batzuk zein besteak sorginak, nolana; feminitate arauzkotik urrunekoak.

Baina, hori hala bada, azpiratutako kolektiboak nola egiten dio aurre menperatzaileak ezarritako genero estigmari? Interresgarria da atzera Llonarengana jotzea: «Sailkapen gutxiesle horien kontrako erresistentzia planteamendu defentsibotatik egin da, eta horretarako bestelako genero erreferente sinbolikoak eratzea izan da zutoin nagusia». Aurrerago: «Klase identitate positibo bat eskuratzeko ohoragarritasunaren konkista ezinbestekoa izan da, eta horretan maskulinitate eta feminitate ereduak gurutzatzen dira behin eta berriz». Ildo horretatik, Meatzaldeko langile klaseak burgesiak egindako erretratu gaitzesletik oso bestelako irudikapena egingo du euren feminitate ereduaz, defentsiboki, errespetagarritasuna baitu xede. Baina, era berean, errespetagarritasuna klase ertainak markatutako balioetatik aparte eraikiko du. Llonak dioskunez, zehazki, aurrena *emakume indartsuaren* eredu eraikiz, eta, ondoren, *ama kontzientearena* –bata zein bestea ezarritako genero estigmatik aldenduak, baina, halaber, klase ertainaren feminitate hegemonikotik urrunekoak–.

Hari berari tiraka, abertzaletasunak nola erantzun dio nazio azpiraketarako baliatutako genero estigmari? Eratu al du sexu-genero sistemaren eredu propiorik, eta, batik bat, feminitatearenik? Baiezkoan nago; ezinbestean egin duela. Alde batetik, gaitzespenarekiko erreakzioan, defentsiboki, baina baita ere distintzioaren bila. Hau da, batetik, bere gaineko estatu hegemoniek itxuratutakoaren kontra, moralitate horren arabera bertutearen goia litzatekeen eredu bat sortu dutela emakumetasun egokia definitzeko: ama aratz, guztiz besteei emana, desira propiorik gabea... ia sortzez garbia. Bestetik, emakume indartsu eta langilea da, erresistentea, matriarkatuaren irudikapen asmatuzkoaren ildotik beregaina, ekintzailea, jarrera limurtzaile urrikoa... Horrenbestez, urrun geratzen da feminitate hegemonikotik.

Gainera, nazio auziak berekin du gatazka politikoa –garaien arabera adierazpen modu eta intentsitate diferenteetako, baina sakonean gatazka–, eta gatazka ezin da ulertu sexu-genero irudikapenik gabe eta sexu-genero irudikapena gatazka politikoaren eraginik gabe. Alde horretatik, nago harreman horrek feminitate eredu propioan sakondu egiten duela, besteak beste, nazio auziaren bizipena izan delako emakume asko feminitateari atxikitako eremu pribatutik publikora eramanduena, eta, horrenbestez, bestelako emakumetasun bat gorpuztera –adibidez, Emakume Abertzale Batzako mitinlariak, andereñoak, armak hartu dituzten emakumeak, askotariko praktika politiko eta erresistenteetara lerratuak...–.

Nazio auzi eta genero estigma dinamika hori etengabea da. Horren froga, asko ez dela, zehazki, iazko abenduaren 3an, Espainiako Kongresuaren osaketaren harira *El Mundo* egunkari espainiarrak webgunean plazaratutako argazki erreportajearen, sorgintzat (adiera gutxiesgarrian) jotzen zituzten EH Bilduko Mertxe Aizpurua eta Bel Pozueta, haien itxuratik abiatuta, us-tezko zatartasuna eta janzteko zein orrazteko trakeskeria nabarmenduz. Hots, feminitate arauzkotik kanpo egotea egotziz.

Laburbilduz, eta hasierako galderak berriro ekarrita, esan dezakegu nazio auziak sexu-genero sisteman eragin duenik? Eta, harago joanik, esan dezakegu abertzaletasunak hegemonikoa denetik aldentzen den genero eredurik eratu duenik? Baiezkoa erantzungo nieke galdera biei, eta, gainera, azpimarratu batak dakarrela bestea. Izan ere, zapalkuntza-erresistentzia dinamika bat da nazio auziaren muina, eta zapalkuntzarako erabilitako mekanismoetako bat da genero estigma (batez ere, emakumeengan zamatua). Erresistentziaren parte da estigma horri aurre egitea genero egokitasun eredu berriak eraikiz, eta, abiaburuan eredu hegemonikoaren arabera balioztatzea helburu izan arren, eraikuntza horren emaitza feminitate arau nagusitik aldentzen diren ereduak dira, hala nola emakume indartsu, erresistente eta beregaina. Nolanahi ere, ezarian eginiko ariketa da, eta askotan emakumeentzako ondorio emantzipatzaile urrikoa. Baina uste dut horren

gaineko gogoeta eta praktika feministetan sakontzeak eredu askatzaileetarako bide oparoa zabal dezakeela. Esaterako, azken urteetan ikusi dugun sorginaren birjabetzea adibide polita delakoan nago.

### **Euskal Herriko feminismoak nola irakurri du nazioa?**

Dударik gabe, naziogintza eta feminismoaren arteko harremana alde bikoa da. Beraz, feminismoak, eta, zehazki, Euskal Herriko mugimendu feministak –pentsamendua zein praktika denetarikoak biltzen dituen adiera zabalean– nazio auziarekin izan duen harremanari begirada botatzea ezinbestekoa da.

Zalantza, eta, horrenbestez, galdera honekin abiatu nahiko nuke hausnarketa: Euskal Herriko feminismoaren historia, kontakizuna, ulerkera, definizioa... ez ote da egin aurreko puntuan adierazitako nazio auzi eta sexu-genero sistemaren arteko harremana behar beste aintzat hartu gabe? Kontuan izan gabe herri zapalkuntza mekanismoetako bat genero estigma ezartzea dela eta horrek erantzun defentsiboak sorrarazten dituela, hala nola moral hegemonikoaren arabera-ko bertuteen esajerazioak. Halaber, saihestuz genero eredu berriak, bereziki, feminitate eredu berriak eratzen direla, hegemonikotik bestelakoak, baina, era berean, kontrahegemonikotik diferenteak?

Zehazki, honi buruz ari naiz: Euskal Herriko pentsamendu eta praxi feministaren ernamuina ildo politiko ezkertiar eta liberaletan –baina nazio auziari dagokiola ardatz frantziar eta espainiarretan– kokatzen ziren emakumeetara eta haien borroketara mugatzeaz.

Eta, bereziki, Emakume Abertzale Batzaren bueltan eratuta-ko mugimendu hura guztia feminista izendapenetik kanpo

Euskal Herriko  
feminismoaren historia,  
kontakizuna, ulerkera,  
definizioa... ez ote da  
egin nazio auzi eta  
sexu-genero sistemaren  
arteko harremana behar  
beste aintzat hartu gabe?

uzteaz, katolizismoarekin zuten loturagatik, eta, batik bat, estatuzko nazio handien logikatik egindako ezker-eskuin banaketa murriztailea aplikatzearen ondorioz. Hau da, Katalina Elizegi, Polixene Trabudua, Miren Etxabe edo Elbira Zipitriaren lana ez al du gu arlo honetan begi kolonialekin epaitu? Izan ere, Gayatri Spivak feminista dekolonial indiarrek edota Lolita Chávez K'iche herrikoak ohartarazi diguten bezala, kolonialismoak ez du dimentsio ekonomikoa soilik, baizik eta baita dimentsio epistemologiko eta kultural sakona ere: nor izate indibidual zein kolektiboen eraikuntzarekin, eta hartatik eratutako kontakizunekin zuzen-zuzenean lotuta dagoena. Uste dut, emakume horiek denek indibidualki eta kolektiboki ordezkatzen duten guztiak merezi duela berrikuspen bat.

Garai hurbilagoetara bagatoz, agerikoagoa da feminismoaren eta naziogintzaren arteko harremana. 60koen amaieran eta 70ekoetan, munduan bezala Euskal Herrian ere feminismoaren indartzea eta gaur eguneraino iritsi zaizkigun ideia eta eztabaida ardatzen egituratzea gertatzen denean, laster sortuko da nazio zapalkuntzaren auzia feminismoaren arazo muinezkotzat hartuko duen mugimendu feministaren ildo. Marxismoarekin elkarrizketan ordurako guztiz presente zegoen mugimendu abertzalean zapalkuntza bikoitzaren ideia –hau da, nazio zapalkuntzaren eta klase zapalkuntzaren uztarketa–. Mugimendu feministaren ildo horrek aurreko biei ‘emakume izateagatik zapalkuntza’ erantsiko die, eta, horrenbestez, zapalkuntza hirukoitzaren formulazioa ekarriko du. Gaur arteko bidea egin du adar horrek azken hamarkadotan, garaian garaiko egoera soziopolitikora egokituz eta pentsamendu ildo berriak bere eginez; eta, esaterako, zapalkuntza hirukoitzaren ideia askotariko zapalkuntzen intersekziora eramanez du.

Nolanahi ere, Euskal Herriko mugimendu feminista ildo hori baino askoz zabalagoa da; are, oro har, nazio auziaz oso ikuspegi diferenteak barne biltzeaz gain, mugimenduari zati handienarentzat gai hori erdigunean jartzea ez da lehentasunezkoa izan. Dena den, ausartzen naiz esatera mugimenduari gehiengoak sentiberatasun berezia izan duela

auzi horren zenbait adierazpiderekiko, hala nola hizkuntza gatazkarekiko, gatazka armatua parametro politikoetan uler-tu eta konpontzearen alde zein erabakitze eskubidearekiko.

Baina, hala eta guztiz, esango nuke feminismoaren uler-keraren muinean nazio auzia jarri dutenen ildoak urgentziak eta bakardadeak ezaugarritu dutela: gatazka armatutik era-torritako larrialdiek auzi hori lehenestera ez ezik ia bakartzat hartzera eraman dituela hainbatetan, eta, gainera, bakarrik sentitu direla sarri mugimendu abertzalean, eta, bakarrik, halaber, mugimendu feministan.

## **Azurmendi eta feminismoa**

Abiaburutik adierazi dudana asmoa da feminismoa eta nazio-gintza elkarrizketan eta elkarrekintzan jartzea. Honezkerok, atzera begirakoa egitean, agertu dira dialogo horren parte izan daitezkeen giltzadura batzuk. Abiaburutik adierazi dut, halaber, Azurmendi hartuko dudala bidelagun ahalegin horretan. Ez da hutsetik sortutako hautua. Izan ere, nazioaz hausnartzeko pentsalari iradokitzaileenetakoa zait Azurmendi, eta, gainera, hari irakurri eta aditutakoei behin baino gehiagotan helarazi dute nire gogamenera pentsamendu feministaren zenbait ekarriren eta pentsalari feministaren oihartzuna. Esaterako, gizabereak edota komunitatearen ezinbestekotasunaren aldarriak.

Lehenari helduta, Azurmendik gizakiaz duen ideia, aberetasunaren azpimarra, ezarian lotzen da nire burmuinean teoria feministak, hainbat pentsalariren emariaren bidez, giza kondizioaren ulerkerari egin dion ekarpenarekin. Izan ere, Azurmendirentzat aberea da muinean gizakia, hori du ezaugarri behinena. Aberetasunak ematen dio taldekoitasuna, kooperaziorako gaitasuna, eta aberetasunak ematen dizkio, halaber, hiztuntasuna eta raziointasun gisa ulertzen den adimena. Hau da, banaezinak dira aberetasuna eta raziointasuna. Bat dira. Ez da dualismorik. Are eta gutxiago hierarkiarik. Oso urrun dago, beraz, modernitateak eraikitako

gizakiaren eredutik: guztiaren gainetik razionala den gizon horretatik, ia gorputzik gabeko –edo, gutxienez, erabat gorputzaren gainetik– dagoen gizon horretatik –kasu honetan zilegi bekit gizaki gizonekin ordezkatzea, eredu horretan gizona delako gizatasunaren patroia–.

Esan bezala, ezinbestean, humanoon gorputzasuna azpimaratu eta erdigunera ekarri duen teoria feminista oparoaren doinua sumatu dezakegu Azurmendiren gizaberean. Gorputza erdigunean jartzea, besteak beste, aberetasunaren azpimarra baita, edota arrazoimenarekiko dualismoa eta hierarkia ezabatzea. Gorputza erdigunean jartzea da lan produktibo

Bereziki iradokitzailea  
egiten zait Azurmendiren  
abere hitzun eta  
taldekoiaren eta Judith  
Butlerren gorputz  
performatzailearen  
arteko lotura ikustea:  
izatezko aberetasuna,  
gorputza, hizketarako  
gaitasuna

eta erreproduktiboaren arteko bereizketa eta hierarkia ezabatzea, edota espazio publiko eta pribatuaren arteko banaketa auzitan jartzea.

Horrenbestez, gizaberea pentsalari feminista askoren proposamenekin harremanetan jar daiteke, baina niri bereziki iradokitzailea egiten zait Azurmendiren abere hitzun eta taldekoi horren eta Judith Butlerren gorputz performatzailearen arteko elkarrizketa, zeinak etengabeko performan-


ce horretan eraikitzen duen bere izatea, dena: gizatasuna. Edo, beste era batera esanda, bien arteko lotura ikustea: izatezko aberetasuna, gorputza, hizketarako gaitasuna. Eta hori guttia taldera emana, taldetasun eta talde arauetara, aberetasun eta gorputzasunetik behin eta berriro errepikatuzko –tarteka apurtzeko– nor izatera heldu arte. Funtsean, gizabere bat taldean osatzen dena; hizkuntzaren bidez eta taldearekin elkarrekintzan egiten dena nor.

Halaber, zeinen ondo uztartzen den Butlerren performantzia, etengabeko egitea, Azurmendiren nazio kulturalaren



proposamenarekin, zeina egitate amaitu eta finkotik urrun, praxi kolektibo etengabekoa den, dinamikoa eta berritzailea.

Edo iradokitzailea zait baita ere Butlerrek berak, edota Paul B. Preciadok, modernitateko gizon jainkotu autonomo eta autoaskiaren eredu suntsitzaileari aurre eginez azpimarratutako sortzezko zaurgarritasuna nola lotzen den Azurmendiaren gizabere kooperatiboarekin. Nola lotzen den ideia hori zaintzaren utopiarekin; nola ezinbestean komunitatera jaio eta bertan egiten den gizaberearen kooperazio derrigorrezkoa, funtsean, zaurgarritasunaren onarpena eta zaintzaren aldarrikapena den.

Pentsa zume horietatik abiatuta orain arte ibilitakoetatik zeinen aparteko bideak zabaltzen zaizkigun nazioa, aberria, herria... pentsatzeko eta egiteko. Gorputz autoaski eta militarizatuak beharrean, zaurgarritasuna eta elkarren beharra dakarzkigun gorputz indibidual zein kolektiboen ikuspegia: haur gorputz, zahar gorputz, gorputz eri eta ezinduak aintzat hartu eta erdigunean jarriko dituen. Gizaberetasuna bere gordinean. Taldetasuna berezko, ezinbestean. 

## **Bibliografia**

- Agirre, Lorea; Eskisabel, Idurre (2019): *Trikua esnatu da. Euskaratik feminismora eta feminismitik euskarara*, Zarautz, Susa. *Lisipe* bilduma 7.
- Azurmendi, Haritz (2019): 'Joxe Azurmendiaren abertzaletasun kulturala', *JAKIN* 233-234, 215-240.
- Azurmendi, Joxe (2016): *Gizabere kooperatiboaz*, Donostia, Jakin. *Jakin Irakurgaiak* bilduma 47.
- Butler, Judith (2018): *Genero nahasmendua. Feminismoa eta identitatearen subertsioa*, Andoain eta Donostia, Jakin eta Elkar. *Eskafandra* bilduma 4.
- Llona, Miren (2006): 'La construcción de la identidad de clase obrera en el País Vasco. Género y respetabilidad de clase, dos realidades inseparables', *Vasconia. Cuadernos de historia-geografía* 35, 287-300.
- Preciado, Paul B. (2013): 'Historia política de un cuerpo: asedio, incendio y reconstrucción'. Hitzaldia: San Telmo Museoa, Donostia, 2013-08-23.

# Mamu, momia eta zonbiak. Bizi osteko biziak

Eduardo Apodaka Ostaikoetxea

UPV/EHuko Gizarte Psikologia Saileko irakaslea

## **Volksgeist-a irudikatze ariketa gisa**

Joxe Azurmendiren *Volksgeist - Herri gogoa. Ilustraziotik nazismora* liburuaren hitzaurrean, paragrafo hau irakur daiteke:

Ezaguna da, orobat, kontzeptuak ernatzen direla, esan zuela jada Herder-ek (eta geroago, Nietzsche-k, eta lehenago Voltaire-k...). Gerta liteke, beraz, zientzian kontzeptua jada desbaliatua egonik ere, metaforak baliagarri eta eder izaten jarraitzea, zientziak erreminta bezala beretzat hartu izan baino lehenago bezalaxe, gero ere. Esaterako, herriaren izpiritua hizkuntza dela; euskara Euskal Herriaren arima, euskal herri gogoa. Zergatik ez? Metafora bikaina da. Kontua da, hori esaten dugunean, zer esaten dugun jakitea –metafisikaririk gabe: <metá phorá> («pherein») ez da <metá physiká>.

Egite eta izate aldakorretan barna, metafisikaririk gabeko metafora irudikatze immanentea baino ezin da izan, historian luzatu edo berrikitan hasi den irudikatze ariketa sortzailea. Irudikatua sortzen duen irudikatzea. Euskara izan da, nire ustez, Euskal Herriaren metafora hori, irudikatze ariketa hori, esan nahi dut. Luze jo duena, modu askotara eta egoera arrunt diferenteetan izan dena. Tautologia inozoari eutsita, esango nuke euskara barik inoiz inork ez zuela Euskal Herria izeneko entitaterik irudikatuko. Izan, ez da berezko Euskal

Herri hutsik, *Euskal Herriaren irudikapena eta antzezpena* baizik. Aspaldi kutsatu zion izena euskarak lurralde eta jendeari, eta metonimia hartan sortu zen Euskal Herria. Bistan da, hiztunen hitzetan sortzen dira metonimiak. Hitzen kontzientziari darion herria da Euskal Herria; handik dator, bestelakotua izan bada ere. Ariketa horren espirituak biziarazi du Euskal Herria, hau da, bildu ditu hainbat jende elkarte imajinatu horretan.

Herria irudikatu beharra dago; beti. Irudiak edo sinboloak behar ditugu izate kolektiboak gauzatze aldera (ez naiz hasiko objektu sozial orok horrelakoa behar duela esplikatzeko, ez dut hartarako tarterik). Tesi aski ezaguna da: jendea bildu, antolatu, koordinatu eta elkarlanean aritu, hori dena ezin da egin izate kolektiboa irudikatu gabe. Areago, *herri* kontzeptua sartuz gero; herri guztiak dira *izate sozial* zenbait erantsitako irudikapenak, efektuak dituzten efektuak. Castoriadisek biribilago esan zuen «*l'institution imaginaire de la société*» hizpide zuela: *ez dago gizarterik mundua irudikatu eta mundu hartan bere burua irudikatu gabe iraun lezakeenik*. *Gizartea* irudimen sortzailearen efektua da (*imaginaire* beharrezko funtsik gabekoa da, irudikatze sortzaile eta askea), baina, era berean, *gizartea* irudikatze-eremu gatazka-tsua da (Castoriadis 1997).<sup>1</sup>

Herria ez da jende multzo soil bat. Herria jende artean antolatu eta agerrarazi behar den harreman eta jokaera logika bat da. Sentitzera eta aditzera eman beharreko izate bat. Erreala izan dadin, eta jendea *gu herria* esan eta sentitzen has dadin, herria figuratu eta sentigarri egin beharra dago (Didi-Huberman 2014).

Herri oro da poligenetikoa, baina aldi berean jatorri mitiko baten pean bildua (jatorria historiko edo transzendental moduan aurkezten den arren, *izaera biltzaile* bat irudikatzea eta gauzatzea dena, eta horregatik ere batzuetan patu, etorkizun edo potentzialtasun moduan agertu ahal den jatorria). Modu asko daude, nola ez, herria irudikatzeko edo figuratzeko. Modu asko ere, irudikapenak jendearen sentimen, adimen

eta harremanetan ezartzeko. Askotariko jende desberdinak *batu* eta *ordezkatu* ahal dira aginte-irudi baten mendean; edo hainbat figura edo irudi erabili ahal dira jende horiek hainbat lotura edo harremanetan *nor komun* bat direla sentiarazteko. Azken ariketa horri deituko nioke *herri-gogoa* edo *herri-sentiera*, zehazki *Volksgeist*-a ez bada ere. Euskara halako ariketa izan da, estiloa baino praktika, baina zentzu berezia eta bereizgarria hartu zuen praktika, sentigarri eta adierazgarri bilakatuz. Gaur iduri luke Euskal Herriak ez duela euskara behar, neurri handi batean euskara gorputz-adar mamua da, anputatuta ere sentitzen den adar horietako bat; erdal identitatearen normaltasunean balio apurra du, praktika bainoago, sinbolo edo ikur gisa.

Rosi Braidottik (2003) egindako bereizketa bat egokituko dut hemen: *identitatea* pentsatu eta sentitu ahal da *hor-den-zer-bait* irudikatzen ari delako ustetan; *diferentzia subordinatuak* bestela figuratu behar dira, *diferentziek* metaforak baino figurazioak behar dituzte, irudimen ariketa ausartagoak, norakoa erakutsi eta efektu praktikoak izan behar dituzten bizi-mapak behar dituzte.<sup>2</sup> Horrela, tarte handia dugu identitatea *irudikatzen* *diferentziek* behar duten sorkuntza eta eraldaketa *figuratzer*a: ondo bermatuta eta ezarrita den hartatik izateko ahaleginetan ari den horretara, hegemonikotik subalternora doan tarte. Tarte eta tentsio horri buruz egin nahiko nuke gogoeta herriaren bizitasuna ardatz hartuta. Zehatzago esan, euskal herriaren bizitasuna nola irudikatu den ikuskatu nahiko nuke, eta segituan egungo egoera ulertzeko erabilgarri izan daitezkeen figurazio batzuekin lotu.<sup>3</sup>

Herria irudikatu beharra dago; beti. Irudiak edo sinboloak behar ditugu izate kolektiboak gauzatze aldera. Jendea bildu, antolatu, koordinatu eta elkarlanean aritu, hori dena ezin da egin izate kolektiboa irudikatu gabe

## Agoniaren argi-ilunak

Belaunaldi berri bakoitzak begi berriak ekartzen ditu. Guk gure gogoeta egin genuen, gure terminoetan, eta orain termino berrietan egiten da gogoeta hori [...] Guk euskal kulturaren agoniaren sentimendua genuen (agoniaren adiera unamunotar agresiboan hein batean). (Azurmendi 2010: xxvi-xxvii)

Noiz hasi zen Euskal Herriaren eta euskararen hiltzoriaren kontzientzia? Aspaldikoa izaki, xix.ean ondo esplizitu egiten da modernizazioarekin batera, hau da, mundu bazter honetan nazio-estatua eta kapitalismoa (industrializazio eta urbanizazioa) ezartzearekin batera kontzientzia hura agerikoa egin da. Modernizazioak euskal herria (euskal jendea esan dezagun) desagerrarazi beharko zuen. Ospetsua da, esaterako, 1867an Jacques Élisée Reclusek idatzi zuen artikulua: 'Les Basques, un peuple qui s'en va'. Ameriketarako migrazioak zituen hizpide, eta nola migrazioaren kariaz, Euskal Herria ahuldu eta desagertuko zen. Kausak nahi beste, ondorioa herriaren heriotza. Modernian, badakigu, ez dago *euskal* izaterik, baina bada *basco* edo *basque* izatea, eta aukeran bada agoniari aurre egitea modernizazio propioa asmatuz.

Halatan, Euskal Herria eta euskara, batera, hil-urren den ama baten antzera irudikatzen hasi ziren. Gogoangarri, Felipe Arrese Beitiaren 1879ko *Ama euskeriari azken agurra*: «Ama-txo zuaz illtera/ Zori gaiztoan negargarri ta/ Dot sentimentu andia,/ Geure lur maite dakustalako/ Gaztelatuta jarria...». Eta geroago, Lizardirenak, edo Xalbadorrenak...<sup>4</sup> Agonia aski luzatu zen. 1967ko *Azken Euskaldunaren Heriocea* poman, Gabriel Arestik (1984 [1967]) 2000 urtean datatu zuen heriotza: «*Euzkadi madre mía/ no puedo quererte/ Pues solo me prometes sufrimiento y muerte/ Mas sufriendo y muriendo/ he de defenderte/ A golpes de un martillo/ vigoroso y fuerte*». Luzamendu horretan, agoniaren sentimenduak bat egin zuen erromantizismo berantiarizat jo dezakegun existentzialismoarekin.<sup>5</sup> Esentzia gabeko existentziaren erronka eta borroka nagusitu zen. Agonian, gogora dezadan, minarekin

batera, biziaren hauskortasunaren sentimenduarekin batera, borroka dugu, *agon* delakoa.

Esentzia ez da existitzen. Guk existentzia daukagu. Libre gara gure existentziarekin zer egin erabakitzeko. Libre gara, baina baldintzatuta gaude: zirkunstantziek baldintzatzen gaituzte. Daukaguna ez da gure izaera, baizik eta gure egoera. Eta egoera baldin bada, aldatu liteke.

Hala sintetizatzen du existentzialismoaren mezua Simone de Beauvoirrek. Egoeratik izaerara, libre gauzatutako izaerara. Esentzia gauzatze itsutik hautazko existentzia larrira jo beharra dugula dio existentzialismoak, eta bide hartatik eta esentzialismo tradiziozalearen kontra aritu ziren hainbat idazle eta pentsalari, helburu berritzaile bat zutelarik: euskaldunak *modernizatu*, Euskal Herri *moderno*a gauzatu (alegia, nazio-estatuaren mailara eroan). Hori dena frankismoan, giro itogarri, ilun, esperantza eskasekoan. Euskal Herria bazen, «*Il y a un peuple basque [...] il n'y a plus, aujourd'hui, que des masses françaises*», esan zuen Sartrek (1971),<sup>6</sup> baina hantsik gabe ahitzen ari zelako kontzientzia zuten gazteek, eta herria hiltzen zuenaren kontrako borrokari ekin behar ziotelakoa ere bai.

Agonia herri etnikoaren agonia zela esan genezake Azurmendirekin batera.<sup>7</sup> Sentimendua handik zetorrela, nolabait, konstatatzen ari zena «jatorriz euskaldun izandako herriaren heriotza» zela; euskal herri etniko *naturala* ari zen hiltzen. Eta konponbidea modernitatearen moldeetatik zetorren, antolakuntza eta kontzientzia politikotik, nonbait. Izan ere, modernitatean horrela irudikatu da herriaren bilakaera, hegeliar zentzuan: substantziak subjektu bilakatu behar zuen, herriek estatu izatera heldu behar zuten. Partikularitasunak gainditu unibertsalean. Euskal modernia bat behar zen, kontraesana zirudien arren. Herria bestela irudikatu beharra zegoen, hiltzera zihoan amaz gain, herria *aitaren etxea* izango zen, eta, horretara jarrita, *harrizko gogoa* ere bai. Kontzientzia hartuta, subjektu burujabe bilakatuko zen harria.

## Espiritu barik, espektro

Agoniaren sufrikarioak bi modutara amaitzen dira: heriotza eta suspertzea. Badira, izan ere, suspertze geldo eta gaixotasun kronifikatuak eta hautemangaitzak diren heriotzak. Hala jarraitzen du arestiko aipuak:

Guk euskal kulturaren agoniaren sentimendua genuen (agoniaren adiera unamunotar agresiboan hein batean); orain Mitzelko Urangak «euskal kultura hilik dago» botatzen digu, hasteko. «Ez dago jada euskal kulturarik, ez dago euskal kultura gorpuzten duen mazarik [...] Ez dago jada euskaldunik, espektroak bilakatu dira».

Sadomasokismo existentzialari heriotzak jartzen dio muga. Baina zer ote dugu: sekula bukatuko ez zen suspertze modernistaren ezintasunaren onarpena? Heriotzaren onarpen etsigarria? Ironia eta arrotze postmodernoa?<sup>8</sup> Dena dela, heriotzaren onarpena ez da Urangaren atrebentzia, lehenago bati baino gehiagori otu zaio heriotza agiria eman eta autopsia egin beharra zegoela (Izagirre 2010). Urangak berak (2010: 105), adibidez, Iñaki Seguirolaren hitz hauek jaso ditu:

Gaur egunean –zertarako ibili gezur politekin?– ez dago *euskal herririk* [...] Euskal Herriarekin sinesteak adierazten duena da hori gutzia sineskizun bat dela, ikusten (edo entzuten) ez den zerbaitetan sinestea, ez den zerbait badela.

Mamuaren zantzuak: ezin-izaki bat, sineskizuna, ez den zerbait (edo okerrago dena, «izango dela uste izatea»)<sup>9</sup>

Urangaren trilogiaren izenburua, *Espektroak*, Marx eta Engelsen *Alderdi Komunistaren Manifestua*-ri lotzen zaio. *Espektroak* izan behar omen zuen komunismoa iragarri zuen manifestuaren izenak, jakina da espektro asaldaria zein zen: *Mamu bat dabil Europan barrena, komunismoaren mamua*. Mamu hori gorabehera, Marxek ez zituen espektroak maitate. Sutsu aritu zen Stirnerren mamuen kontra, eta zer esanik ez kapitalismoaren ‘fetitxeen’ kontra. Agian horregatik lan batzuetan espiritu (*Geist*) eta espektroa (*Gespenst*) bereizi zituen (Derrida 1993: 174-175). Erraz uler dezakegu

*iraultzaren espiritua* eta *iraultzaren espektroa* ez direla berdinak. Espiritua biziari dario, espektroa heriotzari. Aurrena, izate eta egitearen arnasa da, *spirare*, *espektroa* materia batean islatzen den biziaren haraindiko erretroproiekzio bat. Espektroa agerpen birtuala da, ilusio engaiatuaren desira-gaia, norbait edo zerbaiten irudia, edo, hobe esan, zerbait edo norbait zeina irudia den bakar-bakarrik, zeina bakarrik ikuskizuna izanik izan daitekeen.

Derridak zioen moduan, espektroa esan ezinezko zerbait da, *zeraren* bat, materia bitartekari baten bidez agertzen den irudi asaldaria... (*ibid.*: 26). Euskal zera ere hil osteko espektroa, espiriturik gabeko agerpen hutsa bide da. Hala ere, nori agertzen zaio espektroa? Nor asaldatzen eta eragiten du? Nolatan, zer dela-eta sentiarazi ahal dio inori ezer? Eta euskal zeraren espektroa nori agertzen zaio? Beharbada espektrotasuna ez da euskal zeraren izaera soilik. Espektroa ikuskizuna bada, publiko jakin bat hunkitzen duen agerpena bada, beharbada, *ikuskizunaren gizartean* eta *ikuskizun saretuetan* izaera espektral eta espektakularra izateko modu bakarra da.

Ikuskizunaren atzean  
zeinuaren magia dago,  
Marxek merkantziari  
antzeman zion magia  
bera: fetitxismoa.  
Espektroak halako  
magiaren ondorio dira

## **Espektakulua eta truke-balioa: momien aroa**

Ikuskizunaren atzean zeinuaren magia dago, Marxek merkantziari antzeman zion magia bera: fetitxismoa. Espektroak halako magiaren ondorio dira: publiko batek zerbait signifikatu ostean euren praktikan gauzatu eta hori dena euren lana dela ahaztuta jaiotzen dira espektroak. Horrela hasi ahal dira espektroak berezko logika garatzen eta publikoen gainetik bizitza arautzen. Hori da, hain zuzen, ikuskizunetik kapital hutsera, finantza-kapitalera topatuko dugun logika.



Kapitalismo postfordiarraren finantzarizazioak kapitalaren autonomia ekarri zuen, edo gauza bera dena, fikziozko balioaren nagusitasuna (horrela kapitala bere forma betetzera heldu da: kapitala bere burua kapitalizatzen duen fikziozko balioa da). Kapitalismoak bizi-balio konkretu eta singularrak menderatu ditu, balio abstraktu eta bakarra ezartze aldera; edozeren azken balioa, benetakoa, kapitalizazio balioa da (balio al du, esaterako, euskarak gehiago irabazteko, kapital gehigarria al da?). Zioen Marxek: «erabilera balioa lan bizia da»; orokortuta, *bizitzaren lana* esan liteke, alegia, bizitza sozial eta sinbolikoa den aldetik egin behar dugun lan komuna, «komun(ikazio) sozialak eta sinbolikoak» izan daitezten.

Kapitalaren abstrakziorako bidean, beraz, bizitzaren kapitalizazioan, immaterializazio orokorra gertatu behar zen goiz ala berandu: finantzarizazio orokor bat. *Kapitalaren muina ez zen, ez da, erabilera-balioa banpirizatzen duen truke-balio bat, bere buruari errenta handiagoa eskatzen dion truke-balioa baizik, hau da, truke-balio hutsa.*

Hala ere, finantza-kapitalismoak, eta truke-balioaren nagusitasunak, erakutsi digu erabilera-balioa mistifikazio bat zela; gauzek ez dute erabilerarik berez, harreman sozialetan hartzen dute balioa testuinguru jakin batean. Egiazko balioa beti da truke-balioa, ez, ordea, merkantziaren truke-balioa, kapitala eta kapitalizazio-balioa (hori ere mistifikazio abstraktu bat, ekonomia deritzonaren buruaskitasunari dagokiona). Egiazko truke-balioa, lehendabizikoa, bizitzaren produkzio komunean dago, bizitza kolektiboa egituratzen duten truke sinbolikoetan, hain zuzen. Horrela, egiazko truke-balioa bizimodu komunitan sortzen diren sentiera, praktika, objektu edota esangura komunitan dago; hitz batean, egiazko bizi-balioa bizitzari darion espiritua da. Eta ikusi dugun moduan, espirituaren arrago nagusia komuna irudikatzea da. Zer gertatu zaio, beraz, komuna irudikatzeari 'kapitalismo berantiar' honetan? Zer gertatzen ari zaie komuna irudikatzeko sentiera, kode, esangurei, eta horiek materializatzeko eta sentigarri bihurtzeko behar diren objektu, praktika, erakunde, sinbolo eta abarrei?

Oro har, bizi-balioak esplotazio kapitalistaren mende geratu dira; marka bilakatu dira, markak sortzeko erabiltzen diren neurrian: lehen bizitzaren emaitzak ziren balioak, orain merkantziak saltzeko marka, seinale, erakusle baino ez. Momia, esango nuke. Nola gertatu da espiritua, edo sikiera espektroa, momia bilakatzea?

Lehendabiziko fase batean, ikuskizun eta kontsumoaren bidez fluxu metonimiko eta balio konnotatiboen hipertrofia gertatu zen. 1967an argitaratu zen Guy Deborden *La société du spectacle*; bertan, *mass media*, masa kultura eta merkantziaren fetitxismoa kritikatu zituen. Merkantzia ordurako irudia zen, eta jendea ere irudia eta ikuskizuna izatera kondenatuta zegoen. Ikuskizunaren logikak agerian utzi zuen kapitalaren betiko muina: irudikeria da, edozer hartu eta kapital gehiago sortzeko truke-balio homogeneizatzailearen mende jartzen duen irudikeria. «Ikuskizuna da merkantziak bizitza soziala guztiz bete dueneko unea» (Debord 1992 [1967]). Jendeak irudikatzaile izan beharrean ikusle pasiboa izan beharko du, eta ogiaz gain distrakzioa erosten hasi beharko zuen. Dena erosten hasi beharko zuen. Eta, horretarako, bere burua ere kapitalizatu beharko zuen, irudiaren bidez, ikuskizunaren bidez, antzezpenaren bidez.

Bestela esan, biziari mamuzko indar batek kentzen dio bizitasuna (dela balioa, dela egiazkotasuna, dela zuzenekoitasuna, dela...). Eta larridurazko nostalgia bat zabaltzen da bizitasunik gabeko truke-balio hutsaren munduan. Non geratu ziren bizitza sozialaren produkzioan sortzen diren balio konkretuak, sentituak, singularrak? Dena merkantzia bihurtu denean, dena espektakulua denean, non eta zeri antzeman ahal diogu bizi-baliorik? Postmodernismoaren jarrera nostalgia eta agonia modernistak gainditzeko keinua izan zen; dena simulazio eta kopia denean, zer balio du egiak edo egiazkotasunak? Eutsi diezaiogun ikuskizunari eta merkantziari, eutsi haiek pizten duten desira eta irabazari. Goza ditzagun gure alienazioak, gure esklabotza kontsumista, gure desio aseeginak.

Bigarren fase bat iritsi zitzaigun globalizazio neolibera-  
larekin, Internet eta sare sozialekin. Baudrillardek *krimen  
perfektua* zeritzona burutu omen zen: kapitalismoak bizitza  
osoa hartu zuen bere mendean. Marxek iragarri zuen kapita-  
lismoak aurrena formalki hartuko zuela bere mendean pro-  
dukzio bide oro, eta hurrena, materialki; horri deitu zion *sub-  
suntzio erreala*, kapitalaren logika denetara aplikatzen dena,  
edozeren egiazko balioa merkantzia gisa duen balioa denean.  
Gure (inter)subjektibotasuna guztiz harrapatuta du sistemak,  
ez dago zirrikiturik bizi-baliorik, balio singularrik sor dadin.  
Ihesbideak badaude, baina prekarioak: ironia, sarkasmoa,  
arteak, lagunartea... Hala ere, truke-balioaren buruaskitasuna  
gezur eta iruzurra baino ez da: esplotazioa begi bistakoa da.  
Eta bertan sortzen da esplotazioaren logika behin eta berriro  
arrakalatzeko duen indarra. Truke-balio kapitalistak bizi-ba-  
lio singularrak behar dituelako, jendearen bizitza esplotatu  
behar duelako gainbalio gehiena lortze aldera.

Esan bezala, momia begitantzeko zait esplotazio horren figu-  
razioa. Momia bizi-balioaren antzaldaketa bat da, bizi-balioa

Momiak iraganaldiari  
loturiko gorpuak dira:  
itxura gorde behar dute  
iharturik, hala betiereko  
bizialdi baterako prestatu  
dira. Autentikotasun  
guztiak bezala, 'bestalde  
bat' irudikatzeko  
erabiltzen ditugu

gordetzen duen gorpu barea,  
otzana. Espektrora geldoa, bizi-  
aren aztarna. Memoria da, edo  
hobe esan, esplotaziorako gor-  
de diren bizi-balioen irudiak:  
sentierak eta intersubjektibota-  
sunak esplotatzeko, esaterako.

Euskal espektroaren figura-  
zioan onarpen bat ikusi dugu:  
onar dezagun euskal erresis-  
tentzia agonikoak, bizi-balioa-  
ren hondarra zen aldetik, ez  
duela zentzurik. Subsuntzio  
errealeko kapitalismoan ikus-

kizun, merkantzia, bihurtu ahal dugu eta, horrela ere, goza-  
garri. Euskal zeraren bizi-balio hila *momifikaturik* goza de-  
zakegu merkatuak eskura jarri dizkigun produktu, zerbitzu,

esperientzia eta ikuskizunetan. Eta horrela gure nostalgia eta gure izate bikario eta simulatua, gure irudia, astinduko dugu antzezpen hutsean bizirik dagoela irudikatuz.

Momiak, ondo dakigunez, iraganaldiari loturiko gorpuak dira; itxura gorde behar dute iharturik, hala betiereko bizialdi baterako prestatu dira. Autentikotasun guztiak bezala, 'bestalde bat' irudikatzeko erabiltzen ditugu (non dena bestelakoa zen, non dena hobea zen, non euskara egiazkoa zen, non erresuma genuen, non indigena jatorrak ginen), baina momiek ez dute berezko bizirik. Alde horretatik, momiak erregistrorako euskarriak dira, iraganaldiaren esangura bereziak gordetzen dituzten museoak, monumentuak edo dokumentuak bezala. Baina, horrez gain, gaurko momiak kapital iturri dira nagusiki, balio erantsiak lortzeko lehen-gaiak. Euskal zeraren momia, esaterako, ez dago museoetan aterpeturik, eguneroko bizitzan dugu idolo, fetitxe edo bereizgarri gisa, gure totem biltzaile eta zentzu-emaila baltz bezala, edozein produkturen aberasgarri. Beharbada ez nahiko genukeen beste, mundu zabaleko ebentoen aldean balio eskasa dute, lortzen duten publikoa adinakoa. Bistan da, egungo momifikaziorik erradikalena turistifikazioaren eta makroebentoen ideologia ekonomikoan dago, eta hor euskal momiari ez deritzote oso errentagarri.

Horretara mugatu dugu *Volksgeist*-a? Hori al da gure bizitza komunetik eta komunerako sortzen dugun espiritua? Tira, alderdi positiboa ere topatu ahal diogu momifikaziorri: truke-balioaren mende biziko bagina zeharo eta guztiz, ez genuke ondo ulertuko zer dela-eta, oraindik ere, ibiltzen dugun euskal zeraren momia. Egia da, iruzur galanta egiten da momia *txotxongilo* gisa erabiltzen denetan: ez da berpiztu, ez du berez bizitzerik, ez mugitzerik, ez ezer sentitzerik. Halakoetan fetitxe alferra baino ez da, gurtze fedegabe nasai baten azken kontsolamendua, edo erru aringarria, keinu ironikoa. Baina badirudi, bizi-balio baten memoria gorderik izateko, bizi-balio hori preziatzen duen jendea behar dela; eta, areago, momiak bizi osteko bizitzarako diren aldetik,

askorentzat momia euskal zera berpizteko bide ere izan daiteke. Hor dago haren bizi-balioa. Bestela esan, euskal momiak merkaturako edota politikarako izan dezakeen balioa ez da truke-balio hutsa, bizi-balioa behar du, bizi-balioa sortzen ari den jendea behar duen moduan. Euskal zeraren espiritua sentitzen duenak berritzen du, hala edo nola, herri sentiera hura. Momifikazioa bizi-balioak esku pribatuetara eramateko saiakera baino ez da: herri-balioa, esan dezagun, pribatizatzeko modu bat. Baina euskal zeraren espiritua espektakulu eta merkantzia bihurtu nahi den hartantxe ere biziberritzen dute *kon-spirazio* apalek. Hori zen nire tesia *Identitatea eta anomalia*-n: pornoan postpornoa sortu da, kapitalismoan eta estatuan bertan harago doazen bizi-praktikak, identitate merkatuan merkantzia ez den diferentzia anomaloa. Ez da lehengoaren hondar hutsa, sozialki bizi behar dutenen sormenezko lana ere badelako. Adibidez, euskal zeraren momifikazio espektakular edo komertzialaren aldean, euskal zeraren gorpua sormenez biziartzten bizi direnen kasuan (areago kontuan hartzen badugu diferentzia subalternoak, beregain izan dadin, *izan denetik* bereizi eta desberdindu beharra due-la, *hura* fetitxe eta momia bihurtu duten neurrian).

Hor dago subsuntzio errearen muga, kapitalismoaren (eta estatuen) ezintasunaren tolesdura: kapitalizatu gabeko balioa behar duelako, bizi-harreman ez kapitalizatuak behar ditu, merkantzia ez diren esangurak, eta abar, gerora hura dena kapitalizatzeke baino ez bada ere.

## **Herri eta gizartearen gorpu ibiltariak: zombien masak**

Bizi-balioen momifikazioaz gain, kapitalismo neoliberalak beste ondorio eta bidelagun asko izan ditu. Nagusietako bat bizimoduaren pribatizazioa eta banakatzea, masa sozialen zati-tkatze edo atomizatze orokorra. XIX. eta XX. mendeetan, industria-kapitalismoak eta nazio-estatuak bildutako masak sakabanatzen hasi ziren. Masa diziplinaren ordean, buru-diziplina zabaldu ahala, lokarri eta erakunde soziogenikoak

higatuz joan dira. Horretan ari gara: bakardadea, buru-hilketak, depresioak, interes pribatuen goraldia, harresidun bizitegiak, harremanen prekaritatea, jende arteko harremanen merkantilizazioa, norberatasunaren merkantilizazioa... Zygmunt Bauman ospetsu egin zen edozer likidoa zela esanez: modernitate solidoaren ondoren, postmodernitate likidoa, bai eta gaseosoa ere. Baina aspaldi idatzi zuen Marxek berak kapitalismoak solidoa den guztia desegino zuela. Zer ziren, dena den, desagertu bide ziren masak?

xix. mendearen bukaerako masei buruzko psikologiak zioenez, masa irrazionala da, inkontzientea, amorala, kontrol gabekoa, instintiboa, emo-

zionala, kutsakorra eta eraginbera.<sup>10</sup> Masa, kategoria batez, *emea* da. Lider batek eman behar dio forma, egitura, lider batek gidatu behar du. xix.ean bidegurutze batean daude eta masak anbiguoak dira, potentzial antagonikoak dituzte: elkarre naturalak omen ziren komunitateak desagertu dira,<sup>11</sup> masak ditugu eta masak zibilizatuz gero gizarte burgesa sor liteke (Hegelen bidetik: estatu liberalak emango die forma hori), baina aldi berean masa barruko joera eta grinetatik gizarte eta estatu burgesaren suntsiketa ekarriko zuen mamu iraultzailea ere indartu liteke. Tentsio horretan joan zen xx.aren lehen erdia; 60tik aurrera, berriz, masak desagertzen hasi omen ziren. Ez jende gabeziagatik, noski. Gogortasuna galtzen hasi ziren, osagaien fusioa galtzen hasi zelako. P. Sloterdijkek (2002: 18) dioenez, gizarte postmodernoan masak ez du gorputz baten esperientzia sentigarria; gasezko konposatua baino ez da, partikulak sakabanatu dira eta desiraz eta negatibotasun prepolitikoz kargaturik dabilta nola berotu

xix. mendearen  
bukaerako masei  
buruzko psikologiak  
zioenez, masa irrazionala  
da, inkontzientea,  
amorala, kontrol  
gabekoa, instintiboa,  
emozionala, kutsakorra  
eta eraginbera. Masa,  
kategoria batez, *emea* da

edo dibertitu bilatzen. Hala ere, masa modernoaren materia ustez gogorraren eta oraingo masen egoera ustez gaseosoaren artean, bada materia likatsu, kutsakor eta lirdingatsu bat. Masa zaharren orpotik datozen zonbi lakoan masak dira horiek. Usu sare sozialekin, turismo oldeekin edo kontsumo sukarraldiekin identifikatzen direnak, baina adierazpide edo agerraldi fisiko zenbaitetan ere sumatu ahal ditugunak: matxinadak, arpilatzeak, jai basatiak... Hitz gutxitan, masa atomizatuetao partikulek, desio eta grina banakatuek, muga gabeko *asetze* batera jotzean nahigabeen sortzen dituzten oldeak.

Zonbiaren figurazioa da, beraz, herria eta gizartea hil ondorengo masak irudikatzeko modu bat. Dio Joseba Gabilondok neoliberalismoaren *efektu* direla zonbiak, baina *defektuz* matxinada zonbia sortu duela, pasiboki eta masiboki kutsatzen omen den matxinada, helburu jakin barik hedatzen ari den protesta molde ez-iraultzailea (indignatuetatik jaka horietara...)<sup>12</sup> Zonbiak, *walking dead*, gorpu ibiltariak... hilobia (lehengo masa, lehengo herriak, lehengo gizarteak) abandonaturik izurrite bezala bazter guztietara hedatzen tematzen diren inbasoreak, erruz atomizatzen eta desegiten ari diren konglomeratu sozialen partikula zoro eta alderraiak. Immigranteak dira zonbiak; AEBetako film eta serieetan disimulurik gabe, literal hartzen dute analogia. Migratzaileak, birusak... aterpe babestuetara kanpotik datozkigun 'erasoei' zonzien logika antzematen diegu: noranahi zabaltzea guztia zonbi izaera katastrofikora eramanez. Inongo motibo, inongo proiektu barik. Izan ere, zonziek bizi duten ez-bizitzatik ez da espiriturik sortzen, ez da herri gogorik agertzen. Proiektatzen dutena euren gorpuak dira, edonora jaulki, jaurtiki, eta hori ere inongo gogo edo asmorik gabe, inertzia hutsez, kontrolatu ezin duten indar batek eraginda (interes berekoia esan genezake, pasio edota desio hezigabe eta asoziala).

Zonbi egoera subjektibotasun neoliberalaren etiketapen sakon aztertu eta kritikatu izan da. Zonbi matxinada ere bai; eta kasu horretan, maiz, agonia eta melankolia berri batetik, masa modernoaren akabera deitoratzen duen nostalgiatik (ai

herria, ai gizartea, ai klasea, ai subjektu iraultzailea...). Kritikak erraz metatzen dira: zonbiek ez dute ikuspegi baturik, ezin dute erabakirik hartu, ez dute estrategiarik, heterogeneoegiak dira hegemonia berri bat eratzeko, ez dira 'adierazle' (gidari) baten arabera jokatzeko gai eta, ondorioz, zonzien aniztasuna hala edo nola gainditu beharko genuke. Ikuspegi 'posibilistatik', berriz, oraindik pentsatu dute zenbaitek batasuna, ekintza batasuna gutxienez, 'adierazle' baten lidergopean lortu ahal dela, artikulazio lan gaitza eginez. Eta, jarrera baikor batetik, Negri eta Hardtek *multitude* kontzeptua teorizatu dute, zonzien iruditik aldendurik, baina masen aniztasuna kontuan hartuta. Multitudean ikusi nahi dute batasunik gabeko eragiletasun komun berri bat, ez arazorik gabe: nola multitudea, diferentzien multiplizitatea eta batasun aritmetikoa edo identitatea kontuan hartu gabe jaio den multitudea, bihurtu ahal da subjektibotasun politikoa eta potentzia? Negri eta Hardten erantzuna baikorregia da. Zonbi matxinatuei baino, zonzien bizimoduari darion eraldatze indarrari begira daude. Haien ustetan, neoliberalismo globalean lan kognitibo edo sinbolikoaren bidez bizi-balio berriak sortzen ari dira, subjektuek autonomia lortzen, erresistentzia eta sormen berriak agertzen... Hori dena, gainera, singularitasunek eginga, komuna eta singularra uztarturik. Ez dago gorputz singularrak batu-ko dituen nahikunde orokorrik, ez dago ez gorputz, ez gogo kolektiborik; kontrara, gorputz singularrak batzen dituen euren haragia bera da, alegia, euren mugimendua, euren biziera multitudinean (Negri 2008: 201).

Zonbiaren figurazioak muga jartzen dio baikortasun horri; izan ere, zonbiak indar hondatzaile hutsak dira, ez dute ezer eratu eta sortzeko gaitasunik. Baina jarrera ezkorriari ere erantzun bat eman ahal dio: zonbi masa ezin da homogeneizatu, ezta adierazle huts batera murriztu ere, zonbi jendeketaren askotarikotasuna ezin da inola ere murriztu, ez dago hartarako banderarik; eta, hala ere, matxinatzen direnean, bizi-balio eta bizimodu berriak eraikitzeke aukera zabaltzen dute negatiboki, berria sor dadin behar den eremua



garbitzeko gai dira. Bestela esan, zombien praxi matxinatua destituitzailea da, handik zerbait berria eratu ahal da. Nork egingo du? Berez etorriko da? Nola?

Eta euskal zerari nola eragin diote zombiek? Gure artean zombiaren figurazioa ez da gehiegi erabili. Are gehiago, euskal zonbiak agertzen direnean ez dira oso kanonikoak. Herri gogoa bizirik dugun seinale? *Napar Death*, esaterako, *zombiketa* aski singularra da, zeren ez da olde eragabe baten eraso, ez da gorpu hutsen izurrite alderrai kutsakorra. Alegia, ez dira indar negatibo hutsa, proiektua dute eta *gutasun* baten inguruan ari dira borrokan, sasibizitzaren aurrean bizia nagusitu dadin nahi diote nagusitasuna. Hortaz, badirudi masa 'osasuntsuak' ditugula, mugitzeko gai direnak, eta barne-antolamendua izanda *herri* gisa jokatzeko gai direnak.

Euskalgintzak pista bat ematen digu horretaz. Masa egon badago, baina masa hark *herria* (dela euskal herria, dela euskara,

Euskal zonbiak ez dira oso zonbi. Beharbada txoko honetan ez delako jasan globalizazioaren parterik txarrena, agian herri espiritua oso sendoa delako oraindik gure artean

dela...) sor dezan, jendea aktibatu beharra dago. Antza denez, era jakin batez egin behar da, praxi (eraldatzailer)aren bidez afektu eta jardun koordinatuetara bideratuz, hain zuzen. Euskaltzale masa animatu, eragin eta bideratu beharra dagoela entzun dugu maiz, gutxi asko: zombien isolamendu eta inertzia praxi koordinatuetan gainditu behar eta ahal dela.

Aktibatu ezean, masak ez du herririk, edo komunik sortzen, banakatzera jotzen du kontsumoan, lanean edota politikan.

Ikusten denez, euskal zonbiak ez dira oso zonbi. Beharbada mundu txoko honetan ez delako jasan globalizazioaren parterik txarrena (eta klase ertain erosoaren irudikapenak bizi gaituelako), beharbada oraindik ere estatuaren aurrean irudikatzen delako euskal zera eta globalizazioari eta munduko klase banaketa berriari arreta eskasa eman zaiolako, edo

agian herri espiritua oso sendoa delako oraindik gure artean. Alde horretatik, zonbiek beste zerbait irakasten digute. Zonbiak klonak bezalakoak dira: banakaturik egonagatik ere, ez dute singulartasunik, ezta subjektibotasunik ere. Kontsumoa da, beharbada, adibiderik esanguratsuen. Soilik matxinadan edo aktibazioan sortzen da mamidun singulartasunik, soilik komunaren ernamuinak agertzen direnean hasten dira zonbiak *nor* izaten eta *herria* izaten. Praxian, herria figuratzen eta irudikatzen, zonbi bihurtu gaituen logika deuseztatzen dugunean. Intersubjektibotasunarekin sortzen da subjektutasunaren espiritua. Praxiarekin, espiritua.

### **Datozen *Volksgeist*-ak**

Azken gogoeta bat egin nahiko nuke; aurrera begira eta nire afektu ideologikoetatik. Abiapuntua, Éric Fassin soziologoaren ideia bat: politika ez da herria islatzea, politika herria irudikatzea da (Fassin 2018: 18-19). Zehatzago dio: ezker ez-populista baten politika ezin da izan herria islatzea; herriari *herriaren* irudikapenak eskaini behar dizkio, zer izan daitekeen proiektatuz. Kontua ez da ez herria islatzea, ez ordezkatzeta, ezta gizartearen ‘nahiak’ administratzea ere. Herria, nahiak edo balioak politikaren objektu dira, landu beharreko xedeak. Politika kontserbadoreak, boterearen politikak, aspaldi asmatu zuen ‘islatzearen’ tranpa, hau da, politika *dagoenari* zerbitzua ematea dela. Tranparen arabera, politikak gizartearen edo publikoaren atzetik joan behar du, gizartea berezko bizitza eta nahikundea duen organismo bat izango balitz bezala eta positiboki herria zein den eta zelangoa den ezagutzea izango bagenu bezala. Herria, bestela esan, prepolitikoa balitz bezala. Horrela, jendeak publiko edo audientzia baten modura jokatzeria mugatuta daude. Jendeek ez dute bere esku herria irudikatzerik, ez dute herri izaterik.

Hala ere, eguneroko bizitzan, praxi arrunt eta berezietan, arlo guztietan, ohartuki edo ohartu barik, denok ari gara *gutasunei* buruzko irudigintzan. Irudikapen sorta zabalak sortzen ditugu,

Fassinen hitzak erabiltzera: *publikoak* osatzen ditugu, *gutasun* askoz osatzen da herri eremua. Nazio-estatu baten altxotik hitz egiten du Fassinek, eta publikoen aniztasuna estatuaren herri bakartasun eta monopolioari aurrejartzen dio (gutxi asko, gizon zurien herriari askotariko publikoak). Fassinen ustez, ezkerreko politikak herri horri bizkarra eman eta herri anizkoitza irudikatu behar du (estatu eta alderdietatik kanpo).

Nire ustez, ez dago *berezko* herri *bat*, herria ariketa bat da. Herria jendeen aniztasun ezabaezinetik *nor garen* hautatzea, zehaztea edota erabakitzea da, hori dena oso modu jakinean: tradizio luze batean herria da, hain zuzen, nor garen berariaz irudikatze eta eratzeari eman zaion izena. Eta kontzepzio hartan, herria *bizi komuna* elkarrekin eratzeko, irekitasunez eratzeko eta denon ahotsez eratzeko hausturaren izena izan da. Jacques Rancièreri jarraituz (1995, 2000), banaketa sozialetik kanporatutako soberakinak, errefusak, parte hartzen duenean, herria deritzogun subjektu politikoa sortzen da; izen eta ahots gabekoen bazter hartatik, parterik ez duen parteak osotasuna hautsi egiten du berdintasun uneak sortuz, eta osotasunaren iruzurra agerian, eszenan jarrita, osotasuna gatazka baino ez dela erakusten du. Herria gara, herri dihardugu, errefusa subjektu bihurtzen dugun neurrian.

Lan horri ekin ezean, herria izateari utziko diogu; *bestek*, boteredun bestek irudikatuko du nor garen, pasiboki irentsi eta horretan ikusiko dugu geure burua. Eta, segur aski, zonbi lakoa izatetik ez gara askatuko. Politika ezin da babestu soziologizismoan edo naturalismoan (ezta publikoen edo komunitateen soziologizismoan), are gutxiago transzendentalismo huts batean (salbazioa edo erredentzioa noiz etorriko geratzen den santukerian). Hautu eta erabaki ideologikoak egin behar dira, unean unekoak, eta horietan garrantzitsuena da herria nola irudikatu. Zein da izanarazi nahi dugun *Volksgeist*-a?

Euskal Herria antagonismo sozialek definituriko barneko-tasun hauskorra izan da, antagonismo horietan eratu da, desagertzera eramango zuten indarretatik bereizten, askatzen. Ez da behinola izandakoaren arrastoa, hondarra, ez bada

hala izan dadila erabaki dutelako horretan aritu diren ekin-tzaileek. Euskara, esaterako, ez da arrasto huts bat; euskara *gu ginela* erabaki zuten askok, eta erabaki horretan *herria euskara zela* ari ziren irudikatzen. Bestalde, erraz irudikatu dute euskaldun askok jatorria dela, *herri etnikoa* zela autentikoa, aberri prepolitiko jatorra, gure jatorria. Etnikotasun hori erresistentzia politikorako arma ideologikoa bazen ere, maiz erresistentzia hura hemengo boteredunen arteko lehia baino ez zen, ez

mendeko jendeen borroka. Botere etnikoen kontra balio duen etnikotasuna balioetsi behar dugula uste dut, lehen eta orain. Kontuan hartu behar dugu, inperio, nazio-estatu eta kapitalaren aurrean, euskal jendea bitan izan dela (eta dela) *herri*: behe herri xumea eta herri oso bat. Klasea eta nazioa. Bietan mendeko, baina ez bietan guztiak mendeko, ez bietan guztiak jende subalterno. Eta ez kasualitatez, herri xumearen irudia erabili zen maiz herri osoa irudikatzeko, hain zuzen, amaren irudiaz. Euskal Herria ama, alaba, andre gisa irudikatzean, herri zapalduaren singularitasuna ari ziren azaleratzen. Etnikotasun subalternoena, jakina, andrazkoena da.<sup>13</sup>

Politika mota bi ditugu hor, partearena eta osotasunarena. Nazio-estatuak aspaldi irudikatu zuten osotasuna eta aspaldi jabetu ziren osotasun hartaz, hau da, identitate publikoaren monopolioaz. Euskal Herria, parte azpiratua izaki, ezinbestez irudikatu behar da osotasun gisa estatuen aurrean (eta horretarako erabili da herri etniko prepolitiko eta agonikoa- ren irudia). Eta,aldi berean, euskal herriak parte gisa jokatu behar izan du irudikatutako Euskal Herriko klase arteko borroketan. Bietan Euskal Herria irudikatzeari eutsi dio, batez ere, ezkerreko separatismoak; bietan, gainera, singularitasun bereizgarria lantzen (eta, horregatik, unibertsalera jokatuz).

Ez dago *berezko herri bat*, herria ariketa bat da. Herria jendeen aniztasun ezabaezinetik *nor garen* oso modu jakinean hautatzea, zehaztea edota erabakitzea da

Hor landu da, nire ustez, merezi duen etnikotasuna eta merezi duen klasea, hau da, *gutasun* eraldatzaile baten jatorria eta izaera. (Eta, bidenabar, ez da intersekzio bat, singulartasun bat baizik; singulartasun guztiak bezala, jatorri, zain, egoera eta izaera anitzez sortutako singulartasun intersubjektiboa –baina hori beste baterako utzi beharko–.)

Arestian, Jacques Rancièreren «parte gabekoen partea» aipatu dut. Parte hori ez da talde jakin bat, ez da klase edo estamentu bat ere, kondizioa da. Baina norbait bada halako kondizioan gaur egun, migratzaileak dira. Horiek jartzen dituzte ageri-agerian zein diren estatu, patriarkatu eta kapitalaren logikak eta nola batzen eta inskribatzen diren euren gorputzetan, euren bizipenetan. Batez ere, noski, paperik gabekoak, eurak dira zuzen-zuzenean agerian jartzen dutenak sostengu eta zaintza gabe zein huts garen. Migratzaileak herri eta jende askoren prefigurazioak dira, zer gerta dakigukeen prekarizazio eta pribatizazio hegemonikoan. Migrazioaren mamu nagusia bestelakotzea eta inoreztatzea da: norberaren izate soziala, estimua eta ospea, senitateak eta babes eta zaintza harreman hurbilak, komunitateak, auzoak eta herriak... migrazioak denak deuseztatzen ditu. Eta migratzaileek denak berregin behar dituzte aurkako ingurune batean. Elkartasun loturarik gabe eta bere *nor-izana* galdurik dabilen etorkina, gorpu ibiltari baten modura dabilen migratzailea, izan daiteke, hain zuzen, datozen garaietako figurazio nagusia, zonbi kondizioa gainditzeko ahaleginetan bizi behar dute eta.

Joseba Gabilondok iradoki du, eliteak izan ezik, guztiok dugula lehenaldi migratzaile bat, eta hori dela etnizitate berri baten esperientzia esanguratsua Euskal Herri global baten-tzat.<sup>14</sup> Historiari begira, dio, denok gara etorkinak, denok gara migrazio subalternoaren ondorio, eta gaur egun ere guztiok migratzaile bortxatu bihurtzeko arriskuan gaude. Hor, beraz, etnizitate berriaren gakoa. Reclusek pentsatu zuen Euskal Herria migrazioak akabatuko zuela. Baliteke guztiz kontrakoa izatea, baliteke migrazioa eta migratzaileak herrigintzan behar dugun operadore sinbolikoa izatea (Delgado 2015). Agian,

agerpen espektral, momifikazio errentagarri edo zombien ol-  
dar esperantza gabeetatik askatzeko figurazioa izan litekeela.

Nik zalantzak ditut. Onartzen dut hori dela behe herriaren  
kondizioa eta gero eta gehiago hala izango dela (ustekabe-  
ko iraultza miragarriren bat suertatu ezean edo, migratzaile  
barik, turista kondizioa guretu ezean). Ez dakit, ordea, no-  
raino den «habitu ahal den figurazio» bat, edo hori den  
bestelako figurazioen bidez gainditu behar dugun kondizioa,  
hain zuzen. Marxek *Familia Sakratua*-n ('Espiritua eta masa'  
atalean) proletarioei buruz esan zituen hitz batzuk berresan  
ahal ditugu hemen: migratzaileek bere burua askatu ahal eta  
behar dute, baina ezin dute euren burua askatu euren bizi  
kondizioak abolitu gabe. Arriskua, uste dut, begi bistakoa  
da: migratzailea erraz bilaka daiteke zombi.

Migratzaileek, seguruenera, ondo irudikatzen dute, nahi  
gabe ere, herrigintzaren dema zein izan daitekeen gaur gero:  
etsai giroko lurralde batean elkartasunezko harremanak eta  
bizi-balio komunak elkarrekin eta libre berrerratzeko beha-  
rra. Nola egin hori, migratzaile  
kondiziotik harago doa. Izan  
ere, migratzaileak harrera-sis-  
teman integratzerik ere badu:  
saiatu ahal da fluxu neolibe-  
raletan eta estatu-nazionalis-  
moan kide onartua izaten, edo  
migrazioa bera momifikaturik,  
kapitalizatu ahal da; eta kasu  
askotan migratzaileek euren  
mundu komunitarioa pribatu-  
ki berregitea besterik ez dute.  
Beraz, migrazioa eta prekariza-  
zio orokorra kondiziotzat har-  
tuta, herrigintzak betiko demari ekin behar dio: nola irudikatu  
eta nola antzezten komunitate publikoa eta publiko komuna.

Badirudi euskal zeraren bideak eta migratzaileenak bat egin  
dezaketela; finean, biak ala biak dira etnikotasun subalterno

Euskal zeraren bideak  
eta migratzaileenak bat  
egin dezakete; finean,  
biak dira etnikotasun  
subalterno baten  
figurazioak. Euskal  
zera bere lurraldean  
bertan etnifikaturik;  
migratzailea, edonon

baten figurazioak. Euskal zera, ondo dakigunez, bere lurraldean bertan etnifikaturik; migratzailea, edonon. Alde horretatik ere atseginez ikusiko nuke etnikotasun subalternoen borrokan bilduko balira, hau da, estatu nazionalismo autokratiko eta kapitalismo neoliberalaren<sup>15</sup> aurkako erresistentzietan herri espiritu singular berriak sentigarri egiteko gai izango balira. Nire ustez, euskal tradizio separatistatik ez luke arazo handirik izan behar jatorri edo sorrera (zergatik ez, etengabeko etnogenesi) berri bat irudikatzeko; adibidez, euskal errepublika baten eratze lanean, non denok garen etorri berri. 🌀

### Oharrak

1. Halaber, ikus Castoriadis (1975). Berdin antzera esan du beste askok. Pierre Bourdieu (1994: 240), esaterako, etengabeko antzeppen-lana aipatu zuen.
2. Bestalde, Donna Haraway (1997: 11) (habitu ahal diren) irudi performatzaile gisa hartzen ditu figurazioak. Eta ez dabil oso urrun Jacques Rancière (1995: 125-126) subjektibatzeko politikoari buruz diharduenean, antzeppena ikusten du berak hor: identitatetik alde egin eta bestela izan balitz bezala aritzen den subjektutasuna figurazioak, antzeplanak, ari da gauzatzen.
3. Euskal Herria zelan irudikatzen eta gauzatzen den bizitzaren arlo guztietan ikertu behar den gaia da (politikan, hezkuntzan, publizitatean, marketinean, sare sozialetan, kulturgintzan, folkloean eta abar). Arlo guztietan nahasten da *berariazko jarduna* (politikoagoa) eta *berezkooa* (antropologikoagoa edo soziologikoagoa). Eta oso gauzatze indar desberdinak dituzten jardunak topatuko ditugu: estatu egitasmo batean herria irudikatzen da, turismo kanpaina batean edo herri jaietan bezala.
4. Adibidez, Lizardiren *Gure mintzo* edo Xalbadorren *Ama Euskal Herria*. Poema horietan eta beste askotan barna dabilen paradigman, euskara-ama-jaiotza-natura kateatuta daude baliokidetzan. Paradigmak herrien berezkotasuna (kultura, etnia...) eta eratze politikoaren artifizialtasuna (estatu) bereizten ditu, Euskal Herria, noski, lehen atalean dagoelarik.
5. Salvatore Mitxelaren orpotik, Txillardegi, Rikardo Arregi eta abar. Garaiko giroa sakonki aztertu du Azurmendik hainbat lanetan (*Oraingo gazte eroak*, eta abar).

6. Testuingurua: «ETAk gizaki *guztiek*, orobat zentralizatzailerik, unibertsaltasun abstraktuaren aurka beren berezitasunak baiesteko duten beharra erakusten digu: euskaldunen ahotsak entzutea, bretoienak, okzitaniarrenak, eta beren alboan borroka egitea, beren berezitasun zehatza baiets ahal dezaten, horrek dakar, ondorio zuzenaz, geuk frantsesok ere Frantziaren benetako independentziaren alde borroka egitea, Frantzia baita bere zentralismoaren lehen biktima. Zeren bada euskal herri bat eta herri bretoi bat, baina jakobinismoak eta industrializazioak gure herria akabatu dute: gaur egun jadanik ez dago frantses masak baizik» (Markos Zapianek itzulita: [www.armiarma.eus/emailuak/sartre/JPSbur01.htm](http://www.armiarma.eus/emailuak/sartre/JPSbur01.htm)).
7. Etnikoa unibertsalari kontrajartzen zaion partikularitasun subordinatua egikaritzeko kategoria da. Mendebaldeko politikan, etnia estatus politiko-publiko gabeko *beste herri* oro da. Etniaren bestea, noski, estatua da. Etnia herri izate baten egiazkotasuna eta zilegitasuna egiaztatzen erabili da, baina funtsean baztertze eta desjabetze prozesuen emaitza da. Nire ustez, *izate etnikoa* (edo etnifikatua) da partikular/unibertsal botere-dikotomia gainditzeko bidea; *singularitasunean* aurkitu behar da izari unibertsala, ez orokortu edo homogeneizatu den sasiunibertsalean (ikus 9. oharra).
8. Bada, hori al da Joseba Gabilondok (2016) desiratzen duen eta opa digun *goza dezakegun nazioa* lortzeko bidea? Bizi gogo bat antzeman ahal zaio proposamenari, hiltzori negargarriaren ostean, bizia gozatzeko zori on bat.
9. Ordezkapen baten berri baino ez da: herri enpirikoaren ordeztasun, ikur sinbolikoa. Besteren batek pentsatu du, amets modernista behingoa gauza dadin, herri etnikoa dela galga eta akabatu behar dugula; etnikotasunak ez du salbaziorik, ordezkaturik eta gainditua izan behar du estatu batez (eta, horrela, mamutzarraren negatibotasuna ere uxatuko digu). Hortik dabil, adibidez, Imanol Galfarsoro ([www.naiz.eus/eu/blogs/berriola/posts/imanol-galfarsoro-euskalduna-desagertu-egin-behar-da](http://www.naiz.eus/eu/blogs/berriola/posts/imanol-galfarsoro-euskalduna-desagertu-egin-behar-da)). Beste askok bide beretik jo du: kategoria etniko kolonial modernoak deuseztatu behar dira. Baina unibertsala, kategoria ontologikoa bada eta ez soziologikoa (orokorra) edo politiko hutsa (hegemonikoa), betiko beteko ez den gabezia edo hutsunea da, hau da, izate sozialek behar duten irekitasun eta aniztasun material eta semiotikoa. Horregatik, nire ustez, helburu makurra da partikular eta osatugabe gisa definitu izan dena unibertsal hegemoniko bihurtzea. Politikan, etnikotasun indigena identitate unibertsalaren (okupatu edo konkretuaren) osagarri ezinbestekoa da. Gure etnikotasunak hutsune unibertsala beteko balu, gure 'indioak' beharko genituzke: jatorritasun eta purutasun bereziko beste basatia, atzeratua eta partziala,



unibertsaltasunean (humanoan) guztiz garatu gabea. Joko horretatik irteteko, etnikotasun nahasi, aldakorrei eutsi behar zaiela uste dut (egin egiten ari den zer bait, bidenabar esan). Multikulturalismoaren identitate (ustez) autentikoen aurrean, edo hegemoniaren identitate (ustez) autentiko bakarraren aurrean, partzialtasun alderrai eta mudakorrek zartatzen eta husten dute unibertsala eta, horrela ere, bizitasunik lortzen dute. Bestela esan, kapitalaren baliokidetze homogeneoetan bizitza sozialaren produkzioa beti agertuko zaigu nahasmen-  
du heterogeneo gisa.

10. Hala agertu ziren, esaterako, erreferentziala den Gustave Le Bonen *Psychologie des foules* (1895).
11. Eta gordeleku etnografikoetan babestu behar dira. W. Wundt psikologiaren aitzindariak sortutako Psikologia Institutuan egonaldia txikia egin zuen Joxe Migel Barandiaranek 1913an, baina ez zuen psikologia ekarri gure herrira; Wundten gomendioari jarraikiz, hona etorritakoan *herri gogo*a edo *jakintza* ikertzen hasi zen (folklorea, arkeologia, etnografia...). Wundten psikologiak bi alderdi zituen: banakoaren psikologia unibertsala eta herri psikologia singularra, *Völkerpsychologie*. Bigarrena bide zegoen euskal(dunen) gogoari.
12. Joseba Gabilondo: 'Posverdad: mentiras, afectividad, yo-digital y revolución zombi (de gaytasunos a #metoo) (II)' ([www.cuartopoder.es/ideas/2019/07/23/posverdad-mentiras-afectividad-yo-digital-y-revolucion-zombi-de-gaytasunos-a-metoo-ii-joseba-gabilondo](http://www.cuartopoder.es/ideas/2019/07/23/posverdad-mentiras-afectividad-yo-digital-y-revolucion-zombi-de-gaytasunos-a-metoo-ii-joseba-gabilondo)).
13. Ama, emakumea, jakina, jatorriari eta naturari lotua zegoen, tradizioari eta lehengo komunitateei. Emakumeak gizarte modernoan baztertuta eta pribatizatuta egonda, euskararekin erraz identifikatu ahal zituzten eta erdigune sinbolikoa sortzeko erabili. Euskal patriarkatuak jatorriaren label moduan erabili du emakumearen figura, babestu beharreko muin esentziala. Baina, nahigabea ere, irudi ambigua zen, herria bazterketa eta zapalketaren azken txokoan ezartzen zuelako. Eta, kasu horretan ere, emakumeek euren *gutasuna* irudikatu, eratu eta gauzatu ezean, *bestek* egingo zuen, egin zuen legez, eta parte isila, mendekoa eta ostendua ere izango ziren, izan diren legez.
14. Ikus, adibidez, Arestiri buruzko iruzkinak (Gabilondo 2016). Hala-ber: <http://josebagabilondo.blogspot.com/2020/01/euskal-etnizitate-berria-denok-gara.html>
15. Nazional-liberalismoa, dio Jean-François Bayartek (2017): nazionalismo autoritarioa herriarentzat, (neoliberalismoa eliteentzat.

## Bibliografia

- Aresti, Gabriel (1984 [1967]): *Euskal Harria*, Zarautz, Susa.
- Azurmendi, Joxe (2010): 'Hitzaurrea', in Mitxelko Uranga: *Espektroak. Euskal Terroristak*, Donostia, Utriusque Vasconiae.
- Bayart, Jean-François (2017): *L'impasse national-libérale. Globalisation et repli identitaire*, Paris, La Découverte.
- Beauvoir, Simone de (2019): *Bigarren sexua*, Andoain eta Donostia, Jakin eta Elkar. *Eskafandra* bilduma 6. Itzultzailea: Irene Arrarats Lizeaga.
- Bourdieu, Pierre (1994): *Raisons Pratiques. Sur la théorie de l'action*, Paris, Seuil.
- Braidotti, Rosi (2003): 'Becoming Woman: Or Sexual Difference Revisited', *Theory, Culture and Society* 20(3), 43-64.
- Castoriadis, Cornelius (1975): *L'Institution imaginaire de la société*, Paris, Seuil.
- (1997): *El avance de la insignificancia*, Buenos Aires, Eudeba. Jean Liberman-ek egindako elkarrizketa.
- Debord, Guy (1992 [1967]): *La société du spectacle*, Paris, Gallimard.
- Delgado, Manuel (2015): 'Seres de otro mundo: sobre la función simbólica del inmigrante' (<http://manueldelgadoruiz.blogspot.com/2015/06/sobre-la-funcion-simbolica-del.html>).
- Derrida, Jacques (1993): *Spectres de Marx. L'état de la dette, le travail du deuil et la nouvelle Internationale*, Paris, Galilée.
- Didi-Huberman, Georges (2014): 'Volver sensible / Hacer sensible', in Askoren artean: *¿Qué es el pueblo?*, Madril, Casus Belli, 69-100.
- Fassin, Éric (2018): *Populismo de izquierdas y neoliberalismo*, Bartzelona, Herder.
- Gabilondo, Joseba (2016): 'Masokismoa gaindituz: Goza dezakegun nazio baten alde', *Larrun* 208.
- (2016): *Before Babel: A History of Basque Literatures*, AEBak, Barba-roak.
- (2020): 'Euskal etnizitate berria: denok gara etorkinak, denok gara migrazio subalternoen ondorio' (<http://josebagabilondo.blogspot.com/2020/01/euskal-etnizitate-berria-denok-gara.html>).
- Haraway, Donna (1997): *Modest\_Witness@Second\_Millennium. Female-Man© Meets\_OncoMouseTM. Feminism and Technoscience*, Londres, Routledge.
- Izagirre, Koldo (2010): *Autopsiarako frogak*, Zarautz, Susa.
- Negri, Antonio (2008): *La fábrica de porcelana*, Bartzelona, Paidós.
- Rancière, Jacques (1995): *La mesentente*, Paris, Galilée.
- (2000): *La haine de la démocratie*, Paris, La Fabrique-Éditions.
- Sartre, Jean-Paul (1971): 'Préface', in Gisèle Halimi: *Le procès de Burgos*, Paris, Gallimard, VII-XXX.

Mamu, momia eta zonbiak

Sloterdijk, Peter (2008): *El desprecio de las masas*, Valentzia, Pre-Textos.

Uranga, Mitxelko (2010): *Espektroak. Euskal terroristak*, Donostia, Utriusque Vasconiae.

Zulaika, Joseba (1996): *Del cromañón al carnaval. Los vascos como museo antropológico*, Donostia, Erein.

# Azurmendiren inguruko sei-zazpi ideia eta beste hainbeste galdera

Joseba Sarrionandia

*Idazlea*

## Askatasunaren ideia

Geure hizkuntza hitz egitea ere arrazoiz bete behar izan genuen sasoikoak gara, batzuk behintzat. Euskaldun izateko ere motibo eta aitzakia politikoak eta filosofikoak behar genituenekoak, ez dakit gainditu dugun hori.

Émile Durkheim eta Agustín García Calvo, Max Weber eta Federiko Krutwig, Lev Trotski eta enparauen artean. Ez dakit konturatuko zareten zer zen Antonio Tovarren *Mitología e ideología sobre la lengua vasca* bilatzea euskaraz egiteko motiboa, edo Jon Juaristiren *Euskararen ideologiak* liburuaren lehenengo partean. Soziologia ikasten, ez zen batere erraza gure bizimodu intelektuala. Eta hala deskubritu nuen nik, erabat burutxartu orduko, lasaitasun handia eman zidan ideia bat. Konplexuak kendu zizkidana luzaroan.

Badakizue poema bat askatzailea eta lasaigarria izan daitekeela? Galdetzen dizuet, zeren seguru nago malenkoniaren eta masokismoaren arteko zerbait balitz bezala hartzen duzuela poesia. Ba, ez. Ni Celso Emilio Ferreiroren esaldi batek salbatu ninduen. *Deitado xunto ao mar* poemakoa. Itsasoaren ertzean etzunda, igual ez abenduan, ez neguan,

Sei-zazpi ideia eta beste hainbeste galdera

baizik eta udaberrian edo udan edo udazken dultze batean.  
Eta esaten zuen:

Lingoa proletaria do meu pobo  
eu fáloa porque sí, porque me gusta,  
porque me peta e quero e dame a gaña,  
porque me sai de dentro, alá do fondo  
dunha tristura aceda que me abrangue

Esan nahi zuen: mendialdeko gure hizkuntza gaixoan hitz  
egin nahi dut, nahi dudalako, gustatzen zaidalako, eta gogo  
ematen didalako.

Eu fáloa porque sí, porque me gusta  
e quero estar cos meus, coa xente miña,  
perto dos homes bos que sofren longo  
unha historia contada noutra lingoa.

Ez dakit konturatzen zareten zer zen ideia hura niretzat,  
Antonio Tovarrena irakurri eta gero, eta Juan Aranzadiren  
euskal milenarismoari buruzkoa. Umetatik zamutzen geni-  
tuen konplexuez gainera. Zergatik egin euskaraz? Ba hori-  
xe: euskaraz hitz egiten dut nahi dudalako, gogo ematen  
didalako. Eta ez dizuet esplikatu beharrik zergatik. *Zergatik  
bai!*, esan zuenez laster Koldo Izagirrenen liburuko umeak.

Telebistan ikusten ditut egunotan Txileko kaleak eta ema-  
kumeak dantzari abesten:

Y la culpa no era mía, ni dónde estaba, ni cómo vestía.  
El violador eres tú...

Bortxatzaileak poliziak ziren, juezak, politikari frankistak,  
estatu zapaltzailea. Arazoa ez zen gure borondatea, baizik  
eta haien inposizioa. Guardia Zibilak babestutako pentsa-  
mendu espainolaren kriterio dultze erosoak. Normalitatea  
zen bortxatzailea.

Beste arazoetan ere berdin zeuden, teoria itzelak argudiatu  
behar ziren kapitalismoaren kontra. *Kapitala* orriz orri ira-  
kurri behar ote genuen gizakiak eskubide politiko (eta so-  
zioekonomiko) berberak ditugula onartzeko? Nik, itsasoaren

ertzean etzunda, ez nuen irakurri *Hizkuntza, etnia eta marxismoa*. Eta berdin zitzaidan zer zioen honetaz eta hartaz Leszek *Kolakowski*-k.

Hala ere, hori bera izan zela uste dut Joxe Azurmendiren lehenengo pausoa, justizia poetikoaren deklarazioa. *Manifestu atzeratua*-n dago baiespen hori. Normalitatearen bortxa, eta kontra egiteko ez daukagu ia ezer. Langile on batzuk, ganorabako txar batzuk, mugak asko, kalderilla hutsa...

Baina libre izan nahi dugu,  
zer kulpa daukat nik.  
Eta txeke zuri faltso baten antzean  
Gernikako arbola bat asmatu diguten arren,  
libre nahia pekatua balitz bezala,  
aitzakiaren bat beharko bagenu bezala,  
guk, guztiz ximple, libre izan nahi dugu.  
Nahi dugu, besterik ez.  
Hauxe baita gure engainu azkenekoa:  
libre izan nahia justifika behar dugula  
pentsaerazi digute  
lehen kanpotik ta barrutik orain.

Galdera libre izan nahia justifikatu beharraren ingurukoa da. Ez al dugu euskaldunok Manuel Larramendiren obraz geroztik euskaldun izan nahia justifikatzen galdu energiaren parte gehiena? Ez al dugu oraindik ere gauza gehiegi egiten ingelesak ikusteko?

## **Krisiaren ideia**

Krisi sasoian gaudela esaten da. Azurmendiren pentsamendua politika, kultura eta balio krisiaren ondorioa da. Noiz jaio zen Azurmendi? 1941ean, Zegamako paradisu erruralean, Juan Telleriaren soinu bandarekin imajina dezakezue?, historia akabatuta zegoela, eta horregatik sartu zen igual Arantzazura, zerurako lehenengo malda izango zelakoan...

Ez zegoen krisirik orduan, ezta? Krisia geroago hasi zen, hirurogeiko hamarkadan. *Manifestu atzeratua* deitzen zen poema larri eta eder hartan azaldu zuen Azurmendik bere

krisi pertsonala, euskaldunen ez-zen-herri krisiarekin batera. Gero, JAKIN aldizkaria krisi guztien azalpena izan da egunok arte. Baina, krisia? Josu Landak galdetzen zuen zininmoaren, epikureismoaren eta estoizismoaren etikari buruz-

ko saiakera batean: «Zer esan nahi dugu krisi hitza erabiltzen dugunean?».

Krisia, antzinako grezieraz, erabakimen momentu larria zen. Epaiaketaren unea, esate baterako. Medizinan, hil ala biziko une agonikoa da. Hau da, krisia denbora oso laburrekoa da, eta iraupena ala erabateko aldaketa dakar.

Gure herriaren kasuan, edo langileriaren kasuan, edo emakumeen kasuan, edo beltzen

kasuan, noiz ez gara krisian egon? Antzinatik datozen zapalketa, subordinazio edo bazterketa egoerak dira. Euskaldunok, mundua nazio-estatutan antolatu eta uniformizatu den sasoian, mendiko hizkuntzari eusten dion komunitate txiki bat gara. Beste faktoreekin modu konplexuan artikulatzen da hori gizarte konplexuetan, baina globalizazioarekin ere arazoa hor dago, eta areagotu besterik ez da egin gure ziurtasun eza alde horretatik. Ez kanpotik datorren zapal-ketagatik, baizik eta batez ere zapaltzaileen balioak geure egiten ditugulako.

Kultura orokorrak, geu ere kultura orokorrekoak izanik, ez gaitu posizio erosoan uzten gure kultura partikularrarekiko. Pako Aristik idazten zuen orain gutxi:

... irabazleak miresten ditugu, auto azkarrak, autore saridunak, aktore ederrak, pertsona boteretsuak, aberatsak eta, nahi gabe, haien ahotan entzuten ditugun hizkuntzak. Glamour sozial eta mediatikoa da hizkuntza baten kapital nagusia. Hori, eta sostengua ematen dion botere politikoa, estatua, nagusiki.

Krisia hirurogeiko  
hamarkadan hasi zen.  
*Manifestu atzeratua*  
deitzen zen poema  
larri eta eder hartan  
azaldu zuen Azurmendik  
bere krisi pertsonala,  
euskaldunen ez-zen-herri  
krisiarekin batera

Eta salatzen zuen zenbateraino normalizatzen dugun eta onartzen ditugun nagusi diren botere harremanak. Nahiz eta handikeria horrek, gure kasuan, geure hizkuntza ere ukatu. Ez debeku edo ukazio esplizitu moduan, baizik eta errealitate moduan, gure hizkuntza hau, izan ere, ez baita ez ezinbestekoa ez garrantzitsua:

... denok jasotzen ditugu mezuak, agerikoago edo ezkutukoago, benetan merezi duten gauzei eta baloreei buruz, eta merezi ez dutenei buruz. Euskara, tamalez, eta min dut hau idatzi beharra, azken multzo horretan dago aspalditik. Guk bezala umeeek ere sumatuko dute, eta haiek guk baino erreparo gutxiagorekin, bizitzaren aurrean sentitzen dugun betetasun emozionalean euskarak ez daukala protagonismo handirik, ez duela balio pasio sakonen garraio-tresna izateko ere.

Gurea ez da krisia, orduan, gurea subordinazioa, minorizazioa, erresilientzia da. Azurmendik sarritan esan duen lez: herritxikitasuna. Edo krisia, baina krisi permanente bat, erresistentzia permanente batekin erantzun beharrekoa...

Baina krisia ez da gauza negatiboa. Krisia ez da zoritxar bat, krisia egoera aldatzeko momentu aproposa da, askatasuna asumitzeko aukera. Krisitik irten baino gehiago, krisia aintzat hartu, pentsatu eta bizi egin daiteke.

Herritxikitasuna ez da arazoa orduan. Egiten digutena ez da arazoa, esan zuenez filosofo frantsesak, egiten digutena-rekin egiten duguna da arazoa. Eta horixe da nik behintzat Azurmendiren lanean aurkitzen dudana beste gaia.

Ez al da egia krisiak berak egiten gaituela kritikiko eta bizitza zentzuz betetzeko motiboa ematen digula?

## **Normaltasunaren ideia**

Jende askok pentsatzen du zapalketa egoerak, diktadurak eta halakoak jendearen kontrako eraso gogor moduan bizitzen direla. Ez da horrela, dominazio egoerak normaltasunarekin konfunditzen dira. Legeak bortxaz ezarri ziren momentu



batean, baina gero jendeak inkorporatuta eramaten ditu. Frankismoa ere gehiengoak ez zuen injustizia moduan bizi. Nahiko normala zen, antifrankistentzat izan ezik.

Dominazio egoera larrietan ere, akritizismoagatik edo interes kalkulatuagatik, morrontza boluntarioa hedatzen da. Gizartearen parte gara lehenengo, gero bakarrik, oso gero, berandu gehienetan, gara gizabanako informatu, pentsatzaile eta erabakimen librekoak (edo halako zerbait). Jendearen aldetik, erlazio sozialei buruzko kontzientzia oso lausoa izaten da.

Oraindik ere euskaldun askori iruditzen zaio oso normala dela Espainiapean egotea, edo Frantziapean. Espainol gehieneztat imajinaezina eta are kriminala litzateke euskaldunen burujabetasuna. Emakumeak ere mendetan egon dira morrontza domestikoarekin identifikatua. Apurka-apurka ohar-tzen gara dominazio maskulinoaz gizonak, kontzientzia oso lausoz. Pobreek berezko zerbait lez hartzen dute aberatsen morroi bizi behar izatea. Denentzako onuragarritzat dute egitura hori aberatsek...

Konformatu beharko genuke. Inkonformea kriminalizatu egiten da. Baina, nola uka daiteke gizakiei eskubide berdinar dagozkigula? Nola uka daiteke autodeterminazioaren ideia? Baina politikak askorako ematen du, ekonomiak bezala. Psikologiak askorako ematen du.

Adibide bat, psikologia zientifikoaren hastapenetan, XIX. mendearen erdialdeko Estatu Batuetan, tratatu zen gaietako bat esklaboen psikologiarena. Poblazioaren parte handi bat esklaboa zen oraindik. Eta patologia bat estudiatu zen, esklabo batzuen askatasun nahia. Badakizue zer ziren zimarroiak, eskapatzen ziren esklaboak. Propietate pribatuaren eta bakearen aurkako terrorismo hutsa zen eskapatzea. Psikologia zientzia bihurtu zenean, Samuel Cartwright psikologoak zehazki aztertu zituen esklabotzaren arazo psikologikoak: 'Arraza beltzaren berezitasun eta gaixotasun psikikoei buruzko informea.' *New Orleans Medical and Surgical Journal* aldizkarian argitaratu zen 1851n. Eta zientzia berri horrek esklaboen libre izateko gogo arraro hori, patologia hori, honela definitu zuen:

Buruko nahasmendua da, beste buru-alienazioen antzekoa, baina sendagarriagoa da normalki.

Izena ere ipini zitzaion gaixotasunari. *Drapetomania* deitu zioten, zientifikoki, esklabo batzuen gatibutzatik ihes egiteko joera absurdoari.

Sendabidea? Tratamendu tradizionalekin jarraitzea gomentatzen zuen sendatzeko Estatu Batuetako lehenengo psikologia zientifikoak: latigoa, girgiluak, burdin gorria, belarri mozketa eta beste erremedio natural batzuk.

Gure normaltasun zibilizatuan, ez gaude oraindik halako zientzialariz inguratuta, askatasun nahi elemental batzuk ukatuak eta kriminalizatuak diren artean?

## **Elkarlanaren ideia**

Azurmendiren ideia errepikatu interesgarri bat dela uste dut herritxikitasunarena. *Manifestu atzeratua*-n esaten zuen ez daukagula kondairarik ere, baizik eta muga zentzugabe asko. *Hegats* aldizkariaren 45. zenbakiaren azalean irudi ederreaz aipatzen du: ontzi oso hauskorreko argonautak garela euskaltzaleak.

Ezin dugu gure burua engainatu euskaltzaleok. Herri txikia, bi estatu boteretsutan zatitua, hiru autonomia diferentetan, izaera linguistiko, kultural, sozial eta politiko oso desberdinez osatuak territorialki eta sozialki. Oso heterogeneoak gara. Ez gara bat, ez bi, ez hiru. Globalizazio sasoiari aintzat hartuak izateko, behar dugu mundu propio bat eraiki, kultura unibertsalean parte hartzen dugun artean.

Ezin dugu gure burua engainatu euskaltzaleok. Herri txikia, bi estatu boteretsutan zatitua, hiru autonomia diferentetan, izaera linguistiko, kultural, sozial eta politiko oso desberdinez osatuak territorialki eta sozialki

Kultura handietan, anglosaxoian, kultura txinatarrean, kultura espainolean edo frantsesean, bestelako erlazioak planteatu daitezke. Euskaldunen eta beste minoria batzuen kasuan, derrigorrezkoa da elkarlana eta elkartasuna. Bakoitzaren eta denen parte hartzea behar da subjektu moduan aritzeko.

Bada elkarlan tradizio bat auzo harremanetan, auzolana eta halakoak. Badira esperientzia kooperatiboak lan alorrean. Ostera, Euskal Herriaren historia errepasatuz gero, begi bistakoa da zatiketa eta sektarismo jokabideak direla nagusi politikaren eta kulturaren alorrean. Politikan, oinaz eta ganboa, bandoetatik datorkigun historia sektarioa ez da eten. Karlisten eta liberalen arteko gerretan higitu ziren euskaldunak naziogintzaren XIX. mendean. Herri proiektu bideragarri bat proposatzeko ezintasunak XX. mendean ere iraun zuen. Eta oraindik ere, XXI. ean, ez dirudi estrategia politiko komunik adosteko asmorik dagoenik, ez maximalista, ez minimalista...

Kubatarren estrategia politikoa alderantzizkoa izan da nagusi José Martirengandik egunok arte: batasun politikoaren estrategia, era batekoa edo bestelakoa izan. Euskaldunen politikan banaketa oinarritzakoa da, alderdi bakoitzak bere estrategia planteatzen du. Bat datozenean, gaitz erdi, baina ez da luzarorako izaten.

Gure hizkuntzaren eta kulturaren bilakaera ere penagarria izan da, Espainiak eta Frantziak ezarritako dominazio egiturengatik, baina baita ere euskaldunok estrategia kulturalean elkartzeko gauza izan ez garelako. Gure hizkuntzaren ortografia batzeko ere ez gara gauza izan XX. mendea amaitu arte. Euskal ortografiaren batasunaren kontrako mendetako borrokak epopeia bat merezi du! Herritxikitasunaren kaltea da txikikeriengatik edo ergelkeriengatik hainbeste borroka egin behar izatea. Baina, txikikeriengatik eta ergelkeriengatik egin ditugun borrokek txikiago eta ergelago bihurtu gaituzte. Ezin dugu jokabidea aldatu?

Urrunetik begiratzen dut, baina iruditzen zait lehenengo belaunaldia dela XXI. mendearen hasierakoa oinarri baten

gainean sortu dena. Zaharrenak erdi erdiarotarrak gara, ia ez genuen euskara batu eta landurik. Gazteek txikikeriak eta ergelkeriak atzean uzteko eginbidea duzue. Sekula ez da izan heziketa sistema euskaldunik azken hamarkadetakoa lakorik. Ez gaude egoera normalean oraindik, normaltasuna imposiblea da, baina badaude oinarri sendoak elkarlanerako. Gauzak elkarrekin eta hobeto egiteko.

Azurmendik elkarlanaren filosofiaz idatzi du *Gizabere kooperatiboaz*, elkarlan hori praktikan ere egin du Jakin Taldearen bidez. Oinarri horietako obreroa izan da, lankide askorekin, Joseba Intxausti, Joan Mari Torreal dai eta zenbat gehiago. Ahaztezina Rikardo Arregi, *Herriaren lekuko*. Emilio Lopez Adan *Beltza* ere aipatuko nuke. Eta Azurmendirekin elkarlanean imajinatzen ditut gaurko *herriaren lekukoak*: Elena Martinez, Pruden Gartzia, Ignazio Aiestaran, Markos Zapiain, Andoni Olariaga, Joseba Gabilondo, Imanol Galfar-soro, Jule Goikoetxea, Eduardo Apodaka, Javier Rodriguez, Hedoi Etxarte, azkenaldian irakurri ditudan batzuk aipatze-arren. Baina aipa ditzakedanak baino askozaz gehiago ari dira lanean euskal pentsamendu kritikoaren bidean.

Zorionez, asko dira, eta lagunak edo gogaideak aipatu ditut igual gehiago, baina ideia da desberdinen artean egiten dela elkarlana. Oker ez banago, jende hori guztia sakabanaturik dabil, komunikabide eta eztabaidagune komunik gabe, ba-koitza bere aldetik estatuaren intelektualitate organikoareki-ko erresistentzian. Ez gure komunitatearen, baizik eta gure komunitatearen zatiketaren intelektual organikoak bihurtu-ta ustekabea. Eta elkartasuna ez da dogma edo teleologia baten arabera sortzen, baizik eta behetik gora. Gure fabrika zaharretako adreilu gorrizko tximinia luzeak behetik gora eraikitzen ziren, Xabier Mendigureni entzun nion behin gorengo adreilu-zirkulua egin nahi izaten zutela lehenengo gure politikari batzuek, goitik beherako eraikuntzak behetik gorakoarekin bat egingo zuelakoan noizbait.

Behetik gora egiten dira eraikuntzak, estrategia bate-kin eta adostutako planekin. Eta ideia da denak garela,

eztabaidatzeko bada ere, beharrezkoak eta eraikuntza horren oinarriak. Eztabaidan eta elkarlanean ari gara, eta ez dakigu zer aterako den. Horrek inplikatzen du indeterminazioa, hau da, elkarren artean erabaki behar ditugu gauzak, ari gara eta ez dakigu oraindik non geratuko den tximinia luzearen gorengo zirkulua.

Elkartasunak ez du saihesten konfliktoa. Ez da diferentziarik eta gatazkarik gabeko elkartasunik. Eztabaidak eta konfliktoak inplikatuta daude elkartasunean. Elkartzea bera gauza konfliktiboa da. Baina elkartzen gaituen behar bat da. Eta hori, Javier Sadabaren liburu baten titulua aipatzearren, «kausa galdu» guztietan gertatzen da...

Badakizue badirela Lehenengo Internazionala, Bigarren Internazionala, Hirugarren Internazionala, Laugarren Internazionala. Gaur egun, hamaika internazional daude gutxienez. Baina ondo funtzionatzen duen internazional bakarra Aberatsen eta Boteretsuen Internazionala da.

Pintada bat ikusi nuen aspaldian gorritz fabrika horma batean:

Munduko langileak, batu zaitezte, azken abisua da!

Euskaldunei ere esan behar zaie. Berdin da hiru esparru administratibotan izatea, berdin da norbere alderdia baino besteak okerragoak izatea, berdin da norberak besteak baino arrazoi gehiago izatea:

Euskaldunak, batu zaitezte, azken abisua da!

Eta galdera utziko dizuet, zelan jarraitu edo zelan abiatu elkarlan hori politikan eta kulturen?

## **Komunikazio espazioa**

Esan dizuet hasieran ez nuela *Hizkuntza, etnia eta marxismoa* irakurri. Gai horietan apur bat gogaituta nengoen, Otto Bauerrek eta Josip Stalinekin, Krutwigek eta Txillardegik, Manu Escuderok eta enparauk esandakoekin nengoen gogaituta.

Puntu batetik aurrera, Celso Emilioren ideiarekin identifikatu nintzen horretan ere. Proba dezakezue, udaberrira arte itxadon igual, itsaso bazterrean etzateko, eta, orduan, pentsatu, euskalduna naiz nahi dudalako...

Gero heldu zen teorizatu beharra, eta eraiki beharra, edo aldrebes nahi baduzue, eraiki beharra eta teorizatu beharra. Eztabaidan, konfliktoan. Nik ideia bat landu nahi izan dut beti, eta ez dut egin, behar bezala behintzat, pentsatuz beste batzuek egingo dutela, edo igual egin du ja baten batek eta ez naiz enteratu. Nazioa, batez ere, komunikazio espazioa dela. Nazioa ez da etnia, ez da hizkuntza, ez da ideologia. Nazioa batez ere komunikazio espazioa dela.

Komunikazio komunitatearena nazioaren beste definizioak baino funtzionalagoa da, nire ustez. Ez nazioa garela demostratzeko, jakina. Alderantziz, nazioa ez garela erakusteko. Teorialari abertzale guztiak enpeinatu dira beti nazioa garela demostratzen, erraza egin zaie mapa marrazki bat egitea, erraza mendiko hizkuntza identifikatzea, erraza beren alderdia nazio proiektuarekin konfunditzea. Nazioa garela frogatzeko definitu da nazioa. Nire ustez, onuragarriagoa litzateke aldrebes. Gure nazio ezaren inguruan eraikitzea komunitatea, elkarrekiko komunikazioan. Konturatu behar dugu ez garela nazioa, eta jakin behar da zergatik eta zelan ez garen nazioa.

Komunikabide egitura elementalenetan ikusten da ja argi ez garela nazioa. Badakizue norenak eta zertarako diren gure herrialdeetako probintzietako egunkaririk irakurrienak: *El Correo*, *El Diario Vasco*, *Diario de Navarra*, *Sud-Ouest*; irratirik entzunenak eta telebista ikusienak. Guk umetan asignatura bat izan genuen eskolan, FEM, *Formación del Espíritu Nacional*, orain ja ez da beharrezkoa estatuarentzat. Argi dago

Nazioa, batez ere,  
komunikazio espazioa  
da. Nazioa ez da etnia,  
ez da hizkuntza, ez  
da ideologia. Nazioa  
batez ere komunikazio  
espazioa da

Hegoaldeko euskaldunen erreferentzia kultural eta politikoak espainolak direla, komunikazio espazio espainolekoak. Iparraldeko jendea, berriz, komunikazio espazio frantses hutsean bizi da. Oso euskaldun gutxik dituzte, kultura orokor horretaz aparte, erreferentzia kultural euskaldun orokorrak.

Euskalduna egundo baino espainolagoa da alde horretatik, egundo baino frantsesagoa, antiespainola eta antifrantsesa izanda ere bere buruaren ustez. Nazio-estatuak lortu dute ja euskaradun hutsik ez izatea, eta ez da konpetentzia linguistikoaren kontua. Espainolak edo frantsesak gara, ez termino elektoral edo termino politikotan. Euskal nazionalismoaren energia horretara bideratuta dago eta gehiengo abertzale batzuk erdikusten dira. Politika ideologikoki abertzalea haziz joan da, baina euskaldunen erreferentzia kulturalak, egunero bizimoduan, kultura orokorrean, kultura espainol komun eta kultura frantses komunaren sail erregional batzuk dira. Ez da egia euskaldunek asumitzen dituzten erreferentzia kulturalak unibertsalak direnik, baizik eta oso espainolak, eta oso frantsesak, eta erraz frogatzen da hori batzuk eta besteak zer diferenteak diren ikusita. Gure antiespainolismoa ideologia ordainekoa eta zuritzailea da, kolonizatuaren ohikoa. Ez da politikoki korrektua izango kolonialismoa aipatzea. Baina, komunikazio egituren aldetik, egoera kolonial edo postkolonial tipikoan gaude.

Nazioa batez ere komunikazio espaziotzat hartzeko ideia horri buruz ez dakit asko idatzi den. Nik Karl Deutschen *Nationalism and Social Communication* ezagutzen dut. Nazioen historia bilakaera industrial eta teknologikoarekin lotutako komunikazio egituraren arabera aztertzen da saiakera horretan. Beste teoriarari batzuk ere ohartu ziren nazio gintzan komunikabideen garrantziaz. Ernest Gellnerren *Nations and Nationalism* irakur daiteke. Eta Benedict Andersonek, *Imagined Communities* nazio gintzaren hasiera eta bilakaerari buruzkoan, oso ondo esplikatzen du inprentak eta prentsa idatziak XIX. mendeko nazioen formazioan izan zuten eragina. Argi dago irratia eta telebista funtsezko faktoreak

izan direla xx. mendeko nazio-estatuaren inposizio eta homogeneizazioan. Orain beste komunikabide eta industria kultural batzuk ditugu.

Esaten digute ja mugarik gabeko munduan gaudela. Egia da. Eta gezurra ere bada aldi berean, ezta?

Nazio-estatuak ezartzen ditu komunikazio egitura komunak eta politika kultural nazionalak. Dauzkagun nazioak Espainia eta Frantzia dira, batu eta homogeneoak, biztanle zentsuarekin eta hizkuntza bakarrarekin, kartografia seguruekin eta errealitatea sortzeko agendekin. Komunikabideek ez dute bakarrik egitura politikoa babesten eta kultura homogeneizatzen. Gure balioak eta gure egunerokotasuna antolatzen dute. Eta erabakigarriak dira identitate kolektibo deitzen den horren eraikuntzan.

Euskaradungoaren identitate kolektiboa minoritarioa izanda Euskal Herrian, geure heterogeneotasun berezkoekin, etorkinak gure populazioaren parte gero eta handiagoa direnean, zer egin dezakegu gure herri oso horren komunikazio espazioa osatzeko?

## **Bestearena ulertzen duena**

Azurmendi estimatzen dudala esan dut eta orain artekoa-ekin esplikatuta dudala uste dut zergatik, lankide sentitzen dudala Euskal Herria den espazioaren eraikuntzan. Uste dut komunikazio gune horretan bera erreferentzia ezinbestekoa izango dela luzaroan. Estimaten dut baita ere askatasun eta balio elemental batzuen defentsan jardun delako beti. Baina motibo tekniko bat aipatu nahi dut ere bai. Filosofo, politikari, kritikari gutxi ezagutzen dut interlokutoreen pentsamendua hain ondo konprenitzeko gauza dena.

*Formación del Espíritu Nacional* deitzen zen asignatura hartan, mutikotan, erakusten ziguten komunistek dirua eta seme-alabak kentzen zizkietela gurasoei, eta abertzaleek Euskal Herritik bota nahi zituztela abertzaleak ez zirenak, eta



Gerra Zibila ideologia gorri-separatisten ondorioa izan zela. Gezurrak ziren, baina besteen hitzak desitxuratzea ohikoa da eta ia derrigorrezkoa bihurtu da harrezkeroko ariketa in-

telektualean. Tertulianoen eta politikarien artean, zer esan. Ignacio Sánchez-Cuencak salatu du Espainian nagusi den lotsagabekeria intelektual hori...

Gezurkeria zaharra da, las-tozko interlokutorearen falazia deitzen da, besteak dioena itxuraldatu edo asmatu eta omen dioen horren kontra argumentatzea nahieran. Ez dago okerragorik, eztabaida onerako, bestearen arrazoia okertu eta itxuraldatzea baino. Gerra baliabide intelektual da. Hala ere, ohikoena bihurtu da alor askotan. Bestearen argudioa,

gainditu ezin denean, saihestu edo desitxuratzea. Internetek ematen duen moduko urruntasunarekin, gainera, nagusitasun intelektualaren froga erosoena insultoa izaten da.

Besteak dioena ondo ulertu gabe ez dago elkarrizketarik, ez dago komunikazio espaziorik. Antzinako Indiako eztabaida filosofikoetan, metodologia bat zegoen ulermen hori ziurtatzeko. Batek argudio bat esan eta besteak, bere kontraargudioa azaldu orduko, entzundako argudioa argi laburbildu behar zuen. Aurkako ideiak ulertzen ez bazituen, ez zuen eztabaida jarraitzeko eskubiderik.

Zentzu horretan, kontrako adibidea da Azurmendi. Haren irakurleok uste dut pribilegio ederra dugula. Iraultza sobietikoan erabili ziren argudioak modu paregabe jaso zituen gai horri eskaini zizkion hiru liburuetan. Gero, *Zer dugu Orixeren kontra* eta *Zer dugu Orixeren alde*. Horixe dira, dialogo ireki bat Orixerekin. Ez dakit Kolakowskiren kasuan,

Ikusia dut Azurmendiren  
pentsamendua  
guztiz distortsionatua  
harrokeria intelektual  
espainolaren aldetik,  
intelektual etnizista  
muturreko moduan  
presentatua. Pentsatzen  
dut egunen batean  
lasaituko dela Espainiako  
histeria nazionalista hori

Kolakowskiren liburuak ez nituen ondo ulertu, susmoa dut Kolakowskik berak ere ez zituela Kolakowskiren liburuak ulertzen. Igual, Azurmendiren liburuak irakurrita enteratuko zen Kolakowki Kolakowskik esaten zuenaz...

Jon Mirande, Schopenhauer, Nietzsche, Spengler... Nork analizatu eta kontestualizatu du Jon Miranderen pentsamendua hari buruz errepikatzen diren sinplekeriez aparte? Eta Etienne Salaberry, Jose Maria Arizmendiarieta, Bitoriano Gandiaga. Eta Ilustrazio alemana, Goethe, Herder, Humboldt, eta, bide batez, Ilustrazio frantsesa. Zenbat topiko oker behin eta berriz erabiliak geratzen diren begi bistan. Renan, adibidez, zenbat babokeria irakurri dugu eta idatzi dugu Renanen esaldi bat edo beste kontestutik aterata, harik eta Azurmendi heldu arte argitzera Renanek zer esan zuen, zergatik eta zertarako...

Ostera, ikusia dut Azurmendiren pentsamendua guztiz distortsionatua harrokeria intelektual espainolaren aldetik, intelektual etnizista muturreko moduan presentatua. Pentsatzen dut egunen batean lasaituko dela Espainiako histeria nazionalista hori. Konturatuko dira Azurmendi hausnartzaile razionalista umila baizik ez dela. Eta pentsatzaile ona dela, baina batez ere ulertzaile fina. Entzuten jakitea mintzatzen jakitea baino inportanteagoa da. Antzinako indiar filosofoek ondo zekiten hori, kasta horretakoa da Azurmendi. Naturak berak ere ondo daki hori: bina belarri eman dizkigu denei mihi bana eskaini orduko.

Ez zaizue iruditzen, idazlea izatea baino, irakurle ona izatea inportanteagoa eta zailagoa dela?

Horixe ba, badituzte Azurmendiren liburu batzuk irakurri gabe oraindik, asko idatzi du. Irakurrita ditudan Azurmendiren liburuetan zentzu berriak aurkitzen ditut berrirakurtzean. Azurmendirenak irakurtzea onuragarria egiten zait beti. Zuei berdin gertatzen bazaizue, esan behar dela uste dut, ez da gure meritua bakarrik, baizik eta Azurmendiren obraren balioa. 📖

# Nola pentsatu etika orain eta hemen?

Zentzu komuna, etika formala eta giza eskubideak

■ Andoni Olariaga Azkarate

*Filosofian doktorea*

## Erlatibismoa Azurmendiren pentsamenduan

Nazi bat hiltzea gaizki dago?...

Halako galderekin hasten zituen Joxe Azurmendik filosofia karrerako etika klaseak. Gaztetako erantzuna suma dezakezue zein izan zitekeen. Galderak ez zuen erantzunik bilatzen, begi-bistakoa da. Aldiz, etikari buruzko hausnarketari abiapuntua jartzen zion. Horrela, galderaren bitartez, gure usteen gaineko analisia egitea bilatzen zuen, etikaren fundamentuaren edo fundamentu ezaren gaineko hausnarketa bat abiatzeko asmoz. Azken finean, gure usteak, pentsamenduak beste maila batean pentsatzeko ariketa baita filosofia, gure pentsamenduaren inguruko pentsatzea, Azurmendik inoiz definitu bezala.

Azurmendik etika eta politikaren arteko harremanaz hiru liburu idatzi zituen 90eko hamarkadaren bukaeran: *Demokratak eta biolentoak* (1997), *Oraingo gazte eroak* (1998) eta *Euskal Herria krisian* (1999). Ermuko izpirituak bultzatuta, biolentzia baten kondena moralaren aitzakiapean, kultura kristau katoliko bortitz eta biolento batean murgilduko

Nola pentsatu etika orain eta hemen?

zen gure herria. Horren ondorioa izango zen, hain zuzen, 2002an onartuko zen Alderdien Legea, bortizkeria (ETArena soilik) «onartzen» zuten alderdiak ilegalizatzeko sortua (Batasuna alderdia). 2012an, *Barkamena, kondena, tortura* (2012) izenburupean, gai berari buruzko liburua argitaratu zuen Azurmendik, gaiari berriz helduz.

Zoritzarrez, historia hurbilari erreparatuz, eta egungo gizartean, politikagintzan eta komunikabideetan sustatzen den eztabaida politiko-kultural eta moralei begiratzuz gero, Azurmendik urte luzez egindako hausnarketa moduak desertuan egindako predikuak direla ikus daiteke. Kontzientzietara sartzen den kultura katoliko biolento batean bizi gara, oraindik ere.

Horregatik dira hain garrantzitsuak Azurmendiren gogoeak. Nola pentsatu etika bat gaur egun? Biolentzia zilegia da? Edo, giza eskubideak absolutuak dira? Biolentzia kondenatu behar ote da datorren lekutik datorrela politikari duina eta demokratikoa izateko? Biolentzia guztiak berdinak dira? Errua publikoki adierazi behar ote da hiritar eskubidedun izateko? Horrela edo hala sentitzera behartuta gaude?

Baina, orduan, dena erlatiboa da? Denak berdin balio du? Elkarrekin bizi gaitezke balioen erlatibotasun hori onartuz?

## **Zer da etika? Etikaren fundamentazioaz**

Iruditzen zait, Azurmendik askotan egiten duen bezala, galdera sinpleenetik hasi behar garela abiapuntu bezala. Alegia, zer da moralala, etika? Etikak, funtsean, grekozko ἠθος (*ethos*)-etik etorria, ohitura esan nahi du. Morala, berriz, latineko *mos*-etik datorren hitza izanik, kultura, ohituren multzoa esan nahi du, etikak bezala (Azurmendi 1999: 69). Etika, beraz, giza ekintzen balorazioaz arduratzen da, ekintza baten zuzentasun ala okertasuna erabakitzeke, iritziak funtsatzeko, nola bizi behar dugun aztertzeke itaunketan. Zizeronek usadioen filosofia bezala definitu zuen. Horren ondorioz, immoralala edo ez-etikoa dena, ohituratik kanpo

dagoena pertsona edo ekintza izango da. Morala edo etikoa ez den gizakia immorala izango da, ohituren kontrakoa.

Morala edo etika, hortaz, norberarentzat justua denaren eta bidegabea denaren artean bereizteko ahalmena da, indibiduoak edo gizarte batek duten balio sistema. Ez dago, *a priori*, egiazkoa ala faltsua den moralik. Eta hortik abiatzen gara, hori da abiapuntua. Tradizioak ez dira onak edo txarrak, badira; tradizioaren parte den horrentzat eta horren balioak mundura proiektatzen dituenarentzat dituzte soilik propietate desiragarri edo arbuiagarriak. Baina, aurrekotik ez da ondorioztatzen balio guztiek 'balio' berbera dutenik, edo 'denak berdin balio' dutenik. Alegia, balioak erlatiboak izateak ez du esan nahi (balio absolutuen nostalgian bizi denarentzat baino) balio guztiek berdin balio dutenik. Balioen erlatibotasuna onartzeak esan nahi duena zera da: sistema sozial, historiko, politiko eta kultural baten barruan ulertu behar direla, erlazioan.

Zein da problema hemen? *De facto*, pertsona bakoitzak balio sistema bat baldin badu, kultura bakoitzak berea, erraz atzeman daiteke arazo bat dugula

begien aurrean: azken finean, etikaren fundamentazio falta. Filosofian aro modernoan landu den auzia da, eta Immanuel Kant filosofoaren obran agertu da, batez ere, korapilo bezala.

Azurmendik, oso kantiarra izanik, ederki esplikatzen du afera hau: morala edo etika filosofiatik aztertu nahi badugu, fundamentu razionala eta unibertsala eman nahi badiogu, eduki enpiriko guziak alde batean utzi beharko ditugu. Hau da, errealitatearen, denboraren... menpe dagoen guztia alboratu eta etikaren funtzionatzeko eraren eskemari, formei

Egungo gizartean, politikagintzan eta komunikabideetan sustatzen den eztabaida politiko-kultural eta moralei begiratuz gero, Azurmendik urte luzez egindako hausnarketa moduak desertuan egindako predikuak direla ikus daiteke

Nola pentsatu etika orain eta hemen?

erreparatu beharko diegu. Eta, beraz, etikaren fundamentazio bakarra bere formak emango liguke. Eta horretan datza, hain justu, etika horren paradoxarik handiena: funtzionatu ezina. Izan ere, teoria moral guztiak neutroak dira jokabide erreparari dagokionez. Edukia sartzean, erlatibismora egiten dugu ihes. Aro Modernoa, hain zuzen, moralak fundamentazio bat izan dezakeelako ustea apurtu duen garaia da.

Hasieran esan dudanez, filosofia pentsatzearen pentsatzea da. Etikak ere, xx. mendean, jauzi bat eman zuen, metaetikaren esparrura: moralaren gaineko hausnarketa eginez. Galdera moralek «abortatzea gaizki dago?», «nazi bat hiltzea gaizki dago?» edo «gobernu antidemokratikoen kontrako biolentzia zilegia ote da?» galdetzen duten bitartean, metaetikak zera galdetzen du: «zerk egiten du ekintza bat morala ala immoral izatea?». Azken galdera horri erantzuteko metaetika asko daude: moralean emozioek eragiten dutela dioen korrontea (sentimentalismoa); errealista moralak, gertaera moralak daudela aldarrikatzen dutenak; subjektibistak (judizio moralak egiazkoak ala faltsuak dira pertsona bakoitzarentzat)...

Ba al dago metaetika zuzenik, ordea? Ba al dago irizpide ziurrik ekintza bat morala den edo ez esateko? Azurmendik zera gogorarazten du:

Eztabaida liteke, metaetika bat ez ote daitekeen agian absolutuki oinarritu –etika formal huts bat–, baina eduki material edo balio konkreturik ezin barnebilduko luke. (*Ibid.*: 43)

Alegia, Kanten arazoa, berriz: edukia sartzean, erlatibotasunera egiten dugula ihes. Hau da, edozein etika formalekin A eta ez A berdin-berdin egin eta justifikatu daitekeela. Eta, beraz, ohartzen gara jokabidearen arau hertsia dirudienak ez daukala inongo mugarik, formala delako, hain zuzen.

## **Balio oro erlatiboa da**

Baina, gure kezkak berdin jarraitzen du: ba al dago *a priori* jakiterik ekintza justu eta bidegabeak nola zedarritu? Balio

oro ohiturekiko erlatiboa da, ala erlatiboa eta historikoa ez den baliorik badago? Azurmendik honela planteatzen du:

Ostera genezake arau eta balio batzuk ez direla historikoak, ez daudela kultura ezberdinen irizpide ezberdintasunaren menpe, aldaezinak direla eta kultura nahiz garai guztietan berdin agintzen diotela gizakiari. Baina orduan ez dira gizakiarenak, ezpada [...] gizakiaren aurre eta gainetikoak (eternoak eta transzendentalak). Arau absolutuak onartzea, gizagaindikoa onartzea da, transzendentzia onartzea. (*Ibid.*: 146)

Hortaz, balio oro erlatiboa da, historikoa, ohiturekiko erlatiboa; hortik hasi beharra dago. Balioak erlatiboak izateak, ordea, ez du esan nahi balioek eboluzionatu egiten ez dutenik, edo guztiz subjektiboak direnik. Izan ere, *de facto*, kulturak eta gizarteak inplizituki onartuak diren balio objektibo absolutuekin funtzionatzen dute. Azurmendik gogorarazten digu: «Bere absolutu moduak edukitzen ditu subjektiboki bakoitzak (norbanakok, herrik, erlijioak, kulturak, arok)» (*ibid.*: 128).

Baina berriz galderara bueltatuz: nola bizi gaitezke elkarrekin, nola elkartu, ulertu, ez badago apriorizko irizpiderik balioen eta argumentuen artean egokiak zein diren definitzeko? Problema bat dugu.

## **Moralaren hiru fundamentu: zentzu komuna, utilitarismoa eta giza eskubideak**

Gizarte garaikidean, galdera horri erantzunez, eta etika soziala arautzeko eta gizaki ororen ekintzen zilegitasun morala epaitzeko, hiru irizpide erabili izan dira. Batetik, zentzu komuna edo sen ona; bigarrenik, printzipioen etika eta utilitarismoaren etika; eta, azkenik, giza eskubideak.

(i) Lehen irizpideak esaten digunez, ekintza baten aurrean sentitzen dugun konmozioa unibertsala da, ekintza batekiko uko emozionala dago, barnekoa, sen naturala. Adibidez, hilketa baten aurrean, denok sentitzen dugu barne konmozio natural bat, eta hori gizakiaren sen natural bati lotua dago.

Nola pentsatu etika orain eta hemen?

Arazoa, noski, ebidentea da: baldin eta sentimendu bat bada, ezin da morala izan, ezin delako absolutua izan. Izan ere, baldin eta nazi bat edo ume bat hiltzen dutenean denok berdina sentitzen ez badugu, ez du balio irizpide ziur bezala. Denok berdina sentitzen ote dugu auzi moral berberen aurrean? Noski, ez badugu denok berdin sentitu behar dugula pentsatzen, eta hala edo horrela sentitzen ez duenari gizatasuna ukatu, biolentzia dela esan, terrorista, eta abar, fundamentu horrek ez digu balio irizpide ziur bezala.

Nondik norakoa eta zer-nolakoa ote da sen edo sentimendu hori? Norbaiten dohain partikularra bada, jendartean ez digu ezertarako balio; kulturala bada, kultura batzuetan funtzionatzen eta beste batzuetan ez duena, izango da [...] Sen naturala ote da hori, biologikoa edo, instinto animal baten antzera diharduena gure baitan? Horrela bada, ordea, ez da morala. Gainera, gizakiaren eboluzioak ekarritako instintoak edo naturala bada, denok parekoa eduki beharko genuke munduan, eta berdintsua gizadiaren leku eta garai guztietan; ondorioz, batzuek ez edukitzea, makur natural edo biologikotzat jo beharko litzateke, ez litzateke izango arazo politikoa –zentzu aristotelikoan– eta ez morala. (*Ibid.*: 24-25)

Argi geratzen da etikaren eztabaidarako ez dela oso laungarria irizpide hori. Izan ere, sen naturalaren edo zentzu komunaren aldarrikapen unibertsala balio hegemoniko batzuk eztabaida ezin bilakatzeko

Etikak izan dezake teoriaren bat irizpide ziurren bat zedarritzeko? Badaude bi teoria moral nagusi, ekintza baten aurrean, printzipio moraletan edo ekintzaren ondorioetan jartzen dutenak begirada

trikimailu bilakatzen da, eta ondokoa deshumanizatzeko estrategia politiko. Eta pertsonak deshumanizatzen direnean, badakigu zer gertatzen den, ondo jakin ere, gure herrian.

(ii) Orduan, sen naturala ez bada, etikak izan dezake teoriaren bat irizpide ziurren bat zedarritzeko? Badaude bi teoria moral nagusi, ekintza baten



aurrean, printzipio moraletan ala ekintzaren ondorioetan jartzen dutenak begirada. Batetik, *konbentzimenduaren etika* (sentimenduaren etika) ekintzaren egokitasun politiko etikoaz baino ez da arduratzen, ondorioez beharrean. Ez du galdetzen, esaterako, nazi bat hiltzea testuinguruaren arabera egokia ala ezegokia ote den, ondorioak eta erreakzioak zein izango ote diren; etika horrek «ez du jasaten munduaren irrazionalismo etikoa» (*ibid.*: 26). Weberrek esaten zuen etika hori ezin dela biolentziaren monopolioaren gainean dabilen politikariaren etika izan, sermoilariarena baizik. Esaterako, biolentzia datorren lekutik datorrela kondenatzea eta irizpide bezala jartzea elkarbizitzarako, beste gabe, lerdokeria hutsa da; are gehiago, oso eroso, norberak eragiten dituen biolentzien erantzukizunari muzin egitea ahalbidetzen duelako.

Bestetik, *erantzukizunaren etika* legoke, ondorioak kalkulatzeko dituen: adibidez, norbaitek ondoriozta dezake biolentzia ondo egon litekeela gatazka politiko bat soluzionatzeko, ondorio politiko eta sozial hobeak ekartzen dituelako: ekintza batek gehiago baten onura ekarriko badu ondorio bezala, ongi dago etikoki eta politikoki.

Laburtuz, lehen etikaren afera, bere formaltasunaz gain, erabakiak hartzeko ezintasuna da, eskuak zikinduta izatera behartua dagoenak ezin du halakorik predikatu lotsagorritu gabe; bigarrenarena da ondorioen izenean astakeriarik ankerrenak justifikatu daitezkeela. Izan ere, adibidez, hamar pertsona hiltzeak milioi bat salbatuko badu, ondorio hutsen etika batean ondoriozta daiteke soilik; pertsona bat torturatuz beste baten heriotza ekiditeko aukera balego, ondorioen etikak torturatzea justifika dezake. Erantzukizunaren etikaren arazoetako bat ondokoa da, ondorioak gizarte moderno irekian zeharo kalkulaezinak direla askotan (*ibid.*: 27).

Zein da soluzioa, orduan? Kontrako bi irizpide diruditenak aldi berean beharrezko bi irizpide dira. Helburuei begira gehiago dagoena bat, ekintzen ondorioei; eta bitartekoei begira gehiago bestea, prozedurari, bideari. Azurmendik gogorarazten duen bezala, giza ekintza oro beti helburu batek

Nola pentsatu etika orain eta hemen?

justifikatzen du, ez edozein helburuk, ordea. Ondoren, helburu horrek bitartekoak justifikatzen ditu, ez edozein bitarteko, noski. Helburua ontzat eman dugula suposatuz, helburuak bitartekoak justifikatzen dituela pernandoren egia bat baino ez da. Printzipio hutsetan geratzen dena beldur da erabakiak hartu beharra saihestu eta erresponsabilitatea hartzeaz; helburu hutsei edo ondorioei begira dagoenari printzipioak bost axola zaizkio. Biak, hortaz, tentsioan, kontrako logikekin konbinatzen dira praktikan. Eta ez dirudi, orobat, etikarako fundamentu ziurrerako balio digutenik.

Orduan, beren fundamentu jainkotiarraren aldetik ezin badira, eztabaida litezke, beraz, komenientziaren aldetik? Halaxe da, bai. Hobeto esan, horixe izaten da kulturek berek astiro-astiro urteetan eta mendeetan egiten dutena balioekin, ondorioetatik oharrikasiz, hots, eskarmentua hartuz, transformatuz, eboluzionatuz (moralki). Horrela ikus-ikasten da balioek benaz eta egiaz zer balio duten, h. d., balioak zer balio diren egiatan. (*Ibid.*: 88)

Arazoa, ikusten ari garenez, teorikoa baino, praktikoa da. Azurmendiren iritziz, kulturek horrela egiten dute aurrera, balioek gizartean ekartzen dituzten ondorio praktikoen onuratan begirada jarritz, printzipio moralak eraikiz eta berreraikiz.

(iii) Giza eskubideak, gizakiaren historian, modu batean edo bestean, konstante bat izan dira. Jatorria askotarikoa bada ere, oinarri kristaua dutela esan genezake. Egun ezagutzen ditugun giza eskubideak 1948ko estatuen adierazpen batean sinatu dira Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsal bezala. Zein helbururekin? Gogoratu behar da hiru urte lehenago Bigarren Mundu Gerra bukatu zela, historiako gerrarik bortitzena. Hori horrela, giza eskubideen hasierako funtzioa estatuaren gehiegikeriak geldiaraztea zen.

Balio ote digute giza eskubideek irizpide ziur bezala gaur egun etikarentzako? Unibertsalak eta apriorizkoak dira, garai guztietarako eta guztiontzako baliagarriak? Problema, hor, zera da: gaur egungo gizartean, absolutuak deklaraturako balioak edo printzipioak daudela, giza eskubide naturalak, kasu,

«eta ez izatea batere absolutuak praktikan, ez sentimenduan, ez inon, itxurazko arrazoimen ilustratu faltsu batean baino: ikus tortura, adibidez» (*ibid.*: 67).

Giza eskubideak onartu eta estatu modernoan fundamenteak bilakatu ziren. Fundamentu horiek, ordea, teologikoak dira. Izan ere, giza eskubideen gutunak gizaki ororen duintasun ukiezina du fundamente: kontzientzia ororen balioa, soilik kontzientzia izateagatik. Non dago gure existentziaren balioa? Balio hori ez gizarteak, ez historiak, ez ezerk ez dit ematen; baizik eta, hain zuzen, horien kontra eta gizadiaren historia faktikoaren kontra, bakarrik gizaki izateagatik dauka giza eskubidea gizakiak.

Balio ote digute giza eskubideek irizpide ziur bezala gaur egun etikarentzako? Unibertsalak eta apriorizkoak dira, garai guztietarako eta guztiontzako baliagarriak?

«Giza duintasuna ukiezina da», deklaratu dugu. Gizaki norbanako edo pertsonaren duintasunaren ukiezintasun horren inspirazioa erlijiotik hartu da, agerian dago. Deklarazioaren zirriborroak gizon-emakumearen ukiezintasun eta balio gorenaz hitz egiten zuen. Azkeneko erredakzioan, santutasuna ezabatu eta (haren baliokidetzat ordea!) «dignity» ipini da, eta azken edo goren baliotik orobat «ultimate» kendu egin da, arazo filosofikoak ekidin (itxuraz) eta testuari izaera juridiko soil emateko. (Azurmendi 2009: 178)

Gizakiaren duintasunaren ukiezintasuna erlijiotik hartu da, hortaz, eta haren fundamentua fedea da, ez datu empiriko bat, ezta fundamentatu daitekeen arrazoimenaren printzipio bat ere. Baina arazoa da duintasun hori deklarazio juridiko baten oinarri gisa jarri dela, munduko estatuen batzar batean. Hortaz, fede horrek fundamentu juridikoa du. Alegia, giza duintasun horren fundamentua Nazio Batuen Erakundea osatzen duten estatu sinatzaileak dira. Eta, azkenean, estatuak dira, hortaz, giza eskubideen fundamentu azkena: horiek dute betearazteko (edo ez) ardura eta betebeharra.

Nola pentsatu etika orain eta hemen?

Azurmendik (1999: 108) gogorarazten du giza eskubideen funtzio primigenioa estatuaren gehiegikerien edo gehiengoaren arrazoiaren kontrako balazta jartzea izan zela. Hain zuzen, Frantziako Ilustrazioa gertatu ondoren, 1793ko Gizakiaren eta Herritarraren Eskubideen Adierazpeneko 35. artikuluan espresuki esaten da insurrekzioa eta iraultza obligazio moral bat dela gobernuak jendearen eskubideak urratzen baditu.

Gobernuak herriaren eskubideak urratzen dituenean, matxinada da herriarentzat eta herriaren zati batentzat bere eskubide sakratuena eta eginbeharririk ezinbestekoena.

Ongi zekiten orduan iraultza ez duela herri oso batek egingen, parte batek bakarrik baino ez.

Zer gertatu da, beraz, moralaren fundamentu berri izan nahi zuten giza eskubideekin? Estatuaren eta gehiengoaren arrazoiaren izenean egiten diren basakeriak geratzeko sortu den hori estatuaren beraren gehiegikeria edo basakeria berriak justifikatzeko instrumentu bilakatu dela, tamalez. Eta, beraz, etikaren fundamentu garaikidea izan nahi duenak ere ez digu balio fundamentu absolutu bezala.

Azurmendik, horrela, banan-banan, fundamentu horien historikotasun eta erlatibotasuna erakusten dizkigu. Eta geratzen zaigun azken galdera, hortaz, hauxe da: nola pentsatu etika gaur egun, azken fundamentu horiek balio ez badigute? Nola praktikatu etika gure artean, fundamentu ziurrik ez badago?

## **Nola pentsatu etika Euskal Herrian XXI. mendean?**

Azurmendiren analisi etikoetan konstante bat da ondoko ideia: badugu kultura bat, inongo paperetan idatzita ez dauden eta gure elkarbizitza eta gure arteko liskarrak fundamentatzen dituzten absolutuekin funtzionatzen duena egunerokoan. Eta, aldiz, badugu paperetan oso modu absolutuan eta solemneki idatzita dauden eskubide eta printzipio asko, boteretik besteei exijitzen zaizkienak baina inortxok ere betetzen ez dituenak, estatutik hasi, haien egituretan barrena

joan, epaileengandik pasa, Jaurlaritzara, azken polizia ton-toarenganaino joan eta herritar xumeengan bukatuz.

Eta, orduan, zer egiten dugu, eta zer predikatu? Bada, kultura dogmatiko batean bizi gara. Kant aldarrikatzen duena, baina Munilla praktikatzen duena. Immanuel Kantek, artxifamatua eta artxiaipatua den *Zer da Ilustrazioa?* idatzian, ondokoa esaten zuen:

Askatasuna da soilik beharrezko Ilustrazio honetarako; eta kalte txikiena egiten duen askatasuna: gauza guztietarako norbere arrazoimenaren erabilera publikoa egitekoa. Baina alde guztietarik honako oihua entzuten dut: «Ez arrazoitu», dio ofizialak, «ez arrazoitu, egin!». Zerga-biltzaileak: «Ez arrazoitu, ordaindu!». Apaiak: «Ez arrazoitu, sinistu!».

Horixe esaten da gaur egun ere: ez arrazoitu, obeditu; ez arrazoitu, kondenatu; ez arrazoitu, errua sentitu eta publikoki aitortu. Eta izugarritzko memoria tragikoa duen herri batean, konkista, gerra karlistak, gutxienez 100 urtez estatu terrorismoa eta 50 urtez ETA, hobi komunetan desagertu eta ahaztutako milaka herritar, ehunka emakume bortxatu eta eraildako, beste hainbeste torturatu... Halako memoriarekin, biolentzia bakar baten gaitzespena elkarbizitzarako oinarri etiko bihurtu nahi izatea ariketa izugarri arduragabea da, gure herriaren memoria kolektiboaren aurkako iseka larria. Horretan tematzen dira, ordea, sotanadun politikariak, oraindik ere.

Baina gaur eta hemen etikaz hitz egin nahi badugu, gure burua lotsagorritu gabe, bederen, aurreko konstataziotik abiatu behar dugu. Biolentzia erabiltzea ongi ote dago? Ez dirudi oso gaizki egon denik, estatuak, Jaurlaritzak eta sankristo guztiak erabili du hemen bere helburu politikoetarako. Eta nire galdera, beraz, zera da: erantzun ote diezaioke norbaitek koherenteki eta bere burua lotsagorritu gabe, herri honetan, galdera horri? Lezio etikorik emateko posizioan ote dago inor hemen? Eta biolentzia guztiak berdinak izan ote dira, herritarrenak eta estatuarenak?

Zera proposatzen du Azurmendik aurrekoaren korapiloak askatzeko: zer egingo dugu, gaurko eta etorkizuneko gizartean,

pertsonen aurkako indarkeria erabiltzea inork zilegitzat har ez dezan? Pertsonen duintasuna balio gorena izan dadin? Pertsonak aske eta duin bizi daitezten?

Zer egingo dugu  
pertsonen aurkako  
indarkeria erabiltzea  
inork zilegitzat har ez  
dezan? Pertsonak aske  
eta duin bizi daitezten?  
Hauxe da Azurmendiren  
erantzuna, etika ez dela  
predikatzen, kolektiboki  
egin eta eraikitzen dela

Hauxe da Azurmendik mahai gainean jartzen duen erantzuna, etika ez dela predikatzen, kolektiboki egin eta eraikitzen dela. Alegia, ez dela hainbeste problema teoriko bat, praktikoa baizik. Zer egingo dugu, gizarte bezala, aurrera begira, Euskal Herrian proiektu politiko guztiak zilegi eta egingarriak izan daitezten eta elkarbizitza kultural, generozko, linguistiko, sozial eta morala eraiki dadin? Hori da kolek-

tiboki erantzun beharreko galdera. Eta hori ezin da egin, zirikoki, inori zer sentitu edo zer pentsatu behar duen esanez.

Azurmendi, eztabaida honetan, ez da eroso, eta ez da izan inoren itsasargia, norbaitek esan duen bezala: hobe hala izango balitz, hobe litzateke guztiontzako. Guri dagokigu, hain zuzen, bere hausnarketak serio hartu eta bizi garen kultura espainol izugarri dogmatikoari aurre egiteko erabiltzea.

Azurmendik filosofia pentsatzearen pentsatze bezala definitzen du, alegia, gure ideien, sinesmenen, zentzuen, printzipioen inguruko pentsatze bezala, metapentsatze ariketa bat, finean. Uste dut, herri bezala, espiritu hori, kritikotasun hori gehiago landu beharko genukeela, guztiok aterako ginateke irabazten horrela. 📖

### **Bibliografia**

Azurmendi, Joxe (1999): *Euskal Herria krisian*, Donostia, Elkarlanean.  
— (2009): *Azken egunak Gandiagarekin*, Donostia, Elkar.

# Indarkeria eta identitate politikoa

Agnès Cugno

*Filosofian doktorea eta Baionako René Cassin lizeoko irakaslea*

**E**z naiz etorri bakea lortzera, garaipena baizik», esan omen zion Eszikipion Afrikarrak Hanibali Zamako guduan. Izan ere, gerra bat amaitzeko bi era baitaude: etsaia zanpatzea, edo harekin batera gatazka gainditzeko baliabideak aurkitzea. Hau da, borrokatzen duguna kontsideratzeko bi era: etsai gisa, edo aurkari gisa; eta emaitza kontsideratzeko bi era: bestearen alderitate ukatzea, indarraren bidez identitate hegemoniko bat ezarri (argi eta garbi suntsituz, okupatuz, kolonizatuz edo asimilatuz), edo identitate partekatu bat eraikiz (estatu plurinazionala edo koexistentzia baketsua lortzeko ahaleginak).

Inposatutako identitate politiko baten ideia onartezina bada, ez al da kontraesankorra identitate heterogeneoaren ideia? Funtsean, hauxe da Joxek Azurmendik 'Indarkeria eta balio berrien bilaketa' saiakeran planteatzen duen galdera: ez al da egia kultura anitzeko bakezaletasun adostu baten ideiak benetan ezkututzen duena bere izena esan nahi ez duen hegemonia dela? Horrenbestez, identitate politiko bat definitzeko zein balio aurki dezakegu, ez bada nolabaiteko biolentzia bat, indibiduazio printzipio gisa *a minima* ulertua? Ez al da identitatearen funtsa, azken batean, esentzialki gatazkatsua,

‘haien’ aurkako ‘gu’ baten baieztapen erradikalera murrizten den heinean? Baina, orduan, identitate kultural edo politiko baten defentsak justifikatzen al du indarkeriaren erabilera? Azurmendik hartzen duen bide estuak erlatibismo kulturala gainditzea du helburu, indarkeriaren apologian erori gabe, baina baita uko egin gabe ere botere-nahimenari, zeinean baitatza nahitaez ‘gu’ politiko baten baieztapen oro. Horixe bera izango da gogoeta honen abiapuntua.

Demokrazia liberalak, adibidez J. Habermasengan ikusten den bezala, gatazkaren ordezeko elkarrizketa baten ideian du oinarri. Bere funtsa baita eztabaidatzeak oposizioak desegitako boterea duela, egia partekatu batera heltzea ahalbidetuz. Baina jarrera hori zientzian sostengatzea jada zaila bada, kaltegarria bihurtzen da politikan, eta ezin esan erlatibismoan galtzen garenik baieztatzen dugunean interes zeharo kontrajarriek munduari buruzko ikuspuntu kontrajarriak eta betirako bateraezinak sor ditzaketela.

Politikaren porrota den heinean, indarkeria bereziki txarra izango litzateke, eta galarazi egin beharko genuke beti ala beti. Baina, horrek esan nahi al du identitatea adierazteko bitarteko moduan erabiltzeak debekatua egon beharko lukeela, baita aztergai moduan ere? Politikaren zati madarikatua osatzen duen aitzakiarekin, biolentziaren fenomenoak gure hausnarketetatik baztertzean, aldi berean, ez al gara indarkeria ulertzeko baliabiderik gabe geratzen? Ez al gara, beraz, indarkeria hori xedatzeko, eta baita gainditzeko ere, baliabiderik gabe geratzen? Ez al diegu uko egiten soluzio baten bila jarduteko baliabideei, «biolentzia razionalago baten bila izan, edo bake razionalago baten bila hobe» (Azurmendi 1999: 65)?

Orduan, biolentziaren eta kontsentsuaren artean aukeratu behar al dugu derrigorrez? Bi aukera hauek besterik ez al ditugu, esentzialki polemikoa den identitatea baieztatzea ala identitate hori bertan behera uztea? Laburbilduz: demokraziak bi kale itsuren artean bat hautatzea besterik ez al digu ematen aukera gisa?



## Indarkeria identitate politikoaren muin gisa: 'gu' 'haien' aurka

Feuerbachek idatzi zuenez (1974): «Ezer ez da gauzatzen izaki determinatu gisa gauzatu gabe». Izan ere, esan daiteke identitate oro jatorrizko indarkeria ontologiko batetik sortzen dela: norbere definiziotik beste guztiak baztertzen dituen biolentzia batetik, zeinak norbere berdina dena bere bakardadean uzten duen, alteritate testuinguru batean.

Politikari aplikatuta, indibiduazioaren printzipio hori erabat garatzen da. Erromaren sorreraren mitoak erakusten du nola hiltzen duen Romulok bere anaia bikia hiriko zimen-duen trazaketaren gainean, banatze bikoitz bat eraginez: bikien artekoa, bietatik bakar batek goberna baitezake hiria, eta hiriaren barnealde eta kanpoaldearen artekoa. Eta erromatar mitoak dibisio horien indarkeria azpimarratzen badu, Erromaren sorrera zer nolako eraiketa odoltsuan oinarritzen den azpimarratuz, ez da hainbeste fratrizidioaren izugarrikeria kondenatzeko, baizik eta gogorazteko ezer ez dela sortzen bereizketarik gabe, mugarik gabe. Eta esparru politikoaren definizio bortitz hori bere existentziaren nahitaezko osagarria dela.

Beraz, gainerako guztiarekin zatitzearen prezioan, *ego* bezala baieztatzen dena baino ez dago. Identitatea ohikoari egindako indarkeria da, existitzeko beharrezko baitu desberdintasuna eta mugaketa sortzea. Nietzschek bizitzari buruz zuen kontzepzioak, botere-nahimen gisa ulertuz, funtsean gatazkatsu eta bortitza den identitate politiko baten definizioa bultza lezake: bizitza orok bilatzen duena

Biolentziaren eta kontsentsuaren artean aukeratu behar al dugu derrigorrez? Bi aukera hauek besterik ez al ditugu, esentzialki polemikoa den identitatea baieztatzea ala identitate hori bertan behera uztea?

erresistentzia garaitzea da, horretarako ordaindu behar den prezioa, atsegin edo atsekabeari dagokienez, edozein dela ere. Botere-nahimenak bilatzen duena garaipena da, ez bakea. Nietzscheren ustez, horri ezikusiarrena egitea beretzat ideologia idealistek osatzen duten erdipurdiko «nihilismo nekatuan» hondoratzea da. Bere ustez, ideologia horiek, izan erlijiosoak edo filosofikoak, hilgarriak baitira:

Neke-neke daudenek atsedena, sosegua, bakea, lasaitasuna nahi dute – hori da erlijio eta filosofia nihilistei zoriona ematen die-na; aberatsek eta bizidunek garaipena lortu nahi dute, aurkariak gaintitu, botere-sentimendua domeinu berrietara zabaldu. (Nietzsche 1991 [1903]: §303, 349)

Hala ere, kontzepzio horren muturreraino joanez gero, bere formulaziorik gogorrenera heltzen gara. Carl Schmittek *Der Begriff des Politischen* saiakeran adierazitako formulaziora: «Politika espezifikoki ezaugarritzen duena, ekintza eta motibazio politikoen funtsean dagoena, lagunaren eta etsaiaren arteko bereizketa da» (Schmitt 1972 [1932]: II, 64). Politikaren irizpide autonomo bat ikusten du Schmittek bereizketa bikoitz horretan. Gainerako gogoetetz (ona eta txarra, ederra eta itsusia, erabilgarria eta kaltegarria...) independentea den bereizketa. Etsai politikoa ez da nahitaez txarra: bazkide ekonomiko interesgarria ere izan daiteke. Baina 'bestea' da, 'arrotza', komunitate batek hala definitu baitu, berarengan ikusten duelako «bere existitzeko moduaren ukazioa», eta hura suntsitzea erabakitzeko eskubidea du. Etsaiaren definizio guztiz arbitrario hori politikaren berezko autonomiaren ezaugarria da, Schmitten arabera. Era berean, etsaiaren existentzia ukatzea da, halaber, estatuaren identitatea babesteko modu bakarra; hau da, «bere izatearen arabera bizitzeko duen era egokia».

Gainera, ez da etsaiaren definizio pertsonala soilik; ez da «gorrotoa eta antipatia diogun aurkari pertsonala, pribatua». Schmittek *inimicus* delakoari *hostis*-a kontrajartzen dio, aurkari pribatuari etsai politikoa, zeina, nahitaez, komunitate

bat den, eta ez gizabanakoak. «Etsaia soilik etsai publikoa izan daiteke» (*ibid.*: III, 67), idatzi zuen. Beraz, Schmittek emandako identitate politikoaren definizioak zuzenean gerrara darama.

Izan ere, antagonismo politikoa ez da eztabaidaren borroka intelektuala, ezta gizaki bakoitzak eguneroko bizitzan daraman borroka sinbolikoa ere: gerra da, «benetako gertaera» bezala, «gizon baten heriotza fisikoa eragiteko aukera» bezala. Gerra «beste izaki baten ukapen existentziala» den etsaitasunetik sortzen da. Gerra «etsaitasunaren azken eguneratzea» (*ibid.*: III, 71) ere bada, heriotza zehatza, «gizakien heriotza fisikoa». Geroago errepikatzen duen bezala, hori baita politikak beti zabaltzen duen aukera. «Horrek ez du esan nahi hori arrunta denik, normala, ezta konponbide ideala edo desiragarria ere, baina nahitaez erreala izateko aukera baten moduan irauten du, etsaiaren nozioak bere esanahia mantentzen duen bitartean».

Beraz, heriotzaren bidezko politikaren definizio argia dugu hor. Indarkeria identitate politikoaren definizioan bertan inskribatuta egongo litzateke, hau da, sortu eta erabateko autonomia ematen diona litzateke. Bestearen heriotza egongo litzateke, gutxienez potentzialki, norbere existentzia askatzearen oinarrian.

Baina, zentzuz onar al dezakegu identitate politikoaren definizio hilgarri hori? Schmittek zuen politikagintzaren nozioaren antipodetan dago Tzvetan Todorovena, honakoa baitio: «politikagintza definitzen duena gorrotoari bere izaera betierekoa ezabatzea da» (Todorov 2015: 28). Etsaien arteko antagonismoak edozein direla ere, politikaren funtzioa izango litzateke, hain zuzen ere, gatazkak beren kexetan ainguratutako oroitzapenetan behin betiko finka daitezen saihestea. Soilik bi aukera besterik ez baditugu, identitatea bestearen alteritatea indarkeriaz ukatuz eraikitzea ala indibiduoaren printzipioari uko egitea, nahitaez hirugarren bide bat bilatu behar dugu.

## Identitate narratiboa: nor berean jarraitzea irautearen aurka

Paul Ricoeur filosofoak identitatearen gai hau *Temps et récit* (1985) saiakeran jorratu zuen, bi forma bereiziz eta izendatuz: norberatasun-identitatea eta ipseitate-identitatea.

Ricoeurren arabera, norberatasun-identitateak «izaera» erakusten du: pertsona edo kolektibo batean aldagabe irauten duena aldaketa guztien gainetik. Schmittek zioen bezala, «bere izatearen arabera bizitzeko duen era egoki» horretan irautea da. Zein da, ordea, identitate horren iraupenaren euskarria? Nola aurkitu hain aldakorra eta askotarikoa den izaki historiko baten aldaketarik gabeko «norberatasuna»?

«Dilema desagertu egiten da», idatzi zuen Ricoeurrek, ordezkapen bat eginez: «norberatasunaren (*idem*) zentzuan ulertutako identitatea norbere buruarekiko (*ipse*) duenaren zentzuan ulertutako identitatearengatik ordezkatuz».

Narrazioaren eginkizuna gertaerei zentzua ematea da, komunitateak bere burua ezagutu ahal dezan. Identitatea prozesu hermeneutiko bezala ulertu behar dugu, eta ez datu objektibo bezala

arteko aldea identitate substantzial baten eta Ricoeurrek «narratiboa» (*ibid.*: 443) deitzen duen identitatearen artean dagoena da.

‘Norberatasunaren’ identitate abstraktua ez bezala, ‘norbere buruaren’ identitate narratiboa bere baitan alteritatea duen autonarrazio bat da. Izan ere, subjektuaren izaera iragankorrek aldaketa inplikatzeko baitu, ukatu ordez.

Bere kohesioa ziurtatuko dutenak narrazioaren kategoriak dira, hau da, subjektuak berak bere ekintzetan ezartzen duen logika horiek kontatzen dituenean eta baita norbere buruari kontatzen dizkionean ere. Autonarrazio hori historiografiaren bidez lortzen da, baina baita literatura, antzerki

eta poesiaren bitartez ere (esate baterako, bertsolaritza har dezakegu Euskal Herriaren identitate narratiboaren adierazle gorentzat), eta, halaber, eztabaida publikoak eta posizio politiko hartzeak ere badiren diskurtso horien guztien bidez. Eta autonarrazio horrek «aldakortasuna ukan dezake bizitza baten kohesioaren baitan».

Subjektua, orduan, aldi berean bere bizitzaren idazle eta irakurlea da, etengabe birkonfiguratua, berritua, berrinterpretatua, Ricoeurrek idatzi zuenez: «gizaki batek norbere buruari kontatzen dizkion benetako edo fikziozko istorio guztiek etengabe birkonfiguratzen dute bere bizitzaren historia». Psikoanalisi batean bezala, zeinari buruz Ricoeurrek erreferentzia esplizitu bat egin zuen aurrerago, izaki baten existentziak egiten duen narrazioaren bidez hartzen du zentzua, besterik gabe gertaerengatik emana ez datorren, baizik eta beti atzera begirako interpretazio baten emaitza den narrazioaren bidez.

Identitate substantzialak ezaugarri duen «irautea» eta norberarekiko identitatearen «pertseberantzia» kontrajartzen ditu Ricoeurrek. Identitate narratiboa dinamikoa da, eta «norbere buruaren jarraitze» gisa definitu zuen, edo «norbere buruarekiko konstantzia» gisa: kontua da, identitate baten materialtasunaren ordez, bere *zentzua* defendatzea, sendotzea, gu geu izateko emana dugun hitzari fidel izatea, identitate horretan gero eta gehiago sakontzeko hartua dugun konpromisoari eustea –aldeztatik ulertuz identitate hori aldatu egiten dela, kontatutako istorioez osatutako sare bat dela eta ez esentzia bat, edo herri baten ‘arima’ aparta, odol batean edo lur batean naturalizatua-. Hain zuzen ere, narrazioaren eginkizuna, kasu honetan historiagile eta politikariarena, gertaerei zentzua ematea da, komunitateak, bere kontraesan eta aniztasunean, bere burua ezagutu ahal dezan: «gizakia eta komunitatea, biak ala biak, beraien benetako historia bilakatzen diren narrazioak jasoz ahalduntzen dira beraien identitatean». Laburbilduz, identitatea prozesu hermeneutiko bezala ulertu behar dugu, eta ez datu objektibo bezala.

Zalantzarik gabe, kontaturiko istorioez osatua dagoen sare askaezina den identitate narratiboa, intelektualki, ez da identitate iraunkor edo esentzial bat bezain eroso. Baina, gogoetak egitetik salbuetsi eta niregandik balio absolutu batzuekin ados egotea besterik espero ez duen identitate horrek ez bezala, identitate narratiboak ekitera deitzen nau, eta horrek «ipseitatearen faktore goren bihurtzen du erantzukizun etikoa» (*ibid.*: 443), Ricoeurrek idatzi zuen bezala.

Horregatik, ipseitate-identitatearen «norbere buru» hori erantzukizunarena da: azken batean, identitate narratiboaren batasuna «nik neuk egin nuen hori» esatean datza, edo «gu geu gara, herri gisa, hori nahi dugunak» («*We, the people*», estatubatuarren 1787ko Konstituzioaren sarrerak dioen moduan). Subjektuak egindako narrazioak *ipso facto* egogarritasuna dakarkio: adierazten du subjektua dela bere hitzen eta ekintzen ekimena hartzen duena. Bere ekintzen sorburu eta arduradun gisa izendatzen du: beraz, identitate narratiboak sendotu egiten du subjektu baten burujabetasuna, dela gizaki baten historia, dela herri baten historia.

Halako identitate dinamiko bat politikoki pentsatzea zorigaitzoko alternatiba bati ihes egitea da, bestea ukatu ala harreran diluitu, bata ala bestea. Nietzscheren kategorietako bat berrartuz, identitate 'apoliniarra' gainditzea da. Definizioa, identitate horretan, norbera bestearengandik bereizten duen marraren garbitasunarengatik bakarrik egin baitzitezkeen, 'gu' eta 'haiek' bereiziz. Azurmendik idatzi zuenez, jarrera berri bat behar dugu, «ederra sentitzeko diferentzia, guztiaren erlatibismoa, askatasun ororen espazioa» (Azurmendi 1999: 114). Gure kohesioa, hain zuzen ere, desberdina eta berria hartzeko dugun gaitasunaren arabera da, gurea bestearekin ehuntzeko dugun gaitasunaren arabera. Ricoeurrek identitate politikoaren definizio berri bat sortzeko aukerari bide ematen dio, identitate hori autonarrazio konplexu eta anizkoitz moduan ulertuz –orduan, identitatea norbere burua interpretatzea litzateke, non batasuna zentzu komuneko proiektu bati egokitzen zaion; proiektu hori,

bereziki, hauxe litzateke: gizabanako edo kolektibo batek bere bizitzarekiko –eta ez iraganeko egitate edo balio absolutuen bilduma batekiko– duen erantzukizuna eta beraz burujabetasuna hartzea.

Beraz, ez genuke politikaren irizpidetzat bestearen heriotza izango, baizik eta, alderantziz, alteritateari bide ematea.

## Identitate politikoa matrize biderkatzaile gisa

Azurmendik kontserbadorismoen metaketa baizik ez litzatekeen balioen pluralismoaren aurka ohartarazten gaitu: «Pluralismoa, eraikuntza denean bakarrik izan daiteke positiboa. Aberatsa. Askatzailea» (*ibid.*: 9). Izan ere, funtsik gabea da pentsatzea identitate politikoko bat dogmatismo antagonikoen mosaiko artifizial baten gainean eraiki daitekeela.

Identitate anitzeko gizarte harmoniatsu baten ideia soilik da baliozko eta ulergarria, Azurmendik azaltzen duen bezala, aldi berean munduari buruzko ikuspegiaren erlatibitatea

eta horiek defendatzeko ahaleginean jarraitzearen beharra onartzen badugu. Horren harira, Schumpeterren aipamen hau dakar: «Gizaki zibilizatua barbaroagandik bereizten duena da, bere konbentzimenduen balio erlatiboaz ohartzea eta, hala ere, haiek tinko defendatzea» (*ibid.*: 112). Eta Voltaireren esaldi apokrifo ezaguna aipatzea ere egoki dator: «Ez nago ados diozunarekin, baina nire bizitza emango nuke esaten jarraitu ahal dezazun» (Hall 1906). Voltairek hori inoiz esan ez bazuen ere, ideiak koherentea izaten jarraitzen du XVIII. mendetik eta krisi razionalistarekin Mendebaldeak hartutako balioekin: hau da, demokrazia batean, besteak, ezberdinak, eta baita aurkariak ere bere eskubidea eta duintasuna mantendu behar dituela espazio publikoan.

Azurmendik  
kontserbadorismoen  
metaketa baizik ez  
litzatekeen balioen  
pluralismoaren aurka  
ohartarazten gaitu

Hala ere, ezer ez zaio Azurmendiri berriro ere «balio uni-bertsalen» abstrakzioan erortzea bezain arrotza. Gauza ez baita erabateko irenismo batean hondoratzea, ezta bakezaletasun inozo batean ere: aurkariak aurkari izaten jarraitzen du, eta identitatea 'ni' eta 'bestearen' arteko bereizketa da. Baina, ekintza politikoari dagokionez, gogorarazi du Azurmendik, kontua ez da jada teoria, praktika baizik. 'Indarkeria eta balio berrien bilaketa' behin-behineko moral antzeko baten moduan aurkezten da: ezin denez egia bakar batera eta betiereko balioetara iritsi, har dezagun «bigarren soluzio hoberena» (Azurmendi 1999: 98), Azurmendik Pawlowskiri harturiko esaldia erabiliz. Hau da, ezar ditzagun gizartean bizitzea ahalbidetzen duten «hurbileko» (*ibid.*) arau pragmatikoak. Maila metafisiko batean, ezinbestean, 'norberatasun identitatearen' biolentziak (komunitate, izaki, balio bateraezinak) azpiratuko bagintu ere, maila praktikoan, posible da gure elkarrekin izatea aldatuz joan dadin lortzea, kulturen barrutik: «gizarte multikultural bati, bestearen hautu fundamentalen errespetuan bakarrik eutsi dakiok» (*ibid.*: 97).

Azurmendik azpimarratzen du Euskal Herriak aipatu eboluzioa egiteko aukera duela, hain zuzen ere, postmodernitateak eragin dion krisiagatik, bere balioen eta munduaren martxa azeleratuaren artean pitzatua dagoelako: «Askatasun tradizionalak nahikoa zuen pentsamendu tradizionala; askatasun berriak pentsaera berriak eskatzen ditu» (*ibid.*: 8). Krisiak, ohartarazten du, ez du ezer negatiborik: oreka bat kolokan dagoen une 'kritikoa' da, eta zaharrea gauza berriak gertaraz daitezke. Gizarte baten identitatea krisian jartzea biziberritzea da. Eta gaur egun planteatzen zaizkigun galderak aurrekaririk gabeko aukera izan daitezke gure praxi politikoa berritzeko (*ibid.*: 9). Kontua da identitate pertsonalak zein kolektiboak birpentsatzea, generoari, feminismoari, abortuari, gurasotasunari edo migrazioei buruz eztabaidatzea, eta baita eratutako estatu baten barruan hizkuntzek eta herriek duten estatusari buruz ere, eta, halaber, oreka politiko eta instituzionalei buruz. Ez bestearen desberdintasuna nola



murriztu jakiteko, bestea nornahi delarik ere (gehienetan, emakumea, homosexuala edo emigrantea!), diferentzia hori berarenarekin artikulatzeko baizik. Ezberdintasuna, bat-batean, puntu komun bat, bestea eta nire arteko bisagra bat izatea posible balitz bezala, gizartea egiteko borondate berbera artikulatuko litzatekeen leku bat, ‘norbere burua’ proiektu bezala, eta ez errefus bezala.

Puntu horretan elkartzen dira argien Ricoeurrek identitate politikoaz duen nozioa, «autonarrazio» gisa ulertuz, eta ezberdintasunaren kultura berri bati ekiteko Azurmendiren deialdia. Bi kasuetan, hauxe da kontua: identitatea ez pentsatzea gertaera gisa, prozesu gisa baizik. Ez da ideologia baten amaiera, baizik eta pentsamendu-matrize bat, sortuntza baten abiapuntua: «Gizatasuna historiaren obra da eta historiaren eginkizuna da oraindik. Kreatio etengabea da kontzientzia» (*ibid.*: 115).

*Genero nahasmendua* saiakeraren bukaeran, Judith Butlerrek aplikazio praktiko bat ematen digu, gizarte baten balioen sormen prozesu hori aipatuz. «Generoa kultura batean gertatzen den gorputz baten estilizazioa dela» zioen Simone de Beauvoirren ideia gaindituz, hau da, gorputza eta bere sexuarekin lotutako generoaren «estiloak» ados egotean datzalako ideia gaindituz, Butlerrek errealitate oro kentzen die estereotipo horiei, generoak «originalik gabeko imitazio» gisa izendatuz: inon ezingo genuke aurkitu, adibidez, «femeninotasun betierekoa», zeinaren bidez emakume bakoitzak bere emetasuna neurtu beharko lukeen. Gizon edo emakume izatea, dio, beti da, beraz, gizon edo emakume izatera «jolastea»; hau da, rol bat, funtzioak, itxurak asmatzea, nahiz eta inork ezingo lukeen generoa eraikitzen duen eredia erakutsi. Azken batean, dio, benetako «maskarada» batera makurtzea da.

Egiaztapen horretatik abiatuta, Butlerrek proposatzen du alteritate aniztunaz baliatzea karikaturaren kontra, parodia asmatzaileaz karikaturazko murriztearen kontra: sexu eta generozko konfigurazio kulturalak biderkatzera gonbidatzen du, alde zuzenetik ezarritako sexu-identitateak desorekatzeko.

Zera baitio: «[Identitateen] gehiegitasun parodikoak ezinezko egiten die kultura hegemonikoari eta haien aldekoen genero identitate naturalizatu edo esentzialistak daudela esatea» (Butler 2005: 261).

Azurmendik azaltzen duen balioen erlatibitatea ez da erlatibismoaren goraipamena, eta ez du ukatzen identitatearen kontzeptua bera. Biolentziatik harago joatea ez da identitatetik harago joatea

Butlerrentzat, gizarte-jokoa parodiaraino eramateak, azkenean, generoa eztabaida sozialaren erdian jar dezake, eta sexu-identitate desberdina giltzapetzen dituzten loturak lasaitu. Fosildutako genero identitate bat iraultzea da kontua, identifikazio aukeren ugaritasun eta aldakortasunaz baliatuz, eta horrela gizarteak

behar dituen zerumuga berriak zabaltzea, «egin dugun eta zanpatzen gaituen historia intelektual dogmatiko guztia errotik iraul-gaindituz» (Azurmendi 1999: 9), Azurmendik desiratutakoaren arabera. Identitateak erabakitzekeo mekanismoen izaera politikoa erakutsiz, posible egiten da azpimarratzea bakoitzari uzten zaion interpretazio-askatasun itzela.

## Ondorioa

Identitatea sortzailea da: identifikazio-hipotesien ugaltzeak eraikitzen du, eta ez kontserbadorismo murriztaile batek. Identitatea indarkeriaren bidez definitzea, gatazkaren bidez, filosofikoki bakarrik uler daiteke, nahitaez suposatzen duen indibiduoaren printzipioaren zentzuan. Baina, indarkeria ontologiko hori gaindiezina izanik ere, ezin da politikan erabili, politika gerra-arte soila egiteko ez bada behintzat. Hala ere, Schmittenrentzat balio zuenak, Lehen Mundu Gerraren amaieran, ezin du balio Azurmendirentzat 1999an. Lehena Versaillesko Itunetik eratorritako *statu quo*-a legeztatzearen aurka zegoen, eta nazismoarekin konprometitu zen behin betiko; bigarrenak,

Aieteko Konferentzia baino hamabi urte lehenago, uste zuen, alderantziz, beharrezkoa dela «gizon baten heriotza fisiko» gisa ulertzen den politikaren definizioa zeharo gainditzea.

Azurmendik 'Indarkeria eta balio berrien bilaketa' saiakeran azaltzen duen balioen erlatibitatea ez da erlatibismoaren goraipamena, eta ez du ukatzen identitatearen kontzeptua bera. Biolentziatik harago joatea ez da identitateetik harago joatea. Azurmendiren pentsamenduak identitate politiko eta kulturalaren birdefinizio konplexu batera gonbidatzen gaitu, biak ala biak dibertsitatearen etengabeko ekoizpen gisa ulertuz. Zein da euskal kulturaren identitatea, adibidez, ez bada modernitatea interpretatzeko modu guztiz espezifiko bat, bere berezitasuna interpretazio posible guztietara eramatea, horiek ongarrizteko eta horietaz elikatzeko? Kultura baten indarra ez datza besteekiko bateraezintasunean, horiek batzeko duen gaitasunean baizik, horietan desegin gabe aberasteko eta, horien berezitasuna ukatu gabe, horiei bere arnasa emateko duen gaitasunean. Zentzu horretan, identitate-hegemonia dekadentzia mota bat da, eta identitate matrizialak, aldiz, benetako bizitasun politiko eta soziala adierazten du. 📖

### **Bibliografia**

- Azurmendi, Joxe (1999): 'Indarkeria eta balio berrien bilaketa', in *Euskal Herria krisian*, Donostia, Elkarlanean, 11-116.
- Butler, Judith (2005): *Trouble dans le genre*, Paris, La Découverte.
- Feuerbach, Ludwig (1974): *Aportes para la crítica de Hegel*, Buenos Aires, La Pléyade.
- Hall, Evelyn Beatrice (1906): *The Friends of Voltaire*, Londres, Smith Elder & Co.
- Nietzsche, Friedrich (1991 [1903]): *La volonté de puissance*, Paris, Livre de poche.
- Ricoeur, Paul (1985): *Temps et récit III. Le temps raconté*, Paris, Seuil.
- Schmitt, Carl (1972 [1932]): *La notion de politique*, Paris, Champs Flammarion.
- Todorov, Tzvetan (2015): *Les abus de la mémoire*, Paris, Arléa.

# Don't Think of 'Foro de Ermua'

Iñaki Soto Nolasko

Gara egunkariaren zuzendaria eta filosofian lizentziaduna

Egun on, Joxe Azurmendi naiz, eta Mikel Azurmendirekin amankomunean dudan gauza bakarra abizena da». Horrela hasten zuen Joxe Azurmendik lehendabiziko eguneko klasea, 90eko hamarkadan, Filosofia Fakultatean. Demokraten eta biolentoen garaia zen: ez soilik liburuarena, baizik eta euskal gatazka moralarena. Gu gazteak ginen, baita eroak ere.

Aldi berean, Mikel Azurmendiren klasean George Lakoff eta Mark Johnson-en *Methafors We Live By* liburuaren gatzelaniazko bertsioa irakurtzen genuen. Hautaketa bibliografiko horren arrazoa honela azaltzen zuen Mikelek: Lakoff Chomskyren jarraitzailea zen, bere teoria propioa garatzen hasi zen arte. Mikelen iritziz, Lakoff «damutua» zen –terminoa berea da–, eta, zentzu horretan, iritziz aldatzearen bertuteen erakuslea, besteak beste. Niri liburua izugarri gustatu zitzaidan, teoria orokor gisa zalantzak eragin zizkidan arren.

Askoz geroago, Lakoffen *Don't Think of an Elephant!* irakurtzen ari nintzenean, garai haietako paradoxa honetaz konturatu nintzen: Joxe Azurmendik Lakoffek defendatzen duen marko horietako bat eman zigun. Gutxienez, boteretik ezarri nahi ziren marko horiek konbatitu zituen, Euskal Herrian pentsatutako alternatiba bat eraikitzen lagunduz. Beste era batera esanda, euskal filosofoen gure belaunaldiak Azurmendik –Joxek– eskaini zizkigun kategoria epistemologiko, antropologiko eta etikoen arabera pentsatzen du. Hein handi batean.

Gure arduradun politiko gehienak, kulturgile asko eta zenbait komunikabide, ordea, elefantean pentsatzen tematuta daude. Elefante hori antiterrorismoaren eta antiinsurgentziaren doktrinak dira. Azurmendik behin eta berriz salatu duen sinplekeriaren, dogmatismoaren eta akritikotasunaren ondorioz, zenbait alorretan elefante hori hazi egin da. Zenbaiten kasuan abantailakeria politikoa ere egon badago. Beste zenbaitetan, nagikeria intelektual hutsa da. Azurmendiren omenezko kongresu batean, biak ala biak salatu behar dira. Alternatibak eskaintzea ere derrigorrezkoa da (ondotxo dakigu Azurmendiri zenbat gustatzen zaion Leninen «Zer egin?» galdera).

Oharra: ur-jauzien, urmaelen eta erreken kontu horri helduz, ni filosofiaren ozeano sakonetan igeri egitetik kazetaritza pasa naiz. Kazetaritza metafora horren justu kontrakoa da: alegia, hondartza zikin batean egunero-egunero hankak bustitzea bezala da, besterik ez. Hortaz, honako hau ez da ur-jauzia izango; baina busti, jakina bustiko naizela.

Bigarren ohar bat ere egin nahi nuke hemen, hitzaldian egin ziren galderei erantzunez sortu zena: ikusi denez, fuerte hasi naiz. Izan ere, Azurmendiren omenezko ekitaldia denez, uste dut, hark esandakoak gogora ekartzeaz gain, haren espiritua eta tonua ere errebindikatu behar direla. Zentzu horretan, Azurmendiren testuek badute eskema tipiko bat. Dena trumoi batekin hasten da, ostiko hegalari makarra batekin, zartako gupidagabe batekin. Horren adibide gisa, berdin har daiteke *Espainolak eta euskaldunak* liburuaren sarrera –Sánchez Albornoz in memoriam–, edo klaseak has-teko erabiltzen zuen eta goian aipatu dudana azurmenditarrei buruzko sententzia. Jarraian, auzia mahai gainean jartzeko erabilitako kolpe horren ostean, irakasle eskolastikoak bere jakintza hedatzen du, ideiak eta testuak lotuz, paregabe ko ezagutzaren erakusle, eta kontzeptuak sistema baten barruan kokatzeko maisutasuna erakutsiz. Amaitzeko, itxaropenari bide egiten zaio. Hasierako ostikoa bezain sakona den mezu eraikitzaile batekin, gure herria, herritarrak eta kultura go-goan izango dituen programa baterako zertzeladak marrazten

dira. Gurea borrokari esker desagertuko ez den komunitate bat delako. Edo, sikiera, horrela izan dadin gure esku dagoen guztia egin behar dugulako. Horixe da, bada, Azurmendi-ren testuek errepikatu ohi duten eskema; eta horixe izan da, bada, nire hasierako trumoi edo ostikoa.

## **Betiereko itzulera, euskal politikagintzan eta moralgintzan**

*Demokratak eta biolentoak, Oraingo gazte eroak eta Euskal Herria krisian* liburuez ariko naiz hemen. 1997, 1998 eta 1999koak dira, hurrenez hurren. Azurmendik *Barkamena, kondena, tortura. Estatua kontzientzien kontrolatzailea* (2012) ere talde berean kokatzen du, baina nik ez diot lan horri erreparatuko, lau liburuek aztergai antzekoa duten arren, ni beste hiru liburuak agertu ziren garai historiko horretaz arituko naizelako.

Koka gaitezen testuinguruan: Ajuria Eneko paktutik hamar-kada bat igarota zen; Lasa eta Zabalaren gorpuak herriratu zituzten pixka bat lehenago; lazo urdinaren eta 'Euskal Herria Askatu'-ren konfrontazio garaia zen; Miguel Angel Blanco laster hilko zuen ETAk; *Egin* itxiko zuten; Mahai Nazionala kartzelatu zuten; oraindik ez zen 600 presoan langa gainditu (2002an gaindituko zen, 650 presorekin). Hemen, torturatu egiten zen. Gure fakultatean, Foro de Ermuaren ernamui-na loratzen hasi zen garaia zen. Balioen Filosofia Sailean etikaz eztabaidatzea garai batean Moskun teologiaz hitz egitearen pareko zen. Aipatua dudan Mikelez gain, talde hartan zeuden Carlos Martinez

Gure arduradun politiko gehienak, kulturgile asko eta zenbait komunikabide elefantean pentsatzen tematuta daude. Elefante hori antiterrorismoaren eta antiinsurgentziaren doktrinak dira

Gorriaran, Aurelio Arteta eta Sara Torres ere, besteak beste. Baita Fernando Savater ere, espiritu gisa bada ere. 1996 eta 2001 artean, Pello Salaburu zen UPV/EHUko errektorea.

Zenbat gauza aldatu dira garai hartatik hona? Ez gutxi. Bat eta bakarra aipatzeagatik, ETA desegin egin da. 2011n bere jarduera armatua bertan behera utzi zuen, behin betiko. Duela bi urte, 2018an, desegin egin zen. Aurreko urtean, unilateralki, gizarte zibilaren laguntzaz, armagabetu egin zen Baionan. Gaur egun 246 preso daude EPPKn.

Azken asteetan, Azurmendiren aipatutako testuak irakurtzen igaro ditut gauak, egunez egunkarian aktualitate politikoaz arduratzen nintzen bitartean. Bien arteko kontrastea izugarria da. Ez gure errealitate soziopolitikoan izan diren aldaketa sakonengatik, baizik eta diskurtsoen artean dauden antzekotasun tamalgarriengatik. Izan ere, Azurmendik identifikatu zituen tranpa guztiak errepikatzen ari dira gaur egun.

Urrutiago joan gabe, har dezagun duela gutxiko polemika: Jose Ramon Lopez de Abetxukok, 31 urtez kartzelan egon den ETako militanteak, Gasteizko UPV/EHUko campusean hitzaldia eman behar zuen, larriki gaixo dauden presoek buruz. Gaia asko laburbilduz, zera gertatu da: PPko Carlos Urkijok hitzaldia debekatzeko eskatu zuen, ardura unibertitatearen gainean jarritz; Jesus Lozak, Madrilgo gobernuaren ordezkariak, ekitaldia legala zela adierazi zuen, baina zilegitasun etikorik ez zuela esan eta Sareri atzera egiteko exijituzion; Josu Erkorekak, Lakuako gobernuaren bozeramaileak, ekitaldia desegoki ikusi zuen, eta Jonan Fernandezek, gobernu horretan giza eskubideez arduratzen denak, «gauzak beste era batera egin daitezkeela» esan zuen. Berak, ordea, ez du ezer egingo. Besteek zer egin behar duten eta zer ez duten egin behar esateko dagoena ez da ezeren arduraduna, baizik eta garai bateko maisu edo gaur egungo apaiza da.

Azurmendik jokabide horiek aski ongi identifikatu zituen aztergai ditudan idazlan haietan:

Anbiguitasun horretan mugitzen gara egunero: positiboa da Giza Eskubideak publikoki eta legalki onartuak egotea, kontzientzi gra-

du baten aitortza eta espresioa baita, eta pedagogikoa kontzientzia horren indartzeko eta bultzatzeko (herri baten lehenengo pedagogoa bere erakunde publikoak dira); praktikan aginteak berak Eskubide horiek zapaltzea, edo zapalketaren ezkutatzaile bezala bera ibiltzea, kontzientzia haren burla bat da eta kontzientziaren hondatzailerik kaltegarriena. (*Euskal Herria krisian*: 68)

Orain, ordea, pauso bat aurrerago doaz. Edo atzerago; perspektiba kontua da. Dena baita erlatiboa. Aspaldi, ETA zegoenean, biolentziaren eta biolentoen garaian, giza eskubideez hitz egin behar zen, halaberharrez. Baita legez ere. Beraiek baitziren demokratikak, eta demokrazia, beraientzat, legearen sinonimoa da. Ezin zen askatasunaz edo justiziaz hitz egin. Horiek aitzakiak ziren, biolentziaz ez hitz egiteko, giza eskubideez ez aritzeko. Orain, ordea, ETAririk gabe, uneotan dagoen biolentzia bakarra estatuak preso horien eta beren senideen aurka egiten duena denean, sentipenez hitz egin behar da. Hitz egin, edo, hobe, isildu. Lehen batzuen eskubideez eta besteen biolentziaz soilik hitz egin behar zen bezalaxe, orain haien sentipenez soilik hitz egin daiteke. Eta nork eta noiz hitz egin dezakeen Madrilgo ordezkari batek esango du, dirudienez. Edo euskal moralista batek.

Horretaz ari garela, aurten Pello Salaburuk erretiroa hartu du. Unibertsitatetik, esan nahi da, moralgintzan lanean serio jarraitzen duelako. Aipatu polemika horri buruz, errektore ohiaren posizioa honako hau da: alde batetik, adierazpen- eta bilkura-askatasuna daude, baita beren osasuna arriskuan duten presoan giza eskubideak ere. Denak dira giza eskubideak, nik dakidala. Beste aldetik, ETAREN zenbait biktimaren sentipenak daude. Gizatiarrak, bai, baina ez giza eskubideen mailakoak, esango nuke nik. Salaburuk ez du zalantzarik, ordea: bere gogo eta bihotza bigarrenekin daude. 30 urtez kartzelan egon den pertsona hori, gaixotasuna ziega batean igaro duena, «asesinoa» da Salabururentzat, eta beti izango da (*sic*). Ondorioz, bere giza eskubideak murriztuta daude, antza, kartzelako kondena oso-osorik bete duen arren. Salabururi kasu egiten badiogu, pertsona horrek sekula ezingo du nahi duenaz nahi



duen eran hitz egin; ez, behintzat, baldin eta biktima batek hala nahi ez badu.

Abiapuntutzat suposa daiteke, oker ez banago isilpean maiz suposatzen den moduan, eztabaidaren markoa Ajuria Eneko Mahaia-rena dela; alegia, pro ala contra, (ETAren) indargintzaz bi posizio bakarrik kabitzen dela. (*Ibid.*: 80)

Orain, antza, abiapuntua Foro de Ermua da, baita 'Acuerdo por las libertades y contra el terrorismo' delakoa ere, 2000 urtean PP eta PSOEn artean sinatutakoa. Atzerantz goaz, ala aurrerantz goaz?

## Zer egin? Alkandora txuria jantzi eta kooperatu

Tentazioa dugu beti eskema berak errepikatzeko, berdin jokatzeke, erreaktiboak izateko. Adibidez, EITBk Urkijoren ildotik jarraitzen badu, guk *Gara*-n zergatik ez kontrako

Hipokrisiaren tentazioa ere hor dago. Zergatik ez kondenatu? Zergatik ez zuen Joxe Azurmendik Carreroren atentatua kondenatu? Edo, zergatik ez damutu? Nora eraman du damuak Mikel Azurmendi?

bidea hartu? Esate baterako, idatz genezake honako titular hau gure egunkarian: «Gobernu espainiarraren ordezkariak, Jesus Lozak (PSOE), GALen biktima baten hitzaldia debekatzeko presio egin du». Izan ere, 2019ko abenduaren 10ean Lopez de Abetxukoren aurkako atentatuaren 35. urteurrena bete zen. Edo, are gehiago, idatz genezake beste hau, sarkasmoan eroriz: «Jonan Fernandez ez da giza eskubideez

arduratuko, baizik eta sentipenez soilik». Hori egitea, titular horiek erabiltzea, ez da zuzena, ordea, eta epe ertainera efikaza ere ez dela esango nuke.

Hipokrisiaren tentazioa ere hor dago. Zergatik ez kondenatu? Zergatik ez zuen, zuen ustez, Joxe Azurmendik Carreroren

atentatua kondenatu? Edo, zergatik ez damutu? Nora eraman du damuak Mikel Azurmendi? Edo, zergatik ez gezurra esan? Baina, egia esatea ez al da hobe?

Azken galdera bat. Edo ez. Zergatik erreproduzitzen dituzte, orduan, marko anker horiek? Zergatik daude hain haserre, irabazi badute? Bada, absolutuen joko maltzur horretan, irabazteko duten modu bakarra bestearen erabateko porrota delako. Eta hori ez da gertatu. Eta hori ez da gertatuko. Bertsio poliziala sinetsi zutelako daude haserre, nire ustez; edo, agian, bertsio polizialaren parte zirelako.

ETAk agian ez du Estatua garaituko, ez dakit ezer. Baina, batzuek horixe bilatzen badute, posible ez dakit izango den, gauza seguru da, ETA polizialki garaitzea, ez dela demokraziak garaitzea izango. (*Oraingo gazte eroak*: 138)

Baina, jakina, porrot absoluturik ez dagoen gisan, arrakasta erabatekorik ere ez da existitzen. Errealismo politikoan ez bagara trebatu, ez da errealitatearekin behin eta berriz topo egin ez dugulako –baita haren kontra kolpatu eta erori arte ere–. Ezta Azurmendik abisu eman ez zigulako ere, behin eta berriz.

Ohar filosofiko-kritiko bat egin nahi dut hemen. Bestek beste, Azurmendik Isaiah Berlin deskubritu zigun. Erlatibismoari buruzko bere tesietan, pentsalari juduaren eragina nabarmena da, Azurmendik berak aitortzen duenez. Berlinek pluralismo deitzen duenari, ordea, Azurmendik erlatibismo deitzen dio. Nire ustez, hautu terminologiko horretan garai hartako eztabaida politiko-moralek eragina izan zuten. Kontzeptuei buruzko ulermen desberdinak ere egon daitezke hautu terminologiko horren atzean, jakina. Baina, nire ustez, pluralismo kontzeptua doiagoa da.

Gurera itzuliz, gauza konplexuak sinpletzeko joera gogor salatu du Azurmendik, behin eta berriz. Zenbait gauza, ordea, simple azaldu daitezke eta azaldu behar dira. Etikan, hain justu, ume batek (ez Nikomakok, ezta Amadorrek ere; edozein umek) ulertzeko bezain simple azaldu beharko lirateke.

PSOE eta GAL ez dira gauza bera izango –badakizue logika ez dela nire espezialitatea, baina ulertzen da zer esan nahi duan, Jesus Lozak beste aldera begiratzen duen arren–, baina ezta GAL eta ETA ere. Pertsona bat hiltzea eta autobus bat erretzea ez dira gauza bera. Azurmendiren hitzetan, «Hiper-corren eta poste elektriko bat botatzearen artean razionalitate mailak bereizteak eta eztabaidatzeak» posible beharko luke izan (*Euskal Herria krisian*: 80). Era berean, erakunde armatu batek pertsona bat hiltzea eta erakunde publiko batek pertsona bat hiltzea ez dira gauza bera. Ume bat eta militar bat hiltzea ezin dira etikoki berdin ebaluatu. Biolentzia eta biolentziak daude. Biolentzia martxan dagoenean, ezin da existituko ez balitz bezala jokatu. Biolentzia ez dagoenean eta badagoenean ezin da berdin jokatu.

Marko okerrak haustearekin batera, alternatibak eraiki behar dira. Adibidez, kooperatibismoa sozialismoa dela baieztatzen du Azurmendik *Gizabere kooperatiboaz* (2016) liburuan. Kongresuaren beste atal batean eztabaidatu dute horretaz, jakina, baina esaldia gogoratzeak grazia egin dit. Izan ere, Azurmendiren bizitza, ibilbidea eta pentsamendua aztertzerakoan, sarri aipatzen da harengan Arantzazuk izan zuen garrantzia, eta argi dago izan zuela eraginik; baina niri berdin egiten zait aipagarri ondoan dagoen Arrasatek Azurmendirengan izan zuen eragina.

Duela gutxi, Argalari buruz Mertxe Aizpuruak idatzi duen biografia irakurri dut. Bide batez, gogora datorkit Lorea Agirrek Azurmendiri egindako elkarrizketa zabal eta bikaina; bertan, Azurmendik Alemanian sasira pasa zenekoa kontatzen du, frankismoaren indar polizialeatik ihesi ezkutatu zenean, Carreroren aurkako atentatuarekin lotu zutelako. Ezaguna denez, Argala izan zen atentatu horren egileetako bat.

Tira, noan harira. Aizpuruaren liburuan, Jose Miguel Beñaran eta Txomin Iturberen arteko pasarte kurioso bat kontatzen da. Argalak Txomini sozialismoa zer den galdetzen dionekoa, hain zuzen ere. Arrasatearrak, berarengan ohikoa omen zen umoreaz, zera erantzuten dio, gutxi gorabehera: «Niretzat

sozialismoa igandean alkandora txuria jantzi, familiarekin mezara joan eta ondoren herriko plazan seme-alabekin pilotan jokatzeari da». Geroago, oker ez banago Peixotori, ideari bueltak Argalak honelako zerbait esango zion: «Txominena ez da, jakina, sozialismoa, eta berak ere badaki. Baina berak herriarentzat zoriontasuna nahi du, eta hori ere ez dago gaizki».

«Oraingo gazte eroak» kontzeptuak adiera desberdinak har ditzake testuinguru horretan. Euskal erresistentziaren eta diktaduraren logikan, ETAkoei esateko beste modu bat zen,

modu zabarragoan «erakundea» edo «enpresa» esan zaien bezalaxe. Nemesio Etxanizen jatorrizko esanahian, Txillardegiren kintakoak ziren ETAREN sortzaileak. Txillardegi 1929an jaio zen, eta Federiko Krutwig 1921ean. Ondorengo gazte eroak, ordea, beste belaunaldi batekoak dira. Carrero hil zuen ETAREN kinta 40ko hamarkadan jaio zena da. Txomin Iturbe 1943koa da, eta Argala 1949koa. Azurmendi bera 1941ean jaio zen. Diziplina batez harago, «oraingo gazte eroak» belaunaldiak identifikatzeko formula gisara ere uler daiteke.

Gaur egun dugun Euskal Herria ez da ez Argalaren sozialismoa, ez Arizmendiarrietaren kooperatibismoa, ezta Txominen zoriontasun erabatekoa ere, inondik inora. Baina, diot, gaur egun dugun Euskal Herria Argalaren, Arizmendiarrietaren eta Txominen Euskal Herri horretatik gertuago dagoela. Bide batez, Azurmendik pentsamenduarekin marraztu digun nazio aberats eta justu horren antz handiagoa duela uste dut. Hori ospatzeko ere izan da *Joxe Azurmendi. Euskal pentsamenduaren ur-jauzia* kongresua. 📖

Gaur egun dugun Euskal Herria ez da ez Argalaren sozialismoa, ez Arizmendiarrietaren kooperatibismoa, ezta Txominen zoriontasun erabatekoa ere. Baina gertuago dago

# Pentsamenduaren marruskadura: etika eta praktika komunitateak aroztegiko batzarrean

Antonio Casado da Rocha

*UPV/EHUko Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia  
Saileko ikertzailea eta irakaslea*

**U**teoria (Scharmer 2018) da metodologia bat, zeinak pentsamendu sistemikoa, gizarte berrikuntza eta eraldaketa biltzen dituen hainbat praktika eta printzipioen bitartez. Gaur egun sistema globalak pairatzen duen krisia kultura arazotzat ulertzen du U teoriak, eta krisia gainditzeko «sistema eragilearen» barne eraldaketa proposatzen du. Teoria hori Joxe Azurmendiren hainbat testurekin alderatzea da artikulu honen helburua, mugimendu kooperatibistari buruzko bere gogoe-tak direla medio.

Bestalde, «pentsamenduaren marruskaduraz» ere arituko gara, etikak praktikatik zer eta nola hartzen duen aztertuz. Izan ere, esamolde hori hartua da Marina Garcés filosofoaren ibilbide akademikoa azaltzen duen liburu batetik:

Ikastea beti da gure erosotasun-eremutik ateratzen gaituen des-plazamendua. Kezkatzen nau, hala ere, irakaskuntza eta elkar-bizitza hainbeste urruntzen direnean zabaltzen den amildegia. Unibertsitateak, instituzio gisa, distantzia asko ezartzen dizkio ikasteko beharrezkoa den elkarbizitzari. Lehen, distantzia hie-rarkikoaren eta irakasleekiko tratu hotz eta zeremoniatsuen bidez egiten zuen. Gaur egun, espazioen eta denboren kudeake-

ta konplikatuaeren bidez, unibertsitatean mundu guztia ekoizten ari dela (zerbait, zer?), nor bere aldetik, elkarrekin ikasten egon beharrean. Pentsamenduaren marruskadurak gaur egun hainbat forma har ditzake, bai aurrez aurrekoak bai birtualak, baina ezinbesteko baldintza bat behar du, jakintza informazio hutsera mugatu ez dadin: elkarrekin eraiki ahal izatea testuinguruak eta ikaskuntza-harremanak. Ez diogu horri uko egin behar, ezta gaur egungo unibertsitatean ere.<sup>1</sup>

«Pentsamenduaren marruskadura» hori izan genuen Azurmendirekin bere eskoletan. Orduan ez nintzen horretaz konturatzen, baina nago irakasle gisa suabe-suabe saiatzeko zela adierazten filosofia modernoa ez dela testuekiko jolas hutsala edo autoerreferentziala, filosofoak filosofoekin mintzo beste filosofoei buruz, baizik eta gure errealitate gordinarekin zerikusia zuen zerbait.

Hala esan zuen Azurmendik berak gero, *Elkarri* mugimenduaren aldizkarian argitaratutako elkarrizketan:

Ikasleei beti esaten diet, errealitatea bera eztabaidatu edo ukatzeko duen filosofoak hanka sartzen duela. Errealitatea den bezala hartu eta irakurketak egin beharko lituzke, baina errealitatean oinarrituz. Errealitatea interpretatu baino lehen aukerak egiteko joera handia dugu, errealitatea bera ukatzeko eta desegiteko. (Azurmendi 1997)

Noski, «errealitatea den bezala» ez da zerbait sinplea edo gardena: milaka interpretazio, milaka gatazka, milaka balio ditu barnean, kontuan hartu eta interpretatu beharrekoak. Munduaren konplexutasun horretaz jabetu gabe aukerak eta judizioak egiten hastea etika izan liteke –aukerak egiten ditugun bakoitzean agertzen baita etika–, baina etika eskasa, nire ustez. Errealitateari arretarik egin gabe, etika norberaren edo bestearen fiskalizazio gisa soilik ulertzeak purutasunaren bi muturren artean kokatzen gaitu: teoria etikoaren purutasuna, eta tribalismo moralarena. Beste bide bat jorratu nahiko nuke, judizio etikoaren bidea ez dena, diskurtsoa edo metadiskurtsoa ez dena, pentsamenduaren marruskadura praktikoa dena. Ezen etika ez baita mugatzen munduan zer

dagoen gaizki esatera; izatekotan, hori ondorioa besterik ez da. Bada eta izan da, Antzinako Greziatik, etika ulertzeko beste modu bat (Hadot 2006): arreta, autoeraketa eta eraldaketa edo hobekuntza ('autolaguntza' esaten ez naiz ausartuko, baina zergatik ez?) praktika batzuk, 'eskola' edo komunitate batean egiten direnak.

Arretaren etika hori bada zerbait joaten uztea, jadanik balio ez duten ideiak eta identitate zaharrak, oraingo uneari errepartzeko; Azurmendiren esanetan, «mundua geure esperientziaren begiekin ikusten ikasiz, eta arazoak geure buruekin pentsatuz, ez nondibait inposatu zitzaizkigun eskemekin eta doktrinekin» (Azurmendi 2017: 105). Aldi berean, arretaren etikak zerbait etortzen uztea eskatzen digu. Bene-benetan izan nahi dugunarekin lotura sakona egiten dugunean, bene-benetan zer axola zaiguna, guretzat balioa edo baliagarria zer den identifikatzen saiatzen garenean, balio horiek gauzatzen dituen etorkizuna gauzatzen hasten gara. Nolabait esatearren, datorren munduarekin, oraindik existitzen ez denarekin, engaiatzen gara. Azurmendiren hitzetan berriro, «geure mundu bat behar dugu geu izateko» (*ibid.*: 106).

Mundu horren bertsio asko daude, noski. Abentura guztiak ez dira berdinak; izan ere, batzuk beldurgarriak dira. Pentsamenduak aurreikusten dituen mundu horiek, akaso, poesiaren bitartez ere adierazten dira. Ez da kasualitatea, nik uste, Azurmendiren lehenengo bi liburuak, biak 1971n argitaratuak, poesia eta entsegu liburuak izatea. Nahiz eta entseguaren bidea aukeratu, lehenengo pauso horietan poesiarena ere Azurmendik jorratu baitzuen.

Bada eta izan da, Antzinako Greziatik, etika ulertzeko beste modu bat: arreta, autoeraketa eta eraldaketa edo hobekuntza praktika batzuk, 'eskola' edo komunitate batean egiten direnak

*Hitz berdeak* izeneko liburuan idatzita dago: «Mundu honek ez du hondamendirik merezi» (Azurmendi 1971: 168). Hain zuzen ere, horrela bukatzen da Azurmendiren poema bilduma, «munduaren apokalipsian», 56ko belaunaldiko sentimendu hura adieraziz: euskal mundu bat bukatzeaz zegoen, baina mundu horrek ez zuen hondamendirik merezi. Gaur egun sentimendu hori globalizatua dugu, klima aldaketa dela-eta, baina ez dakit noraino dugun barneratuta. Zerbait hiltzen ari da eta zerbait berria ari da sortzen oraintxe bertan, gure begien aurrean, konturatu nahi ez badugu ere.

Klima emergentziaren aurrean, Euskal Herriko edo Kataluniako arazoan aurrean bezala, ukazio eta ukazionismo ugari ditugu. «Askatasuna beti kontzientziaren askapenetik hasten delako» (Azurmendi 2017: 105-106), lehenengo urratsa da geuk geure buruan sinestea. Baina beldurrak kontzientzia hori ukatzen digu. Beldurrak uxatzeko, hitzei diegun beldurra uxatu beharko dugu aurretik. 'Ekipo', 'enpresa', 'espíritu' edo 'arrakasta' hitzak ez daude modan gaur egungo euskal hiztegi filosofikoan. Baina hitz horiek guztiak erabili zituen Azurmendik. Non? Bada, jakina da *Gizabere kooperatiboaz* (2016) liburua Azurmendik amaitzen duela modu poetiko edo gutxienez narratibo batez: 'Aroztegiko batzarrean' ipuin anonimoa itzuliz eta txertatuz, eta bertan daude hitzok.

*Gara*-ren editorial batean eta *Argia*-ko blog batean izan ezik, ez dut beste inon topatu ipuinari erreferentziarik euskaraz. Gaztelaniaz, ordea, ipuina oso hedatua dago Lehen Hezkuntzan. Zergatik gehitu zuen hitzoste hori Azurmendik? «Mito pixka bat, utopia apal bat, eta mundua gure aurrean zabalik» (Azurmendi 2018: 106) edukitzeagatik, akaso? Agian, liburuaren argudioak bukatuta, narrazioak beste modu batez helarazten diolako mezua irakurleari. Argudioak isiltzen direnean, dosi txikiko mitoa eta utopia ere iradokitzaileak izan ohi dira. Baina zein da orduan mezua? Gogora dezagun istoriotxoak: «Kontatzen da behin batean batzar bat bitxia egin zela aroztegian. Erreminten bilkura, euren desadostasunak konpontzeko». Ez dira ados jartzen lanabes tresna horiek,



hasieran bata bestearen akatsak besterik ez dituztelako ikusten. «Hartan arotza sartu zen», eta tresna guztiak lanean jarri zituen, beren gaitasunak erabiliz. Orduan ohartu ziren norberaren balioaz. «Hala bada, ez dezagun gehiago gure alde negatiboetan pentsatu eta ipini dezagun arreta eta gogoia alde positiboetan», horra hor ipuinaren ondorioa.

Gustuko dut istorioa; eta 'marruskadura' hitza berriro agertzen da testuan. Baina bertan arazo bat dago, noski. Ipuinean oso erraza da konponbidea, aroztegiari arotza dagoelako nagusi, eta haren lidergoak beste guztiak lanean jartzen dituelako. *Deus ex machina* bat da, finean. Baina gaur egungo gizarteak ez du halako lidergorik, ez du halako jainkorik, eta (tentazioak tentazio) ez du nahi izango. Ignazio Aiestaranek arazo berbera ikusi du bere blogean: ipuinean, kooperazioaren jakinduria ez da elkarrekin asmatua, «baizik eta arotzak azaleratua, hots, kanpoko edo goiko adimen baten emaitza».<sup>2</sup>

Arotzik gabeko aroztegia gara, liderrik gabe lidergoaren bila; absoluturik gabeko etika baten bila. Azurmendiren esanetan «orainaldian baldin, etorkizunik gabe» (Azurmendi 1996: 17). Non eta nola topatuko dugu etika hori, ordea? Behar bada, beste pasarte batean Azurmendik aitortzen duen moduan: «Etorkizunari aurre egiteko, erakunde eta formula sozial berriak imajinatu beharko dira araz» (Azurmendi 2018: 106). Baina aurretik ipuinaren beste irakaskuntza azpimarratu nahiko nuke: ipuinak aniztasunaren edo pluralismoaren defentsa inplizitua egiten du. Izan ere, tresnak baliotsuak dira askotariko gaitasunak dituztelako, ezberdinak direlako. Beren desadostasunaren kausa, aldi berean, beren indarraren iturria da, kooperazioa baldin badago. Lan banaketa ondo dagoela gauza jakina da, baina, askotan, mundu akademikoan, ahaztu egiten dugu. Batzuek ikertzen dute, beste batzuek irakasletzan dute zeregin nagusia, beste batzuek kudeaketari ekiten diote noizbehinka, unibertsitateak duen autonomia apur hori mantendu nahian. Denak beharrezkoak gara. Liburuak idazten dituen eta kontuak egiten dituen; artikuluak ebaluatzen dituen eta hitzarmenak negoziatzen dituen. Euskal pentsamendua

egiteko era eta tresna asko daude eta denak beharrezkoak ditugu: analitikoak, historikoak, aplikatuak, metafilosofikoak, fenomenologikoak, antzinakoak, Erdi Arokoak, modernoak, bai eta postmodernoak ere...

Aroztegian askotariko tresnak ditugu. Baina, nola antolatu arotzik gabeko aroztegia? Zerekin ordezkatu dugu nagusia? Askotariko piezek osatzen duten sistema hori nola abiarazi? Erantzun asko dira. Moralitatearen historia naturalean, Juan Ignacio Pérez Igesiasek aipatu ohi du etologiatik datorkigun azalpen naturalista bat (Tomasello 2018): talde batek bere buruari erronka bat jartzen badio, norbanakoak bakarrik lortu ezin duen helburu batekin, animalia handi bat ehizatzea, kasu, sortzen da «nahi partekatu» bat, eta, hortik, ehiza elkarrekin egitetik, hortik «errua», «lotsa» eta «kontzientzia» morala bera.

Nietzscheren «moralaren genealogia» ez dago hortik oso urrun. Edonola izanda ere, argi dago erantzunak ez duela ezer mistikotik; erantzun naturalista da. Eta galdera bera informatikan arazo jakina

Aroztegian askotariko tresnak ditugu. Baina, nola antolatu arotzik gabeko aroztegia? Zerekin ordezkatu dugu nagusia? Askotariko piezek osatzen duten sistema hori nola abiarazi? Erantzun asko dira

da. *Bootstrapping* deitzen zaio prozesu horri, bere burua abiarazten duen sistemarena. Sistema orok kanpoko ekarpena behar du; izan ere, kanpoko ekarpenik gabe ez da sistema autonomorik. Baina *nomos* horrek ez du zertan arotza izan, ez du zertan kanpoko adimen bat izan. Izan daiteke aroztegia bera, praktika zehatz baten bidez bere buruaz kontziente bihurtuta. Autoeraketa prozesu bat da, non sistemak sistemari buruz ikasi duen, bere burua abiarazteko eta gidatzeko prozesua aurrera eramanez, eta nolabait sistemari sistemaren kontzientzia emanez.<sup>3</sup>

Autonomia eta autoeraketa dira interakzioaren bitartez sortzen diren fenomenoak. Zeintzuk dira kanpo eta barneko baldintzak, zeinei esker sistema autonomo bat bere buruaz kontziente izan dadin? Galdera hori saiatu zen erantzuten Francisco Varela zientzialaria, eta bere lana jarraitu dute EHUn, besteak beste, Alvaro Morenok eta Arantza Etxeberriak. Baita orain MITen dabilen Otto Scharmerrek ere. Guztiek bat egiten dute zera honetan: kontziente izateko prozesuak ahal direla sortu, ahal direla landu, bai norbanakoan (Varela), bai komunitatean (Scharmer).

Zeintzuk dira prozesu horiek? Mugimendu kooperatibistaz aparte –izan ere, kooperatibismoa eraldaketarako tresna bat da, komunitate autoeratuak sortzeko–, prozesu horiek badute zerbait filosofiatik. Ikuspegi materialista batean<sup>4</sup> ulertuko dut hemen filosofia, Alain Badiouren hitzak hartuz, *metanoia* gisa, gogoia edota bizitza eraldaketa gisa:

Subjektu baten eraldaketa zuzena da, erabateko bihurketa, bizitza aldaketa osoa. Eta, horren ondorioz, erlijiotik oso gertu dago, baina soilik bitarteko razionalen bidez; maitasunetik oso gertu, baina desioaren marruskadurarik gabe; konpromiso politikotik oso gertu, baina erakunde zentralizatu baten soka motzik gabe; arte sorkuntzaren potentziatik oso gertu, baina artearen bitarteko fisikorik gabe; ezagutza zientifikotik oso gertu, baina matematikaren formalismorik gabe, eta fisikaren bitarteko enpiriko eta teknikorik gabe.

Ezagutza guztietatik gertu, baina ezagutza jakin bat izan gabe, Badiouren aburuz filosofia ekintza bat da, «inorengandik guztiengana» libre zuzentzen dena. Badiouri keinu eginez, gehituko nuke filosofia dagoela antzinako ehizatik oso gertu, Tomaselloren arabera etika eta kontzientzia sortu zituen talde ekintza; ehizatik oso gertu, baina hezur-haragizko harrapakinik gabe. (Kasu bietan ezin da bakarka egin: ez filosofia, ez ehiza.)

Zeri erreparatu behar dio sistemak, edo aroztegiak Azurmendiren kondairan, sistema bere buruaz kontziente izateko? Ez etorkizunari ez iraganari, oraingoari baizik. Arlo sozialean

ditugu etorkizunaren haziak eta iraganak utzitako lurra. Eta oraingo honetan zeri erreparatu? Elkarri begiratu eta entzun beharko diote sistemako zatiek, tresna bakoitza beste tresnei begira, *Der Schlüssel* (*Gakoa*) izeneko Schillerren epigraman bezala: «Zeure burua ezagutuko duzu besteen jarduera ikusten baduzu. Besteak ezagutuko dituzu begirada zuregana itzuliz» (Zubiria 2005: 210).<sup>5</sup>

Goetheren eta erromantizismoaren espirituaren arabera, benetako gizarte-transformaziorik ez da izango norberarengandik hasten ez bada. Barne-eraldaketa horretan, entzumena lantzea ezinbestekoa da. Ni eta nire moduan pentsatzen dutenei ez ezik, desberdin pentsatzen dutenei ere arretaz eta enpatiaz entzun behar zaie, elkarrekin eremu berria sortu nahi badugu.

Hori da, nire ustez, Azurmendiren absoluturik gabeko etika, bere obran hasiera-hasieratik dagoena. Itzul gaitezen *Hitz berdeak* liburura une batez, *Prometeo mixerablea* poemara, Prometeo heroiko ez dena: «Zer haiz ba! ez zekiagu/ begiz begi batak bestea/ begiratzen-eta» (Azurmendi 1971: 165).<sup>6</sup> Nago heroitasun eza horretan, elkarrekikotasun horretan, «begiz begi batak bestea» begiratzean datzala Azurmendiren etika, hein handi batean. Horrela, arotzik gabe ere, lidergoa posible da; baina oraingo honetan lidergoa ez datorkigu, *Os Lusíadas*-en moduan, heroi batzuen borroka edo bidaia epiko batetik. Lidergoa etorriko da praktikatik bertatik, parteei osatzen duten sistemari bere osotasunean erreparatzen diotenean, komunitatea bere buruaz kontziente dagoenean. Gure buruari erreparatzen diogula, «jakiteko badaukagula geure pentsamendu bat» (Azurmendi 2017: 105-106). Ez da erraza kultura lorpen hori; eta filosofia behar du.

Filosofia behar du aroztegiak, baina filosofoa ez da arotza: ezagutzaren tresna guztiak ditu eskura, baina bere zeregina ez da tresnen erregea edo liderra izatea; hori bederen badakigu Platonen garaietatik. Ez: ezin dugu arotza filosofoarekin ordezkatu; bai, ordea, tresna horiek guztiak erabili, filosofia den *metanoia* hori, eraldaketa hori bilatzeko. Eta hori ez du Badiouk bakarrik proposatzen: Scharmerrek ere U teoria

ulertzen du mundu zabalean modu librean hedatzen den arlo sozialeko ekintza-ikerketak gisa, arretaren egitura sakonak eta kolektiboak identifikatzeko eta aktibatzeke asmoz.

Hori guztia oso abstraktua denez, hobe adibide bitartez azaltzea. Scharmerrek MITen garatu duen gizarte aldaketarako teknologiaren bost mugimenduak aipatuko ditut, Azurmendiren (eta Arizmendiarrietaren) testuekin alderatuz.

U teoria arretaren etika bat da, eta bertan hasteko ordena zehatz bat jarraitu behar dugu: 1) Begiratzea, begiratzea, begiratzea. 2) Barneko ezagutza sortzeko, erretiratu eta hausnartzea. 3) Ekintzara pasatzea

## Elkarrekin hasi

«Energia arretaren ostean dator», dio Scharmerrek (2016: 415). Izan ere, U teoria arretaren etika bat da, eta bertan hasteko ordena zehatz bat jarraitu behar dugu: 1) Begiratzea, begiratzea, begiratzea. 2) Barneko ezagutza sortzeko, erretiratu eta hausnartzea. 3) Ekintzara pasatzea (Imaz eta Bilbao 2016: 31). Funtsezkoa da prozesu hori banakako gisa garatzea, eta, aldi berean, espazioari eutsi behar zaio prozesua talde mailan aurrera eraman ahal izateko, egitasmo partekatu baten inguruan. Esan bezala, komeni da aniztasuna, tresna edo parte hartzaile desberdinak izatea. Egitasmo horren inguruan elkartuz, konexioa eginez, aurreiritziak alde batera utzi ahal dira. Praktika komunitate batean lan eginez gero, gure gaitasun onenekin lotzen gara, aroztegiko batzarrean bezala.

Azurmendik 1996an kooperatibismoari eskainitako hizaldia batean, ideia berbera agertzen da behin eta berriro. Ziztu bizian aldatuz doan egoeran, «egokitu beharra daukagu munduaren lasterketari» (Azurmendi 1996: 40), baina bidea ez da «esportagarria»: kooperatibismoa posible da,

baina komunitate bakoitzak sortu beharko du bere modu egokieneko kooperatibismoa bere baitatik. Parentesien artean Azurmendik dioen moduan, ez dago «esportaziorik», «krezazioa» baizik. Eta sorkuntzan hasteko behar den pizgarria da «komunitate kontzientziatu» bat. «Hori falta den tokira, alfer-alferrik izango da antolaketa formula kooperatiboak esportatu gura izatea» (*ibid.*: 23).

## Elkarrekin sentitu

U teoriar arlo sozialari (*social field*) arreta egiten zaio. Zer dago gure arlo edo soro horretan? Askotan ez dakigu, satorrak bezala nor bere zuloan sartuta. Zentzumen organo kolektiboak behar ditugu, «errealitatea den bezala hartu eta irakurketak egin» ahal izateko, elkarriketaren bitartez euskal pentsamenduak zer pentsatzen duen jakiteko.

Hitzaldi horretan adibide bat jartzen du Azurmendik; XIX. mendean Japoniari modernizazioa gainera etorri zitzaionean, zera sentitu zuten: horren biktima ez bihurtzeko, zorrozta-sunez aurre egin beharko lioketela egoerari. Hori dela eta, etxetik atera behar izan zuten. Beraz, agintari japoniarrek bi ordezkari bidaltzeko erabakia hartu zuten, bata Amerikako Estatu Batuetara eta bestea Europara, modernitatea sakon aztertzeko helburua zutelarik (*ibid.*: 14). Potentzial handiko lekuetarako bidaiak egitea ere aholkatzen du U teoriak (Scharmer 1996: 389). Azurmendik azpimarratzen du etxeko arazoak konpontzea dela azken helburua, talde txikietan lan egiteko beharra gogoratuz:

... kooperatiba askotan lan-komunitateak behar bezala funtzionatzen ez badu, kausak ikusi beharko dira, eta erremedioa aurkitzeko ekimena eta irudimena martxan jarri: komunitate izpiritua bizkortu, beharbada komunitatearen egitura birmoldatu, talde txikitan edo; mekanismo berriak asmatu guztien komunikazio eta erabakibiderako. Ordea etxean problemak daudela eta, beste espazio batera jauzi eginez horiek konpondu nahi izatea, etxea abandonatzea besterik ez da, konpondu ordez. (Azurmendi 1996: 26)

## Iturbegia ikusi

Hau da, nire ustez, deskribatzen zailena den urratsa. Fun-tsean, azaleratzen den etorkizunari adi egotean datza. Norberak irudikatu dezala bere paisaia, bere iturria, bere ur-jauzia. Desobedientzia zibilari buruzko entseguan Thoreauk idatzi zuen moduan, «ur xirripa aintzira honetara edo putzu hartara nondik heltzen den ikusten dutenek kemena bildu eta erromesaldia jarraitzen dute iturbegirantz».

«Pentsamenduaren ur jauzia» izenburuan duen kongresu batean, aipatu gabe ezin utzi Zhuangzi klasiko txinatarra, non ur jauzi batean Konfuziok igeri egiteko metodoaz esperientzia interesgarri bat izan zuen. Albert Galvanyren irakurketan, pasarte horren kokka da Konfuzioren *metanoia* bat eragiten duela, moralismoaren arriskuak ikusaraziz eta «maisua ohiko autoritateaz» harago doan «eragin sotilago bat» aldarrikatuz.<sup>7</sup>

«Sorburuetara itzuli beharko genuke guztiok», Azurmendi-  
ren esanetan. «Nondik abiatu gara? Nora iritsi nahi genuen? Proiektua sortu zuen jatorrizko ideiar buruzko gogoeta berria egin beharra dago» (*ibid.*: 17). Sorburua, iturbegia –*the source*, U teorian– sinboloak dira, noski, eta sinboloek, argitzen duten heinean, ilundu ere egin dezakete. Baina, dena dela, ez dira zerbait mistikoaren sinboloak. Izan ere, urratsa egunerokoan arreta jartzea besterik ez da, eta filosofikoak diren galderak erantzuten saiatzea. U teoriaren arabera, bi dira galdera sinple horiek: 1) Nor naiz ni? 2) Zein da nire lana?

Arizmendiarrietaren filosofian eta praktikan gauza bera aurkitzen du Azurmendik:

Arizmendiarrietak beti egin zuela, zerbait handia edo txikia egin aurretik, ia inork egiten ez duen zerbait, eta hark alde egin zigunetik agian inork egiten ez duen baina oso sinplea den zerbait: eguneroko lanaz gogoeta egitea. (*Ibid.*: 16)

Arizmendiarrietak bere filosofia guztia lanaren gogoetan bildu, eta esaldi bakar batez laburtu zuen: «Lana komunitatearentzako zerbitzua da». Baina komunitatea zer da?

Azurmendik (*ibid.*: 18) dio birpentsatu behar dugula zer esan nahi duen kontzeptu horrek. Zeren gaur egun komunitatea ez baita eskola, ez enpresa, ez herria, ez nazioa edo estatua, edo ez soilik... Beste gauza bat da, etengabe eta elkarrekin sortzen den zerbait.

## Elkarrekin sortu

Komunitateak ez du zertan handia izan. Sare boteretsu bati lotuz gero, lauzpabost lagun kopuru nahikoa da, baldin eta asmo komun baten inguruan biltzen badira jakin-minez, enpatiaz eta adorez (U teorian: *open mind*, *open heart*, *open will*). Txikitik hasi eta berehala ekin. Ez dadin lan intelektuala soilik izan. Aroztegiko batzarrean lana egiten baita buruz, eskuz eta bihotzez. Zerbait sortzerakoan, osotasunetik abiatuz, sistema osoari erreparatuz, baina eskalagarriak diren prototipo txikiak eginez. Irudimena aske eta amesten jarrita, jaiotzeaz zegoen Mondragon Unibertsitatearen inguruko jendeari hala galdetu zion Azurmendik:

... zergatik ez amestu elkarrekin kooperatzen, elkarri laguntzen eta elkar osatzen, kulturgintzan, orain sortuko duzuen Unibertsitatean, industrian, finantzetan, osasunbidean, alor guztietan, komunitatearen zerbitzu-izpiritu horretako proiektuak eta jendeak, denak elkar hartuta komunitate berri bat sortzeko eginahalean? (*Ibid.*: 36)

## Elkarrekin garatu

Prototipo horiekin frogak egin, azkar eta ausart, emaitzen arabera aldaketak egiteko. Hala egin genuen EHUko Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatean duela hiru urte *Pentsatu!* jaialdia sortu genuenean, gehiegi pentsatu gabe filosofia kaleratzeko ekintza sorta antolatuz, *Barcelona Pensa* jaialdia aztertu eta gero.<sup>8</sup> Urtez urte egin izan dugu, eta bakoitzean ezberdin izan da. Marruskadurak (hots, praktikak) ematen duen *feedback*-a erabiliz, garatuko dugu eta jarraituko dugu urtero horrelakoak egiten.



Beste toki eta arlo batzuetan ere U teoria erabili izan da, euskaraz, Gernikan, Getxon, Gasteizen eta Bermeon egin-dako hainbat proiektutan (Imaz eta Bilbao 2016). Kultura aldaketa baten lehenengo zantzuak dira, edo kultura zer den birdefinizio saiakera bat. Aipatu dudan *Os Lusíadas*-i buruzko bere entseguan, Azurmendik deskribatu nahi zuen «Historian herri bat edo kultura bat den fenomeno barne-anitz konplexu hori [...], bere oroitzapen eta ahazpenekin, kontzientzia bezala alegia, orokorki nola hozitu eta egituratu ohi den» (Azurmendi 1995: 100). Egitasmo hori ez da kabitzen ez bere entseguan ezta artikulu honetan ere. Baina argi dut Azurmendirentzat kultura zerbait bada, kontzientzia dela, alegia: bere


burua ezagutzen duen sistema autonomoa, errealitatean eta oraingoan kokatuta. «Kulturak ez dihardu etorkizunaren eza-gutzaz» (Jurij Lotman, *apud ibid.*), ados, baina azaleratzen den etorkizuna aurreikusteko ezinbestekoa da kultura garatzea, zentzumen organo kolektiboetan eta praktika komunitate zehatzetan gauzatzen den kontzientzia sistemikoa.

Eta horixe da nire ustez oraingoaren erronka, zeren gure mundua arriskuan badago, krisian, krisia ez da teknikoa, kulturakoa baizik: «Krisia ez da sistemako teknikei buruzkoa, sistemako gizon eta emakumei buruzkoa baizik, ideiei eta etorkizuneko itxaropenei buruzkoa» (Azurmendi 1996: 17).

Erronkari aurre egiteko, bi gauza behar ditugu filosofia praktikatzen dugun komunitatean: tokian tokikoa elikatzekeo eta aldi berean mundua eraldatzen duten joerak ulertzekeo. Izan ere, artikulu honetako nire bi konklusioak dira: barrura begira, euskarazko filosofian dauden askotariko belaunaldi,

Azaleratzen den etorkizuna aurreikusteko ezinbestekoa da kultura garatzea, zentzumen organo kolektiboetan eta praktika komunitate zehatzetan gauzatzen den kontzientzia sistemikoa

estilo, eskola eta jendea elkartzeko guneak behar ditugu sortu; kanpora begira, eraldatze prozesuetan aktibo dauden gizarte berrikuntza metodologiak gureganatu. Berriro ere Azurmendiren hitzekin, oraingoz bukatzeko:

Gizon-emakumeok komunitatearekin batera, komunitatean, garatzen dugu bakoitzak gure balio sistema, gure nortasuna. Batzuetan komunitatearekin borrokan, aurka; beste askotan handik edoski eta gureganduz. (*Ibid.*: 39) 

### Oharrak

1. «Aprender siempre es un desplazamiento que nos saca de nuestra zona de confort. Me inquieta, sin embargo, el abismo que se abre cuando la docencia y la convivencia se alejan tanto. La universidad, como institución, impone muchas distancias a la *convivialidad* necesaria para el aprendizaje. Antes lo hacía a través de la distancia jerárquica y del trato frío y ceremonioso con el profesorado. Actualmente, a través de una gestión complicada de los espacios y de los tiempos que tiene como consecuencia que todo el mundo en la universidad esté produciendo (algo, ¿qué?), cada uno por su lado, en vez de estar aprendiendo juntos. Hay un roce del pensamiento que actualmente puede tomar muchas formas, tanto presenciales como virtuales, pero que igualmente necesita de una condición indispensable para que el saber no quede reducido a mera información: poder construir juntos los contextos y las relaciones de aprendizaje. No tenemos que renunciar a ello, ni siquiera en la universidad actual» (Garcés 2018: 130).
2. [www.argia.eus/blogak/ignazio-aiestaran/2016/06/21/gizabere-koo-peratiboa-elkarrekiko-historian](http://www.argia.eus/blogak/ignazio-aiestaran/2016/06/21/gizabere-koo-peratiboa-elkarrekiko-historian)
3. Aroztegiko tresnak giltzapetuta daude Presoaren Dilema batean. Eta dilema horretatik ateratzeko bide bakarra da elkarren arteko komunikazioa. Jokoen teoria erabiliz egoera ulertzeko baliagarria izan daiteke Toni Domènechen liburu ederra: *De la ética a la política* (1989).
4. Kontzientzia hori Azurmendiren 'arima' hitzaren erabileraren antzekoa da. Haritz Azurmendik honela azaltzen du: «Metafora bat da arima hemen, gizaberearen hezur-haragitan dauden garapenen posibilitatea, pixkanaka, bizitzan zehar forma bat eta beste hartzen ari dena egindako hautu eta bizitako esperientzien arabera» (H. Azurmendi 2019: 119).

5. «Willst du dich selber erkennen, so sieh, wie die andern es treiben./ Willst du die ander verstehn, blick in dein eigenes Herz».
6. Aitor Sorreluzi zor diot poema horrek arreta eman izana.
7. Zhuangzik bestelako hezkuntza eredu bat iradokitzen du, non helburua ez baita ikasleak bete behar diren formulak edo aginduak topatzea, baizik eta maisuaren ohiko autoritatetik urruntzen den eragin sotilago baten pean luze igarotzea (Galvany 2019: 227). Jonathan Lavillari eskerrak Galvanyren lana gogorarazteagatik.
8. Ekai Txapartegi irakaslea izan zen ekimen horren arduradun eta bultzatzaile nagusia.

### Bibliografia

- Azurmendi, H. (2019): *Joxe Azurmendiren nazioa Nazionalismo Ikerketen argitan. Abertzaletasun kulturalaren defentsa Euskal Herri garaikidean*. Doktorego tesia. UPV/EHU.
- Azurmendi, J. (1995): 'Topoi nazional/nazionalistak ernazimentuan: Camõesen 'Os Lusíadas'', in Pruden Gartzia eta Iban Zaldúa (argk.): *Historia: zientzia ala literatura? Historiari buruzko gogoeta sorta*, Bilbo, UEU, 89-146.
- (1996): *La idea cooperativa: del servicio a la comunidad a su nueva creación*, Aretxabaleta, Gizabidea Fundazioa.
- (1997): 'Elkarrizketa', *Elkarri* 34, 16-25.
- (2016): *Gizabere kooperatiboaz*, Donostia, Jakin. *Jakin Irakurgaiak* bilduma 47.
- (2017): *Hizkuntza, nazioa, estatua*, Donostia, Elkar.
- (2018): *Beltzak, juduak eta beste euskaldun batzuk*, Donostia, Elkar.
- Badiou, A. (d.g.): 'La filosofía como repetición creativa', *The Symptom* ([www.lacan.com/badiou18spa.html](http://www.lacan.com/badiou18spa.html)).
- Domènech, A. (1989): *De la ética a la política*, Bartzelona, Crítica.
- Galvany, A. (2019): 'Panic, Parody and Pedagogy at the Waterfall. Morality as a Misleading Principle for Moral Actions', in K. Lai eta W. W. Chiu (argk.): *Skill Mastery and Performance in the Zhuangzi*, Londres, Rowman & Littlefield, 201-227.
- Garcés, M. (2018): *Ciudad Princesa*, Bartzelona, Galaxia Gutenberg.
- Hadot, P. (2006): *Ejercicios espirituales y filosofía antigua*, Madril, Siruela.
- Imaz, T.; Bilbao, I. (2016): 'U teoria: inspirazioa eta aldaketa pertsonala, antolakuntzakoa eta gizartearena bultzatzen duen teoria', *Administrazioa Euskaraz* 94, 31-33.
- Scharmer, C. O. (2016): *Theory U – Leading from the Future as It Emerges*, Oakland, Berrett-Koehler Publishers.

- (2018): *The Essentials of Theory U*, Oakland, Berrett-Koehler Publishers.
- Thoreau, H. D. (2009 [1849]): *Desobedientzia zibila*, Oñati, Potxo edizioak. Itzultzailea: Edu Lartzanguren.
- Tomasello, M. (2018): 'Precis of a natural history of human morality', *Philosophical Psychology* 31(5), 661-668.
- Zubiria, M. (2005): 'Algunos epigramas de Goethe y de Schiller', *Revista de Literaturas Modernas* 35, 197-212.

# Heriotzarekin bizitzen ikastea

Maitane Nerekan Umaran

Itsaslore Yarza Lopez

*Filosofia irakasleak Bigarren Hezkuntzan*

## Zergatik gu hemen?

Joxe Azurmendiren omenezko kongresuak 'ur-jauziaren' metafora erabili du euskal pentsalari oparo honek euskaldunon herriari egindako ekarpenaren izaera laburbiltzeko. Pentsalari zegamarrak busti egin ditu zuzenean zein zeharka hurbildu zaizkionak, horiek ere euskaldunon mundua bustitzen jarrai dezaten beren egunerokotasunaren txokotik. Artikulu honek badu bustitzeko asmoa, bustirik gaudenean, batzuetan, deseroso egoten garen arren.

Unibertsitateko giro akademikotik aspaldi urrundutako irakasleen ahotik hitz egin nahi dugu artikulu honetan. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzatik eta Batxilergotik; hau da, 12-18 urte bitarteko nerabeen begietatik begiratzen diogu filosofiari eta Azurmendiren pentsamenduari. Baina hori aitzakia besterik ez da euskal gizartean premia aztertu beharreko gai bat jorratzeko: suizidioa.

Zubiak eraiki behar dira, ezinbestean, unibertsitateko mundu akademikoaren eta Bigarren Hezkuntzakoaren artean, gai horren eta filosofiak zabaltzen duen pentsamendu-itsasoaren gainean. Elkarren beharra dute bi munduok, baina uharte txiki bakanetan izaten dute topaleku, gehienetan. Ikastetxeetan ditugu etorkizuneko pentsamendu sortzaileak eta ikertzaileak; unibertsitatean mamitzen dira euskal imajinarioaren eta Euskal Herriaren lehentasun zientifiko, filosofiko eta etikoak. Bi

mundu horien artean amildegi gaindiezina irekiz gero, unibert-  
sitateak ez du ganoraz beteko bere-berea duen funtzio soziala.  
Euskal gizartea ez delako kongresu, ponentzia eta katedretan  
eraikitzen soilik, ez, behintzat, horiek gizartearekin inolako  
konexiorik ez badute. Filosofia arloan, gaur egun, Agora El-  
kartea, Filosofiako Bigarren Hezkuntzako irakasleak biltzen  
dituena, eta EHUko zenbait kide lanean ari dira zubi hori  
eraikitzeko. Artikulu hau bera ere elkarlan horren emaitza da.

Esperientziak esaten digu nerabeak gizartearen ispilu direla  
askotan; gabezien motxila ikaragarria jartzen diegu bizkar  
gainean; baina, izatez, zama hori ez dira gizartearen hutse-  
giteak baizik. Filosofiarekin harremanetan jartzen direnean,  
beldurraren eskutik heldu ohi da jakin-mina ikasleentzat.  
Sortzen diren gai asko hausnartzearen beldurra: existen-  
tziaren zentzua, gizadiaren ahultasuna eta hauskortasuna...

Zertarako balio du horretaz hitz egiteak? Ohiko galdera  
dugu ikastetxeetako filosofia saioetan. Heriotzaren gaia, filo-  
sofiaren historian begiratu zaion ikuspegi guztietatik, ezine-  
gon hori sortzen dutenetako bat da; are gehiago, norberaren  
heriotza bilatzea, hau da, nork bere buruaz beste egitea hiz-  
pide dugunean. Baina, «bizi osoan bizitzen ikasten ari gara  
eta bizitzen ikastea hiltzen ikastea da. Heriotzarekin bizitzen  
ikastea» (Azurmendi 2009: 225).

Esan barik doa aurrez aurre begiratu behar zaiola suizi-  
dioaren gaiari, hori baita prebentzio-lanik eraginkorrena;  
are gehiago, zimenduak egonkortzeko fasean dauden gazteez  
ari garela. Azurmendik bere lan oparoan askotan egin duen  
bezala, ausart eta lasai heldu behar diegu gai tabuei, euskal  
gizarte sendo eta osasuntsua eraiki nahi badugu behintzat.

Horren adibide ona da *Azken egunak Gandiagarekin* obra.  
Artikulu honetan, ez dugu testu horretan sakontzeko asmo-  
rik; baina hainbat pasarte tresna ezin hobeak dira gaia bide-  
ratzeko. XXI. mendean nola eman zentzua bizitzari, horixe  
da obra horren hausnarketa-gaia. Bizitzari zentzua ematen  
saiatzen da Azurmendi lagunaren heriotza hurbil duenean,  
eta hori da ederrena.

Azurmendik euskal gizartearekin izan duen konpromisoaren isla dira bere lanak; euskaldunon komunitatearekin, euskararekin, bere ikasleekin... konpromiso sendoa erakutsi du. Artikulu hau konpromisotik idatzi dugu orobat, Bigarren Hezkuntzako irakasle garen aldetik, ikasleekin dugun konpromisotik, alegia, eta euskal gizartearen parte garenez, euskaldunokin dugun konpromisotik.

## Kokapenerako bi hitz

Joxe Azurmendi Kongresuko hitzaldiek dirauten hogei minutuko tarte bakoitzean 48.000 pertsonak egingo dute bere buruaz beste munduan. Euskal Herrian, 300 pertsonak hartzen dute erabaki hori urtero. Horietatik bi heren gizonezkoak dira, eta heren bat emakumezkoak.

Datu horiek hausnarketarako bide asko zabaltzen dituztela iruditzen zaigu: esaterako, zergatik sexuen arteko kopuru-azberdintasun hori.

Fenomenoari aurre egiteko, *Euskadin suizidioa prebenitzeko estrategia* argitaratu da 2019ko apirilean; jokabide suizidaren nondik norakoak azaltzen ditu, eta estrategiak aurkezten ditu. Osasunaren Mundu Erakundeak ere prebentzioa sustatzen du; izan ere, suizidioa osasun-arazo publikotzat jo dute. Heriotza, beraz, hain in-timo, hain pribatu, hain pertsonal den gai hori, arazo publiko bihurtzen da norberaren erabakia denean.

Jakin behar dugu irizpide ezberdinak erabiltzen dituztela Ipar Euskal Herriko eta Hego Euskal Herriko administrazioek heriotza suizidio bezala kontabilizatzeke. Heriotzan ere, estatuak badu zeresanik. Ipar Euskal Herrian, proportzioan heriotza gehiago daudela publikatzen da estatistiketan; baina

Aurrez aurre begiratu behar zaio suizidioaren gaiari, hori baita prebentzio-lanik eraginkorrena; are gehiago, zimenduak egonkortzeko fasean dauden gazteez ari garela

zenbatzeko modua bestelakoa denez, ezin daiteke konparazio zuzen eta zehatzik egin. Eta kontuan izan behar dugu estatu espainolak erabiltzen dituen irizpideak ez direla erabat fidagarriak, suizidio diren heriotza asko ez direlako kategoria horretan sartzen, eta itotze, istripu edo eroriko bezala zenbatzen dira. Era horretan, beraz, gutxitu egiten da kopurua, eta horrek berekin dakar kasu batzuk ezkutatzea eta tabua indartzea.

Ezkutuan, ilun eta tabu edukitzen dute, bestalde, gizartean hainbat uste faltsu daudelako hedaturik, esaterako:

- Suizidioaz galdetzea edo hitz egitea arriskutsua da, suizidioak eragin ditzakeelako. Baina ez du zertan horrela izan, behar bezala hitz eginez gero, sentsazionalismotik urrun.
- Arazo larriak dituzten pertsonak soilik egiten dute bere buruaz beste.

Gure iritzian, aurreiritzi horiek atzean uztea ur-jauziarekin aurrera egitea da.

## **Begira diezaiogun filosofiatik**

Ez da erraza suizidioaren fenomenoari tokia, zentzua edo esanahia topatzea bakoitzak duen mundu-ikuskeran. Izan ere, heriotzari ez ohi diogu aurrez aurre begiratzen eguneroko bizitzan; hori dela eta, nekeza egiten zaigu heriotzaz hausnartzea eta norberaren kosmobisioan kokatzeko ahalegina egitea. Suizidioaz hausnartzeak barneak mugitzen dizkigu, dugun adina dugula; eta adituen hitzak edo erakundeen publikazioak irakurtzen ditugunean, biderkatu egiten dira galderak eta zalantzak, arrakala berriak irekitzen dira. Gainera, norberak egin behar dio aurre, bere bakardadean, auzi horri, azken finean.

Beldurrak bideratzen ditu askotan bai solasaldia, bai solasaldi horrek dakartzan galdera berriak. Suizidioaz hausnartzeak geure heriotzaren parean jartzen gaitu; are gehiago, agerian uzten du geure bizitzaren gainean daukagun boterea, gure bizitza benetan gure esku dagoela ohartarazten digu. Zer pisua den! Zer erantzukizun handia guk aukeratu ahal izatea bizitzen jarraitzea ala ez! Azurmendik idatzi zuenez:



Askatasuna duen aberea izateak (natura gisa 'bukatugabea' izateak: beraz berak burutu beharra bere burua, beraz erantzukizunak, beraz kontzientziak, beraz berak erabaki/eraiki beharrak bere existentziaren zentzua) zelako posibilitateak eta problemak sortzen dizkion gizaberearen bizitzari. (*Ibid.*: 149)

Askatasunaren auzia da, hain zuzen, galderen artean errepi-katzen denetariko bat: bere buruaz beste egiten duenak askatasunez egiten du? Askea da bere bizitzarekin amaitzen duena?

Zalantzan jartzen da pertsona askeak ote diren bere buruaz beste egitea erabakitzen dutenak. Bere buruaz beste egiten duen pertsonaren jokabidea, askotan, eromenarekin edo nahasmendu psikologikoekin lotzen da, depresioarekin edota bestelako portaera-arazo kontrolaezinekin, gaixotasun fisiko sendaezinen fase terminalarekin, une kritikoko batekin... Esaten digute ezin dela izan lasai eta aske hartutako erabakia. Zentzutasunetik kanpokotzat jotzen da bere burua hiltzea aukeratzen duenaren erabakia, umetzat jotzen da hori egiten duen pertsona, heldutasuna ukatzen zaio. Bere buruaz beste egiten duen batek nahasmendu edo pairamen psikologikoak izan ditzake, eta guk ez dugu hori zalantzan jartzen inondik inora. Baina, horrela al da beti nahitaez? Bere buruaz beste egiten duenak sufritzen badu, sufrimenduaren mende egoteak askatasuna kentzen al dio derrigorrean? Baldintzatzen gaituzten barneko eta kanpoko faktoreek egiten gaituzte garena; izaki baldintzatuak gara (kultura, hizkuntza, ideiak, sinesteak...), gure «askatasuna mugatua da» (*ibid.*: 186), baina aske definitzen dugu geure burua, nahiz eta baldintzapean egon; gizakia horrela delako gizaki, gizartekoa eta erlazionala den heinean. Horregatik galdetzen diogu geure buruari ea sufrimenduaren baldintzapean egotea ez ote den baldintza horietako bat besterik, eta, horrenbestez, nahikoa ote den bere buruaz beste egiten duenari askatasun gabetzat jotzeko.

Bestalde, bizitzen jarraitzea nahitaez aukeratu behar izanez gero, hau da, bizitza, dena delakoa, absolutu bihurtuz gero, berehala ondorioztatuko genuke edozein bizitza dela bizitzeko modukoa, edozein bizitza-mota, edozein baldintzatan.

Aukerarik ba al dago bizitzen jarraitzea merezi ez duela onartzeko? Erabaki intimoa da azkenean. Norberaren esku dago deliberatzea zein gizarte den bizitzeko modukoa eta bizitzaren zentzua eraikitzea

Eta zer da bizitzeko moduko bizitza? Eta bizitzeko moduko gizarte bat? Humek egin zuen galdera erabil dezakegu gaian sakontzeko: «Zenbateraino merezi du bizitzea?». Humek zioen ez zuela uste inork bizitza alferrik botako zuenik merezi zuen bitartean. Zertan datza, ordea, merezi izate hori? Bizitza astunegi bilakatu denean, nekea nagusi denean, nork bere buruarenganako nazka sentitzen duenean, sistemarekiko gogaitasuna nagusi denean, baliteke norbaitek ondorioztatzea bizitza hori ezin bizitzeko mo-

dukua bihurtu zaiola, hau da, ez duela merezi bizitzea; posible hori jarri nahi izan dugu mahai gainean galdera gisa. Aukerarik ba al dago bizitzen jarraitzea merezi ez duela onartzeko? Erabaki intimoa da azkenean. Norberaren esku dago deliberatzea zein gizarte den bizitzeko modukoa eta bizitzaren zentzua eraikitzea: «Zentzua ez dator biziak naturalki emanda, ipini egin behar da» (*ibid.*: 194).

Bizitzaren zentzuaz orokorrean hausnartzea, azken finean, norberaren bizitzaren zentzuaz hausnartzea da, letra xehez idazten den bizitza horretaz, alegia. Eta hausnartzeko prozesu horretan, Luis Fernando López Martínez osasun-psikologo eta sare sozialetan adituak dioenez, bi ideia daude, bestek beste, bere burua hiltzen duenaren gogoan:

- Barruko sufrimendua ez da inoiz bukatuko.
- Familia hobeto egongo da bera gabe.

Etsipena darie pentsamendu horiei, eta Gandiagak *Hiru gizon bakarka* lanean esan zuen bezala, «Bizitzak itxaropena behar du bizitzeko» (*ibid.*: 84). Baina beste ideia batzuk ere topa daitezke:

- Ez dut edozein preziotan bizi nahi.
- Deskantsatu nahi dut.
- Nonahi ikusten dudan miseria eta injustizien aurrean heriotza aukeratuko dut.
- Munduari kontra egin nahi diot.
- Familia gai izango da gainditzeko.
- Matxinada izan dadila nire heriotza...

Eta bizitzen jarraitzea erabakitzen dugunok non topatzen dugu itxaropenerako *ate bat bizitzan bertan*? Ba al dago atetik edo etsipena onartzeko biderik? Gure ustez, heriotzaz filosofia egiteak eta suizidioaz filosofatzeak ate berriak zabaldu ditzake. Arteak, idazteak, sortu ditugun harremanek, norberaren bidea bilatzearen abenturak, mendira igotzeak... Horiek guztiek zabal ditzakete bideak...

Mendira igotzea bezala da biziaren zentzua [...] Arrazoa igotzean bertan datza, bidean. Patarrean eta izerdian, sufrimenduan. Norbere ukoan, norbera gainditzean. Nahian eta ahaleginean. Agian zeure burua bilatzen duzu. Zu zeu, zure arima, behartzen duzun gorputz horixe zarela egiaztatu gura duzu. Eta gorputz hori beste zerbaite delako eguneroko errutinako norgabea baino. Zure buruaren –ahalaren, ezinaren–, zure mugen esperientzia egin, existentziaren esperientzia: existentziaren kontzientzia mugen kontzientzia baita. (*Ibid.*: 285)

Jaiotzea ez da egon gure esku, baina gure esku dago bizitzan aurrera egitea. Gertuko baten suizidioak agerian jartzen du ezin ditugula ingurukoak inondik inora %100ean kontrolpean eduki, eta gure jabetza bakarra, izatekotan, gu geu garela. Ingurunea eror daiteke, harremanak galdu, egoera ekonomikoa eta soziala hondatu, egoera politikoa okertu... eta, doluan, beste era batera eraiki beharko dugu geure burua. Horregatik uste dugu aski izan behar duela nork bere buruarekin bizitzan aurrera egiteko, autosufizientzia sustatzea giltzarria izan daiteke.

## **Prebentziorako proposamen bat, besterik ez**

Aurretik esan bezala, izaki erlazionalak gara eta, horregatik, saretze eta prebentzio lana egin dezakegu. Suizidio guztiak

ezin dira ekidin, ezta, agian, ekidin behar ere. Baina bizitzea merezi duten bizitzak sortzen lan egin dezakegu eta, beraz, suizidioa aurreikusten eta saihesten.

Euskal hezkuntza sarearen eragile garen heinean, bi zutabe ikusten ditugu gure esku egon daitezkeenak prebentzio lane-rako. Proposamen sozialak dira biak, hezkuntza zentroetan (unibertsitate, institutu, eskola...) inplementatu beharrekoak, baina baita gizarteko beste espazio publiko zein pribatuetan ere. Hausnarketa filosofikoa, maila guztietatik eta adar asko-tatik, horiek lantzeko aukera ezin hobea izan daiteke.


Erresilientziaren lanketa sistematikoa litzateke lehenengoa. Egoera zailekin elkarbizitzeko gaitasuna eta malgutasuna da erresilientzia. Gizarte globalaren adierazgarriak handieneta-koa, XXI. mendean, *Mr. Wonderful* produktu komertziala du-gu. Euskal Herriko nerabeen (baita heldu askoren) Instagram eta bestelako sare sozialak esaldi Wonderful horiez jantzita daude. Aipatu enpresaren agenda, koaderno eta bestelako pro-dukturek milaka erosle aurkitzen dituzte euskal ikasleen artean, horiek gazteleraz merkaturatzen badira ere. «Si te esfuerzas no habrá sueño que se te resista» edo «que tus sueños sean más grandes que tus miedos» esaldiak bizi estilo baten ikur bihurtu dira. Horiek tristezia edo min sentipenak porrotarekin lotze-ra eramán gaitzakete. Arrakastaz bakarrik hitz egiten digute.

Dena Wonderful izan gabe, bizitzak merezi duela mahai gainean jarri behar dugu. Galdera existentzialistek, minga-riak edo nekezak izanda ere, bizitzea merezi duten bizitzak eraikitzeke balio dute. Mina bidelagun izan dezakegu bizitza bizigarri batean ere.

Frustrazioa onartzeko gaitasuna da XXI. mendeko Mende-baldeko gizabereekin landu beharreko ikasgai premiazko-e-netako bat; dena ez dago gure esku, ondo egoteak esfortzua suposatzen digu, baina, hala ere, bizitzak merezi duela uler-tzea, alegia. Bada ordua hori ere euskal curriculumean modu erreal eta eraginkorren txertatzeko.

Bestalde, autoaskitza edo autosufizientziaren ideia dugu. Nork bere buruarekin nahikoa izatea. Bilaketa etengabean

bizi da gizabere garaikidea, existentziaren zentzuaren bilaketan zein niaren bilaketan. Bilaketa hori gizakiaren berezko elementua dela premisatzat hartuta ere, beharrezkoa dugu birbideratze lan bat egitea. Kanpoan bilatzen dugun guztia nork bere barruan bilatzera (eta aurkitzera, posiblea den heinean) bideratuz. Ezer berririk aurkitu gabe ere, ederto bizi gaitzkeela ulertarazi behar diegu euskal belaunaldi berriei; horretarako, transmisore lanetan gaudenok sinistu egin behar dugu ideia horretan. Ez da lan makala, etengabeko estrena-tzearen diktadurapean bizi den mundu globalean. Baina, hausnarketa filosofikoak horretarako bide eman ahal digu. Poema batetik abiatuta, adibidez:

Larreko loreak zituen  
bere zoriaren  
zorikide hurbilen:  
Sortzen ziren eta zabaltzen  
–Norentzat, zuen galdetzen–  
norentzat dira loratzen  
txilarren, harkaitzen  
baztertxoetan hain eder,  
hain era askotako  
hain lirain eta hain guren?  
Noizbaiteko  
nor baiten begirada arina  
izan zezaketen  
onenean ere.  
Halere,  
han ziren,  
han zeuden  
labur bazen ere  
beren berentasuntxo goxoa  
osorik eta osoan agertu eta eskaintzen.  
[...]  
... desinteresatuki  
zabaltzen diren  
loreen arrazoi  
ulertezin apalez.  
(Bitoriano Gandiaga: *Denbora galdu alde*; *ibid.*: 242-243) 

## **Bibliografia**

### *Liburuak*

- Andrés González-Cobo, Ramón (2015): *Semper dolens. Historia del suicidio en Occidente*, Bartzelona, Acantilado.
- Azurmendi, Joxe (2009): *Azken egunak Gandiagarekin*, Donostia, Elkar.
- Critchley, Simon (2016): *Apuntes sobre el suicidio*, Bartzelona, Alpha Decay.
- Frankl, Victor (2017): *Gizakia zentzu bila*, Donostia, Erein. Itzultzaileak: Lontxo Oihartzabal Rezola, Miren Arratibel Garmendia.
- González Ortiz, Gabriel (2018): *Hablemos del suicidio. Pautas y reflexiones para abordar este problema en los medios*, Iruñea, Eunsa.

### *Dokumentuak eta datu baseak*

- Osakidetza eta Eusko Jaurlaritza (2019): *Euskadin suizidioa prebenitzeko estrategia*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritza ([www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/doc\\_sosa\\_122\\_eprevencion\\_suici/eu\\_def/adjuntos/euskadin-suizidioa-prebenitzeko-estrategia\\_eu.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/doc_sosa_122_eprevencion_suici/eu_def/adjuntos/euskadin-suizidioa-prebenitzeko-estrategia_eu.pdf)).
- [www.euskadi.eus/gobierno-vasco/-/noticia/2019/10-de-septiembre-dia-internacional-para-la-prevencion-del-suicidio](http://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/-/noticia/2019/10-de-septiembre-dia-internacional-para-la-prevencion-del-suicidio)
- [www.eustat.eus/elementos/ele0000000/Suicidios\\_de\\_la\\_CA\\_de\\_Euskadi\\_por\\_grupos\\_de\\_edad\\_Territorio\\_Historico\\_ysexo/tbl0000007\\_c.html](http://www.eustat.eus/elementos/ele0000000/Suicidios_de_la_CA_de_Euskadi_por_grupos_de_edad_Territorio_Historico_ysexo/tbl0000007_c.html)
- [www.osakidetza.euskadi.eus/salud-mental-suicidio/ab84-oessmcon/es](http://www.osakidetza.euskadi.eus/salud-mental-suicidio/ab84-oessmcon/es)
- [www.osakidetza.euskadi.eus/salud-mental-suicidio/ab84-oessmcon/es](http://www.osakidetza.euskadi.eus/salud-mental-suicidio/ab84-oessmcon/es)
- [www.who.int/es/news-room/fact-sheets/detail/suicide](http://www.who.int/es/news-room/fact-sheets/detail/suicide)

### *Albisteak*

- [www.filco.es/suicidio-como-suprema-libertad](http://www.filco.es/suicidio-como-suprema-libertad)
- [www.elmundo.es/opinion/2019/09/15/5d7cd4abfc6c835e208b4575.html](http://www.elmundo.es/opinion/2019/09/15/5d7cd4abfc6c835e208b4575.html)
- [www.argia.eus/argia-astekaria/2274/suizidioa-azken-tabua](http://www.argia.eus/argia-astekaria/2274/suizidioa-azken-tabua)
- [www.argia.eus/argia-astekaria/2625/suizidioa-muturreko-egoeretatik-harago](http://www.argia.eus/argia-astekaria/2625/suizidioa-muturreko-egoeretatik-harago)
- [www.berria.eus/paperekoa/1914/008/001/2019-01-24/suizidioa\\_bere\\_hotzean.htm](http://www.berria.eus/paperekoa/1914/008/001/2019-01-24/suizidioa_bere_hotzean.htm)

### *Dokumentalak*

- [www.eitb.tv/es/video/ur-handitan-4-denboraldia/6266/150899/suizidioaren-ondoan](http://www.eitb.tv/es/video/ur-handitan-4-denboraldia/6266/150899/suizidioaren-ondoan)
- [www.rtve.es/alacarta/videos/documentos-tv/documentos-tv-muerte-silenciada-suicidio-ultimo-tabu/1692885](http://www.rtve.es/alacarta/videos/documentos-tv/documentos-tv-muerte-silenciada-suicidio-ultimo-tabu/1692885)
- [www.youtube.com/watch?v=L-z-Cz0R5w4](http://www.youtube.com/watch?v=L-z-Cz0R5w4)

# Bizitzaren zentzuaz

Markos Zapiain Agirre

*Filosofia irakaslea Bigarren Hezkuntzan*

**B**izitzaren zentzuari buruzkoa bezalako itaunek arbuio antzeko bat eragiten dute gurean: hitzaldi eta mahai inguruetan nabari da, Interneteko foroetan. Arima, hilezkortasuna, Jainkoa, erlijioa eta bizitzaren zentzua ez dira gai popularrak. Giro ilun bat iradokitzen dute, tristura, gotzainaren gonaren fru-fru mehatxagarria sakristiako itxituren. Ez da harritzekoa auzi metafisikoek jende mordera seko aspertu edo uxatzea. Itsu metafisikoak deritze Joxe Azurmendik, zentzu peioratiborik gabe.

Lirikarako eta are musikarako sentiberatasunik ez duen jendea ere badago. Barietatea ez da txarra izaten. Zentzuari buruzko galdetzaileek ere, galdera ez dute egunero eta etengabe egiten. 'Galdera' Azurmendiren gogoeta honetan, ez dagokio hainbeste azterketa teoriko hutsari, nola eske existentzialari. Badira zenbait gertaera eta aldarte bizitzaren zentzuaz galdeztzera zaramatzatenak: zure umearen heriotzak, depresio batek. Zergatik bota ninduten hona, nire baimenik gabe gainera? Merezi du biziari eustea? Egia bada ere bizitzaren zentzuari buruzko galdera maizago pizten duela tragediak, eta Auschwitz-en etengabe zerabiltela gogoan, pozaldi sakonek ere sor dezakete, hala nola maitearen ezusteko agerpen batek. Ez dirudi gizabereok galdera hori egiteari inoiz zeharo utziko diogunik, agian ez duelako behin betiko erantzunik. Zientziak ezin dio erantzun. Kantek erakusten du zientziak egundo ez dituela galdera metafisikoak erantzungo. Hala ere, gizakiak,

gizaki deno, beti galdetuko du ea Unibertsoa, Lurreko bizia edo norberaren bizitza zoriak ala helburu ulergarriren batek mugitzen ote dituen, zerbait gertatuko al zaigun hil ostean, zer arraio egiten dudan mundu arrano honetan.

## **Osotasuna**

Unibertsoaren azken oinarri gisa ere ulertua izan da zentzua, ikusiko dugu, baina sarritan gertatzen zaigu eguneroko bizitzako zeregin zehatzei zentzua aurkitzen diegula, eta bizitzaren osotasunari aldiz ez, eguneroko zereginen zentzu horiek ezerezetik zintzilik baleude bezala. Zentzua aurkitzen diogu esnagailua ipintzeari, ikastetxera garaiz iristeko tranbia hartzeari, gradua ikasteari, lana bilatzeari... Baina maite ditugunak oro hilko dira. Gero, gizateria, Lurra eta Esne Bidea ere desagertuko dira. Nondik nora hau guztia, zertarako? Zenbat eta osoagoa perspektiba, orduan eta problematikoagoa zentzua.

Azurmendik dioenez, auzia halaxe ageri zaigu dagoena, Schopenhauerrek bezala, soilik rasionalki aztertuz gero. Dena den, gizakiak, oro har, nahiago izaten du zentzuren batean sinetsi erabateko absurdoa onartu baino, irensgaitza baitzaio errealitatearen krudelkeria bere gordinean. Abere neurotikoa da gizakia eta azalpenak behar ditu, nolabaiteko koherentzia, aurreikuspenek lasaitzen dute, tenporek, astrologiak, erlijioak, psikologiak, beti bete izan omen diren eta beteko omen diren lege fisikoak. Errealitate kosmikoak behin eta berriz erakusten badigu ere funtsean ez duela ez gurekin ez gure kontzeptuekin zerikusi handirik, hala ere heldulekuak bilatzen ditugu, zentzuak, partekatzen ez dituenari munduko zentzurik absurdoenak irudi dakizkiokeen arren.

## **Askatasuna**

Hauxe izaten da filosofoen eta filosofien sailkapenetako bat: batzuek zoriona dute xede gailen, eta beste batzuek oster



askatasuna. Zoriona helburu Aristoteles, Epikuro, estoikoak, San Agustin, Spinoza, Schopenhauer eta Nietzschek izan dute, besteak beste. Eta askatasuna giza ezaugarri nagusitzat hartu dutenen artean ditugu Platonek kontatutako Prometeoren mitoa, Pico della Mirandola, Rousseau, Kant, Hegel eta Sartre. Azurmendi ere maizago arduratu da askatasunaz zorionaz baino.

Libre delako galde dezake gizabereak bizitzaren zentzuaz; eta giza askatasunaren aukeretako bat da zentzuren bat onartu edo asmatzea, edo zentzua ukatzea. Gizakiak zentzua asmatu behar izan du zeharo babesgabe jaiotzen delako, ezin delako orainaldian bizi, senak ez duelako goitik behera determinatzen. Azurmendik bere egiten du Hegelen apotegma: gizakia bada ez dena, eta ez da badena. Beste abereak ez bezala, gehiago bizi da iraganean eta etorkizunean orainaldi naturalean baino. Urradura libre bat da. Zeharo determinatua ez izate horrek erabaki etiko, politiko eta are dietetikoak hartzera behartzen du.

Azurmendi ez da liburu edo autore bakar baten fededuna. Voltaire, Hegel, Nietzscheren pentsamendu batzuk bereganatu eta beste batzuk baztertzen ditu, libre. Rousseauren-gandik, ez du onartzen gizakia zintzo jaio eta gizarteak gaiztotzen duela. Aitzitik, Azurmendik giza askatasun anbibalente gazi-goaz duen ikuspuntuarekin bat letorke Rousseuren

bigarren diskurtsoak, desberdintasunari buruzkoak, dakarren egiaztapen hau: biologiak erabaki du usoak alea jan behar duela eta katuak okela. Gose den uso bati alboan katilu bat bete okela uzten diozu, eta dastatu ere egin gabe hilko da katiluaren ondoan. Okela jateak bizirik atxiki lezake, baina instintuak ez

Hauxe izaten da filosofoen eta filosofien sailkapenetako bat: batzuek zoriona dute xede gailen, eta beste batzuek ostera askatasuna. Azurmendi ere maizago arduratu da askatasunaz zorionaz baino

du okela jateko programatu. Gizakiak, berriz, goserik gabe ere jan dezake, desira barik masturbatzen jarraitu. Gizakiarenean, desira ase denean ere, gogoak bizirik baitirau. Gizakia abere hutsa da, baina biologiak ez du erabat determinatzen, eta indeterminazio horrek ematen digu kolesterolaren gainezkaldiagatik edo gose greban hiltzeko arriskua eta aukera. Era berean, indeterminazio horrek ahalbidetu digu mintzamina, zentzuaren adierazle eta medium nagusia.

Askatasunaren beste pentsalarien aldean, ezaugarri bereziak ditu Azurmendiren ikuspuntuak. Harena ez da Hegelen askatasun heroikoa, baizik eta askatasun apal bat, ahula. Batetik, agian, Euskal Herriaren historia eta gaur egungo egoera sakonki aztertu duen euskaldunak ezin diolako askatasun harro bati bidea eman. Bestetik, apika, Azurmendik hizkuntzaz duen kontzeptzioagatik. Zabala bezain aberatsa da kontzeptzio hori, eta hemen ezaugarri bat zirriborratzera mugatuko naiz.

## Hizkuntza

Hegelek dioenez, erreala razionala da eta arrazoimena erreala, bat datoz hitzak eta gauzak, hizkuntza eta mundua. ‘Zaldi’ kontzeptuari ez zaio zaldi enpirikoaren funtsaren ezer falta. Beraz, gizakiak egia absolutua adieraz dezake.

Bestelakoa da Nietzschek ikuspuntua, Azurmendik itxuraz bere egiten duena. Zegamarrak biziki maite du ‘Egiaz eta gezurraz moraletik kanpoko zentzuan’ testua, hain gazte joan zitzaigun Igor Aristegik euskaratua. *Schopenhauer, Spengler, Nietzsche Miranderen pentsamenduan* liburuan aztertu eta iruzkindu du. Hor Nietzschek dio, besteak beste, filosofiaren eta zientziaren funtsa, hots, kontzeptua, bere jatorri metaforikoa ahaztu duen sorkari artistikoa dela. Grekoz ‘garraio’ esan nahi du ‘metafora’ hitzak. Gaur egun ere, Atenasen, metafora-enpresak dira garraio-enpresak, eta hori arras iradokitzaile eta esanguratsua da filosofiari begira.

Hara giza hizkuntzaren jatorria eta ahultze-prozesua: aurrena, errealitateak gizakiari nerbio-kitzikadura eragiten dio;

gero, kitzikadura hori irudi bilakatzen da: itsaso, mendi, harri. Eta azkenik soinu, hitz: 'itsaso', 'mendi', 'harri'. Nerbio-kitzikadura indartsuago da irudia baino, eta irudia indartsuago soina baino. Metafora-garraioaren ibilbidean, gero eta urrutiago gelditzen zaigu mundua, gero eta makalagoa dugu errealitatearekiko lotura. Dekadentziaren ondorio gara. Kitzikaduratik abiatuta metaforaz metafora gainbehera joan ondoren helduko gara zentzuari buruzko galderaren eta erantzunen ezinbesteko bitartekari den hizkuntzara. Halako tresna flakoan oinarrituriko askatasunak ezinbestez behar du umila izan.

## **Komunitatea**

Azurmendiren askatasuna, bestalde, Hegelen handiosa ez izateaz gain, Sartrearen indibidualista ere ez da. Zegamarrak gizakia praktika errealean beti ikusten du tradizio batean kokatua, inguru batean. Hermeneutika zuzen dabil: ez dago purutasunik, ezin da eraginik gabe pentsatu. Azurmendiri Descartesen *tabula rasa* egin eta hutsetik abiatu nahia ez zaio batere fidagarri. Nahiago du Montaigne Descartes baino, Erasmo eta Rabelais Newton baino, Errenazimenduko humanismoa zientzia modernoa baino, ortzadarra ekuazio batera murrizten baitu, eta zentzua legera.

Egia da bizitzaren zentzua asmatu egiten dela, ipini; askatasun apal hori duela abere hiztunak. Edonola ere, zentzugintza ez da hutsetik abiatzen, ez du indibiduo originalak deusezetik sortzen. Hizkuntza legez, komunitateak eskainiak aurkitzen ditugu bizitzaren zentzu posible batzuk. Zentzu horiekin zer egin, hori gure esku dago, hori da gure askatasuna. Onar ditzakegu, ukatu, paso egin, apur bat egokitu eta berrasmatu. Hizkuntza bezala,aldi berean erabilgarri eta oztopo izan dakizkiguke, gorabide eta herstura. Claude Lévi-Straussek erabili zuen metafora darabil hemen Azurmendik: komunitatearen tranbian goaz nahitaez. Komunitatearen tradiziotik jaso duzun bizitzaren zentzuaren tranbian zoaz, tranbia horrek zaramatza. Hala ere, bizitzako bidaiari pasibo

Komunitatearen tradizioetik jaso duzun bizitzaren zentzuaren tranbian zoaz, tranbia horrek zaramatza. Baina tranbia utzi ala ez, ala tranbian bertan zu nola joan, hori zeuk erabaki behar duzu

hutsa ez bazara bederen, zeuk erabaki behar duzu tranbiatik jaitsi ala ez, zure burua tranbia martxan doala bota, tranbiaz aldatu, eseriko zaren, non eseriko zaren, leihotik paisaiari begiratuko diozun, bidaideekin solastatuko zaren ala isil-isilik eta bakar-bakarrik gertuko, irakurtzen kasu. Tranbia batean zoaz, eta tranbia badoa, baina tranbia utzi ala ez, ala tranbian bertan zu nola joan,

hori zeuk erabaki behar duzu. Zure erantzukizuna da komunitateak eskaintzen dizun zentzuarekin zer egin.

### **Estasia, xede pertsonala, argia**

Azurmendiren esanetan, hiru modu hauetan lotu izan dio nagusiki gure tradizioko gizabereak bere burua bizitzaren zentzuari:

Lehenbizi, *estasia*: zenbait gertakari zentzuz beteak ageri zaizkigu, perfektuak, goitik behera bereganatzen gaituzte, guztiz bestelakora garamatzate nostalgiazko poz baten hegaletan: emozio sakon bat kontzertuan, ibilian harrapatu zaituen egunsentia, jai zirraragarri hura, amodiozko betegintzarrea.

Bigarrenik, *xede pertsonalari* ere lotzen dio Azurmendik zentzua. 'Pertsonala' esaten dion arren, Azurmendik azpimarratzen du zentzu-molde horrek askotan pertsona partikularren interes pribatua gainditzen duela. Nire bizialdia mugatua da: zein zentzu eman nahi diot nire denborari, zeri merezi du nire bizitza entregatzea? Azurmendiren ustez, giza bizitzari zentzua ez dio emango helburua erdietsi izanak; aitzitik, mendizalearenean bezala, igotzeak berak hornitzen du ibilaldia zentzuz. Che Guevararen bizitza ez zuen zentzurik gabe utzi bere xedeak erdietsi ez izanak. Kristauen hizkeran,

bizitzari zentzua ez dio zeruak ematen; aldiz, zentzuz jantzi-riko bizitza batean aurkitzen du bere tokia zeruak, itxaropenak; honaindian txertatzen da zeruaren zentzua.

Azurmendik dio, bizitzaren zentzua eta mendira igotzea parekatzen dituelarik, mendira igotzeko benetako arrazoia ez dela izaten mendizaleak berak aipatzen duena: gailurra zapaltzea, egunsentia gozatzea, ikuspegiaren ederra; aitzitik:

Arrazoia igotzean bertan datza, bidean. Patarrean eta izerdian, sufrimenduan. Norbere ukoan, norbera gaintitzean. Nahian eta ahaleginean. Agian zure burua bilatzen duzu. Zu zeu, zure arima, behartzen duzun gorputz horixe zarela egiaztatu gura duzu. Eta gorputz hori beste zerbait dela eguneroko errutinako norgabea baino. Zure buruaren –ahalaren, ezinaren–, zure mugez esperientzia egin, existentziaren esperientzia: existentziaren kontzientzia mugez kontzientzia baita. Eta, aldi berean, inguratzen zaituen guztiaren mugabakoa sumatu, mugabakoaren baitan ibiltzen sentitu. Izadi immentsoaren adiguri edo anparoan bildua ikusi zure izatea – borroka, inpotentzia. Beste mundu bat bilatzen duzu, bai; baina zeure barnean. Beste zeu bat, diferentea, etortzen, igotzen, inoiz ez ailegatzen, eta beti ailegatua nolabait. Eta agian, gero, izan daiteke egiaren parte bat hori ere, gailurreko argi posiblearen eta bideko txoriak entzuteko ideiaaren pozak lagun egiten eta laguntzen diola mendizalearen eginahalari. Baina egintzaren egiazko zentzua egintzaren beraren barruan dago, ez dator kanpotik emanda; zentzua bideak dauka, ez gailurrak. Edo, hobe, zentzua mendizalearen erabaki(men)ak eta ahalegintzak dauka. (*Azken egunak Gandiagarekin*: 285)

Hirugarrenik, *horizontetzat* eta *argitzat* ere hartu izan da zentzua, gauzak ageri zaizkigun hondotzat, ikustea eta ulergarritasuna ahalbidetzen duena, baina baita bizitza bera ere: zentzua ez da ezer, baina zentzurik gabe ezer ez da ezer. Mitologietan argia mundua baino lehenagokoa izaten ohi da, gauza ororen izatearentzako espazioa, Biblian zehazki eguzkia baino lehenagokoa. Argiari esker gaintitzen da hasiera baino lehenagoko kaosa, argian atontzen da kosmosa, hasiera bera baita argia, formen unibertsoaren altzo, edozer ager daigun beharrezko; gure baitatik atera ere egiten gaitu, gauzetara joan gaitezten. Zentzuan bizi garen bezalaxe, argian bizi

baikara ohartu ere gabe argian gabiltzala. Gandiaga argin-darrik gabeko baserri batean jaio eta koskortu zen; inoiz ez dugu jakingo zer izan ziren Gandiaga lakoentzat egunsentia eta ilunabarra; badugu bonbilla, baina galdua dugu argiaren eta ilunaren sentiberatasun derrigortu hura, Gandiaga eguneroko goizean goiz jaikitzen bultzatzen zuena, argiaren betiko etorrera eta zabaltze beti berria bizi ahal izateko.

## Gogoaren txabola

Estasiaz, xede pertsonalaz eta argiaz gain, Azurmendik beste hainbat zentzu-mota aipatzen dizkigu. Zentzua

... arau bat izan daiteke, ispilu bat, esperantzarako argi bat, abisu eta oharkizun bat, mehatxu bat ere, edo atsedeen ordu bat soilak. Gizakiak, burua gora mundu zabalean, txabola bat egiten duen bezalaxe mendi hegalean gorputzaren aterperako, mito bat (zentzu bat) egiten du, haren barruan habitatzeko, gogoaren txabola. Mito bat (Jainko bat) zentzu bat da; zentzua espirituaren txabola bat. (*Ibid.*: 142)

Zentzua mitoan mamitzen da, ipuinetan, hitzetan. Fedeen edukia bideratzen duten ipuinak ez dira azalpen razionalak. Zehaztasunak egiten ditu hemen Azurmendik: mitoen bidez bizitza zentzuz janztea ez da irrazionala, baizik zientifikoa ez bezalako arrazoimen baten erabilera. Arrazoimen zientifikoak ez du zentzurik behar. Eta erlijioari ere arrazoimen bat dagokio, ez da i-razionala ez a-razionala. Bestelako gogoak darabil, munduko liluren aurrean zabalik dago eta ez ditu usainak eta koloreak zenbakira txirotzen.

Ebanjelioak bezalako erlijioetako ipuinen baitan bizi da sinestunaren zentzua. Helduz doan heinean, ipuin horiek, beren esanahiak eta eraginak, aldatuz doaz. Sinestuna ere aldatuz doa ipuin horien eraginez. Eta aldaketa horien gutien arabera, modu beti berriz ulertuz joango da unibertsoa, errua, heriotza, biziraupena, eta abar. Tartalo eta Koranaren gisako ipuinak «gizakiak bizitzeko asmatu dituen laguntza eskaintzak» dira (*ibid.*: 177), gizakiari babesa emateko moduko txabola espiritualak.

## Askotarikoa

Dagoeneko aurreko paragrafoetan sumatzen denez, pertsona konkretuen bizitza errealean zentzua beti da plurala. Batetik, gertaera bera zentzu desberdinez hornitu dezake jendeak. Azurmendik oroitarazten digu adibidez Vesuvioren erupzioak zentzu desberdinak izan zituela biktima batzuentzat eta besteentzat, are kontrako zentzuak: Jainkoen zigorra, Jainkoek gizakien debozioari jarritako proba, Jainkorik ez dagoelako froga nabarmena... Txit bestela, Pliniok, Jainkoak zeharo ahazturik, patuak zekarkion sumendiaren eztanda estoikoki onartu zuen.

Bestetik, bizitzaren zentzuak askotarikoak dira eta aldakorrak, baita batzuetan gutako bakoitzaren baitan ere, arima ugari barnebiltzen baitugu, zenbaitetan nolabaiteko harmonia lortzen dutenak, sarriago gatazkan dabiltzanak. Azurmendik horietako zenbait zereendatzen dizkigu: arima edo arrazoimen bat izan dezakegu zientifiko zorrotza, bestea erdi mistikoa, poetikoa, hedonista, eszeptiko hotza, beste bat mailua maite duen filosofikoa, edota mailua eta igaitaia...

Azkenik, Azurmendik azpimarratzen duenez, zentzua, bere baitan ere, singularrean aipatzen bada ere maiz, praktikan plurala izaten da: osagai etiko, estetiko, sentimental, politiko, filosofiko, erlijiosoen batuketa, giza esperientzian eta historian nahasturik baitabiltza etika, artea, politika eta erlijioa.

Bizitzaren zentzuak askotarikoak dira eta aldakorrak, baita batzuetan gutako bakoitzaren baitan ere, arima ugari barnebiltzen baitugu, zenbaitetan nolabaiteko harmonia lortzen dutenak, sarriago gatazkan dabiltzanak

## Ateisten zentzua

Goetheren hitzak errepikatu izan ditu Azurmendik: Jainkoa nork berea izaten du, komeni zaiona aukeratu edo asmatzen

du. Jainkoari ukoa, berdin. Zentzua erlijiosoa izan daiteke, baina baita ateista ere. Zentzuz betea egon daiteke Jainkoari ukoa. Gurean, Jainkorik gabeko zentzuari dagokionez, Plinioren salbazio filosofiko pertsonalaren tankerakoek baino oihartzun handiagoa izan dute gizartea aldatzera emandakoek, justizia xede. Emilio Lopez Adan *Beltza*-k laudorio bat egin zion *Argia*-n Iñako Trula bere adiskide hil berriari, eta hor munduko sufrimendua apaltzea ageri da zentzu gisa, eriak sendatzea, esplotazioa ezabatzea, orobat biolentzia eta tortura. Dena den, gure tradizioan, garamatzen tranbian, Gandiagarenean, oroz lehen erlijioak eman izan dio zentzua bizitzari, Jainkoak. European milioika lagun egon da Egiazko Jainkoaren alde bizia eskaintzeko prest. Iraultzak eta Aberriak ere bete izan dituzte zentzuz europarren bizitzak, baina ez hain luzaro. Gaur egun, betiko European, inor gutxiren bizitzari ematen diote zentzua Jainkoak, Iraultzak edota Aberriak, ez duzu idolo horien alde odola emateko gertu legokeen talde zabalik aurkituko. Pertsonen alde bai apika, seme-alaben alde. Aitzitik, milaka lagun musulman topa ditzakezu orain bizia Egiaren alde emateko gertu. Michel Houellebecq batek uste du hortik etor daitekeela hurrengo zibilizazio-ziaboga garrantzitsua. Ostean, txinatarren uholde eskergak eramango omen ditu aurrean bai musulmanak eta bai ordurako geldituko diren kristau apurrak.

## Teistak eta zientifistak

Azurmendi berez erlatibista eta eszeptikoa da, eta erlijio kon-tuetan eszeptizismoak kutsu agnostikoa hartzen du. Horrela, kontra egiten die Euskal Herrian soziologikoki ugarienak diren taldeei: Villasante eta Munillaren eiteko katoliko teistak, eta ustez hipermodernoak diren ateo zientifistak, XIX. mendeko positibismo zaharkituenaren fededunak izaten direnak, ia beti ohartu gabe.

Aurrena, ortodoxoena, Sukia, Cañizares eta aita sain-duena: Elizaren doktrinak zeharo asetzen ei du zentzuaren



eskakizuna, no problema. San Agustinenean legetxe, Azurmendik 'mito' deritzon fedearen edukiak ez dauka arazorik zientziarekin, egiarekin, errealitatearekin. Besteek dute beti errua: munduaren gaiztotzeak, kontsumismoak, gazteen errespetu faltak; Biblia bera ez da inondik inora arazo-iturri.

Hurrena, ukatzaileena, ateista zientifistena: lehenbailehen ahaztu behar dira umekeria horiek, ipuin horiek; modernian ez dute lekurik, antzinako kontuak dira, elkarrezinak zientziarekin eta pentsamendu razionalarekin: errealistak izan behar dugu, ez dagoenik ez bilatu. Aspaldi gainditu zuen zientziak erlijioa.

Gurean, jende gehienak bi jarrera horietako bat erakusten du.

## **Emozioa eta jakintza**

Bitza zentzuz jantzi zein zentzua ukatu, giza desirak egiten du. Horregatik inoiz ez dute inor konbentzitu Jainkoaren existentziaren edo inexistenziaren froga razionalek. Jendeari ez zaizkio axola, fedearen edo fedegabeziaren oinarrian ez dago-eta arrazoi logikoa, baizik eta emozioa, sentimendua, nahia. Azurmendirenean, mugarik esanguratsuen ez da fededuna eta fedegabea bereizten dituen, baizik tolerante librearen eta dogmatiko fundamentalistaren artekoa. Azurmendirekin ados, André Comte-Sponville ateistaren esanetan, ergela da aldarrikatzea «badakit badela Jainkoa» edota «badakit ez dagoela Jainkorik». Zeren eta Jainkoa eta zentzua ez baitagozkio jakiteari. Zentzudunagoa eta zuhurragoa litzateke esatea «ez dakit Jainkoa badenetz, baina sinetsi nahi nuke badela»; edota «ez dakit Jainkorik badenetz, baina uste dut ez dagoela»; edota «ez dakit Jainkorik dagoen ala ez, ez naiz gai hori zehazteko, giza adimena ez da hain indartsua».

## **Mirande eta Gandiaga**

Teismoa eta ateismoa ez ezik, beste hiru jarrera ere aipatzen ditu zegamarrak: 'mitologia berria' deitu izan dena: Hölderlin,

Azurmendik etxekoen  
tranbian ibili ondoren  
kanpora jauzi  
egitea deliberatu eta  
hainbat bilakaera  
eta aldaketa bizi izan  
ditu bere kasa. Baina  
tranbiara igo da berriro

Wagner, Nietzsche, Jünger eta Mirande kokatzen ditu hemen. Kristautasunarenak egin du, eman behar zuena eman du honezkero, arrazoimen eta zientzia modernoek iraganera

bota dute, eta orain erlijio berri bat asmatzea dagokigu, moder- niaren kritiken ostekoa, gizakia eta natura ikuspegi berri libre bitalista batez ulertuko dituen. Feuerbachen eta Marxen fedea Gizadiarengan ere hementxe ikusten du Azurmendik.

Laugarren, Gandiagarena: haurtzaroko mitologiara itzuli da, bere buruarekin borroka egin eta krisia pasatu ostean.

Mitologia guztia abandonatu ondoren zentzurik ez zuelakoan, «orain zentzu eder berriz betea ikusten du, baina oraingoa guztiz beste zentzu bat da» (*ibid.*: 354). Marxen eta Freuden kritikak ezagutu ditu, beste erlijio batzuek liluratu dute, baina ez du alternatibarik ikusi, eta ez du alternatibarik gabe bizi nahi izan. Ondorioz, itzuli egin da eta badu zentzua: zirtzikatu egin zitzaion, baina, bere poesia lekuko, edo, zehazkiago, bere poesiaren bitartez, berritu egin du, eta bertan bizitzeko moduko txabola zaio orain.

## Galdera galdu

Azkenik, eta bosgarren, Azurmendirena berarena: Gandiaga ez bezala, zentzurik gabe gelditu da. Ez dauka alternatibarik behiala asebate izan zuen mitorako, alternatibarik dagoenik ere ez du uste. Mitoak maite ditu, baina zentzua puskatu zaio. Batik bat, zentzuari buruzko galdera bera arrakalatu zaiolako. Honezkero jakin ez daki zein galderari erantzuten omen zion zentzuak.

Gandiagarena zein Azurmendirena Odiseak izan dira, barkadazeko ezinegona bizi izandakoaren itzulerak. Aldiz,

seminariotik leninismora eta segituan liberalismora aldatzea, gailen dabiltzan olatuetan kortxo, gogoeta kritikorik gabe, egindako etxetik egindako etxera ibiltzea, ziurtasunez ziurtasun, ez da Odisea bat:

Odisea da etxea utzi, galduta ibili, eta, batek ez daki nola, atzera Itakara itzulia aurkitzea. Bitartean, jakina, oso posible da Itaka hori arras aldatuta agertzea; edo Odiseo bera egotea aldatua beretarrentzat ere kasik ezagutezina izateraino, zakurren bantentzat-edo ez bada; edo berak Itaka uste duen hori batere ez izatea Itaka, oraindik feaziarren beste uharteren bat gehiago bai-zik. Odisea ez da korronteak eta zortzak eraman zaitzaten uztea. Naufragioa da, borroka, desesperazioa, autoengainua, Gozo uharteko gozotasunaren limuria, meditazioa, ihesa zeure buruari eta gustuei, 'jainkoren baten' laguntza; azken finean, herrestan zaramatzen historia korapilotsu bat, antzaldatzen ari zaituena. Odisea da ez jakitea odisea dela; ez jakitea jada itzulia zaren ala inoiz baino galduago, eta ez jakitea jadagoneko etxerik eta Itakarik batere inon ba ote dagoen. (*Ibid.*: 345-346)

Azurmendik, horrenbestez, etzekoen tranbian ibili ondoren kanpora jauzi egitea deliberatu eta hainbat bilakaera eta aldaketa bizi izan ditu bere kasa, eztanda, etsipena eta barealdia, estasia eta hotza. Baina tranbiara igo da berriro. Hori bai, zeharo aldatua dago bera eta zeharo aldatua aurkitu du tranbia. Are, ez da ezinezkoa beste tranbia batera igo izana, edo kohete batera. Zentzuaren zati apurtuak baino ez zaizkio gelditzen, sakabanaturik. Galeren artean nagusi, esan bezala, zentzuari buruzko galderarena.

## **Zentzuaren oinarri zentzubakoa**

Azurmendirentzat, giza mundu ezinbestez mugatuaren inguruan, sakonean, azpian, adiezina dago, enigma isila, ezereza. Horrek berez ez du zentzurik. Haatik, absurdoak asaldatu egiten du gizakia, zeinak segituan eta urduri ekiten baitio zentzuren bat bilatzeari, gordina egosteari, dagoena duena bilakaraztearren, errealitatea txabola bizigarri izan da-kion. Halatan, enigma esanezin hori seinatzeko eta zentzuz

betetzeko ipuinak asmatzen ditu, mitoak, erlijioak. Ipuin eta mito zentzufo horiek misterio ezkutura bideratzen zaituzte. Dena den, gizaki askok gurago dute zentzua ukatu.

Zentzuz jantzirik ere, dena den, gure mundua ezerez uler-gaitz batek inguratzen du. Mitoak, erlijiozko ipuinak, atze-manezin horretara irekitzen gaituzten zeinuak dira. Enigma ezkukurantzko norabidea iradokitzen digute, eta ez, zientziak bezala, duguna ulergarri eta manipulagarri bihurtzen.

Erljioaren eginkizun seinalizatzaile hori da Azurmendiri honezkero apurto zaiona. Mito erlijiosoek jadanik ez diote bihotza enigma esanezinaren arrastoan jartzen. Doktrina eta ipuin horien bitartekaritza, bere gogoa hondo ulertezinera zabaltzeko orduan, hautsi egin zaio.

Edonola ere, eta bukatzeko, merezi du errepikatzea Azurmendiren iritziz bizitzaren azken fundamentua antzemanezina dela, eta zentzuaren oinarria zentzugabea. Hurbilago dago ziur aski Azurmendiren ikuspuntutik Beltza ateista Munilla teista baino. Eta Azurmendiren ideiak pizgarri berri eta sendoak dira laikotasuna aldeztu nahi lukeen edonorentzat, teologia kamuflatua ez den laikotasuna, behintzat. 📖

# Gizaberea, eboluzioa eta kooperazioa

Arantza Etxeberria Agiriano

UPV/EHUko Logika eta Zientziaren Filosofia Saileko irakaslea

Juan Ignacio Pérez Iglesias

UPV/EHUko Fisiologiako katedraduna eta Kultura Zientifikoko Katedraren zuzendaria

## Azurmendiren *gizaberea*

Joxe Azurmendiren tesi antropologiko nagusiak gizakia animaliatasunaren esparru biologikoan kokatzen du.<sup>1</sup> Erabiltzen duen *gizabere* hitzak aditzera ematen duenez, gizakia etxekotutako animalia gisa irudikatzen du; beraz, ez aingeru ez arrazoimen huts: «Gizakia, onean ere, abere kultural bat besterik ez da» (Azurmendi 1975: 13). Hiru liburu eskaini dizkio gizaberearen gaiari: *Gizona abere hutsa da* (1975), *Gizaberearen bakeak eta gerrak* (1991) eta *Gizabere kooperatiboaz* (2016). Azkenak gizaberearen izaera ebolutiboaren inguruko hausnarketa egiten du.

Azurmendik garatutako ezaugarrietan lehena da gizabe-reak gorputzarekin lotutako izaera duela, osagai bigun eta *bizigaiez* eginikoa den gorputzarekin, eta ez makina baten gisan atal bizigabe ordezkagarriekin egindakoa:

Gizona abere bat da. Gizona, lehen-lehenik eta beste ezer baino lehen, *izaki bizia da. Organismo bat. Gorputz bat. Animalia bat.*

Hauxe da gizonari buruzko edozein beste kontsiderazioren oinarria. (Azurmendi 1991: 61; letra etzana gurea da)

Ondorioz, bere arrazoimena eta sormena izaera irekia eta malgua edo plastikoa izateari zor dio gizakiak:

Gero – beste zer gehiago dateke gizona? Nahi duzun guztitsu, edo hortxe nonbait. Hortik gora metaforak eta poesia hasten bait dira. *Beraz, nahi den ia dena izan liteke, esan liteke dela, gizona, existentzia metaforiko horretan.* (Ibid.; letra etzana gurea da)

Bestetik, gizaberea, abere den horretan, poza eta mina sentitzeko gai denez, bere pentsatzeko gaitasuna irri eta negar egiteko gaitasunarekin lotuta dago:

Irribarre batekin. Bai, meditaziotxo bat egingo dugu, [...] irribarretxo batekin eta libre, lasai, gauza guztiz serioak merezi duten bezala, *gizona, bere onto eta ortogenesiak, irribarre egiteko dohain miragarriaz hornitu bait zuten, negar erreinu busti honetan.* (Ibid.: 9; letra etzana gurea da)

Horren harira, gizaberearen izaera zaugarria azpimarratzen du Azurmendik; pasarte batean, gainera, izate hori modu berezian azpimarratzen du, abere eta Abel-en arteko antzekotasun terminologikoarekin hitz jokoa eginez: «kalterik gabe esan liteke, gizonaren gorputza abere batena dela. *Abel gorputza*» (ibid.: 68; letra etzana gurea da).

Esan bezala, Azurmendiren 2016ko liburuak mahaigaineratzen du gizakia berez lehiakorra ala kooperatiboa ote den galdera, giza naturaren gaineko auzi filosofikoa bete-betean lotzen baita kezka politikoarekin:

Zer da bere-berez gizakia: Hobbesen otsoa otso artean, *elkarrekin beti lehian eta borrokan*, eta, beraz, naturala kapitalismoa da?, ala Rousseuren *gizakume bihozbera lagunkoia? Naturala ala antinaturala da kooperatibismoa?* (Azurmendi 2016: 8; letra etzana gurea da)

Eztabaida, dena den, Ilustrazioko filosofiatik gaur egungo eboluzioaren gaineko eztabaidara ekartzen du, non inon baino modu premiazkoagoan agertzen den: «azken urteotan eboluzioaz eta gizakiaren bilakaeraz diharduten *biologo eta*

*etologoek* galdera horretara ekartzen gaituzte behin eta berriro» (*ibid.*). Azurmendik ahalegin berezia egin du eboluzioaren gaineko ikuspegi pesimistak aztertu eta kooperazioaren aldeko emaitza zientifiko eta pentsamolde alternatiboak nola garatu diren osatzeko.

Lan honetan, bete-betean helduko diogu eboluzioaren teorian garatu den altruismoaren inguruko ikuspegi biologikoari. Arazoa hiru ataletan aztertuko dugu, hirurak harilkatzen baitira altruismoaren inguruko eztabaida konplexuarekin. Lehenengoak aztertzen du hautespen naturala gertatzen den maila zein den, hori baita arazoaren muinean dagoen funtsezko galdera. Bigarrenak kezka metafisiko bati heltzen dio: nolakoa den bizia eboluzioaren emaitza den heinean, neurri batean biziaren antolakuntza hierarkikoa zalantzan jarri behar baita. Hirugarrenak, gizakiaren eboluzioari begira, lankidetzak aurrera egiteko egin diren proposamenak azaltzen ditu. Azkenik, lan honen amaieran, berriro itzultzen gara Azurmendiren kooperaziorako proposamenera, horren argi-itzalak zein diren zirriborrazeko asmoz.

Azurmendik  
ahalegin berezia  
egin du eboluzioaren  
gaineko ikuspegi  
pesimistak aztertu eta  
kooperazioaren aldeko  
emaitza zientifiko  
eta pentsamolde  
alternatiboak nola  
garatu diren osatzeko

## **Hautespen naturala zein mailatan gertatzen den**

Darwinen eboluzioaren teoriak oinarrizko bi printzipio ditu. Lehenengoaren arabera, Lurreko bizia guztiz konektaturiko fenomeno da: jatorri komuna dutelako, bizidun guztiak daude elkarri lotuta; beraz, edozein bi bizidun hartuz gero, beti aurkituko da biena den *arbaso komuna*. Horren ondorioak hurrengo atalean aztertuko dira. Bigarrenak dio, berriz,

biziaren prozesu ebolutiboak hautespen naturalaren eraginez gertatzen direla: populazio batean aldagarritasuna badago, aldagai batzuk besteak baino egokiagoak badira izaki horren biziraupena edo ugalketarako, eta populazioko kideek ugalketa prozesuaren bidez ondorengoei euren ezaugarriak transmititzeko gaitasuna badute, orduan ezaugarri egokienak zabalduko dira populazioan eta egokiak ez direnak gutxituko dira.

Hemen azaldu dugun hautespen naturalaren prozesuak ez du esaten zein mailatan gertatzen den. Darwinek orokorrean uste zuen hautespenak organismoen arteko ezaugarrietan duela eragina, eta abantaila organismoarentzat izaten dela (kasu batzuetan taldearen onura ere aipatu zuen arren). Baina mundu naturalak egitura hierarkikoa duela ulertzen da, eta organismoaren gainetik badaude beste maila batzuk: adibidez, familia, kolonia, espeziea; eta azpitik ere aurkitzen dira zelulak, kromosomak, geneak. Gene mailako hautespenaren alde egin izan da organismo zelulaniztunen ugalketan, organismoek ez dituztelako euren gene denak transmititzen, erdiak baizik. Baina eztabaida hasi zen goi-mailako hautespena dela-eta, galdera izanik ea talde mailako hautespena egon daitekeen. Hori altruismoaren arazoarekin lotu zen.

Biologiaren arloan, ezaugarri bat edo portaera bat altruista da baldin eta indibiduoaren egokitasun mailan eragin kostua baldin badu eta besteen onurarako bada. Horren oinarrian dago izaki bizidunak ezin direla altruista izan, altruista portatzearen ondorioa euren egokitasun maila jais-tea denez, besteena igotzen badu ere. Altruismo biologikoa ez da, beraz, psikologia mailan erabiltzen den kontzeptu berbera, non altruista izaten den beste batzuei laguntzeko intentzio kontzientearekin egiten den ekintza.<sup>2</sup> Biologian ekintza altruistak aurkitzen dira (ustez) pentsamendu kontzientea izateko gaitasunik ez dutenen artean ere, zeren eta, intentzioari erreparatu beharrean, ugaltzeko egokitasunean dituzten ondorioak hartzen dira aintzat.

Naturan portaera altruista ugari dauden arren, teoria darwinistarentzat harrigarriak izan dira, esandako moduan



hautespen naturalak aditzera ematen duelako bizidunak bere biziraupena edo kumeak izateko probabilitatea igotzea duela helburu eta ez bestea, abere altruista batek besteen egokitasuna igotzean berea jaisten badu. Adibidez, *vervet tximuak* alarma deia egiten badu harraparia ikustean taldea arriskuaz ohartarazteko, bere biziarekin ordain dezake. Gurasoen zaintza ere mota horretako portaera altruistaren adibidetzat hartzen da beti. Horregatik, hainbat autorek esan du altruismoaren gaineko mesfidantza teorikoa gaizki justifika daitekeen zinismoz kutsaturik dagoela (Lewens 2015),<sup>3</sup> eta Azurmendik ere mesfidantzaz ikusten du joera teoriko hori. Altruismoa egon badagoenez, eboluzioaren teorian galdera da nola eboluzionatu duen, zer prozesuk azal dezakeen. Batzuen ustez, talde hautespenean dago azalpena: indibiduoarentzat garestia den arren (bere egokitasunerako), taldeari onura egingo dio, eta talde mailako hautespenean talde kooperatiboek abantaila dute talde egoistekin lehian sartzen badira. Argudio hori Darwinek berak eskaini zuen *The Descent of Man* liburuan, bere iradokizuna izanik taldeen arteko hautespenari esker eboluzionatu duela altruismoak.<sup>4</sup>

Alabaina, talde mailako hautespenaren historia eztabai-dagarria izan da. Neodarwinismoaren aitzindariak (Fisher, Haldane eta Wright)<sup>5</sup> ulertzen zuten mekanismo horrek ahalbidetu dezakeela altruismoaren eboluzioa, baina ez zuten aintzat hartu. Baina, xx. mendearen erdian, hainbat ekologista eta etologo –tartean Konrad Lorenz zegoela– hautespen naturala taldearentzat onurak lortzeko gai dela ontzat hartzen hasi zirenean, auziak eztanda egin zuen (Okasha 2013). Tradizio horrekin moztu zutenak G. C. Williams eta J. Maynard Smith izan ziren, talde hautespena oso ahula dela esanez; hainbat eredu matematiko agertu ziren ustez hori balioztatzeko balio izan zutenak, eta, ondorioz, kontzeptuak ospe ona galdu zuen.

Williamsen arabera (1966), hautespen maila sinpleena hobetsi beharko litzateke beti moldapenak azaltzerakoan, eta, printzipio horretaz baliatuta, talde-hautespena baztertu.

Portaera altruistak azaltzeko, aipatzekoak dira hiru mekanismo nagusi: ahaide egokitasuna, elkarrekikotasuna eta maila anitzeko hautespena (edo talde mailako hautespena)

Bere ustez, altruismoa eta kooperazioa ez dira sortu talde edo espezie altruistak euren lehiakide egoistak baino hobeto moldatuta daudelako, maila esanguratsua indibidua-la delako. Hortaz, taldearentzat altruismoa ona balitz ere,<sup>6</sup> ezingo luke saihestu barne aldaera mutante berekoi baten arrakasta taldearen baitan («barne subertsioa»), eta, ondorioz, talde mailako ezaugarri altruista galtzea. Taldearen

azpiko mailan dagoen banakoen arteko lehiak, bere ustez, beti gailenduko luke taldearen joera altruista. Izan ere, egon daitezkeen aukerak aztertzeko prestaturiko eredu matematikoei aurreikusten dutenaren arabera, jarrera altruistak ezin litezke egonkortu taldeen arteko desberdintasun genetiko handiak ez badira mantentzen; baina oso zaila da desberdintasun handiak egotea, taldeen artean banakoak mugitzen direlako eta isolamendu genetikorik ez dagoelako.

Baina portaera altruistak –edo altruista itxura dutenak– azaltzeko lanak aurrera segitu zuen, eta aipatzekoak dira, besteak beste, beste hiru mekanismo nagusi: ahaide egokitasuna, elkarrekikotasuna eta maila anitzeko hautespena (edo talde mailako hautespena).

Bestalde, gene mailako hautespenaren alde egin zuen Williamsek; adaptazio batek eboluzioan aurrera egiteko, belaunaldi bakoitzean ugaltu behar da, eta geneak dira belaunaldi belaunaldi aldatzeko gabe pasatzen diren bakarrak. Kasu bakoitzean alelo baten maiztasuna handituko baita alelo horrekin lehiatzen diren besteekin konparatuta.

Bide beretik segitu zuen Richard Dawkinsek (1976), eta, Williamsen ideietan oinarrituta, geneek bi zeregin betetzen dituztela proposatu zuen. Batetik, erreplikatu egiten dira

–horregatik deitu zituen *replicators*–, eta, bestetik, izakiak eraikitzeke jarraibideak dituztenez, gidatu egiten dute eraikitze horren lan hori. Organismo indibidualak «biziraupeneko makinak» dira geneen kopia ahalik eta gehien egiteko. Bere ikuspegia, hortaz, guztiz genezentrikoa<sup>7</sup> da: Dawkinsen ustez, hautespena maila horretan gertatzeaz gain, geneak dira organismoek heredatzen duten bakarra.

Altruismoaren eboluzioari dagokionean, Dawkinsek W. D. Hamiltonen ildoa segitu zuen: Hamiltonek (1964) *ahai-de-hautespena* (edo *kin selection*)<sup>8</sup> egokitasun barneratzaile (edo *inclusive fitness*)<sup>9</sup> delakoaren bitartez azaldu zuen. Bere azalpenak altruismoa posible egiten du kalkulu baten bitartez: beste batzuei laguntzeagatik ordaindu behar duena bere senitarteko biologikoen egokitasuna handitzeko bada, eta handitze horren munta osoa berak galdutakoa baino handiagoa bada.<sup>10</sup> Ondorioz, indibiduo altruistaren geneak bere senitartekoen bitartez hurrengo belaunaldira transmititzeko probabilitatea nola handitzen den azaltzen da gene mailako hautespenaz baliatuz, eta altruismoa gene mailako ezaugarri moduan ulertuta. Teoria horren intuizio oinarritzakoak dio, gene egoistak egokitzapen altuena baldin badu ere, posible dela altruismoa ez zigortzea, ekintza altruista, ez edozeinen onurarako, baizik eta bakarrik ahaidereenerako baldin bada. Kontuan hartuta geneak ahaideekin partekatzen direla, neurri batean behintzat genetikoki berdinak direlako, kalkuluek posible egiten dute altruismoa salbatzea talde mailan, era berean egoismoa egonik maila genetikoan. Horren ondorioz, portaera altruista hautespen naturalaren bitartez mantendu eta areagotu daiteke, eta azal daiteke altruismoa talde hautespenari heldu gabe.

Bestalde, R. L. Triversek (1971) elkarrekiko altruismoaren teoria garatu zuen, familia, populazio edo espezie berekoak ez diren indibiduen arteko altruismoa azaltzeko asmoz. Ideia horrek dio portaera altruistak hautespen naturalez eboluzionatzeko ahalmena duela elkarrekikotasunari lotuta baldin badago: egindako mesedea etorkizunean bueltatuko

den probabilitatea altua baldin bada. Laguntzearen kostua eta itzulia izateko probabilitatea kontuan harturik egiten dira ereduak, baina, horien arabera posible da portaera hori hautespen naturalaren eraginez eboluzionatzea.

Orduan, talde mailako hautespena bertan behera geratu da azkenaldiko eboluzioaren teorian? Esan bezala, ezaugarri altruistak 'taldearen onerako' direla zioen argudioak ospe ona galdu zuen, baina, era berean, altruismoak nola eboluzionatu duen ikertzeko egon diren ahaleginak gene mailako hautespen bakarraren kritikoak dira. Horren harira, Elliot Sober eta David Sloan Wilson (1994) maila anitzeko hautespenaren ikuspegia garatu dute. Horrela, «talde hautespen berria» defendatu dute: baldin eta populazio bat zenbait zatitan banatzen bada eta jokaera altruista nagusi den populazioa eta jokaera altruistarik gabeko beste bat lehian badaude, orduan, altruistek talde funtzionamendua hobetzen dutenez, lehenengo taldea emankorragoa izango da eta egoera hobean egongo da bolada txarrei aurre egiteko unea heltzen denean. Horiexek, beraz, biziraun dutenak eta altruista gutxiko taldeak ordezkatzeko dituzte. Euren ustez, antolatze-maila batean baino gehiagotan daude subjektu ebolutiboak: geneak, zelula-leinuak, organismoak, populazioak, espezieak eta kladoak. Horrek esan nahi du hautespen naturalak subjektu horien gainean eragin dezakeela. Urte batzuk geroago, Edward O. Wilson ere paratu zen, David Sloan Wilsonekin batera, maila anitzeko hautespenaren alde. Ikertzaile horiek onartzen dute interes kontrajarriak egon daitezkeela taldearen eta taldekideen artean, baina, hala ere, jarrera laguntzaileak egonkortu daitezkeela nahiz eta taldekide batzuk berekoiak izan.

## **Bizia nola antolatu den eboluzioan**

Gaur egun biologian nabarmentzen ari den biraketa ikuspegi indibidualista hutsetik ikuspegi erlazionalak kontuan hartzeraino doa. Darwinen arbaso komunaren ideia da biraketa horren oinarria; Lurreko bizia lotzen duen heinean behintzat,

hautespen naturalaren ulermen egoista zorrotza arintzen da, bizia osoa ontologikoki elkarrekin saretua dagoela adierazten baitu. Horrek esan nahi du gertakarien kausa biologikoak ez direla nahitaez intrintsekoak, prozesu biologikoak ingurumenarekin eta beste bizidunekin erlazioan gertatzen baitira. Beste modu batean esanda, ingurumenak eta beste organismoek zerikusi handia dute organismo baten konstituzio biologikoan, eta badirudi erlazio horiek kontuan hartu behar direla, ezin direla banakoak bananduta ikertu biologikoki. Darwinen pentsamendu genealogikoa orain hedatzen ari da beste erlazio mota batzuk kontuan izan arte; hainbat adierazlek erakusten du biraketa hori. Generazioen arteko antzekotasunaren kausak ez dira geneak soilik, eta biziaren antolakuntza konplexua ulertzeko ezinezko abiapuntua da izaki biologiko indibidual eta egoista. Egungo biologia garatzen ari da ikuspegi erlazionalak izakien antolakuntza biologikoa, herentzia, garapena eta egokitasuna ingurumenarekin interakzioan gertatzen den prozesu gisa aztertzeko.

Biraketa horren adierazgarri esanguratsua izan zen eboluzioaren 'trantsizio nagusien teoriaren' arabera, biziaren antolakuntza hierarkikoa eboluzioaren emaitza gisa ulertzen da, eta ez aldezturik emana dagoen munduaren antolakuntza gisa. Mundu bizidunetan dauden mailak –zelulak, organismo zelulaniztunak, taldeak...– eboluzioz agertu dira, eta trantsizio nagusien teoriak erakusten du Lurreko bizia maila guztietan soziala dela, indibiduo guztiak ulertzen direlako unitate txikiago eta aurretik bizitza librea zutenen eraketa baten ondorio gisa (Okasha 2019). Beraz, biziaren ontologia prozesuak dira, kontingenteak eta erlazionalak, eta, izaki

Gaur egun biologian nabarmentzen ari den biraketa ikuspegi indibidualista hutsetik ikuspegi erlazionalak kontuan hartzeraino doa. Darwinen arbaso komunaren ideia da biraketa horren oinarria

bizidunak eboluzioaren emaitza izanik, ezin da beraien izaera ulertu bestekin eraginean sortu eta garatzen delarik baino. Azurmendik ere jaso du intuizio hori, kooperazioaren gaia ezinbestekoa dela biziaren ontologia bera ulertzeko uanean:

Bizia ulertzeko, [...] kontzeptu giltzarrizkoa kooperazioa da, ez elkarborroka. Geneek elkartu eta, kooperatuz, kromosomak biltzen dituzte. Kromosomek, elkartu eta zelulak biltzen dituzte. Zelulen elkartasun eta kooperazioak organismoa osatzen dute. Organismoen elkartasunak komunitatea sortzen du. Eta horietako unitate eta maila bakoitzak bere eboluzio moduak dauzka... Lekutan gaude guztien guztiekin borrokaren perspektibatik! (Azurmendi 2016: 107)

Ikuspegi erlazionala garatzen ari da biologia bizidunak prozesu gisa ulertzen dituen heinean, eta ez mekanismo edo substantzia finko moduan.

Bestalde, oso garrantzitsua da aztertzea ingurumenaren rola zer den biologian, baina ez da erraza. Georges Canguilhem filosofoak uste du organismoa ez dela substantzia itxia, eta bere atalen eta osotasunaren arteko erlazioaren gisakoa dela ingurumenarekin duen erlazioa (Canguilhem 2008 [1965]: 111). Gaur egungo biologiak ere organismoak ingurumenean bustita irudikatzen ditu, guztiz agerian eta bere eraginpean. Ildo horretatik ere biologiaren biraketa ikusten du Azurmendik:

Proiektu interesgarri bat diziplinartekoa 'nitxo eraikuntzaren teoria' izan liteke («niche construction theory»), ekologiatik hasi eta filosofia, antropologia, medizina eta biologiako espezialitate diferenteen elkarlanean diharduena. Hemen ikergeia, 'eko-eboluzioa', berein faktoreen kolaborazioa bezala ikusten da eta ikerketa bera diziplinen arteko kolaborazioan egiten da. (Azurmendi 2016: 107)

Biologia erlazionalak hainbat intuizio garatu ditu ingurumenaren eragin horiek bizidunen konstituzio biologikoari nola eragiten dioten ikertzeko, angelu ezberdinak erakutsiz. Alderdi nagusiak horrela aztertu dira. Epigenetikak geneak eta ingurumenaren arteko elkarrekintzak aztertzen du, batez ere geneen erregulazioari dagokionean, ingurumeneko

eraginez geneak nola aktibatu edo desaktibatzen diren. Hainbat mekanismo epigenetiko aurkitu dira efektu horien erantzule izan daitezkeenak, ezagunenak horien artean kromatina markak, baina badaude ere beste eragin zuzenak.

Bestalde, bizidun zelulaniztunak zer diren ulertzeko, mikrobioen eragina ere kontuan hartu behar da; beren konstituzio biologikoa, kimera heterogeneoa. Ideia horiek guztiak filosofikoki garrantzitsuak dira, determinismoaren lekuan plastikotasuna eta ingurumenaren aurreko esposizioa ikusten delako, ingurumena bera ez delako abstraktua eta abiotikoa, beste bizidunekin eratutako sare konplexu bat baizik. Kontestu horretan uler daiteke nola garatu den lankidetzaz gizakiaren kasuan.

## **Gizakiaren portaera sozial kooperatiboaren eboluzioa**

Gizakiaren morala eta portaera sozial altruista nola eboluzionatu diren esateko oinarri genetikoaren eta kulturaren arteko koeboluzioa egon dela argudiatu da. Kulturak garrantzia du eboluzioan, batez ere, ikusiko den bezala, beste maila batzuetako eboluzioarekin uztartzen denean. Azurmendik dioen bezala:

[Dawkinsen lanean] Natura eta kultura (moralak) kontrastatu bakarrik egin litezkeen bi polo gisa tratatzen dira. Zergatik ez suposatatu portaera faktikoan bederen bien artean eskala bat dagoela eta eskalan graduak, abereentzat ere gradu batzuk eta gizon-emakume ezberdinentzat gradu ezberdinak, eta beti Natura eta kulturaren jarraikitasuna eta nahasitasuna? (*Ibid.*: 94-95)

Lan horretan aritu dira, besteak beste, Peter J. Richerson eta Robert Boyd antropologoak (2005) eta Joseph Henrich (2015). Horien aburuz, koeboluzio genetiko-kulturalak talde-arauekiko sentsibilitate unibertsala sorrarazi du, eta baita, horrekin batera, elkarrekikotasun indartsurako aurretiko joera ere. Elkarrekikotasun indartsuak bultzatzen du laguntzeko jokaera eta arauak betetzea saritzeko joera, batetik,

eta arauak betetzen ez dituztenak zigortzean datzan «zigor altruistaren» jokaera, bestetik.

Euren proposamenen arabera, elkarrekikotasun indartsua erakutsi duten taldeek jokaera horiek garatu ez dituzten taldeak ordezkatu dituzte; horri esker, jokaera prosoziala sustatzen duten faktoreak izan dira aukeratuak eta, denboraren poderioz, espezie osora zabaldu dira. Taldeen mailako hautespena, batez ere, taldeen arteko desberdintasun kulturaletan oinarritzen da. Talde mailako hautespenaren aurkako

Horrelaxe lotu dira eboluzio genetikoa eta aldaketa kulturala, azken hori aurrekoaren hautespen-presioa bilakatu baita: eboluzio genetikoaren motor gisa jokatu du aldaketa kulturalak

kritiken arazoa gainditu dute esanez taldeak lorpen kulturala direla eta ez osaera genetikoko baten emaitza; beraz, ez dute zertan isolatuta egon jokaera desberdinak garatzeko eta egonkortzeko. Ondorioz, kultur osagaien transmisio soziala oso garrantzitsua da, bai horizontala kideen artean, bai bertikala edo belaunaldi bategatik bestera dagoena, eta kultur erkidegoek garrantzi handia dute prozesu hori azaltzeko.

Horrek, hala ere, ez du esan nahi faktore genetikoek garrantzirik ez dutenik. Azken batean, arauak barneratzea eta betetzea ahalbidetzen duten psikologia-ezaugarriek oinarri genetikoa dute, eta ezaugarri horiek hautespenaren bitartez moldatu dira. Horrelaxe lotu dira eboluzio genetikoa eta aldaketa kulturala, azken hori (aldaketa kulturala) aurrekoaren (eboluzio genetikoa) hautespen-presioa bilakatu baita. Beste era batera esanda: eboluzio genetikoaren motor gisa jokatu du aldaketa kulturalak. Robert Boydek (2017) azaldu bezala, arauak ez betetzeagatik zigorrak jasotzeak oinarri genetikoa duten sentimendu moralak sorrarazi zituen, eta, horrela, laguntzeko eta arauak betetzeko eta betearazteko prest bilakatu zen jendea. Azken finean, autoelikatzen den prozesua da



koeboluzio genetiko-kulturala. Kultur berrikuntzak aldaketa genetikoaren alde egiten du, eta, aldaketa genetikoek, bere aldetik, jendeak kultur berrikuntza horiek barneratzea eta gizartean indartzea errazten dute.

Bestalde, kontuan hartzekoa da ere Tomaselloren «moral-tasunaren historia naturala» (2016). Aurreko lanek kooperazioa sortzeko mekanismo ebolutiboak aztertu badituzte, Tomasellok kooperazioa eta moralitasuna nola bilakatu diren aztertzen du. Bere aburuz, kooperazioa bi era desberdinetan agertzen da naturan: laguntza altruista (edo altruismoa) eta lankidetzeta mutualista. Laguntza altruista denean, banakoak beste banakoen mesedetan sakrifikatzen dira; lankidetzeta mutualistarekin, berriz, elkar ekiten duten banako guztiek onurak lortzen dituzte, era batekoak edo bestekoak. Bestalde, gizakien arteko kooperazioa bi eratan agertzen da: bate-tik, batek bere burua eskain dezake, errukitasun, kezka edo onginahia direla-eta; bestetik, elkar ekiten duten lagunek mesede egin diezaiokete batak besteari, justizia, oreka edo zuzentasunagatik (*fairness*). Filosofia moralaren azterketa klasiko askotan egiten da ongiaren eta justiziaren bereizketa hori, eta, era berean, sinpatiaren moralitasuna eta justiziaren moralitasuna bereizten dira egun.

Gure izaeraren oinarri-oinarrian dago sinpatiaren moralitasuna; izan ere, besteekiko kezka da moralizat har daitekeen guztiaren ezinbesteko baldintza. Seme-alaben zaintzarekin lotuta dago besteekiko kezkaren jatorri ebolutiboa, segurtasun osoz. Adibidez, Churchlandek (2019) adierazi du entzefaloaren eboluzioan biziraupena ahalbidetzen zuten plazeraren eta minaren sentimenduak osatuak eta birzuzenduak izan zirela jokaera afiliatiboa sortzeko eta sustatzeko. Hegazti eta ugaztunetan, amenganako –eta, zenbait espezieetan, aita, senitarte eta taldekideenganako– atxikimendua da gizarte-jokaerarako eta moralerako oinarria. Atxikimendu- eta sari-zirkuituek esku hartzen dute jokaera afiliatibo eta moraletan.

Jokaera prosozialaren mekanismo proximalei dagokienez, organismoen jokaeran, kalkulu razionalek baino, emozioek

eragiten dute organismoen jokaeran, eta normalean ez dira batere kontziente izaten oinarrian dauden zioez (Shermer 2015). Izan ere, kalkuluak ez ditu egiten organismoak, hautespen naturalak lehenago 'egin' dituelako. Emozioak, azken batean, horrexegatik sortu dira eboluzioan, kalkulu horien *proxi*-ak (edo adierazleak) direlako. Emozioak hautespen naturalak 'egindako' kalkuluen *proxi* gisa hartzea egokia da jokaera prosozialen zinismo/zintzotasun dilemaren korapiloa askatzeko. Azken batean, gizakion jokaera guztiak, razionalagoak ala emozionalagoak, hautespen naturalaren eraginez sorturiko garun-zirkuituen jardunaren ondorio dira.

Tomaselloren aburuz (2016), sinpatian oinarri duten kezka-ekartzen dituen egintzak altruistak dira; askatasunez egiten dira, ez betebeharr-sentimenduen ondorioz. Justizia edo zuzentasunaren moralitatea, ordea, ez da hain oinarritzkoa, ez hain argia. Eta litekeena da giza espeziearen berezko ezauzgarria izatea.<sup>11</sup> Lagun askoren lankidetzarako eta lehiarako zioen arteko elkarrekintza konplexua egoten da normalean. Bi zio horien arteko oreka bilatzea dakar zuzen jokatzek; baina oreka hori lortzeko bide bat baino gehiago dago, eta irizpide desberdinen arabera erdietsi daiteke. Elkarrekintza horietan parte hartzen duten lagunen merituez judizio moralak egiten dituzte gizakiek eta, aldi berean, haserre zein erresumina eragiten diete zuzenak ez diren egintzek. Horiez gain, erantzukizuna, betebeharra, konpromisoa, konfiantza, begirunea, errua eta alhadura bezalako sentimenduak aldarrikatzen ditugu, gurekin harremanetan dauden lagunak euren egintzen erantzule izan daitezen.

Sinpatiarena baino konplexuagoa da zuzentasunaren moral-tasuna. Sinpatia lankidetzaren hutsa den bitartean, lehiaren nolabaiteko kooperatibizazioa da zuzentasuna. Talde-harremanetan esku hartzen duten gizabanakoak desberdinak direnez eta interes kontrajarriak ere izan ditzaketenez, zuzentasunez jokatu nahi badute, euren eskarietarako irtenbide orekatuak bilatu behar dituzte. Kognizioa, gizarte-elkarrekintza eta autorregulazioa bezalako mekanismo proximalak jokatzen dute

giza moralitatearen baitan, eta, horri esker, bizi eta aurrera egin dezakete euren lankidetzeta-testuinguru sozialetan.


## Ondorioak

Azurmendik gizakia nolakoa den berez, lehiakorra ala kooperatiboa, modu filosofikoan planteatzen du biologiari begira. Gai horri heltzen dio aztertu nahi dituelako kooperatibismoaren posibilitateak eta mugak kapitalismoaren aurrean tesi politiko eta sozial bezala. Eta horretarako kontuan hartu beharrekoa iruditzen zaio, ez bakarrik antropologia filosofikotik, baizik eta baita ere eboluzioaren ikuspegitik aztertzea zeintzuk izan diren zientzian garatutako emaitzak altruismo eta kooperatibismoaren inguruan.

... gizajendea hurkoenganako *loturak lantzeko eta harreman sozialen atarramendu onerako* dago berariaz moldatua, ez inola ere berekoiki *norbere baitan kirikio-trikutu* eta lagunartearekin *lehian borrokatzeko*. (Azurmendi 2016: 97-98; letra etzana gurea da)

Kooperazioaren helburu sozial edo politikoari sarri jartzen zaio 'marra gorria' biologiaren ikuspegitik: badirudi izaki biologikoak berez egoistak direla, horrek mugitzen baitu eboluzioa jasotako ikuspegi nagusia; eboluzioaren funtzionamenduan bakoitzak norberaren interesen alde egin behar duela aginduko luke, eta, ondorioz, elkarrenganako laguntza edo altruismoa galarazita leudeke. Gainera, askotan, batez ere geneen ikuspegitik, aditzera ematen da izaera biologiko hori herentzia biologikoz jasotako faktoreen eraginez determinaturik dagoela eta ez dagoela horiei hanka egiterik.

Azurmendik gizakia nolakoa den berez, lehiakorra ala kooperatiboa, modu filosofikoan planteatzen du biologiari begira. Gai honi heltzen dio aztertu nahi dituelako kooperatibismoaren posibilitateak eta mugak kapitalismoaren aurrean

Azkenaldian, berriz ere elkarrenganako laguntzaren aztarnak bilatzen dira. Izan ere, portaera altruistak gertatzen direnez eta eboluzioaren emaitza badira, horien sarrerak eta garapenak aztertzeko eboluzioaren errelatua berrikusi behar dela ondorioztatzen da. Horregatik, galdera da ea posible den altruismoa oinarritzko printzipio darwinista baitan osatzea, eta erantzuna biologiaren izaera erlazionalean eta sozialean aurkitu daiteke, Darwinek berak aurreratu zuen moduan, maila guztietan azter daitezkeen izaki bizidunen elkar lotura estuaren haritik. 

### Oharrak

1. Arantza Etxeberria Agirianok ikerketarako diru-laguntzak eskertzen ditu: *Ciencia e Innovación* Ministerioaren FFI2014-52173-P proiektua eta Eusko Jaurlaritzaren Taldeetako IT 590-13.
2. Hainbat filosofok azpimarratu duten bezala, altruismoaren bi kontzeptu bereiz daitezke. Biologikoarekin ez bezala, kontzeptu psikologikoaren arabera, altruistak besteen onurarako aktuatzen du, besteez arduratzen denez, eta egoista norberaren onura propioaz arduratzen da. Kontzeptu hori izaera psikologikoa duten izakiei bakarrik aplikatzen zaie, motiboekin zerikusia duelako (arrakasta izan ala ez), eta printzipioz ezin zaie aplikatu intentziorik gabeko izakiei (adibidez, bakteriei). Kontzeptu biologikoan, aldiz, portaerak besteen bizirau-penean duen eragina hartzen da kontuan, ez intentzioa.
3. Ghiselinék dio, adibidez, eboluzioak egoista egin gaituela: «Hautespen naturalaren hipotesia nahikoa zein egiazkoa bada, ezinezkoa da benetan desinteresatua edo 'altruista' den portaera bat eboluzioz agertzea». Zinikoentzat, altruismo aztarnak norbere interesean bakarrik dira: «Altruista bati harramazka egin eta hipokrita bat ikusi odoletan» (Ghiselin, in Lewens 2015: 142).
4. Darwinek proposatu zuen moralitasun-maila handiagoa eta lankidetzarako joera handiagoa zeuzkaten giza taldeak arrakastatsuagoak zirela eta, horrela, jokaera prosozialak nagusitu zirela gure espeziean.
5. Hirurak aipatzen dira populazio genetikaren egitura matematiko estatistikoaren egile moduan, lehen biak britainiarrak, hirugarrena estatubatuarra. Euren ereduekin lortu zuten darwinismoaren eta mendelismoaren auzia gainditzea, lehena gradualista baitzen eta bigarrenak

- aldaketa diskretuak aurreikusten baitzuten. Bien intuizio garrantzitsuenak salbatzeko gai izan zen trataera matematiko estatistikoa.
6. Williamsek ametitzen du portaera bat izan daitekeela taldearen onuran. Onartzen ez duena da taldearen onurarako hautatzen dela esatea; bakarrik ustekabeko onura kasuak dira onargarriak (Okasha 2019).
  7. Ikuspegi horrek kritika asko jaso ditu. Alde batetik, Ernst Mayrrek (2001) dio gene mailako hautespenak ez duela kontuan hartzen gene baten eragina beste geneen eraginarekin elkar ekintzan gertatzen dela eta geneek ez dutela zertan ondorio berdinak izan organismo desberdinetan, ez diotela ekarpen berbera egiten indibiduoaren egokitasun-mailari (*fitness* delakoari), eta askok, gainera, ez dutela hautespen-balio estandar bat. Gainera, Stephen Jay Goulden (2002) arabera, organismoen goi-mailako ezaugarri emergenteak ukatzen dituzte gene-mailako hautespenaren aldekoek.
  8. Maynard Smithek jarritako izena da, Hamiltonek berak erabili ez zuen arren.
  9. Hamiltonek proposatutako kontzeptu horrek eragin handia izan du eboluzioaren teorian. Formula matematiko baten bitartez egokitasuna (*fitness*) neurtzerakoan ez du bakarrik kontuan hartzen banakoak izan(go) duen ondorengo kopurua; kalkulu horri gehitzen zaio populazioan dauden beste kide batzuen egokitasuna ere, bien arteko  $r$  ahaidetasun koefizientearen arabera.
  10. 'Hamiltonen araua' izenez ezaguna da hipotesi hori, eta, matematikoki, honela adieraz daiteke:  $rb > c$ , non  $r$  delakoak organismoen arteko ahaidetasun genetikoaren gradua neurtzen duen,  $b$  delakoak egintza altruistaren hartzailak irabazten duen egokitasuna eta  $c$  delakoak organismo altruistak galtzen duen egokitasuna adierazten duten.
  11. Ideia horren inguruan desadostasuna dago ikertzaileen artean. Frans de Waal primatologo ezagunaren arabera, esaterako, ekitate ezarekiko ezinikusia adierazten dute txinpantzeek. Michael Tomasellok, ordea, aldarrikapen hori ez dela frogatu defenditzen du.

### **Bibliografia**

- Azurmendi, Joxe (1975): *Gizona abere hutsa da*, Tolosa, Jakin.  
— (1991): *Gizaberearen bakeak eta gerrak*, Donostia, Elkar.  
— (2016): *Gizabere kooperatiboaz*, Donostia, Jakin. *Jakin Irakurgaiak* bilduma 47.
- Boyd, Robert (2017): *A Different Kind of Animal. How Culture Transformed Our Species*, Princeton, Princeton University Press.
- Canguilhem, George (2008 [1965]): *Knowledge of Life*, New York, Fordham University Press. [Jatorrizkoa: *La Connaissance de la vie*, Paris, Vrin].

- Churchland, Patricia (2019): *Conscience. The Origins of Moral Intuition*, New York, W. W. Norton and Co.
- Darwin, Charles (1871): *The Descent of Man, and Selection in Relation to Sex*, Londres, John Murray.
- Dawkins, Richard (1976): *The Selfish Gene*, Oxford, Oxford University Press.
- Godfrey-Smith, Peter (2014): *Philosophy of Biology*, Princeton, Princeton University Press.
- Gould, Stephen Jay (2002): *The Structure of Evolutionary Theory*, Cambridge, Belknap Press.
- Hamilton, William Donald (1964): 'The Genetical Evolution of Social Behaviour I & II', *Journal of Theoretical Biology* 7(1), 1-16, 17-52.
- Henrich, Joseph (2015): *The Secret of Our Success. How Culture Is Driving Human Evolution, Domesticating Our Species, and Making Us Smarter*, Princeton, Princeton University Press.
- Lewens, Tim (2015): *The Meaning of Science*, Londres, Penguin Books.
- Mayr, Ernst (2001): *What Evolution Is*, New York, Basic Books.
- Okasha, Samir (2013): 'Biological Altruism', *The Stanford Encyclopedia of Philosophy*.
- (2019): *Philosophy of Biology. A Very Short Introduction*, Oxford, Oxford University Press.
- Richerson, Peter J.; Boyd, Robert (2005): *Not by Genes Alone. How Culture Transformed Human Evolution*, Chicago, University of Chicago Press.
- Shermer, Michael (2015): *The Moral Arc. How Science Leads Humanity Toward Truth, Justice, and Freedom*, New York, McMillan.
- Sterelny, Kim; Griffiths, Paul (1998): *Sex and Death. An Introduction to the Philosophy of Biology*, Chicago, University of Chicago Press.
- Tomasello, Michael (2016): *A Natural History of Human Morality*, Cambridge, Harvard University Press.
- Trivers, Robert L. (1971): 'The Evolution of Reciprocal Altruism', *The Quarterly Review of Biology* 46(1), 35-57.
- Williams, George C. (1966): *Adaptation and Natural Selection. A Critique of Some Current Evolutionary Thought*, Princeton, Princeton University Press.
- Wilson, David Sloan (2015): *Does Altruism Exist? Culture, Genes and the Welfare of Others*, New Haven, Yale University Press.
- Wilson, David Sloan; Sober, Elliott (1994): 'Reintroducing Group Selection to the Human Behavioral Sciences', *Behavioral and Brain Sciences* 17(4), 585-608.
- Wilson, David Sloan; Wilson, Edward O. (2007): 'Rethinking the Theoretical Foundation of Sociobiology', *The Quarterly Review of Biology* 82(4), 327-348.

# Gizabere kooperatiboa krisian bizitzeko mito gisa: zaurgarritasuna, interdependentzia eta erantzukizuna

Mikel Urdangarin Irastorza

*UPV/EHUko doktoregaia filosofian*

## Krisian irautetik krisian bizitzera

Gurea krisiaren belaunaldia da. 2007ko krisi finantzarioaren abaroan azaleratu den zibilizazio krisi anizkoi-tzean hazi, hezi eta politizatutako belaunaldia. Joxe Azurmendiren eta 56ko belaunaldi gisa definitu izan denaren abiapuntua ere krisia eta gatazka da. Euskal Herrian gori-gorian bizi izandako gatazka eta horren gibelean kokatzen duen tradizio oso baten krisia, hain zuzen ere: «krisi sozial, kultural, politiko, etiko konplexu bat da [...] mendebaldeko kulturaren edo modernitatearen krisia ere esan ohi dena» (Azurmendi 1999: 21).

Orduan bezalaxe orain, krisian bizi gara, modernitatearen puskailetan, bizi irizpide sendorik gabe, ziurgabetasunez eta, bereziki, galderez blai: «Nola ordenarik lortu orain, printzipio absoluturik gabe, arrazoimen absoluturik gabe?» (Azurmendi 1998: 43).

Azken urteotan, zentzu demokratizatzailean edo atzera-koian izan, krisi hori areagotu baino ez da egin. Besteak beste, hiru aldagai aipatuko nituzke. Batetik, kapitalaren logikak bizitzaren logika irentsi du, eta, ondorioz, denontzako etorkizun oparoa edota etengabeko orainaldia baino, mehatxu bat dugu parez pare: noiz arte? Noiz arte iraungo du enpleguak,

harremanak, pentsioak... zibilizazioak berak? (Garcés 2018: 14). Bestetik, matxinada feministak botere harreman zapaltzaile oro auzitan jartzen dituen praktika, diskurtso eta teoria multzo erradikal bezain integrala jarri du mahai gainean, orain arte 'naturalizat' jotako eremu 'mikro' zein 'makroak' politizatuz, auzitan jarriz eta arrakalak nahiz aukerak sortuz. Azkenik, Euskal Herriko ziklo politiko aldaketak erronka eta galdera berriak mahaigaineratu ditu.

Horren aurrean, zer? Krisiak ez du zertan txarra izan: «krisia, guk hura menperatu ordez, berak gu menperatzen bagaitu bakarrik da txarra» (Azurmendi 1999: 74). Alta, aldaketa-rako aukera izan daiteke. Horretarako, erabateko ziurtasunen bila tematu beharrean, galderetan edota krisian bizitzen ikasi beharko dugu: «Zer geratzen da? Galderak [...] Modernia ziurtasunean bizi nahirik amorratuta hasi zen. Galderetan bizitzen ikasi beharko dugu orain» (*ibid.*: 193-194).

Horrek ez du esan nahi erantzunik ez dugunik behar, baidizik eta galderari tartea utziko dioten erantzun moldeak behar ditugula. Azurmendiren hitzetan, absolutu erlatiboak. Sostengatu eta norabidetuko gaituzten heldulekuak edo absolutuak izango direnak, baina betiere testuinguru jakinean guk geuk jarriak direla eta, ondorioz, erlatiboak direla jakinik: «ez da absolutuak ez ditudala onartzen, kontua da badakidala haien fundamentua ez dela absolutua, nire hautua dela absolutua» (Azurmendi 2016b). Lagunak, justizia, artea, filosofia, erlijioa... ugariak dira zentzu hori finkatu dezaketen iturriak edo mitoak. Azurmendiren kasuan, herria, hizkuntza eta auzolana.

Horrenbestez, zentzu krisiari aurre egin eta krisian bizitzen ikasteko, zerumugak, zentzua eta, finean, heldulekuak eskainiko dizkiguten mito kolektiboak eraiki behar ditugu. Bide horretan, subjektu 'zentzuzko' eta desiragarria finkatzeko borroka hegemonikoaren baitan, feminismotik eta ekologismotik sekulako lana egiten ari da, subjektu zaugarri eta inter- zein ekodependentea zizelkatuz. Jarraian azalduko dudan bezala, nire ustez Azurmendiren gizabere kooperatiboak ekarpen aberasgarria egiten du ildo horretan. Horretarako,



aipatutako korronteetan giltzarriak diren hiru kontzeptu landuko ditugu, horien bueltan elkarriketan jarriz eta sakonduz: zaurgarritasuna, interdependentzia eta erantzukizuna.

### **Aberetxo: zaurgarritasuna**

60ko hamarkada gorria izan zen mundu osoan barna. Euskal Herrian bertan, ‘25 urteko bakeak’ ekarritako lugorria gainditu eta sekulako berpizte politiko, sozial, kultural eta artistikoa garatu zen. Mundua aldatzeko gogoz eta esperantzaz, ilusioa eta baikortasuna ziren nagusi. Testuinguru horretan, iraultza egin eta ‘gizaki berria’ eraiki nahi zen. Ez zen nahikoa ‘azpiegitura’ iraultzearekin, iraultzaren neurriko kontzientzia eta jarduna izan behar duen gizaki sozialista ere eraiki behar zen.

Azurmendiri, baina, ‘fedea’ falta omen zitzaion, baita iraultzan ere. Eszeptiko xamarra izaki, honakoa adierazi nahi omen zien ‘fededunei’:

Zuek iraultza egin ezazue, baina egin ezazue kontu gizonak [sic] gizona izaten jarraituko duela gero ere. Elizak ez du bi mila urtean lortu gizona kanbiatzea eta zuek ere ez duzue lortuko. (*Ibid.*)

Horren aurrean, honakoa ohartarazi zien:

Beno, aberetxo bat haiz eta orain kontuz. Orain saiatu hadi bidean ibiltzen. Baina ez hadi saiatu aingeru izaten, ze estupidokeria bat da [...] Gizona abere hutsa da, eta errespetatu iezaiozue hori mesedez, ze hortik hasi behar du gizakiarekin egin nahi dugun edozein proiektu. (*Ibid.*)

Azurmendiren ustez, gizakia ulertzeko eran bertan dago oinarritzko arazoa:

Problema da gure kultura guztia, beraz, juzkaerak eta problemak planteatzeko moduak berak ere, gizona<sup>1</sup> animalia zenik edo animaliatik zetorrenik ez zekiten mendeetako eta mendeetako tradizioek moldaturik dagoela. (Azurmendi 1991: 143)

Geure burua jainkotuz, ahaztu egiten zaigu animaliak garela. Hau da, zaurgarriak eta mugatuak garela, zentzu guztietan:

«Indarra, gure eskuetan, eta ikusmena, gure begiotan, mugatuak badira, zergatik ez da mugatua izango adimena gure garunean?» (*ibid.*: 85). Horren aurrean, honakoa da gizakiaren bueltako ikerketa, epai edo proiektu orok aintzat hartu beharreko oinarria: «Gizona abere bat da. Gizona, lehen-lehenik eta beste ezer baino lehen, izaki bizia da. Organismo bat. Gorputz bat. Animalia bat» (*ibid.*: 61). Horrenbestez, abere-txo gorpuzdun horren tasun eta keria horiek aintzat hartzen ez dituen ikuskera edo proiektu oro hankamotza izango da.

Iraultza sozialisten esperantzatik TINARA, azken hamarkadatan testuingurua zeharo aldatu da. Oldarraldi neoliberalaren eta demokraziaren pribatizazioaren eskutik, 'gizaki berri' sozialistaren ametsa zapuztu eta 'gizaki berri neoliberal' ezarri da. Bide horretan, estatua eta ekonomia ez ezik, subjektibitateak ere berreraiki dira, merkatuaren logi-

ka lehiakorraren arabera sentitzeko, pentsatzeko, ulertzeko, jarduteko eta, finean, bizitzeko era jakina ezarriz. Egiturazko arazoan aurrean ihesbide indibidualak eskainiz, gakoia eta, bidenabar, arazoa norberaren jarreran kokatzen da. Norbera da bere porroten eta arrakasten erantzule bakarra. Izan ere, «nahi baduzu, posible du-

Oldarraldi neoliberalaren eta demokraziaren pribatizazioaren eskutik, 'gizaki berri' sozialistaren ametsa zapuztu eta 'gizaki berri neoliberal' ezarri da

zu», «edonork baitu posible»; bestela esanda, ez baduzu posible, nahi ez duzulako da. Posible izateko, mundua aldatu ezin denez, zuk zeuk aldatu behar duzu. *Looser*-ak ez izateko, *doer*-ak izan behar dugu, besteek baino azkarrago, hobeto eta gehiago egin, «ekintzaileak» nahiz «produktiboak» izan, errendimenduaren logikaren baitan denbora oro «aprobetxatu» eta «optimizatu» (Friedrich 2018). Emakumeen kasuan, patriarkatuak egotzitako identitate, rol eta zereginekin uztartuz, 'superwoman'-a izan, oztopoak oztopo dena 'kontziliatzeko' gai izanez. Badakizue, «impossible is nothing».

Akituta bazaude, aitzakia eta kexak albo batera utzi, zure baitako akatsak identifikatu, ‘oztopoak aukera bihurtu’ eta segi aurrera, bizirauteko borroka esperientzia eta abentura zinez exotikoa baita. Thatcherrek aitortu zuenez, «ekonomia da metodoa; helburua, arimak aldatzea».

Alba Ricok dioen gisan, sistemak ezarri nahi duen erritmo «ekintzaile» eta itogarriaren aurrean, gorputza erritmo hori segitzea ezintzen duen traba eta galga<sup>2</sup> bat baino ez da: «etsigarriki geldoa, oztopo eta eragozpen bat baino ez da» (Alba Rico 2017: 135). Sistema ero horren baitan, «teknologiak aurrera egiten duen bitartean, pantailetan irudiak pasatzen diren bitartean [...] gorputza atzerapen bat da, beti atzeratuta mantentzen gaitu» (*ibid.*: 246). Kapitalismo patriarkalak behar duen subjektua autodefinitua (baldintzapen biologiko eta sozialik gabea), arina (sustraitzen duten lotura afektibo eta sozialik gabea), malgua (merkatuaren arabera etengabe birdefinitzeko lain ‘konpetentea’) eta etengabe gazte/hilezkorra bada ere, subjektu gorpuzdun, mugatu, baldintzatu, geldo, hauskor eta hilkorrek gara. Merkatuaren menera nahieran eta nahi bestetan berreraiki daitekeen plastilinen formakoa baina kristalaren tankerakoa, hausten erraza eta berreraikitzen zaila.

Sistemak hala nahi badu ere, ezin gara gorputzetik askatu, ezta hark eskatzen dituen egiteko ‘inproduktiboetatik’ ere: egonkortasuna, patxada eta, bereziki, zaintza. Horri lotuta, bost segundoko aiztoaren kulturarekiko kontrakarrean, mundura, lurrera eta beste gorputzetara txirikordatuko gaituen korapiloaren kultura (*ibid.*: 161) behar dugu: arreta, pazientzia, jarraitutasuna, zorrotasuna, fintasuna, asperdura, konfiantza, sustraiak.... Hori kontuan izanik, gorputzetik askatzeko fantasiaren aurrean, gorputzean askatu behar gara, elkar begiratzeko, zaintzeko, plazererako, errelatu gutxi asko koherente bat bizitzeko, lotsarik gabe zahartzeko eta duintasunez hiltzeko eskubidea izan dezagun (*ibid.*: 255).

Testuinguru berri horretan, Azurmendik umiltasunera egindako deiak are gaurkotasun handiagoa duela esango

nuke: kontuz, ez gara aingeru razional gorpuzgabeak, ezta bizirauteko borrokan etengabeko itolarri eta errendimenduan ibil gaitzkeen subjektu ekintzaile ahalguztidunak ere. Aberetxo gorpuzdun, mugatu, zaugarri eta hilgarri bat baino ez gara, eta hala izateko eskubidea dugu. Aintzat har dezagun.

### **Gizabere komunitario kooperatiboa: interdependentzia**

Esan bezala, Azurmendiren giza aberea mugatua eta zaugarria da. Oinarri horretatik abiatuta, honako ezaugarria gehitu dio: «Aberetxo erkina eta lagunkoia da gizon-emakumea. Ahula delakoxe lagunzalea eta lagunbharra» (Azurmendi 2016a: 36). Hau da, ahulak eta erkinak garen heinean (*delakoxe*), besteak behar ditugu, besteekiko dependenteak gara. Hots, interdependenteak gara, komunitatearekiko elkarrekintza estuan gara nor. Are gehiago, komunitateak berak egiten gaitu: «komunitatean jaiotzen gara, komunitatean heltzen gara pertsonak izatera; komunitateak egiten gaitu, guk egiten dugu komunitatea» (*ibid.*: 131-132). Zentzu horretan, bere burua aski ei duen subjektua arbuiatzen du:

Bere joera naturala ez da norbanakoa bere burua nagusiarazteko inguru guztiarekin 'neoliberaliki' bizi-borrokan eta lehian ibiltzea [...] berez lagunartea bilatzen du, jolas eta solaskideak, penak bezala pozak komunikatu eta partekatu egin nahi ditu. (*Ibid.*: 133-134)

Bere burua ez du aski, 'edonor' den indibidua (naturaren menekoa den subjektu materiala) komunitatearekiko dialogoan soilik bihurtzen baita nor (subjektu morala). Komunean den subjektu edo pertsona hori du, hain zuzen, jomuga: «pertsona heldua, burujabea, librea, komunitatearen zerbitzaria (ez jopua)» (*ibid.*: 132). Bere hitzetan, gizabere komunitario kooperatiboa (*ibid.*: 133).

Feminismotik bide horretan harago jo da. Azpimarratu denez, subjektu gisa baieztatu eta loturak josi aurretik, subjektu

gisa eratuak izan behar dugu. Ez gara subjektu jaiotzen, ugaztun baizik. Subjektu egin egiten gara, *a posteriori* (Goikoetxea 2017: 275). Ukitu, elikatu, artatu eta zaindu egiten gaituzte, gure aurretiko eta haraindikoak diren hizkuntza zein diskurtsoan kokatu, aitortzarako arau sozialak ezarri... Soilik gerora, horren baitan eta horren kontra izango da posible subjektu gisa baieztatu eta eratzea, betiere era partzialean. Goikoetxeak zehazten duenez, mekanismo diziplinatzaile eta biopolitiko bidez (osasun sistema, pentsioak, hezkuntza, familia egitura, arauak...) egiten den domestikazio eta menderakuntza prozesuen baitan zein horien kontra soilik izango gara gai subjektu gisa boteretu eta baieztatzeko: demokratizaziorako «norbanakoak sortu behar dira, hau da beren gorputzak gobernatzeko gai (gaiago) diren gizakiak, eta horretarako mekanismo diziplinarioak behar dira, horiek sortzen baitituzte norbanako boteretu auto-diziplinatuak» (*ibid.*: 90). Subjektua, abiapuntua baino, hamaika lan eta prozesuren ekoizpen osatugabea da.

Subjektuak, beraz, ez du bere burua aski, ez da buruaskia. Izan ere, 'ni'-a ez da guztiz 'nirea'; 'besteena' ere bada, besteek jatorritik eta etengabe erutzen eta zeharkatzen baikaituzte. Aitzitik, ikusi dugun bezala, besteak nire aurretikoak dira 'nigan': «hasieran *zurekiko erlazioa naiz*, anbiguoki interpelatua eta interpelatzailea, zeina gabe izan ezin naizen eta bizi-rauteko dependentzia dudana 'zu' batera entregatua» (Butler 2012: 113). Besteak, beraz, 'nire' aurrean baino 'nire' baitan daude, nirekiko jarraitutasunean: «eta gorputzak ez badaude ez batuta, ez berezita? Batasuna/bereizketa dualtasunaz harago, gorputzek elkar jarraitzen dute» (Garcés 2013: 30). Hori kontuan izanik, interdependentzia ez da subjektu presozialak gerora ehundutako

Azurmendiren giza aberea mugatua eta zaugarria da. Ahulak eta erkinak garen heinean, besteak behar ditugu, besteekiko dependenteak gara

erlazio sarea, baizik eta subjektu gisa eratzea ahalbidetzen (eta, bidenabar, beregainak izatea ezintzen) digun aurretiko nahiz etengabeko baldintza. Ondorioz, ataka ez da subjektu buruaski gisa besteengana elkartu edo besteekiko bereiztea, baizik eta hasieratik eta etengabe zeharkatzen gaituen amaraun erlazionala aitortu eta horren baitan subjektu gisa (parzialki) baieztatzeko gaitasuna lortzea. Esan bezala, ez dago interdependentziaz askatzerik: «Ez dago tarterik, ez dago ihesbiderik. Ez dago kanpoalderik. Onerako eta txarrerako, besteen eskuetan bizi gara» (*ibid.*: 65).

Azalpenean sakontzeko, doluaren esperientziara jotzen du Butlerrek (2004: 19-50). Doluan 'ni' independenteak ez du 'zu' independentea galtzen. Kontrara, 'zu' galtzean 'ni' ere galdu egiten naiz neurri batean. Gainezka egiten dugu, ez dakigu zer galdu dugun, nor garen, ezta zer nahi dugun ere, 'ni'-ak zurekiko erlazioan eta besteak beste zurekin hartu izan baitu zentzua: «Nor 'naiz' ni, zu gabe? Gu eratzen gaituzten zenbait lotura galtzean, ez dakigu ez nor garen, ez zer egin» (*ibid.*: 22). Orduan, bestearen galerak ez ezik, neure buruarekiko ezezagun bilakatzeak ematen dit min. Izan ere, besteekin eta besteei eskerrak garenez nor, besteak galtzean nire nor-tasuna ere galdu eta eraldatu egiten da.

Interdependentziaz ezin garela askatu baieztatzeko ez du ukatzen subjektu gisa autonomia baieztatzeko aukera eta beharra. Aldarri hori ezinbestekoa da maiz, komunitatea eta loturak botere harreman zapaltzaileen (bir)sortzaileak ere badiren neurrian. Eratu eta sostengatu ez ezik, azpiratu eta mehatxatu egiten gaituzte. Muga horien ezarpenaren bidez, baina, ezin da erabateko harresia eraiki, gizaki gisa eratzten eta sostengatzen gaituzten loturak hautsiko bailirateke. Erlazionaltasun hori ukatu gabe (eta ezinda), era prekarioan bada ere, amaraun horren baitan ahalegindu beharko dugu subjektu gisa baieztatu eta autonomia lortzen. Norbanakotasunaren aldarri ezinbestekoa norbanakokeria bihur ez dadin (Agirre eta Eskisabel 2019: 73), autonomiaren baieztapen horrek erlatiboa eta erlazionala izan beharko du. Tentsio hori

mantentzea funtsezkoa da, autonomiaren baieztapenaren eta erlazonaltasunak eragindako aukera zein ezinen arteko tenkan baikara gizaki (Butler 2012: 142). Agirre eta Eskisabelek dioten eran, norbanakoaren eta taldearen arteko ezinbesteko tentsio hori ahalik eta eramangarriena egiteko, funtsezkoa da interseksionalitateak botere sare eta posizioen bueltan ematen dizkigun perspektiba eta lanabesak (2019: 129).

Ondorioz, besteekiko eta besteei eskerrak gara nor. Besteek eratzen, sostengatzen, mugatzen eta mehatxatzen gaituzte. Lotu egiten gaituzte, zentzurik onenean bezalaxe txarrenean. Nahi ala ez, ez dago besteekiko interdependentziatik askatzerik, hasieratik eta etenik gabe zeharkatzen baikaituzte. Beraz, loturetatik beharrean loturetan askatu beharko gara, loturak berak eraldatuz eta askatzaileagoak eginez. Izan ere, Eagletonen esaldi famatua birformulatuz, gauza bakarra dago loturak izatea baino okerragoa dena: loturarik ez izatea.

## Erantzukizuna

Ikusi dugun bezala, aberetxo zaugarriak izateaz gain, interdependenteak gara, komunean baikara nor. Azurmendiren ustez, horrek erantzukizuna inplikatzeko du. Bere ustez, kooperatibistaren figuran mamitzen den gizabere komunitario kooperatiboa izateko borondatea ez da nahikoa, ezta jarraia altruista izatea ere. Exijentzia batzuk ditu: «austeritatea, lizifrina, heldutasuna, parte hartze sakrifikatua, solidaritate eskuzabala, idealismoa» (Azurmendi 2016a: 136). Izan ere, «kooperatibista izatea munduan egoteko modu oso bat eta mundu osoaren aurrean *erantzukizuna*» (*ibid.*: 136) izatea da. Mundu osoaren aurrean dugun erantzukizun horri ezin diogu izkin egin, nahiz eta zenbait kasutan gustagarria ez izan.

Bide horretan sakonduz, Butlerrek interdependentziatik funtsatzen du erantzukizun etikoa. Azaldu dugun legez, besteek jatorritik eta etengabe zeharkatzen gaituzte. Zentzurik zabalenean, eratu, sostengatu, mugatu eta mehatxatu egiten gaituzte. Erlazonaltasunean eratuta gaude, «gure aurrean

eta gugandik haratago dagoen mundu sozialean inplikatur, behartuta, eratorrita eta sostengatuta gaude» (Butler 2012: 92). Hain justu, besteen esku hartze eta besteekiko jarraitutasun horrek lotzen eta inplikatzen gaitu besteen bizitzetan eta gugandik aurrean nahiz harago dagoen mundu sozialean.

Norekiko edo zerekiko gara dependenteak eta, bidenabar, erantzuleak? Nor da Azurmendik aipatzen duen «mundu osoa»? Erantzukizun hori nola kudeatzen da egun? Nork hartzen du beregain? Nola birbanatu beharko genuke?

Elkarrenganako ardura dugu, 'ni'-a neurri batean 'besteen' den bezalaxe, 'besteak' ere 'nireak' baitira hein batean. Beraz, jatorrizkoa eta etengabea den besteen esku hartzeak, eratu eta mugatu ez ezik, etikoki interpelatu egiten gaitu. «Konpromisoan jarri», alegia,

gu geu gainditzen gaituen egoeran inplikatuta eta esku hartzera behartuta (Garcés 2013: 63).

Hori kontuan izanik, erantzukizunaren oinarria ez da pentsatzen, erabakitzen edo egiten duguna. Ez da gure hautu, borondate, printzipio, kontzientzia edo jarrera altruistaren menekoa, ezta guk sentitzen dugun balizko maitasun, gorroto, gertutasun edo errukiaren araberakoa ere. Kontrara, guk hautatu ez arren besteekiko halabeharrez lotzen gaituen erlazonaltasunak egiten gaitu lotura horiekiko erantzule: «Gutako inor ez dago guztiz zedarrirituta, erabat bereizita, baizik eta, kontrara, denok gaude, gure azaletik bertatik, entregatuta, besteen eskuetan, besteen menpe. Hau aukeratzeko ez dugun egoera da. Gure aukeren zerumuga eratzen du eta gure erantzukizuna oinarritzen du» (Butler 2012: 139). Eratzen gaituzten erlazio eta esku hartze horiek ez(in) ditugu ez erabaki, ez ukatu, ezta baztertu ere. Ez gara horien erantzuleak, baina horiekiko erantzuleak gara, halabeharrez eta betebeharrez. Ez dugu alternatibarik, erantzukizun hori aintzat hartu behar dugu ezinbestean. Loturetatik askatu ezin



garen lez, ezin gara lotura horiek galdegiten duten erantzukizunetik ere 'askatu'. Lotu egiten gaituzte, interpelatu, inplikatu eta konprometitu.

Behin hori esanda, pare bat auzi mahaigaineratzen dira. Alde batetik, norekiko edo zerekiko gara dependenteak eta, bidenabar, erantzuleak? Nor da Azurmendik aipatzen duen «mundu osoa»? Ekologismotik, esaterako, interdependentziari ekodependentziaren aldagaia gehitu zaio, ekosistemekiko dependentzia, zorra eta erantzukizuna dugula mahaigaineratuz. Zentzu horretan, kultura/natura dualismoaren eskutik 'gizakia'/animalia-natura artean ezarri den bereizketa zurruna lausotu eta jarraitutasuna nahiz erantzukizuna zabaltzeko balio dezake Azurmendiren gizabere kontzeptuak. Ildo horretan, kuriosoki, Butlerrek 'human animal' (Athanasiou eta Butler 2013: 35) edo 'giza animalia/aberea' kontzeptua proposatu du, 'beste' animaliekiko nahiz gure aberetasunarekiko jarraitutasuna azpimarratuz eta 'gizatasunaren' erreititik kanpo kokatu ditugun aldagai anitzekiko dependentzia estua dugula gogoraraziz.

Bestetik, bada funtsezkoa den bigarren auzi bat: erantzukizun hori nola kudeatzen da egun? Nork hartzen du beregain? Nola birbanatu beharko genuke? Patemanek azaltzen duen eran, egungo kontratu sozialak auresuposiziotzat dauka kontratu sexuala eta askatasun zibilak auresuposiziotzat dauka eskubide patriarkala (Pateman 2018: 12). Publiko-zibil-gizonak eta pribatu-natural-emakumeak dikotomia ezarriz, natural eta pribatutzat jotako familiaren bizkar utzi da aipatutako erantzukizuna. Esan nahi baita, emakumeen esku, hori omen baita beraien esparru eta zeregin «naturala».

*EAEko demokrazia patriarkala* ikerlanean frogatzen dutenez (Etcheberria *et al.* 2019), kontratu sexualak indarrean jarraitzen du. Araba, Bizkai eta Gipuzkoako ongizate erregimen mediterranean, beste erregimenekin alderatuta, «famieliarekiko, hau da, emakumeen lan ez ordainduarekiko dependentzia handiagoa dago ongizatea lortzeko» (*ibid.*: 16). Gainera, erakunde publikoen pribatizazio prozesuaren bidez,

merkantilizazio eta familiarizazio horretan sakondu baino ez da egin azken urteotan, emakumeen lan zama orokorra are gehiago handituz eta prekarizatuz (*ibid.*: 235). Ondorioz, Hego Euskal Herriko emakumeek gizonak baino 400 ordu gehiago egiten dituzte urtean, baina %25-30 soldata txikiagoa jasotzen dute (*ibid.*).

Horrenbestez, erantzukizuna denona bada ere, erabat desorekatua da arduraren banaketa. Norbanako ustez buruaskia 'askatasunaren erreinuan' aske ibil dadin, multzo murriztutako horretatik kanpo kokatzen diren subjektuak (emakume, migratzaile...) 'beharren erreinuan' azpiratu dira, bizitzaren sostengarritasuna eta zaintza beraien bizkar utziz, inolako aitortza sozial eta ekonomikorik gabe: «jatorrizko kontratuaren bitartez bizimodu soziala sexuaren arabera bereizi izanaren ondorioz eratu zen norbanako zibila» (Pateman 2018: 201). Ondorioz, batzuen/batzuen 'independentzia' besteen erabateko dependentzia (izan) da; batzuen/batzuen absentismoa besteen lanaldi bikoitz edo hirukoitza. Aipatutako ikerketan (Etxeberria *et al.* 2019) proposatzen den eran, horren aurrean, besteak beste, erakunde publikoen bidez ardura publikatu/denona egin eta era justuan aitortu, duindu, birbanatu eta arautu beharko da (adibidez, nahitaezko eta txandakako zaintza ezarriz), kapital ekonomiko, kultural, sozial, politiko eta sinbolikoa berdinduz. Azken batean, ardura hori denona egin beharko da, denon erantzukizuna baita eta ezin baitiogu izkin egin.

## Ondorioak

Egun jasaten ari garen krisi anizkoitzaren aurrean krisian bizitzeko apustua egin dugu, mito kolektiboen beharra azpimarratuz. Bide horretan, gizabere kooperatiboa subjektu zaugarri eta inter- zein ekodependentearekin elkarriketan jarritz, honako gakoak mahaigaineratu ditugu: batetik, abere-txo gorpuzdun, mugatu eta zaugarriak gara, eta, hori ukatu beharrean, aintzat hartu behar dugu; bestetik, besteekin eta

besteei eskerrak gara nor, eta loturetatik baino loturetan askatu behar gara; azkenik, loturek eratzen gaituzten neurrian, lotura horiekiko erantzukizuna dugu. Erantzukizuna denona denez ardurak ere denona izan beharko du, berori birbanatuz.

Zertarako? Giza aberetxo orok, gure mito, muga, lotura eta erantzukizunekin, bizitza bizigarria izan dezagun. 🌊

### **Oharrak**

1. 'Gizona' neutrotzat jo eta gizakiari erreferentzia egin nahi badio ere, akaso literalki ulertu beharko genuke aipua. Izan ere, kultura/gogoa/ arrazoimena/gizona – natura/gorputza/pasioa/emakumea banaketaren ondorioz, oso era ezberdinetan bizi izan da gorputzasuna. Beauvoirrek, 'gizona' neutro eta unibertsaltzat jotzea arbuatzeaz gain, hori ere azpimarratu zuen: «Gizonak guztiz ahaztua du berak ere guruinak dituela, barrabilak dituela. Gizonarentzat, bere gorputzak harreman zuzenekoa eta normala du munduarekin –objektibotasunez hauteman uste duen mundu horrekin–, eta emakumearen gorputza, berriz, espezifikoki egiten duen guztiaz zamatua irudikatzen zaio: oztopo, presondegi» (Beauvoir 2019: 9-10). Beraz, gizona aberetasunaren lokarriak hautsi eta bere kondizio haragizkotik salbu dagoen Ideia puru edo Espiritu absolutua izan nahian ibili bada ere (*ibid.*: 175), emakumeak oso presente izan du gorputzasuna. Besteak beste, bere zaintzapean egon baita.
2. Jakitun gara 'gorputza' era horretan ezaugarritzea zalantzarria dela. Mari Luz Estebanek azaltzen duen eran, azken urteotako gorputzaren teoria soziala «urrundu egiten da gizarte-zientzietan eta historian ohikoak izan diren planteamenduetatik, non gorputza *azalera neutro*, ideien gordailu edo irudikapen eta sinboloen multzo hutsa den. Orain gorputza agente izango da, egitura eta ekintzaren arteko korapilo, bizitzaren materialitatea eta haragizkotasuna berreskuratze eta irudikatze aldera» (Esteban 2014: 99). Zehazki, haragiztatze nozioa nabarmentzen du: «*elkarrekintza sozialaren prozesu material*, beraren dimentsio ahalezkoa, gurarizkoa, intersubjektiboa eta erlaziozkoa azpimarratuz» (*ibid.*: 100). Lan horren eta ikertzaile gisa ditugun mugak tarteko, ordea, mugatasunaren metafora gisa erabiliko dugu hemen.

## Bibliografia

- Agirre, Lorea; Eskisabel, Idurre (2019): *Trikua esnatu da. Euskaratik feminismora eta feminismitik euskarara*, Zarautz, Susa, Lisipe bilduma.
- Athanasiou, Athena; Butler, Judith (2013): *Dispossession. The Performative in the Political*, Cambridge, Polity Press.
- Azurmendi, Joxe (1991): *Gizaberearen bakeak eta gerrak*, Donostia, Elkar.
- (1998): *Oraingo gazte eroak*, Irun, Luma Liburuak.
- (1999): *Euskal Herria krisian*, Donostia, Elkarlanean.
- (2009): *Azken egunak Gandiagarekin*, Donostia, Elkar.
- (2016a): *Gizabere kooperatiboaz*, Donostia, Jakin.
- (2016b): 'Euskaldunok geurea eta geurea bakarrik den barne mundu bat sortzea ezinbestekoa dugu' [Lorea Agirrerekin solasaldia], *Jakin.eus* ([www.jakin.eus/memoria/solasaldiak/joxe-azurmendi/8](http://www.jakin.eus/memoria/solasaldiak/joxe-azurmendi/8)).
- Alba Rico, Santiago (2017): *Ser o no ser (un cuerpo)*, Bartzelona, Seix Barral.
- Beauvoir, Simone de (2019): *Bigarren sexua I*, Andoain eta Donostia, Jakin eta Elkar. Eskafandra bilduma.
- Butler, Judith (2004): *The Powers of Mourning and Violence*, Londres, Verso Books.
- (2012): *Dar cuenta de sí mismo. Violencia ética y responsabilidad*, Buenos Aires, Amorrortu.
- Esteban, Mari Luz (2014): 'Gorputzaren antropologia, gorputz-ibilbideak eta genero-harremanak', in Alaitz Aizpuru eta Bakarne Altonaga (koordk.): *Diskurtsoak, eraikuntzak, gorputzak. Gorputzen eta binarismo sexualaren eraikuntzaz*, Bilbo, UEU, 97-107.
- Etxeberria, Lore; Garai, Estitxu; Goikoetxea, Jule; Miralles, Nora (2019): *EAEko demokrazia patriarkala. Lan ordaindua, lan ez ordaindua, ongizate erregimena eta eremu sozio-politikoa*, Gasteiz, Emakunde.
- Friedrich, Sebastian et al. (2018): *La sociedad del rendimiento. Cómo el neoliberalismo impregna nuestras vidas*, Iruñea, Katakra.
- Garcés, Marina (2013): *Un mundo común*, Bartzelona, Bellaterra.
- (2017): *Nueva ilustración radical*, Bartzelona, Anagrama.
- Goikoetxea, Jule (2017): *Demokraziaren pribatizazioa*, Donostia, Elkar.
- Pateman, Carole (2018): *Kontratu sexuala*, Andoain eta Donostia, Jakin eta Elkar. Eskafandra bilduma.

# Pertsona burujabea Arizmendiarrietaren asmoan eta egitean

■ Andoni Eizagirre

*Mondragon Unibertsitateko HUUHEZI Fakultateko irakaslea*

**J**ose Maria Arizmendiarrietaren asmoan eta egitean, pertsona burujabea da sustraiko gaia. Nor bere buruz jabetu eta nor bere buru-eskuekin aritzen den pertsona, nire ustez, Arizmendiarrietak bi iturri nagusitatik bereganatu eta osatu zuen: atal banatan bereizita arakatuko dut Arizmendiarrietaren pentsaeran, sentieran eta jokabidean –euskal tradizioan eta pertsonalismo kristaun, hurrenez hurren–, pertsona, kontzientzia, erantzukizuna, auzoa, lankidetzaren harengan zer-nola mamitzen diren ulertzeko asmotan.

Hirugarren atalean, auzi praktikoago baten inguruan (bere inspirazioko kooperatibak nola ernatu diren) galdegingo dut. Horri buruz, nire behin-behineko erantzuna hau da: aitzindarien bizi-tankera interpretatzeko ere, transzendentziaren ikuspegia eta existentziaren zentzua dira giltzarri nagusiak. Orri hauek ontzeko, Joxe Azurmendik gizakiaren historiaz eta moralaz irakatsitakoak hartuko ditut bidelagun.<sup>1</sup>

## «Euskaldunki jokatzea»

Arizmendiarrietaren euskal tradizioa semea da, eta hari jarraitzen emanez biziberritu ditu senitarteko eta bizilagunekin,

auzokideekin eta ondasunekin izan beharreko harremanak. Azal dezagun lehen gogoeta-lerro hori.

Etxean, oraintsu arte sarritan entzuna diegu gurasoei: *Izan zaitetzela zeuen buruaren jabe!* Euskaldunoi lerroburu oinarrizko horrek gidatu digu bizi-norabidea, eta nor izateko pertsonak nor bere esku-buruaren jabe izan beharra iradokitzen du. Nor bere buruaren jabe izatea, gurasoek euskal baserri eta etxeetan transmititu diguten adieran, gizalegez jokatzea da, emandako hitza betetzea, hitzeko pertsona izatea. Bestalde, baina, gizalegez zor duguna egitea ere esan nahi du, gure erantzukizuna betetzea, bidezkoa den hura egitea.

Ikuskera horren arabera, burujabe (kontziente eta erantzule) izateko eta pertsonaren beharrianak asetzeko, ondasunak (ingurumenekoak eta ondarekoak) eta gizalanez lortutakoak behar izaten ditugu. Horrexegatik ez da aski loturetatik aske izatea. Askea izan beharra dago, noski, nor bere buruaren, hitzaren, ekintzaren jabe izateko; engainuarekin burua jan eta bortxarekin eskua lotzen digun hartatik aske izan. Erabakimenik eta ekinbiderik gabe ez dago pertsona askea izaterik. Burujabe izateko, baina, nork bere buruaren eta lanaren jabe ere izan behar du.

Giza jokabidearen inguruko burubide horiek Arizmendiarrietaren haurtzaroko eta nerabezaroko gizarte-giroan erabat daude errotuak. Euskaldunen tradizioan –euskarazko edukazioan– eta baserriko giroan bada esaera bat, *Zuzenbide pirenaikoa* izenekoaren barnean, «familia aurrera ateratzeko ardura», alegia, oinordekoari agintzen zitzaiona (agintean hartu = besteekiko erantzukizunez aritzeko hitza eman = ondasunak arduraz erabili = gurasoei emandako hitzari zordun izan). Izan ere, euskaldunen irudimenean –eta ohituretan–, ondasun iraunkorrek etxeakoak dira, auzokoak, edo herrikoak. Bere heldutasunean, Arizmendiarrjeta, euskal idatzietan bereziki ikus daitekeen moduan, euskal kulturari (Barandiaranen sokakoa zen) eta foruen tradizioari eta mundu-ikuskerari horri guztiz leiala izan zitzaien.<sup>2</sup> Bergarako eta bereziki Gasteizko Elizbarrutiko seminarioan, Arizmendiarrjetak, euskal jendeak

inguratua eta hezia, euskaltasunean aurkitu zituen tradizioa, fede kristaua eta espiritualtasuna landu eta bizitzeko modua. Ondasunekiko harreman berezi horretan, bestearekiko erantzukizuna zetzan sakonean (horixe zen «euskaldunki jokatzea», Arizmendiarrietaren hitzetan).

Egin dezagun gure analisisian lehen parentesia. Orixek 1949an Nazio Batuek ingelesez eta frantsesez azaldutako Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala itzuli zuen, 'Gizonaren eskubidegai guzietaz aitorkizuna' izenburuarekin (Orixek 1949).

Hirugarren artikulua honela dio euskaraz: «Norbanako guztiak dute bizitzeko, aske izateko eta segurtasunerako eskubidea». Orixek, aldiz, beste era honetan utzi zuen itzulita: «Zor zaio edozein gizoni, bizia, bere esku izatea ta segurantzia». Gaur esango genuke Orixek euskaratik itzuli zuela, euskaraz edo ingelesez edo errusieraz egin ohi den itzulpenari oso bestelako esanahia emanda. Euskaratik eginiko itzulpenak –euskarazko izpirituarekin, alegia– pertsonari, auzokideari eta naturari zor zaion hartu-eta-emaneko harremana («bestearenganako zorra») azaleratzen du.<sup>3</sup>

Euskaldunen gizarte tradizioan, pertsona, hain zuzen ere, lanari zor zaio («euskalduna lanetik eta lanean egin izanda», errepikatzen zuen Arizmendiarrietak). Pertsonak lanaren jabe izatearen egitasmoa (gizalana, auzolana, herrilana) Arizmendiarrietak etxetik jasotako kulturen zetzan. Arizmendiarrietak pertsonari buruz orokorrean eta pertsona zehatzari buruz idatzi zuen, baina kasu bietan pertsona ez da izate metafisikoa, baizik eta pertsona bere agerpen historikoan ulertuta. Hortik interpretatu behar dugu, nire ustez, Arizmendiarrietak helduaroan industriako lanari buruz izan zuen teologia positiboa ere.

Euskaldunen gizarte tradizioan, pertsona lanari zor zaio. Pertsonak lanaren jabe izatearen egitasmoa (gizalana, auzolana, herrilana) Arizmendiarrietak etxetik jasotako kulturen zetzan

Arizmendiarrietak abiapuntu kristaua zuen («pertsona orori aitortu behar zaio duintasun eta norako bereko herri-tartasuna»), baina horri euskal senaren zehaztapen inportantea gaineratzen zion. Haren ustetan, pertsonak erantzuleak izango badira, jaki-tokia betea izatea ez da aski; euren eskuen jabe ere izan behar dute, eta lanaren eremuan zekusan eskuen gaineko jabetzaren muina. Hori dela eta, «propietatearen eta lanaren arteko banaketari amaiera eman beharko zaio». (Propietatea arrotza izan da euskaldunontzat *Pirinioetako zuzenbidea* izenekoaren eraginpean, tradizio erdaldunek zuzenbide erromatarrarekin gureratu bitarte.)

Euskaldunaren begietan, burujabea izateak, bestearikiko zordun garen aldetik, elkarrekikotasunean aritzea ere esan nahi du, beraz. Nork bere buruarekin, bestearekin (seni-tartekoa, bizilaguna, auzokidea) eta inguruarekin arduraz jokatzeta, alegia («gizabidea», gizalegez jokatzeta). «Janak eta edanak bearrezkoak ditugu, baiña gizabidea elburu», Barandiaranen hitzetan esateko.

Egin dezagun bigarren parentesia. Barandiaran etsipenak jota zegoen, ikusita euskaldunok sakon-sakoneko nahasmena genuela gure sentieran, pentsaeran eta jokaeran. Bizi-asmoen lausotzea, helburuko galdera moralen nahas-mahasa, azken unean. Engrazio Arantzadi gordinagoa zen: euskal kulturaren oinarri nagusi diren etnia, hizkuntza, historia eta erlijioa, baserri-giroaren etengabeko ordezkatzearekin batera, krisi espiritual larrian zekuskien, tradizio arrotz, industrial eta eskulangilearen etorrera zela eta. Arizmendiarrietak gertutik ezagutzen zituen Barandiaran eta Arantzadi. Horren harira, Setien gotzainak badu zehaztasun bat egina (Ibarzabal 1949: 49): Barandiaranek esana da euskaldunok gizarte-giro industrial (hirira lekualdatzea, lantegia, ordainsaria, balioen aldaketa) guretik bizitzeko arazoak izan ditugula, ez dugula jakin izan euskaldun gisa industrian eta lantokian egokitzen, baina azpimarratzekoa da nekazaritza-mundutik lan-mundurako trantsizioa eta gizarte-ordena berriaren urraketa euskal abade baten lidergoarekin gizabideratu izana, hain zuzen ere.



Arizmendiarietaren euskal tradizioak, nire ustez, garrantzi berezia du gure baserri-jardun eta bizierarekiko mundu oso ezberdinean ere, «euskaldunki bizitzen jarraitzeko» aukerak erein dizkigun heinean. Pertsonen burujabetzak eta auzolaneko lankidetzak –norkidetzak, nor burujabeen arteko kidetza, auzokidetzak librea– gure baserri giroko tradizioari jarraipena ematen dio, eta Arizmendiarieta bizitzaren ortzemuga horri atxiki zitzaion. Euskaldunontzat, gizabideak esan nahi du pertsonaren erantzukizuna eta nor bere buruaz eta eskuaz bestearekiko zordun den heinean gizalegez aritzea. Giza izanari dagozkion sentiera, pentsaera eta jokaera bereizgarri horrek zertu du euskaldunaren gizabidea (gure izanbide etikoari buruzko kontakizun subjektiboa, bederen).

## **Pertsonalismo kristaua**

Euskaldunok, hein handi batean, pentsamendu kristau-demokratikak (Agirre, Santamaria, Arizmendiarieta) herribideratu gaitu krisi espiritual eta kulturalaren atakan. Bigarren gogoeta-lerro modura, pertsonalismo kristauak Arizmendiarietaren pentsamenduan izaniko eragina argituko dut.

xix. mendearen azken herenetik eta Bigarren Mundu Gerrara bitartean, tradizio filosofiko eta ideologikoek morala izan dute jomuga (klase nagusiaren balioak, erlijioaren eta burgesiaren balioak, kristau errukiorren balioak, giza natura ukatzeko balioak) (ikus, esate baterako, Azurmendi 1989). Alde horretatik, xx. mendearen lehen herenean, burgesiaren postulatu moralen aurkako errebolta eta iraultza eta bortxarekiko lilura nagusitu ziren Europan (Arendt 1951); Arizmendiarietaren pentsaeran eta jokaeran –pertsonalismoaren eraginpean–, aldiz, kristautasuna eraberritzeko bozkazioa eta ahalegina nabarmendu ziren.

Azken batean, pertsonalismoa ere bizitzaren zentzuaren bilaketa bat da. Filosofiaren historia osoan eta kultura orok bezalaxe, pertsonalismoak bizitzari zentzu bat ematen dio. Hemen, jakina, Schopenhauer (Unamuno, Mirande)<sup>4</sup> edota

bi mundu gerren arteko eta ondorengo existentzialismoa eta 'ezereza' eta 'ezdeusa' (Sartre, Heidegger, Txillardegi) eta Arizmendiarieta eta Santamaria alderatzen ari naiz.<sup>5</sup> Alde horretatik, azpimarratzekoa da Azurmendik historiaren filosofiaz eta, beste maila batean, antropologia filosofikoaz irakatsi digun guztia. Gomutan izan behar dugu gizakia bere nahasmenaren jakitun den garaian ('gizakiaren tragedia', 'pentsamendu mendebaldarraren krisia') gaudela. Garai oso berezia da. Beste maila batean, europar faxismoa, hilketa-zelaiak, bi mundu gerreak, estalinismoa eta Espainiako gerra zibila garai hartakoak dira. Materialismoari ere kosta egin zitzaion pertsonaren auzia berariak alboan uztea (oroit Garaudy eta Schaff). Ingurumari hartan, pertsonaren dimentsio transzendentea eta zentzuaren bilaketa (plano indibidualean, historikoan eta kosmikoan), alde edo moldez, lehen lerroa itzuli ziren.

Pertsona burujabeari buruzko gogoetan datza, hain zuzen ere, Arizmendiarietaren ekarpen nagusia. Gogoan izan dezagun pertsonalismoak (gure kasuan, bereziki tradizio fran-

tziarra, *Esprit* aldizkariaren sokakoa: 1934. urteaz geroztik, *Euzkadi* aldizkarian bazegoen *Esprit Nouveau* sekzioa) pertsonaren kontzientzian aitortzen dituela absolutua eta sakratua.

Geure buruaren jabe izateak esan nahi du geure buruaz jabetzea (kontzientzia hartzearen zentzuan), eta, jabe izate horrekin batera, harturiko erabakiez eta erabakien ondorioez jabe egitea (erantzukizuna hartzearen zentzuan).

Natura hutsa gainditu (transzendentzia), eta pertsona (askatasuna, kontzientzia, erantzukizuna) eraldatua da Arizmendiarietak dakusana (Kant eta bereziki Maritainen pertsonalismo kristaua dira haren

Pertsona burujabeari  
buruzko gogoetan datza  
Arizmendiarietaren  
ekarpen nagusia.  
Gogoan izan dezagun  
pertsonalismoak  
pertsonaren kontzientzian  
aitortzen dituela  
absolutua eta sakratua

erreferentzia nagusiak, zehazki). Arizmendiarrietak honela dio: «Pertsonaren kontzientzian dago gakoak».

Idea horretan dago Arizmendiarrietaren sentieraren, jokatibidearen eta pentsaeraren helburu eta gizabideen funtsa. Nor bere buruaz jabetzea, gertatzen zaizkigun egoeren zergatiaz galdetzea eta hoberako bidez galdegitea (autokontzientzia), eta nor bere buru eta eskuen eta jardueren ondorioen jabe egitea (erantzukizuna), hots, «subjektu morala». Arizmendiarrietaren kasuan, beraz, pertsonaz ari garenean, subjektu moralaz ari gara (pertsona ez da indibidua, mundu materialeko esperientzia sentigarri soila, fenomeno naturala, sena, helburuetarako bitartekoa), baizik eta nor bakarra eta transzendentea.

Pertsonalismoak eta Arizmendiarrietak gizartea diru bidezko harremanetara moralki makurtua dakusate, baina pertsonen beharrezan ipintzen dute arreta, beharrezan fisiologiko, psikosozial eta moralean, eta gizakia naturaz kooperatiboa, komunikatiboa eta komunitatezalea irudikatzen dute, bestalde. Pertsonalisten aburuz, gizakiak naturan berez du kooperaziorako sena (kooperatzea gauza naturala da); erlijio kristauak ere berariaz du Jainkoa eta lagun hurkoa anaitasunean maitatzeko pentsaera etiko-morala. Arizmendiarrietaren kasuan, euskarazko tradizioak erabateko garrantzia du diogun horren kausa eta ondorioetan –auzo eta lankidetzako espiritualtasunean, alegia–. Kristau etorriko euskal tradizioari eman zion jarraibidea, beraz.

Alde horretatik, «humanismo berria» (Maritain) pertsonaren burujabetzan zetzan, eta horrek «Aro industrialeko egitura kapitalista, ideologia liberala eta etika burgesa irauli eta ordena sozial berria ekarriko zuen» (Mounier). Ipar edo norabide horretan, Arizmendiarrietak lehen unetik ulertu zuen –«gizaki berriarentzat gizarte-ordena berria» erdietsiko bazen– pertsonak, askatasun politikoa ez ezik, kontzientzia espirituala eta askatasun soziala behar zituela.

Hori da pertsonalismoak, xx. mendeko pentsamenduen krisi giroan, formulatu zuen auzia, eta asmo horren

egitean datza –«pertsonek askatasunean berdinak»– Arizmendiarrietaren ekarria (beraren praxiak erakutsi zuen ez zela idealismoa, hain zuzen ere). Herrigintza demokraziaren bidetik urratzeko egitasmoa da; alegia, pertsona bakoitzaren kontzientzian eta erantzukizunezko auzolanean oinarritu eta kooperatibagintzan sustraituriko herrigintza («inposizio arrotzak alde batera utzirik [...] pertsona da guztiaren oinarria»).

### **Aitzindarien transzendentzia ikuspegia eta existentziaren zentzua**

Garai hartako gizarte-giroan, denak ez ziren, noski, gizarte-eredu berriaren zaleak, eta zaletuen artean, berriz, asmo eta egite ugari zegoen. Orain arteko bi ataletan pentsaerari buruzko argibideak emanda, hirugarren atal honek galdera praktikoago bati erantzun nahi dio: nola ernatu diren Arizmendiarrietaren herri asmotik kooperatibak (pertsona burujabeek osaturiko herri-ekimeneko erakunde demokratikoak).

Alde batetik, Arizmendiarrietaren autoritate morala (Max Weberren adieran, alegia, ezagutza eta karisma handiko pertsona) azpimarratu behar da (Weber 1978 [1921-1922]). Arrasateko estreinako kooperatiben abiarazleek Arizmendiarrietari aitortzen diote eraldaketa garabideratzeko lidergoa eta ekintzarako motibazioa eta kultura espirituala barnerratu izana. Lehen taldeburuaren kondizio subjektiboan ekonomia eta lan-harremanak zentzu burujabearekin antolatuta diren neurri berean, kooperatiben bokazio instituzionala Arizmendiarrietaren burubidean eta inspirazioan ernatu da.

Bestalde, Larrañagak eta Ormaetxeak euren testigantzetan jasoak aletuz gero, zera baieztatu daitezke: aitzindariak euskal tradizioa berrasmatzeko eta biziberritzeko konpromisoa hartzea bihotzean, gogamenean eta portaeretan balio moral sendoak barnerratzeari zor zaio; zehazki, Arizmendiarrietaren fede kristauaren zabalkundeari eta hezkuntza-ekintzari. Horretaz ere Weberrek baditu argibideak: lanaren eta ekonomiaren

antolaketa kooperatiboa pertsonen kondizio subjektiboari –ezagutzak, egiten jakitea, portaera etikoa, konbikzioak, sinesmenak– estu-estu lotzen zaizkio (Weber 2011 [1930]).

Hori guztia ulertzeko, noski, Ekintza Katolikoaren egitasmoa (Pio x.a Eliza katolikoko aita santuaren 1905eko *Il fermo proposito* entziklikan oinarritua) gogoan hartu behar du-  
gu. Arizmendiarrietak laikoen apostolutzaren bidez Eliza eta familia birlotzeko xedea lantegi-molde berri batekin garabideratu nahi izan zuen. Ikasle garaietan, bestalde, Elizaren doktrina soziala barneratu zuen Arizmendiarrietak, eta bi entziklika (Leon XIII.aren *Rerum Novarum* eta Pio XI.aren *Quadragesimo Anno*) ikaragarri baliozkoak izan zitzaizkion

nekezari giroko nortasunari eta tradizioari eutsiz auzi sozialari aterabidea nola eman burubideratzeko.

Arizmendiarrietak pertsona lotuaren eta loteslearen kontzientzia sendoa zuen (erlijioa = *relegere* = Jainkoarekin lotu eta biak bat egin); zehazki, errealitate pertsonala ulertzeko eta munduan kokatzeko modu fededuna (haren kasuan, kontzientzia loteslea eta erantzulea fede kristauan zetzan). Weberrengandik ikasi duguna da portaerek –ekonomia antolatzeke moduak, esate baterako– jarrerren, balioen eta sinesmenen unibertso etikotik edaten dutel; lehen kooperatibisten elkartasuna eta bokazio eraldatzailea preseski kultura loteslean, elkarrekikoan eta erantzulean zetzan (transzendentzia ikuspegia eta existentziaren zentzua, euren kasuan kristau-sinesmenean datzana). Kooperatiben zentzuan eta motibazioan, argi eta garbi azaleratzen dira burujabetzan oinarrituriko sinesmena eta erabakimena, eta hori sakon-sakonean transzendentziari eta espiritualtasunari zor zaio.

Kooperatiben zentzuan eta motibazioan, argi eta garbi azaleratzen dira burujabetzan oinarritutako sinesmena eta erabakimena, eta hori sakon-sakonean transzendentziari eta espiritualtasunari zor zaio

Arizmendiarrietaren pentsamendua eta egitasmoa, beraz, pertsonarengan fedea izateko gonbita dira. Horretarako, baina, pertsonak bere burua aurkituko badu, helburuko galderari lotu behar zaie («gizabidea helburu» duten galderak eta praxiak, alegia). Hori dela eta, Arizmendiarrietak argi zuen lantegiko kideetako bakoitzean kondizio subjektiboa birsortzea eta jokabide etikoa premiazkoak zirela; bestela esanda, arlo tekniko eta profesionalean onak eta zailduak ez ezik barne-bizitza aberats, sinestun eta sakoneko pertsonak behar zirela (hezkuntzaren eta formazio kooperatiboaren gaineko ikusmolde zabala zuen, hain zuzen ere). Pertsona sublimeak bezalaxe, pertsona hezur-haragizkoak. (Mendebaldeko historiaren filosofia osoak aise ahaztu izan duen pertsona konkretua, zehazki.)

Arizmendiarrietaren pentsaeran, pertsona (subjektu moral gisa ulertua, bat eta bakarra, nor bere buruaren jabe eta erantzulea) zentrala da. Hori dela eta, kooperatibak –elkartasuna, lankidetzeta, komunitatea– sortu aurretik eta ondorenean, formazio kultural eta espiritualala hauspotzeko ahalegina etengabea izan zen (nor-tasuna beti da egin-kizun kooperatiboa). Burujabetzaren aldeko bokazio garbiarekin, hezkuntza (nor bere buruaren jabe) eta lana (nor bere eskuen jabe) izan ziren hain zuzen ere Arizmendiarrietaren bi erregai eta bitarteko nagusiak. Ormaetxeak hamaikatzotan gogorarazi digu formazio integral eta espiritualaren garrantzia dela euren jokabide eta sentieraren bizi-indarra. Beste era batera ere formulatu liteke: pertsonen arteko lankidetzeta eta enpresa kooperatiboa diskurtso erlijioso batean bilduak daude.

Dударик gabe, ikuspuntu filosofiko pertsonalista egiazko praktika sozial bilakatu izana da Arizmendiarrietaren ekarri nagusia. Pertsona batean, klase batean, estatu-aparatu batean ez, baizik eta bere buruaren jabe diren pertsonen erantzukizunean oinarritu da Arizmendiarrietaren herri-gogoa. Arizmendiarrietak lantegian eta, hedaduraz, auzoan herrikidetzeta aitortu zien pertsoneri, eta herrikidetzara behartu zituen. Hori da demokrazia: batzarkide aitortzea eta herrigintzari

zordun izatea. Kooperatibetan, halakoak nahi zituen pertsonak, langile-bazkideak: jakinaren gainean hitz egiten duten eta emandako hitzaren jabe diren herrikideak; pertsonen arteko harremanak (hartu eta emanak) arautzen dituzten auziak ezagutu, eztabaidatu, ebatzi, betearazi eta zaintzeko beren hitzaren eta lanaren jabe direnak; hitza hartu eta betetzen duten pertsona erantzuleak.

Diktadura politikoaren, tradizio kapitalista eta indibidualaren, sozialismo burokratiko eta kolektibistaren («giza ari-maren kolektibizatzea», Santamariaren adiera uzkurrian), borroka subertsiboaren eta beste hainbat baldintzapen objektibo eta subjektiboren artean («gizakiaren tragedia»), pertsonak erdigunean ipiniz, gizarte harremanak eraldatuz eta beren buruaren jabe izanez egitura kooperatiboak sortzea aukeretako bat baizik ezin zitekeen izan. Arizmendiarrietak, hain zuzen ere, lantegian langilea pertsona izateko egitas-moa landu zuen.

Demokrazia (*demos*, auzoa) ekonomiaren arloan (οικονομία, etxearen arautzea) burubideratzeak iradokitzen digu hitza eta lana, auzoa (hitzaren jabe izatea) eta lantegia (bere lanaren jabe izatea) elkarrekin eskutik datozela. Hitzaren eta lanaren jabe izate horretan, ostera ere burujabetzaren nozio argia ageri da; alegia, askea izatea eta erantzulea izatea eskutik datoz Arizmendiarrietaren pentsamenduan. xx. mendean zehar, Legearen eta Bortxaren artean kulunkatu dira zera bakar batean (subiranoa, nazioa, proletarioa, nagusia) sinetsita aritu direnak, gertakizun baten zain (iraultza, hasiera absolutua, gertakizun fundatzailea), baina Arizmendiarrietak hitzaren eta lanaren jabetzan zekusan herrikidea. Alde horretatik, aise igar daiteke Maritainen eragina. Norakoa herri-gintzan zetzan; egunero egiten delako, egin-kizun zen, beraz. Azken batean, estreinako lider eta sortzaileen erabakimen pertsonala (kooperatibak sortzea, ordainsari-sistema orekatua bere egitea) eta bazkideen jarduteko modua (enpleguaren sorrera lehenestea, aurrerakinen sistema onartzea, lantegian erantzukizunak hartzea) pertsonaren hautu moralean zeutzan.

Pertsonalismoa arlo sozialera ekarrita, Arizmendiarrietak zera dio: «Kontzientzia pertsonalen eraldaketa-erritmoa errespetatu beharra dago». Bestela esanda, ordena sozial berria lankide bakoitzaren kontzientzian eta erantzukizunean datza. Hori da gakoa, eta horrek esplikatzeko dituzko kooperatibak, demokrazia eta parte-hartzean oinarrituriko laneko harremanak eta ekonomiaren antolaketa. Pertsonalismoak, hain zuzen ere, gizaki bakoitzari zentzu propio autonomoa eman dio historiaren filosofian.

Atal honetan planteatu dudako tesiarekin bat eginez, Azurmendik honela interpelatu gaitu: «Kontzientzia ko-

Azurmendiren Euskal Herria ez da inolaz erromantizismo koloretako betaurrekoz ikus daitekeena. Nahiago du euskal politikari eta pentsamenduari gaurkotasan urgentziazkotik heldu

ratiboak historiaren filosofia propio bat ikasi behar du, giza historia (lana, ekonomia, politika) modu propioan interpretatzeko ikuspegi propioa garatu, eta arabera konprometatu gizarte ekintzan». Izan ere, herri gintzan historiaren ideia bat eta gizakiaren eta gizartearen kontzeptu bat lehenesten diren heinean, kontzientziak (zer naiz ni moralki eta zer nahi dut) balio batzuk hobesten dituzte. Horixe egiaztatzen digute


lehen kooperatibisten pentsaerak, sentierak eta jokabideak, hain zuzen ere.

### **Azken ohar batzuk**

Arizmendiarrietaren pentsaera haren idatzietatik interpretatzea eta haren idatzietan zerk eragin ote duen galdetzea da gure arduretako bat, zalantzarik gabe. Hemen esanikoen aldean, gehiago sakondu beharrean gaude haren gizarte-giroan eta xx. mendearen lehen erdialde osoko pentsaeraren eta jokabideen arteko harremanetan, noski.



Sei mila fitxa eskuidatzi baino gehiago daude jasota, han-hemenka era batera edo bestera argitara eman direnak. Eusko Ikaskuntzak 11.000 artxibo inguru jarriak ditu jabari publikoan, Arizmendiarrietaren dokumentu funtsari dagozkion liburu, eskuizkribu, fitxa, pentsamendu eta argazkiak, eta, zehazki, Euskomedia Fundazioak hamahiru liburukitan bereizi eta ipini ditu eskura idazki nagusiak. Arretaz irakurtzea merezi duten hamaika gai ageri dira, batzuk ezagunak (pertsona, lantegia, Jainkoa, beharrezana, lanbide heziketa, aurrezki kutxa, formazio kooperatiboa), baina baita pentsamendu filosofikoari, ezagutza soziologikoari edota herriko gizarte-giroari buruzko altxorrek ere. Arizmendiarrietak aparteko jakintza eta jakin-mina zituen.

xx. mendearen lehen zatiko gizarte-giroan ideia-emari aski sendoa eta aberasgarria zegoen, eta Arizmendiarrietaren asmoa eta egina ikuspuntu askotatik irakurri eta uler daiteke, jakina. Azurmendiren doktorego tesia da horren adibidea. Badira, ordea, Arizmendiarrietari buruz aritzean sarriegitan gutxietsi diren hainbat ezaugarri, haren garaiko gizarte giroan sendoak, eta nor izatean aparteko garrantzia izan dutenak. Horietako bat euskaldun izatea da (euskarazko kultura, ohitura, legea), bestea abadetasuna (tradizio kristauko Jainkoa eta lagun hurkoa maitatzea); eta bi etorri horiei jarraibidea emateko ahalegina mutikotatik bere egin zuen Arizmendiarrietak, bokazio handiz. Lan honetan, euskal tradizioan eta pertsonalismo kristauan ipini nahi izan dut arreta, eta gaineratu dut lehen kooperatibisten portaera fede kristauaren hautu moral sendoan oinarritzen dela. Arizmendiarrietaren sinesmenaren erroko ideia zera da: nor izatean nork bere burua eraldatzea dela gakoa. Arizmendiarrietak, asmoz eta egitez, abade herrigilea zen. Hari horrek gehiago urratzea merezi du. 

### **Oharrak**

1. Lau dira gehien baliatu ditudan lanak: *Gizona abere hutsa da* (1975), *El hombre cooperativo. Pensamiento de Arizmendiarrieta* (1984), *Gizaberearen bakeak eta gerrak* (1991) eta *Gizabere kooperatiboaz* (2016).
2. Patxi Juaristik badu lan eder askoa euskaldunok ohituraz ondasunekiko izan ditugun harremani buruz (Juaristi 2001).
3. Horren argitan berrirakur genitzake Orixeri buruzko Azurmendiren bi liburukiak: *Zer dugu Orixeren kontra* (1976) eta *Zer dugu Orixeren alde* (1977).
4. Besterik ezean, Mirandek eta hari buruz Azurmendik eginiko lanek aipamena merezi dute (Azurmendi 1978).
5. Ikaragarria da Karlos Santamariari eta haren pentsaera, sentiera eta jokaera pertsonalistari buruz urte luzeetan Azurmendik egin duen lana (Azurmendi 2013).

### **Bibliografia**

- Arendt, Hannah (1951): *The Burden of Our Time*, Londres, Secker & Warburg.
- Azurmendi, Joxe (1975): *Gizona abere hutsa da*, Tolosa, Jakin.
- (1976): *Zer dugu Orixeren kontra*, Tolosa, Jakin.
- (1977): *Zer dugu Orixeren alde*, Tolosa, Jakin.
- (1978): *Mirande eta kristautasuna*, Donostia, Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa.
- (1984): *El hombre cooperativo. Pensamiento de Arizmendiarrieta*, Donostia, Lan Kide Aurrezkia.
- (1989): *Schopenhauer, Nietzsche, Spengler Miranderen pentsamenduan*, Donostia, Susa.
- (1991): *Gizaberearen bakeak eta gerrak*, Donostia, Elkar.
- (2013): *Karlos Santamariaren pentsamendua*, Donostia, Jakin eta EHU.
- (2016): *Gizabere kooperatiboaz*, Donostia, Jakin. *Jakin Irakurgaiak* bilduma 47.
- Ibarzabal, Eugenio (1949): *José María Setién. Conversaciones con Eugenio Ibarzábal*, Donostia, Erein.
- Juaristi, Patxi (2001): *Euskaldunak eta ondasunak*, Iruñea, Pamiela.
- Orixe (1949): 'Gizonaren eskubidegai guzietaz aitorkizuna', *Euzko Gogoia* 1, 3-4: 33-36.
- Weber, Max (1978 [1921-1922]): *Economy and Society. An Outline of Interpretive Sociology*, Berkeley, University of California Press.
- (2011 [1930]): *The Protestant Ethic and the Spirit of Capitalism*, Oxford, Oxford University Press.

# Azurmendi: euskara batuaren bilbe eta irazki

Miren Azkarate Villar

UPV/EHUko Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa Saileko irakaslea eta euskaltzain osoa

**E**uskaltzaindiaren sorreraren mendeurrena eta euskara batuaren hasieraren 50. urteurrenak bat egin dute 2019an Joxe Azurmendi Kongresuaren antolatetarekin. Artikulu honetan, hain zuzen ere, Azurmendik euskararen batasunari egindako ekarpena nahi genuke aztertu.<sup>1</sup>

Bi gertakari nabarmendu dituzte ikertzaileek euskararen estandarizazioa aztertzean: batetik, urte gutxian lortu izana morfologia, lexiko nahiz terminologiarako eredu estandarra (baita sintaxirako ere neurri handi batean). Bestetik, eredu estandar horrek gizartean izan duen harrera eta onarpen zabala (Hualde eta Zuazo 2007, Garabide Elkartea 2010, Salaburu eta Alberdi 2012). Beste hitz batzuetan esanda, hizkuntza bera prestatzea edozein arlotan erabili ahal izateko, batetik, eta hizkuntza hori edozein eremutan erabili ahal izateko plangintza, bestetik. *Corpus* plangintza eta *estatus* plangintza, alegia.

Euskal Herriko Unibertsitateak Euskaltzaindiari Urrezko Domina eman zionean, niri egokitu zitzaidan *laudatioa* egitea. Mendeurrenerako aukeratutako goiburua hartu nuen neure goresmen hitzen abiaburu: *100 urte Euskara Ehuntzen*. Zehazki, *ehundu* aditzaren esanahia 'ehuna moldatzea' da.

Izan ere, bi motatako hariak behar dira ekintza horretarako: irazkiko hari multzoa, hau da, elkarren paralelo (goitik behera) ezartzen diren harien multzoa, eta bilbekoa edo zeharkako harien multzoa. Beste hitz batzuekin esanda, elkarlana. Horixe azpimarratu zuen euskaltzainburuak mendeurrenaren amaierako ekitaldian: «Euskal Herriko gizarte-eragileekin batera jardun behar dugu, ahalik eta modu zabalenean, mendeurrenean egin dugun bezala». Gizarte-eragile horiek hartu nituen orduan, Euskaltzaindiarekin batera, irazkiko hari multzotzat. Hizkuntza bera prestatzen lankide izan direnak.

Zein ziren bilbeko hariak? Euskaltzaindia sortzeko eta bere lana aurrera eramateko garai bakoitzean, giro egokia sortu duten eragile eta erakundeak. Hari multzo baten artetik beste hau igaroaraziz –esan nuen– ehundu da euskara mende batean zehar. Eredu batuaren zabalkundean lankide izan direnak.

Hitz haiek izan nituen gogoan Azurmendiren omenezko kongresuko hitzaldiari izena ematean. Horixe izan zen hitzaldiaren helburua eta horixe da artikulua honen helburua ere: argitzea zertan izan den Azurmendi euskara batuaren bilbe, eta zertan euskara batuaren irazki. Jakin Taldeak eskura jarri dizkigu, digitalizaturik, Azurmendiren lan guztiak. Ez dago, beraz, zertan ibili 1960 edo 1970eko hamarkadetako lanen bila. Hortxe ditugu guztiak sarean erraz kontsultatzeko moduan.

Euskararen eta bereziki euskara batuaren gaineko artikulua, artikulua batzuk izango ditut hemen hizpide. Izan ere, lan honen mugak gaitutuko lituzke Azurmendik euskararen ereduaz eta batasunaz nahiz euskararen estatusaz idatzitako guztiaren azterketa xeheak. Uste dut, hala ere, egindako hautaketak argi utziko duela nolakoa izan den Azurmendiren eta, oro har, Jakin Talde osoaren ekarpena.

## **Haugenen lau faseak. Corpus eta estatus plangintza**

Hizkuntzen estandarizazioaz ari garela, ezagunak eta erabiliak dira gaur ere Einar Haugen soziolinguistikak (1987a,

1987b) bereizi zituen lau faseak:<sup>2</sup> hautatzea, kodetzea, inplementazioa eta elaborazioa. Honela ekarri ditu euskarara *Soziolinguistika Hiztegia*-k (2010) fase horien definizioak.

*Hautatzea*. Hizkuntza bat estandarizatzeko lehen fasea; hizkuntza-barietate bat edo barietate multzo jakin bat estandarizazioa egiteko oinarri gisa hobestea. Hizkuntza jakin baten aldaera bakarra aukeratzeari hautatze monozentriko esaten zaio. Aldaera bateko baino gehiagotako ezaugarriak, elementuak hartzeari, berriz, hautatze polizentriko.

*Kodetzea*. Aldaera estandarra finkatzeko arauak ezartzea (grafizazioa edo ortografia ezartzea, gramatikalizazioa edo arau morfolo­giko eta sintaktikoak finkatzea, lexikalizazioa edo ondare lexikoa finkatzea).

*Inplementazioa*. Hizkuntzaren barietate estandarra (hez­kuntza-sistemaren bidez) biztanlerian hedatzea eta komu­nikazio formalaren esparrura eramatea.

*Elaborazioa (lantzea)*. Aldaera estandar arautua egunera­ tzea, aberastea eta komunikazio-funtzio guztietarako balia­ garri egitea.


Kodetzeak arrakasta izaten du gizarteak onartzen badu; inplementazioa ondo ateratzen da, gobernu bat, erakundeak atzetik dituenen (hau da, arautu den aldaera eskoletan-eta ezartzen bada). Euskararen kasuan, guztiek azpimarratu dute batuak izan duen harrera zaba­ la. Eta inplementazioari dago­ kionez, erabakigarria izan zen, 1980ko hamarkadan, euskara hezkuntzara, hedabide publi­ koetara eta administrazioa hedatu zenean, garai hartako Jaurlaritzak eredu batua bul­ tzatu izana.

Haugenen lau faseko bide hori, bestalde, sarrerako pun­ tuan aipatu dugun *corpus* eta *estatus* plangintzarekin gurutza

Hizkuntzen estandarizazioaz ari garela, ezagunak eta erabiliak dira gaur ere Haugen soziolinguistak bereizi zituen lau faseak: hautatzea, kodetzea, inplementazioa eta elaborazioa

daiteke: kodetzeak eta elaborazioak hizkuntzaren alderdi linguistikoa lantzen dute, horretan oinarritzen dira. Hautatzeak eta inplementazioak, aldiz, hizkuntzaren alderdi sozialarekin dute zerikusia. Izan ere, estandarerako aldaera(k) hautatzean, hainbat eragilek hartzen dute parte: hizkuntza-akademiek, erakunde publikoek, kultura eta hizkuntza elkarteek, hizkuntza arloko eragileek (guk *euskalgintza* deitzen dugun mundu horrek)... (Coupland eta Kristiansen 2011). Zerikusi handia izaten du hautatze fasean aldaera jakin batek edo batzuek duten prestigioak, esaterako. Berdin gertatzen da inplementazio fasean ere.

Eta lan honen hasieran aipatu ditudan *bilbe* eta *irazki* lanak gehitzen badizkiegu Haugenen lau faseei eta *corpus vs estatus* plangintzari, honako irudi hau izango dugu:



Zein izan da, baina, Azurmendiren ekarpena fase hauetako bakoitzean? Hurrengo puntuan saiatuko naiz galdera horri erantzuten. Baina ohar bat egin nahi dut aldezturik: Azurmendi aipatzean, askotan talde bat ikusiko dugu, *jakinlariak*, berarekin batera lanean. Pertsona bakar baten ekarpena baino areago, talde oso batena izan da. Horrelaxe ikusi du, esango nuke, Azurmendik berak ere.

## Euskara batua: Azurmendiren ekarpena

*Hautatze fasea.* Gipuzkera zen, bere ustez, batasunerako oinarri sendoena ematen zuena: zabalkunde handiena zuen euskalkia zen, Loiola Irratia entzuten zen gehien, abestiek ere gipuzkerarantz jo zuten ('Euskal Akademiaren urrezko ezteguetan', 1968), baina artikulu horretan bertan eskatzen du beste euskalkiak baztertu gabe egin dadila batasuna; euskalkietako gauza on eta eder asko jaso eta zabaltzearen alde agertu zen. Plurizentrismoaren aldeko jarrera hori nabarmenago ikusten da, izenburutik bertatik, 'Gipuzkera bai, lapurtera ere bai' (Azurmendi 1972) artikuluan:

Ba dirudi lapurtera modernoak euskerari kontuan eduki beharreko posibilitateak eskeintzen dizkiola, gipuzkerarenak ukatu gabe, euskera aberasten dutenak, aditzari buruz, batipat. Zergatik ez ditu euskera batu batek lapurteraren posibilitate horiek jaso behar, gipuzkeraren osatzaile bezala?

Ñabardurak ñabardura, Villasantek ere (1988) nabarmendu zuen gipuzkeraren sendotasuna, baina lapurtera ere ezin utzizko zela euskara batua eratzean. Bestalde, Azurmendik argi zuen hainbat eragilek hartu behar zutela parte eredu batua hautatzean: «Euskera batuaren arazoak ez du inola ere teknikoen arazo hutsa izan behar. Irakurleriak eta idazleek ba dute botoa edo, gutxienean, euren iritzia azaltzeko eskubidea eta betebeharra» (Azurmendi 1972).

*Kodetze fasea.* Euskararen kasuan, Euskaltzaindia izan da 1968an hasi zen estandarizazioaren gidaria. Euskaltzaindiak finkatu zuen ortografia, Euskaltzaindiak hartu zituen morfologiaren gaineko erabakiak (aditz laguntzaile batua, erakusleak, kasu-markak...), eta abar. Baina gauza jakina da Euskaltzaindiak hainbat idazlek 1964an Baionan hartutako erabakiak (Davant 2005) izan zituela aurrean. Idazle horiek ezinbesteko ikusten zuten idazkeran, «deklinazioan», aditz laguntzailean edo 'h'-aren erabileran eredu batu baten beharra. Jakin Taldekoek ere behar bera ikusi zuten, Euskaltzaindiak erabakiak hartu arte eta Euskaltzaindiari gidaritza inola ere

ukatu gabe,<sup>3</sup> aldizkarirako idazteko modu bateratu bat aurkitzeko (Torrealdei *et al.* 2018). «1960ko hamarraldian sartu aurretik JAKINEK bere batasun bidea lantzen ziharduen, aldizkariko idazleen artean eta aldizkariari begira» (*ibid.*: 17). Zergatik? Hauxe Azurmendiren erantzuna:

Aldizkariaren txukuntasunerako behar zen batasuna (ez zirudien itxurosoa irakurleak orri batean *det* eta hurrengoan *dot* edo *dut* aurkitzea). Arrazoi pragmatiko soila nahi bada, baina substantziala funtzionatzeko. (Azurmendi 2018: 24)

Eta honela dio Joseba Intxaustik 2018ko JAKIN aldizkariaren zenbaki monografikoan:

[1964an] Lankide guztien idazkera sakabanatuak batasunera biltzeko premia gero eta larriagoa ikusten genuen eta urteroko bile-retan elkartzen hasi ginen [...]. Jada deituta zegoen Baionako Biltzarrerera [...] JAKINEN bileran onartutako arauak proposamen gisa eramatea erabaki zen, ohar txiki bat ondoan zeramala: «Baionan erabakiko zena, aldeztu aurretik onartutzat emango zuela JAKIN aldizkariak». (Intxausti 2018: 21)

Bereziki interesgarria da Azurmendi (2007) hizkuntzaren eta aldizkariaren ereduaren eztabaida ezagutzeko. Euskararen batasuna eta normalizazioa bultzatzea eginkizun zuen aldizkariak, ortografia auziak izan zituzten lehenik hizpide:

Lehen bilera honetan hainbat arau erabaki da: nola idatzi aldizkarian ‘ba’, ‘bait’, ‘ez’ aditz aurrean (enuke, etzegoen); izen propio arrotzen grafia (Voltaire); hitz tekniko arrunten grafia (Filosofia, Fisika, <Ph> gabe); izen nagusia eta atzizkia apostrofoz bereiztea (Donostia’ko, Jesus’en), etab., etab. Arau hauek *Jakin*-en barruan agintzen zuten. (*Ibid.*: 78)

*Inplementazio fasea.* Bi eratako lanak egin zituen Jakin Taldeak inplementazioari dagokionez. Batetik, aldizkarirako hartutako erabakien zabalkundea egin zuten batasunerako bidean laguntzeko (*ibid.*):

*Yakin* aldizkariak kanpora ere batasun au [idazkerarena] lenbailen iritxi dedin, erabaki oien birridazki edo kopiak atera eta euskal idazleei banatzea erabaki zan (*Jakin* 4, 1957, 89).



Bide beretik, Baionako Biltzarrean hartutako erabakiak bere egiteaz gain, zabalkundea ere eman zieten (Agirre 2018). Euskaltzaindiaren Batzarraren aurretik, *Euskara idatzia-ren batasuna* monografia argitaratu zuen JAKINEk. Literatur euskara batu baten aldeko aldarria egin zuen eta Ermuan Euskal Idazleen Lehen Jardunaldietan hartutako erabakien berri eman. Bestetik, Euskaltzaindiaren agiri eta erabakien zabalkundea: 1959ko 'Euskaltzaindiaren agiria euskal hitzei buruz' eta *Batasunaren kutxa* argitalpenari buruzko artikulua (Azurmendi 1970).

Eredu batuaren onarpen eta zabalkunderako, hala ere, ez zen nahikoa garai hartako Hezkuntza eta Kultura sailburuek edo Eusko Jaurlaritzak berak ere aldeko apustua egitea. Gizarte osoaren lana zen euskara eremu guztietara eramatea:

Alfer-alferrik izango dira Gobernuaren asmo onak edo kontseilari batzuen borondate eta delibero pertsonalak. [...] Euskal politikak, Gobernuaren eta oposizioaren eta Alderdi guztien artean ezezik, elizaren, udaletxeen, auzo elkarten, informazio bideen eta hemen gabiltzan guzti-guztion jarduera guztiez osatzen den euskal politikak, euskararen arloan orientazio firme bat hartzen ez badu, berak itoko du euskara, pertsegizioak baino gehiago. (Azurmendi 1980)

*Elaborazio fasea.* JAKINEk digitalizatu dituen 685 liburu, liburuetakoko kapitulu eta artikuluko horietan zehar dago, zalan-tzarik gabe, Azurmendiren *elaborazio* fase honetako ekarpenik handiena.<sup>4</sup> Baina gogoeta interesgarri asko eskaini dizkigute Jakin Taldeak eta Azurmendik berak euskara «noranahikotzeko» ezinbesteko zen terminologiaz. Hasieratik erabaki zuten idazten zituzten lanetan erabilitako kultur hitzak artikuluekin batera bidaltzea, gero hitz horiek guztiak bildu eta kultur hiztegi bezala argitaratzeko JAKINEN. Lan metodoa eta egindako fitxak gero UZEIra pasa ziren. Horrela jokatzuz, espero zuten urte batzuen buruan terminologia teknikoa landuta edukitzea teologia eta filosofiako diziplina ezberdinetan (Azurmendi 2007).

Jakintza-arlo baterako diskurtso berezitua eta terminologia lantzeak, ordea, ezinbestean ekarri ohi du garbizaletasunaren

JAKIN aldizkarian lantzen zituzten gaietarako behar zuten hizkuntza ereduaren eztabaidatik etorri zen ordura arteko eredia ordezkatzeko Orixerekiko haustura

eztabaida: maileguz hartu behar dira terminoak ala hitz berriak sortu hizkuntza horretarako dituen arauak baliatuz? Euskarari dagokionez, Larramendiren Hiztegitik hasita, ez zaigu jokabide baten eta bestearen aldeko adibiderik falta

(ikus, esaterako, Villasante 1988, Azkarate 1997, Hualde eta Zuazo 2007). Jakin Taldeak ere auzi horri aurre egin beharra izan zuen eta, gehienetan, garbizale jokatzeko erabaki zuten: neologismoei eman zieten lehentasuna, nahiz maileguak ere ez zituzten guztiz baztertzeko. Hala gertatu ohi da, bestalde, arlo guztietan erabiltze-

ko egoki izango den aldaera garatu nahian ari diren hizkuntzetan (Kloss-ek (1952) 'Ausbau' Sprache deitu zituenetan); areago oraindik hizkuntza horiek hizkuntza nagusitik oso urrun badaude lingustikoki ('Abstand' Sprache). Baina jokabide garbizaleak dituen arriskuez ere jabetzen ziren:

Ageri denez, jakinlariak de facto garbizaleak dira, eta haien artean eztabaida ez da garbi ala mordoilo, baizik garbi edo total garbi. Eta zeharo garbi ematen du saio batean balio lezakeela, baina ez irakurleak erakarri nahi badira. Horixe zen dilema; gai arinak, errazak, tratatu irakurlea erakartzeko edo euskarak jantzitasuna behar duenez, jakintza gaiak landu, nahiz horretarako hizkuntza landua eta taxutua egon behar. (Azurmendi 2007: 80)

Elaborazio fasean, zehazki, JAKIN aldizkarian lantzen zituzten gaietarako behar zuten hizkuntza ereduaren eztabaidatik etorri zen, hain zuzen, ordura arteko eredia ordezkatzeko Orixerekiko haustura. Hasierako urteetan *jakinlariak* aholkularitzat hartu zuten erbestetik itzuli berria zen Orixe. Goraxeago aipatu ditugun bi bideen artean, esan bezala, bide garbizalea zen nagusia Jakin Taldekoentzat: «Eta, garbizaleak ez baitu ozta ezer adierazten, esan dezagun, Orixeren eredia izan dela teoriar nagusia» (*ibid.*: 82), harik eta Joseba

Intxausti Orixeren kontra jarri zen arte (Azurmendik dioen bezala, Orixeren kontrako matxinadara etorri zen arte). Zergatik gertatu zen jarrera-aldaketa hori? 2007ko artikuluan egiten da kronika zehatza. Hor esaten dituenak eta *Zer dugu Orixeren kontra* liburukoak (1976) batuz gero, erraz ulertzen da zer gertatu zen. Egia da Azurmendik Orixerekiko zorra argi aitortzen duela (ikus, bereziki, 1977ko *Zer dugu Orixeren alde* liburuan, ‘Orixe: galdu ezinezko Autore bat’ eta IV. kapitulua), eta Orixeren kontra zituztenak idaztean ere aitortzen du: «Nik neuk, bestela [...] hiru euskal idazlerik aipatzea eskatuko balitzait, [...] Orixe ez dut uste aipatu gabe utziko nukeenik, eta seguru asko hirugarren lekuan baino lehenago aipatuko nuke, aipatu ere» (Azurmendi 1976a: 70-71); «Prosa modernuaren haseran Orixe dago» (*ibid.*: 73); «Orixek berea egin zuen eta bere lekuan utzi behar dugu, [...]. Berea eman digu. [...]. Euskal prosa eginkizun berrien atariraino ekarri zigun» (*ibid.*: 174). Baina Orixeren ereduak ez zuen balio Jakin Taldeak esku artean zuen lanerako, ez zuen balio idazle berrientzat.

Bi motatako kontuak daude balio ez izate horretan. Terminologiari lotuak, batetik; eta prosa ereduari lotuak, bestetik. Terminologia teknikoaren arazoak eraman zuen Intxausti Orixeren kontrako matxinadara:

Kuestionatua hor ez da euskara mordoiloa, baizik euskara garbia; Orixeren garbitasuna da (‘filosofo’ ordez ‘jakinzale’) justifikazioa galdatzen zaiona. H. d., hemen arazoa ez da ‘eliza’ edo ‘bekatu’ esatea zilegi al den, ezpada alderantziz, zilegi al den ‘zer-dana’ edo ‘zer-izana’ esatea esentzia adierazteko, ‘yainkolari’ esatea teologorrenzat edo ‘yakinkizun’ zientziarentzat, Orixe maisuak egiten zuen gisan; eta, areenean, zein zentzubako zentzu duen *Jakin*-en haren ikasle-miresleak ‘arazgo’ edo ‘gaitia’ (kausa) asmatzen tematzeak, edo ‘arimiztia’ (psikologia), ‘izaten-aburua’ (existentzialismoa) eta antzekoak, adibideak biderkatzen ez luzatzeko. (Azurmendi 2007: 102)

Garbitasun iluna, iheskeria, zehaztasun falta, ezaugarri horiek egozten dizkio Orixeri:

Baina garbizale jokabideak, hizkuntza teknikoaren mailan bati-  
tik-bat, duda asko uzten digu. [...]. Hizkuntza teknikoak, lehen  
lehenik zehatza eta zehazkiro mugatua izan behar du eta prakti-  
koa. (Azurmendi 1976a: 126)

Hitz bila zebilenak Orixe baitan ugari bil zezakeen. Beste kon-  
tu bat da, hark guztiak zenbat balioko zion: *aizukeria* (libertina-  
je), [...] *agi* (fenómeno), [...] *garbitasun-paper* (carnet de identi-  
dad), [...] *gertaburu* (causa), [...] *iaurespide* (religión), [...] *kuntze*  
(sexo)... (*Ibid.*: 128)

Euskararen berezitasunaz sinets-sinetsita; euskararen garaitasu-  
na erakutsi nahita; latinoak eredu hartuta: horrela jardun zitzaiz-  
gun. Ariera horretan –eta muga hauen barruan, hortakoz– ez du  
parekorik. [...]. Baina [...] Mitxelenak, Txillardegik, Otsalarrek,  
Arestik, ez zuten *modernutasuna* Orixe bezala ulertzen. [...].  
Eta bestelako *euskara* behar zuten idazle berriok. Euskara uti-  
litario, simple, praktikoa. Hizkuntza egina, idazleak egiten ibili  
beharrik gabekoa; tresna prestatu bat, pronto noiznahi hartu eta  
erabiltzeko. Periodismorako, adibidez. Politik arloetarako. Eta,  
arrunki, saioetarako ere. Edozertaz euskaraz mintzatu ahal izate-  
teko, soil-soilik, segituan erdarara pasa beharrik gabe, edo beti  
hizkuntzari begira ibili beharrik gabe. [...]. Gauzak esateko nahi-  
koa den bat. Tresna egoki bat, eta kito. (*Ibid.*: 166-167)

Hemen jaso ditudan pasarteek eta leku-faltaz isilpean utzi  
ditudan beste askok argitzen dute zergatik gertatu zen hiz-  
kuntza-ereduaren aldaketa, zergatik izan zen Orixe galtzaile  
eta zein protagonismo izan zuen Jakin Taldeak horretan.

Honaino Azurmendiren gogoeta ekarpenak hizkuntzen  
estandarizazioan bereizi ohi ditugun lau faseez. Baina ez  
dut lan hau amaitu nahi *Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia*  
(EBPN) egin zenetik hizkuntzaren ‘elikadura’ deitzen diogu-  
naz Azurmendik eginiko gogoetak aipatu gabe. Bereziki na-  
barmentzekoa da, nire ustez, garaiarengatik, ‘Euskaltzaleen  
batzarrea Arantzazun’ artikulua (1963). Julene Azpeitiak  
han aurkeztutako lanaren harira, irratian erdarazko kantuen  
ordez euskarazkoak sartu eta umeentzat ipuin egokiak pres-  
tatzeaz ari da Zegamako filosofoa. Azpeitiak «euskal abesti  
jatorrak» eskatzen zituen, baina Azurmendik errealitateari  
segitzea eskatzen du. Bach, Debussy, Stravinsky... musika

ederra da, zalantzarik gabe, baina jende gutxik dedikatzen du horrelako musika (gogoan izan garai hartan ‘disco dedi-  
katuen’ atalak nolako arrakasta zuen). Aldiz, Guardiola, Dúo  
Dinámico, Johnny Hallyday

... ez dira dedikatzen beren kalidade apartekoarengatik, musika  
‘jatorrarengatik’. Zergatik, ba? Ez dit inporta [...]. Emen, euskera-  
ren laguntzaz ari gerala, gauzak diren bezala artu behar ditugu.  
[...]. Fenomeno mundiala da gaurko gizarteak beren zerak za-  
balduaz, trukatuaz, joera unibertsalista oen bidetik aritzea. Uda  
batean mundua zear ibillitako bati entzuna diot bazter guzietan  
entzun zuela Domenico Modugno-ren ‘Volare’. Errialde bakoit-  
zeko hizkuntzetara moldatua, [...] ez italianoaz. Guk geuk ere  
makiña bat entzun izan dugu esandakoaren italianoaz gaiñera  
Lucho Gatica-ren espainola. [...]. Gure jendea nora joan, ara joan  
bearko du euskerak, ez aldrebes. Bestela, klub, txalet eta olakoai  
izenak emateko bestetarako ez digu balioko. (*Ibid.*: 190-191)

Argi dago, beraz, gizartearen eskariari erantzun behar zaiola;  
musika modernoaz ari garela, gizarteak gustuko dituen  
abestiak euskaraz entzuteko aukera eman behar zaiola.

Literatura-eskaintzarekin zerikusia duten gogoetak dira bes-  
te bi artikuluko hauetako gaiak. Nazioartean arrakasta handia zu-  
ten Chaim Potok eta Joseph Jofforen nobelen harira (ale asko  
saldu zituzten, filmak ere egin ziren), hauxe dio Azurmendik:

Hauek ez dira historiak aipatuko dituen nobelak. Baina bai, eus-  
kaldunoi zer pentsa eman behar liguketenak. Egungo gizonak,  
baxoerdiak edo kafe ‘behar’ duen moduan, kontsumorako ira-  
kurgai erraz arina behar du, trenean doanerako, denbora pasa  
dagoenerako, burua nekatu nahi ez duenerako. Halare, irakurle  
hori gutitan iristen da libururik irakurtzera. Eta nobelok horixe  
lortzen dute: promedialgoa baino hoge, berrogei aldiz (liburu)  
irakurle gehiago sortzea. [...]. Liburuon teknika estudiatu eta ika-  
si beharrean gaude. [...]. Ez al da nahiko problema, soldadutzara  
joan, eta sekula libururik irakurtzen ez zuen mutilak, euskaldun  
hutsa eta langilea bera, enpatxatu arte Estefania Lafuente irakur-  
tzea, asper ordu luzeetan? Estefania Lafuente irakurtzeko baino  
gehiago eskua luzatu ezin duenak ere, edo nahi ez duenak, izan  
dezala zerbait bere eskumenean euskaraz. Ala gauza horiek hobe  
dira erdaraz euskaraz baino? Beste batzuk nahiago zuten euskara

hiltzea, biraorik euskaraz egotea baino. [...] Guk literatura hori ere behar dugu. Halegia, ez helburu bezala, helpide gisa baizik. Irakurleria ugartzeko, lehenengo. [...]. Zabalkunde politikoa egiteko ere behar dugu teknika hori. Orixek, bere garaian, *Santa Kruz Apaiza* egin zigun. Baina guk ez dugu aurkitu geure egunotarako moduko erarik, gure ideia eta asmoen zabalkunderako. Tostoiak bakarrik egiten ditugu. Eta hirugarren: literatura onik izateko ere beharrezko iruditzen zait halako obra ugari izatea. [...]. Beno, eta besterik ez balitz ere: erdaraz alienatzea hobe ote da euskaraz alienatzea baino? Ez daukagu hortan ere erdarari zertan abantailik eman. Baditu bestela ere nahikoa. (Azurmendi 1976b)

Sor ditzagun euskal  
gizarteak, adin  
bateko zein besteko  
euskaldunek, eskatzen  
dituzten produktuak; dela  
musika, dela literatura.  
Eta gaurko gizartera  
ekarrita ere berdin balio  
du gogoeta horrek

Gero ere behin eta berriz azaldu den gogoeta; ikus bestela, Xabier Gereñoren ahalegina irakurleentzat errazak izan zitezkeen irakurgaiak argitaratzeko, bereziki ‘nobela beltza’ deitzen den generokoak. Nik guztiz bat egiten dut Azurmendiren hitzekin.

Bigarren gogoeta, 1982koa, literaturari lotua hau ere, baina irakurle nerabeei, ‘Eneko erdaraz irakurtzen du’. Zergatik? Euskarazko irakurgaietan ez duelako aurkitzen bere gustukorik, irudimena beteko dion mundu literarioa eskainiko dionik.

Deskribapenek eta ematen diote hori. Literarioki ez dute asko balioko, baina irudimenaren eske bati erantzuten diote. Eneko mundu fantastiko batetara irekitzen hasi da eta hor bere irudimenarentzat posibilitate zabalak aurkitzen ditu. [...]. Eta bai Ingalaterran, bai Alemanian, historia nobelatua nagusitu dela azken urteotan. [...]. Hara eta hona, gurasoek eramaten dituzte beren haurrak makina bat leku historikotara. Ez liguke kalterik egingo, harri zahar horiek bizi piska bat balute literatura fantastiko apur batez. Irakurgaiak erreferentzia konkretuak irabaziko lituzkete. Eta gure lurra literarioki errekuperatzen ere hobeto ibiliko ginatke. Etxaidek egin zuen lan hark, historia zaharra li-

teraturan asumitzeko, merezi luke jarraipena gazte literaturaren mailan. (Azurmendi 1982)

Ondorioa: sor ditzagun euskal gizarteak, adin bateko zein besteko euskaldunek, eskatzen dituzten produktuak; dela musika, dela literatura. Eta gaurko gizartera ekarrita ere berdin-berdin balio du gogoeta horrek.

Tintontzian geratuko dira, ezinbestean, beste hainbat lan soziolinguistikaren arloari dagozkionak. Merezi lukete horiek ere berariazko azterketa. 📖

### **Oharrak**

1. Egileak ikerketarako jaso duen finantziazioa eskertzen du: Jaurlaritza-IT1169-19 (2019-2021).
2. Ikus, adibidez, *Sociolinguistica* aldizkariaren 29. zenbakia, hizkuntza gutxituen estandarizazioari eskainia. Haugenen lau faseak kontuan hartuta deskribatzen da hor aztertzen diren hizkuntzen estandarizazio bidea.
3. «Onek ez du esan nai euskera-kontutan legeak emateko eskubidea gureganatu dugunik. Gu ez gera inor legerik emateko. Baña batasun aundiagorik ez dagoen bitartean, alik eta geienak onela idaztea on aundia dana, Aizkorri baiño aundiagoko egia da ori ([JAKIN] 7, 1958, 103)» (ikus Azurmendi 2007: 78).
4. Terminologiaren nahiz diskurtsoaren ikuspegitik norbaitek aztertze-ko zain dagoena.

### **Bibliografia**

Agirre, L. (2018): 'JAKIN, euskara batuari bide egiten', JAKIN 225, 11-16.  
Ammon, U.; Darquennes, J.; Wright, S. (argk.) (2015): *Die Standardisierung von Minderheitensprachen / The Standardisation of Minority Languages / La Standardisation des Langues Minoritaires*, Berlin, De Gruyter. *Sociolinguistica* bilduma 29.

- Azkarate, M. (1997): 'Hiztegi Batua', in Askoren artean: *Federiko Krutwig-i omenaldia*, Bilbo, Euskaltzaindia, 79-14. *Iker* bilduma 10.
- Azurmendi, J. (1963): 'Euskaltzaleen batzarra Arantzazu-n', *Egan* 4, 187-193.
- (1965): 'H' letrari buruz galdezka', *JAKIN* 20, 25-27.
- (1968): 'Euskal Akademiaren urrezko ezteguetan', *Anaitasuna* 168, 6-7.
- (1970): 'Batasunaren kutxa', *Anaitasuna* 196, 8.
- (1972): 'Gipuzkera bai, lapurtera ere bai', *Zeruko Argia* 468, 3.
- (1976a): *Zer dugu Orixeren kontra*, Tolosa, Jakin.
- (1976b): 'Kultura nazioartean. Nobela sinpleak eta euskara', *Anaitasuna* 313, 17-18.
- (1977): *Zer dugu Orixeren alde*, Tolosa, Jakin.
- (1980): 'Egiaren orduan euskara ez da problema', *Argia* 891, 23.
- (1982): 'Enekok erdaraz irakurtzen du', *Argia* 933, 27-28.
- (2007): 'Hizkuntza ereduaren eztabaida. Jakinlarien bilerak', *JAKIN* 158, 77-120.
- Coupland, N.; Kristiansen, T. (2011): 'SLICE: Critical perspectives on language (de)standardisation», in T. Kristiansen eta N. Coupland (argk.): *Standard Languages and Language Standards in a Changing Europe*, Oslo, Novus, 11-35.
- Davant, J. L. (2005): 'Baionako biltzarra (1964)', in P. Etxeberria eta H. Knörr (argk.): *Nerekin yaio nun. Txillardegiri omenaldia*, Bilbo, Euskaltzaindia, 207-217. *Iker* bilduma 17.
- Garabide Elkarte (2010): *Hizkuntzaren Estandarizazioa. Euskararen berreskuratzea II* ([www.google.com/search?q=Garabide+elkartea+hizkuntzaren+estandarizazioa&ie=utf-8&oe=utf-8&client=firefox-b](http://www.google.com/search?q=Garabide+elkartea+hizkuntzaren+estandarizazioa&ie=utf-8&oe=utf-8&client=firefox-b)).
- Haugen, E. (1987): *Blessings of Babel. Bilingualism and Language Planning. Problems and Pleasures*, New York, Walter de Gruyter.
- Hualde, J. I.; Zuazo, K. (2007): 'The Standardization of the Basque language', *Language Problems & Language Planning* 31(2), 143-168.
- Kloss, H. (1952): *Die Entwicklung neuer germanischer Kulturprachen seit 1800*, Düsseldorf, Schwan.
- Kultura Saila; IVAP (2010): *Soziolinguistika Hiztegia*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritza.
- Salaburu, P.; Alberdi, X. (2012): 'The Search for a Common Code', in P. Salaburu eta X. Alberdi (argk.): *The Challenge of a Bilingual Society in the Basque Country*, Reno, Center for Basque Studies, University of Reno eta EHU, 93-112. *Current Research Series* bilduma 9.
- Torrealdai, J. M.; Intxausti, J.; Azurmendi, J.; Agirrebaltzategi, P. (2018): 'Jakin Talde historikoa: euskara batuaren memoria eta etorkizuna', *JAKIN* 225 (*Euskara batuak 50 urte. Noranahiko izateko erronka*), 17-28.
- Villasante, L. (1988): *Euskararen auziaz*, Oñati, EFA.



# Hizkera filosofikoa hizkuntza gutxiagotu baten testuinguruan

Elena Martinez Rubio

*Filosofian doktorea eta Euskal Filologian lizentziaduna,  
hiztegigilea eta idazlea*

## Filosofoak beren lankideentzat bakarrik aritzen direnean

Ez da ohikoa filosofo batek filosofoak ez diren irakurle eta jarraitzaile asko izatea, baina Joxe Azurmendik lortu egin du. Horrek, besteak beste, haren hizkera filosofikoa- rekin zerikusia izan dezake. Edonola ere, Azurmendik berak *Volksggeist - Herri gogoa* idazlanaren argitalpenaren harira egindako elkarrizketa batean esan zuenez, liburu-  
a «irakurleria ahalik eta zabalarentzat» idaztea izan zuen helburu (Barandiaran 2008). Azurmendiren hitz horiek –bai eta Azurmendiren jarrera zabal hori– sarrera gisa ekarri ditut hona, testu honen gaia hizkera filosofikoa- ri dagokiolako, hau da, hizkera filosofikoaren kritikari.

Günther Andersek, berriz, ondoko hau esan zuen 1979ko el-  
karrizketa batean berak egindako ibilbideaz galdetu ziotenean:

Zentzugabekeria iruditzen zitzaidan [...] bakar-bakarrik uniber-  
sitateko lankideak ulertzeko gauza izango ziren testuak idaztea;  
areago, barregarria edo ez-morala; okin batek bere ogiak ba-  
kar-bakarrik beste okinentzat egiteak zentzurik ez duen legez.  
(Anders 1995 [1979]: 59)

Ildo beretik, filosofo akademikoen hizkera hartuko dugu hemen hizpide, bai eta, bestalde, hizkuntza gutxiagotu baten testuinguruan kokatu ere; alegia, kontuan hartuko dugu euskara hizkuntza gutxiagotua dela eta zailtasun erantsiak-edo badituela. Hasteko, Theodor W. Adorno eta Günther Anders filosofoen arteko eskutitz batzuk izango ditugu oinarri, non bi filosofo horiek hizkera filosofikoaz aritzen diren elkarri kritika eginez.

Bada, aipatu eskutitzek hizkera filosofikoari buruzko eztabaidaren adibide interesgarri bat osatzen dute, baliagarriak direlarik nabarmentzeko nolako garrantzia duen filosofoek hautatzen duten hizkera filosofikoak. Filosofia zein hizkuntzatan egiten den hautu bat izan daitekeen bezalaxe, filosofo bakoitzaren hautu bat da ere zein hizkera filosofiko erabili.

## **Anders eta Adornoren arteko eskutitzak**

Anders eta Adornoren arteko harremana gatazkatsua izan zen, hasieratik.<sup>1</sup> Halere, Bigarren Mundu Gerra ostean –ordurako Adorno Alemanian zegoen erbestetik itzulita, eta Anders, aldiz, Estatu Batuetako erbestean oraindik–, Anders Adornorengana hurbiltzen saiatu zen, eskutitz bidez. Berehala piztu zen bion artean hizkera filosofikoari buruzko eztabaida bat. Eskutitzak 1951tik 1968ra idatziak dira.<sup>2</sup> Bertan, Andersek hizkera iluna eta, zentzu horretan, entzule edo irakurleekiko jokabide okerra leporatu zion Adornori; hots, Adornok berak zeuzkan ideia ezkertiarren kontrako idazkera bat baliatzea. Adornok, ostera, jendearekiko joera erasokorra eta hizkera bortitza aurpegiratu zizkion Andersi.

Azkenik, desadostasuna nagusitu zen bi filosofoen artean hizkera filosofikoaren gaiari zegokionez, nahiz eta bi filosofoak –eduki eta pentsamenduaren aldetik, behinik behin– elkarrengandik hurbil egon. Hainbat kontutan bat etorri zire ere, nolabait bateraezinak zirela erakutsi zuten Adornok eta Andersek urteetan zehar.<sup>3</sup> Izan ere, hizkera filosofikoaren eztabaidagai horretan, bion arteko beste zenbait tirabira

islatzen ziren, norberaren bizimoduarekin zerikusia zutenak. Eskutitzetan elkarri akatsak leporatze zorrotz horrek ondo-ko hau ere azaleratu zuen: zein izan behar duen filosofoaren harremanak unibertsitate eta beste erakunde ofizialekin.

Adornok bizitza osoa eman zuen unibertsitateko funtzionarioa izateari lotua; Andersek, ordea, birritan egin zion uko eskaini zioten katedrari. Andersen iritziz, gaitzesgarria zen Adorno pentsaeraren arloan –teoria kritikoa zela bide– abangoardiakoa izatea eta, aldi berean, estatuko unibertsitatean katedra bat izatea. Halaber, Andersek ez zuen onesten Adornok, hain zuzen, salatzen zituen horiexengandik esker ona eta eza-gutza onartzea edota nazi ohiei eskua emateko prest agertzea.<sup>4</sup>

## Hizkera filosofiko akademizistaren ilunkeriaz

Bai Andersek, bai Adornok, biek ala biek jorratu zuten hizkera filosofikoaren gaia. Esaterako, 1948an –aipatu eskutitzak baino lehen–, Andersek Heideggerren hizkera filosofikoari egin zion kritika *Heideggerren filosofiaren sasikonkretutasunaz* izeneko testuan (Anders 1948). Adornok, berriz, *Konkretutasunaren jerga* liburua argitaratu zuen 1964an.<sup>5</sup> 1962ko eskutitz batean irakur daitekeenez, Adornok *Heideggerren filosofiaren sasikonkretutasunaz* idazten ari zen bere testurako erabiltzeko baimena eskatu zion Andersi.<sup>6</sup>

Badago, horrezaz gain, Adorno bera protagonista duen Andersen testu berezi bat, filosofo akademikoen hizkeraren harira 1943an kaleratua: *Hizkera filosofikoaren esoterismoaz* du izenburua (Anders 2012 [1943]). Berezia da arrazoi as-

korengatik. Hasteko, ez da ohiko saiakera bat, baizik eta antzeppen moduko bat; hau da, unibertsitateko hainbat entzuleren aurrean ‘antzeztutako’ dialogo bat. Bertan, Paul Tillich

Filosofia zein hizkuntzatan egiten den hautu bat izan daitekeen bezalaxe, filosofo bakoitzaren hautu bat da ere zein hizkera filosofiko erabili

katedraduna eta Adorno irakasle gaztea dira protagonistak. Andersek hogeit hamar urte lehenago –hots, joan zen mendeko hogeiko hamarkadan–, benetan gertatutako pasadizo bat berremateko asmoarekin idatzi zuen testua. Baina ez zuen inoiz aitortu protagonistak nortzuk ziren biak hil arte. Adorno hil zen, hortaz, testuan agertzen zena bera zela jakin gabe.

Esan bezala, *Hizkera filosofikoaren esoterismoaz* testuaren bitartez, Andersek Frankfurtoko Unibertsitateko hitzaldi edo klase magistral bat eta gero egon zen iskanbila dialektikoaren berri eman nahi izan zuen. Honela gertatu omen zen: Paul Tillich katedradunak ohiko hitzaldi aspergarri txepel akademiko bat eman zuen hainbat ikasle eta zenbait irakasleren aurrean, Adorno eta Anders tartean zeudela. Ondoren, Adornok hitza hartu eta erabat barregarri utzi zuen Tillich, inongo gupidarik gabe. Laburbilduz, Adornok kritikatu zuen Tillichek ezereza mozorrotu nahi izana betiko hizkera ilun eta ulertezinaz. Adornoren orduko iritziz, filosofo akademikoek nahita jokatzen zuten «esoterismoz», adituen hizkera bat erabiliz euren pribilegioei nahiz elitismoari eutsi eta itxurak egiteko.

Jakina, arlo guztietako adituek erabiltzen dute hizkera tekniko bat –demagun, kimikariek–, ez-adituentzat ulergaitza suerta daitekeena. Kimikariek, alabaina, edozeinek erabil ditzakeen ekoizkinak sortu eta gizartearen esku jartzen dituzte. Filosofoek, ordea, ez dute ezer ekoizten, ez bada esateko duten hori. Eta esateko duten hori bakar-bakarrik lankideak ulertzeko gai izaki, zein ote da filosofoen diskurtsoaren zentzua? Adornok arratsalde hartan Frankfurtan esandakoaren arabera, halako joera duten filosofoen helburua lanpostua atxikitzea besterik ez da, beren taldetik kanpo eraginik izatea ala ez izatea axola ez zaienez gero. Izan ere, «esoterismo» hori ez da gaur beharrezkoa, filosofoek ez dutelako honezkero ez estatua ez Inkisizioa atzetik. Hortaz, filosofo akademikoak apaingarri arriskugabe bihurtu dira, filosofoak elikatzearen luxua ordain dezakeen gizarte batean.

Baina Andersek, Adornoren egun hartako kritikarekin bat etorri arren, haren jarrera harroa salatu nahi izan zuen ere

bere testuan. Horixe da testuaren beste ezaugarri harrigarri bat. Hala, bada, Andersen testuak Adornoren jokabide antisokratikoa eta ez-egokia uzten du agerian. Hau da, Sokratesen elkarrizketetan, ikasleen eta parte-hartzaileen hutsegiteak ere bilakatzen ziren ekarpen, filosofoak zuen jarrera ez elitista eta eskuzabalari esker. Adornok, ordea, lotsagabe jardun zuen, Tillich jendearen aurrean apalarazi zuelako trikimailu dialektikoak erabiliz, bai eta azkar erantzuteko gaitasunik ez zuen –edo berak baino gutxiago zekien– solaskideari iseka egin ziolako ere.

Esan daiteke Andersen *Hizkera filosofikoaren esoterismoaz* izeneko testua bi ahoko ezpata dela. Andersek Adornoren filosofo akademikoen hizkera ilun eta alferrikakoaren egun hartako salaketa txalotzen du, batetik; bestetik, erakusten du ez dagoela ados Adornok hartua zuen bidearekin bere ideiak entzuleei helarazteko orduan.

Bien arteko eskutitzen garaira itzulita, berriz, ongi ikusten da Adorno, Andersen ustez, filosofo akademikoen esoterismoaren hasierako bere kritika hartatik urrundu dela bitartean, garai hartan kritikatzeko zuen iluntasunera jo baitu hark ere. Adornoren hizkera filosofikoa hain da korapilatsua honezkero, non –Andersen hitzetan– Adornorena «terrorismoa», «monokratismoa», «sadismo literarioa», «bortxaketa», «irakurlearekiko mespretxua» besterik ez den.<sup>7</sup> Adornok alferrikako zailtasunak sustatu eta nahita bilatzen dituela dio Andersek. Badirudi Adornok irakurleak zigortu nahi dituela intelektualki gutxiago izateagatik; eta, gainera, dauzkan muturreko ideiak inork ulertzen ez duen hizkera batean ezkutatu nahi dituela ere. Antza, ekintza politikoari eta oposaketari muzin egin ondoren, Adornoren helburua da hutsune hori betetzea hizkera filosofikoari dagokion sasiekintza baten bitartez. Hala lortzen du, behinik behin, bestelako ekintzei heldu ordez, irakurleari eraso egitea.

Adornok ukatu egin zuen bere eskutizetan zailtasunak zailtasunengatik bilatzea. Aitzitik, Andersi erantzun zionez, irakurlea gutxietsi edo erdeinatu ez, baizik eta gaiaren azaltze

edo aurkezte (*Darstellung*) egoki eta zorrotza baino ez zuen bilatzen. Eta Andersi leporatu zion irakurlearenganaino iristearekin tematua eta itsutua egotea. Adornoren esanetan, sujetarekiko egokitasuna gauza guztien gainetik kokatu behar zen, ulergarritasunari lehentasuna eman gabe. Horrexegatik, nahikoa litzateke idazlanetan jorratutakoa (*Sache*) erabilitako hizkerarekin bat etortzea. Hori erdietsiz gero, ez luke garrantzirik esandakoa irakurle edo diskurtsoaren jasotzaileentzat aski argia izateak ala ez.

Gainerakoan, Adornok pentsamendu mailako kontrol guztietatik babestua ikusten zuen bere burua unibertsitatean, Anders argialetxeen agintepean bizi behar zen artean. Merkatuaren agintekeria handiagoa zela unibertsitatekoa baino idatzi zion Adornok Andersi, eta ziur zegoela Anders ere –aukera izanez gero– unibertsitatean egongo zela, bera bezala. Adornok ez zekien Andersek birritan uko egina ziola eskaini zioten unibertsitateko lanpostuari.

Izan ere, Anders eta Adornoren bideak beti izan ziren desberdinak. Gorago aipatu elkarrizketa berean, hauxe esan zuen Andersek bere buruaz:

1931 eta 1945 artean, nazionalsozialismoa eta gerra izan ziren nire gai bakarrak [...] Arazo nuklearrak lehentasuna hartu zue-nean, aldiz, gizadiaren patua beren esku dutenen belarrietara iristen saiatu nintzen, alegia, batez ere, fisikari eta politikarien belarrietara, euren egite edo ez egitearen menpe baitago gizadia [...] Ahalegin bat egin nuen moral mailan funtsik ez duen guztia gainetik kendu eta idazteari lotzeko; hots, idazketa didaktikoari ekin nion. (Anders 1995 [1979]: 60)

Begi bistan da Andersen xede nagusia ahalik eta jende gehienarenganaino iristea zela, betiere totalitarismo mota guztien arriskuari aurre egiteko. Hortik haren hizkera filosofikoarekiko kezka, urtetan zehar iraun zuena, Adornorengan ez bezala.

## **Hizkera filosofikoa eta euskara**

Adorno eta Andersen hizkera filosofikoari buruzko hausnarketa kritikoetatik hainbat ondorio atera daitezke... Egia da

unibertitateko diskurtsoek ez daukatela, gehienetan, oihartzunik filosofoek osatutako talde txikietatik kanpo, nahiz eta filosofoek gizaki ororentzat hitz egitea aldarrikatzen duten. Bestelako adituen lanaren emaitza beste batzuentzat izaten bada ere, filosofo akademikoena beren buruarentzat soilik egoten da hor, ekoizleak eta hartzaileak bat bera izanik. Baina hitz egitea ez da eremu huts batean gauzatzen: beti hartu behar dira aintzat entzuleak eta testuingurua, bai eta irakurleen jakintza maila (edo ez-jakintza maila) mintzatzen den gaiaz. Xedea ez bada ere jendarteratze merke eta arina lortzea, bai izan liteke ahal den jende gehienarenganaino iristea, eduki aldetik ezer galdu gabe. Horixe da zereginik zailena eta filosofoek erantzun beharko lioketen erronka bat.

Hartu dugun hizkera filosofikoaren kritika-adibidea hizkuntza gutxiagotu batera ekarrita: iluna, esoterikoa, nahasgarria edota egokia ote da egun euskaraz erabiltzen den hizkera filosofikoa? Euskaraz idazten duten filosofoek gai horretaz hausnarketa egin ondoren egiten dute hautua, edo maizegi ibilitako bideetan barrena abiatu ohi dira hausnarketa egin gabe? Gaiak erantzun luzea eskatzen du. Eta azterketa sakona mereziko luke, nahiz eta hemen ez dagoen tokirik ideia batzuentzat baino.

Azurmendik *Volksgeist* - *Herri gogoa* idazlanean erakutsi zuenez, XIX. mendeko filosofo alemaniarrek hizkuntzen eta mundu-ikuskeran anitzen artean lotura dagoela sinesten zuten. Azurmendik Wilhelm von Humboldten ondoko tesia ekarri zuen gogora: «lurra, gizakia eta hizkuntza, banaezinki batean haziak dira».<sup>8</sup> Hizkuntzak ez dira beste planetetatik heldu diren izaki abstraktuak. Ingurune bati loturik jaio eta hazten dira, eta herri bati edo kultura bati dagokion jakintza daramate barne.

Iluna, esoterikoa,  
nahasgarria edo egokia  
ote da egun euskaraz  
erabiltzen den hizkera  
filosofikoa? Euskaraz  
idazten duten filosofoek  
gai horretaz hausnarketa  
egin ondoren egiten  
dute hautua?

Ildo beretik, ez hizkuntzak ez hiztunak ez dira elkarrengandik isolaturik bizi. Filosofoek ere itzulpenetara jo behar izaten dute beste filosofoek esandakoa ezagutzeko. Bereziki, hizkuntza gutxiagotuetako filosofoek, esan nahi baita, filosofo euskaldunek. Horietariko asko, gainera, euskara ez den beste hizkuntza izan dute ama hizkuntza, eta etengabe ari dira beren baitan itzultzen, kaleko beste euskal hiztunek ere egiten duten antzera, euskaraz murgildurik bizitzea ezinezkoa izaki. Bada, hizkuntza gutxiagotu baten hizkera filosofikoa ezinbestez dago lotuta itzulpengintzarekin. Azurmendik berak behin baino gehiagotan ‘desastre’ hitza erabiltzen du *Volksgeist - Herri gogoa*-n itzulpen txar baten arriskua zein den erakusteko, eta zeintzuk diren ekar ditzakeen ondorioak.<sup>9</sup> Zailantzarik gabe, hiztun asko dauzkaten hizkuntzetan ere egiten dira itzulpen kaxkarrak, gaztelaniaz filosofiako itzulpenetan makina bat aldiz egiaztatu daitekeenez. Oro har, Azurmendik zorrozki aztertzen ditu filosofoek erabilitako terminoak, eraikitzen hasi baino lehenago zimentarriei begiratu behar zaielako. Nolanahi ere, itzulpenek askotan baldintzatu izan dute filosofiaren historian nola jaso den pentsalari baten lana, edo berori nola ulertu edo gaizki ulertu den okerreko interpretazioei bidea emanik.

Itzulpen onak egiteko, ezinbestekoa da hizkuntzaren iturburuetara jotzea. Alfonso Sastrek ‘Itzultzaileek ere pentsatzen dute’ (2011) izeneko artikuluan esan zuenez, itzultzaile onak sortzaileak dira, halabeharrez. Batik bat, filosofiaren arloan aurrekari gutxi duen euskara bezalako hizkuntza batean egin behar da hausnarketa lehenik, ondoren zein irizpide hartu erabakitzeke. Itzulpenak saihestezinak direnez gero, itzulpen horiek, behintzat, baliozkoak eta zuzenak izan daitezten. Zentzu horretan ere, itzulpena eta sormena uztarturik daude.

Filosofiaren hizkeraren hari horretara, Anjel Goenagaren azterketak oso aberasgarriak izan ziren; eta bikaina haren ekarpena ‘gogo’ eta ‘huts’ kontzeptuei buruz, zeinak hizkuntzaren alderdi filosofikoak ezagutarazteko balio izan zuen.<sup>10</sup>



Testuinguru horretan, nabarmentzekoa da ere Azurmendik ‘gogo’ hitza aukeratu zuela Hegelen garaiko alemanezko *Geist* itzultzeko, ez ‘espiritu’. Euskal hizkuntzaren azterketa hori lan filosofikoa da, izatez. Euskal filosofia –agian– biziberri-tzen ari den aro honetan, Goenagaren bidetik jotzen duen lan gehiagoren beharra dago. Ez da nahikoa euskara erabiltzea, baldin eta –erabiltzeaz batera– hizkuntzaren berezko baliabideei buruzko hausnarketa kritiko filosofikorik ez bada egiten. Zein hizkera filosofiko aukeratzen den, zein neurritan lantzen, aztertzen eta zaintzen den hizkera hori, egokitasuna nahiz ulergarritasuna bilatu arte, ez da erabaki kaltegabe edo ondoriogabe bat, hizkuntza jakin baten alde egitea –euskara, gaztelania, frantsesa...– kaltegabea ez den bezalaxe.

Auzi horri alde anitzetatik hel dakioko, noski. Itzulpengintzako adibide bakar bat ematearren: Adorno eta Andersen garaikide izan zen Hannah Arendtek *Gebürtlichkeit* hitza sortu eta erabili zuen alemanez, oso kategoria funtsezkoa haren filosofian. *Natalidad* itzuli izan da gaztelaniara (ingelesez, *natality*). Errazkeriaz jokatu, halako bat berehala ‘natalitate’ bilakatzen da euskaraz. Alabaina, gaztelaniazko *natalidad* hitzak ez du gauza handirik argitzen. Zer uler dezake euskaldun batek ‘natalitate’ entzunda? Ordain hori hautatzea hizkera filosofikoaren ilunkerian barrena abiatzea litzateke.<sup>11</sup> Itzulpen hobe, berriz, ‘jaiokortasun’ da, hain zuzen, Arendtek giza hilkortasunaren kategoriarri –*Sterblichkeit*– kontrajarri ziolako giza jaiokortasuna. Hori gutxi balitz, euskarazko ‘jaiokortasun’ hitzak aleman hizkuntzak egindako urratsak berregiten ditu: alemanezko *-lich* eta euskarazko *-kor* kideak dira gramatika eta semantika arloan, bai eta *-keit* eta *-tasun*. Hilkorra, berriz, Euskaltzaindiaren Hiztegiaren arabera, «heriotzaren mendean dagoena» da. Jaiokorra, ondorioz, «jaiotzaren mendean dagoena» litzateke, Arendten pentsaerarekin bat eginez. Izan ere, Arendtek erakutsi nahi izan zuen gizakiek gelditu gabe munduratzeko ahalmena dutela eta jaio den gizakume bakoitzak mundua eraberritzeko aukera itxaropentsu bat gorpuzten duela. Giza gaitasun horretan dautza giza izaera

eta bizi-baldintzak, filosofoek, eskuarki, giza hilkortasunaz hitz egin nahiago izaten duten arren. Ildo horretatik, edozein euskaldunek uler dezake hobeto ‘jaiokortasun’ zer den, ‘natalitate’ baino. Orobat, testu bat ulergaitz bihur daiteke aipatu ‘natalitate’ bezalakoez josita dagoenean.

## Jorratu gabeko aukerak

Ez dugu zertan gaztelaniaren edo beste hizkuntzen beharrak –edota esanahi nahasgarriak– geureganatu. Galdera da, izan ere, ea mailegu asko, baita filosofiaren arloan ere, egiazko aukera eta erabakia diren, edota exodiglosiaren eraginez etorri zaizkigun. Andersen ideien bidetik, hizkera ulertezi-nak itxikeria eta elitismoa sustatuko lituzke filosofian. Baina euskal testuek ulergarriak izan behar dute euskaldunentzat..., beroriek gaztelaniaz edo frantsesez jakin gabe ere. Horretarako, beste hizkuntzetako terminoen kopia automatizatuak baztertu beharko dira euskal testu filosofikoetatik, kopiatzea galgarria delako, bai hizkuntzarako, bai eta pentsamendua bera garatzeko ere. David Crystalek *Language Death* (Hizkuntz heriotza) liburuan ikertzen duenez, diglosia jasaten ari diren hiztunek hizkuntza nagusiaren *simil* bat egitera jotzen dute. Zoritzarrez, hizkuntzaren *asimilazioak* pentsamendua-rena ere ekarri ohi du berekin. Hori dela bide, filosofoek, hain zuzen, lehentasuna eman beharko liokete jatorrizkoari, bai itzultzeko eta bai sortzeko orduan (Crystal 2003 [2000]).

Ia-ia jorratu gabe dago oraindik euskarak filosofiari eskaintzeko duena. Euskal filosofoek urrats bat egin dezakete erakusteko euskarak Mendebaldeko filosofiaren jaiolekua izandako grekoak baino erro, kontzeptu eta eduki zaharra-goak –eta ezezagunagoak– atxiki dituela, eta merezi duela alderdi horiek aztertzea. Hizkuntza gutxiagotu baten hizkera filosofikoari hainbat zailtasun gehitzen zaizkio, beti: hala eta guztiz ere, egoera berezi hori emankor suerta daiteke. Euskarak filosofian bide berriak urratzen lagun dezake. Ederra litzateke euskararen balio hori agerraraztea. 🌊

**Oharrak**

1. Adorno eta Anders xx. mendeko hogeiko hamarkada amaieraz ge-roztik egon ziren harremanetan. Urte haietan, Andersek musikaren alorrean nahi izan zuen tesia egin, baina Adornok eragotzi egin zion. Geroago, Estatu Batuetako erbestean, Anders Frankfurteko Eskolako kideekin egon zen harremanetan ere. Hala eta guztiz ere, gutxitan aipatu ohi da Anders Frankfurteko Eskolaren testuinguruan, nahiz eta ideien arloan hurbiltasuna egon eta Andersek orduko eztabaidetan parte hartzen zuen Adorno, Horkheimer, Marcuse eta abarrekin.
2. Ikus Liessmann (1998). Bertan aztertzen ditu Liessmannek Vienako Günther Anders Artxiboan dauden Anders eta Adornoren arteko eskutitzak (1951-1968). Dena den, horiek ez dira elkarri idatzi zizkioten guztiak.
3. Bitxia egingo zitzaion Andersi, Adorno hil eta gero, hain zuzen, Adorno Saria jasotzea 1983an. Saria jasotzean emandako hitzaldian esan zuenez, totalitarismo berriaren salaketa zen Adorno eta bera batzen zituena; laburbilduz, lan zatiketa bortitzaren bidez gizakien deuseztatzearen eta «gizagabetzearen» salaketa. Andersen hitzetan, bien artean «apokalipsiaren entziklopedia bat» osatzen zuten.
4. Andersek uko egin zion behin, gerra ostean, Arnold Gehlen (1904-1976) filosofo, soziologo eta nazi ohiari eskua emateari. Adornok ez, berriz. Gertakizun horrek ere hoztu zituen Adorno eta Andersen arteko harremanak (ikus Anders 1995 [1979]: 87).
5. Adorno (1964). Adornok garai jakin bateko hizkera edo *Jargon* delakoa kritikatzan du bertan, pentsaera baten oihartzuna edo adierazgarria den aldetik. *Zur deutschen Ideologie* azpтитuluak erakusten duenez, Adornok bere lana Marx eta Engelsek idatzitako *Die deutsche Ideologie* jarraipenaren barruan kokatu zuen.
6. 1962ko irailaren 6ko eskutitza.
7. 1963ko abuztuaren 27ko eskutitza. Adornok berak ere «terrorismo» hitza erabilia zuen Brecht buruz hitz egiteko.
8. Azurmendi (2007: 20). I. atalean hizkuntza eta nazio-izaerari buruz ari da (12-35. or.).
9. Azurmendi (2007: 124, 457. oharra), adibide bakar bat ekartzearen hona: «Itzulpen espainol desastrea berriro». Oraingoan, begi bistako hanka sartzea besterik ez da ingelesezko *monster* gaztelaniazko *monasterio*-rekin nahastu izana. Baina badaude, gaztelaniaz, filosofiaren arloko itzulpenetan hamaika adibide, horren erraz atzematen ez direlako arriskutsuagoak direnak.
10. Goenaga (1975). ‘Gogo’ ondoko testuotan aztertu zuen Goenagak: ‘Gogo en Dechepare’ (*Fontes Linguae Vasconum* 7, 1971), ‘Gogo en

refranes antiguos' (FLV 7, 1971), 'Gogo en Tartas' (FLV 8, 1971), 'Gogo en Leizarraga' (FLV 11, 1972), 'Gogo en Axular' (FLV 14, 1973) eta 'Gogo en Oihenart' (FLV 14, 1973).

11. Real Academia de la Lengua Española erakundearen arabera: «Natalidad: Número proporcional de nacimientos en población y tiempo determinados». *Natividad* ere erabili da *Gebürtlichkeit*-en ordain gisa. Real Academia de la Lengua Españolak dioenez, aldiz: «Natividad: Nacimiento». Beste guztien gainetik, Jesukristo, Ama Birjina eta San Joanen jaiotza. Euskaltzaindiaren Hiztegian, 'natibitate' eta 'Eguberri eguna' (*herr*) dena.

### Bibliografia

- Adorno, Theodor W. (1964): *Jargon der Eigentlichkeit*, Frankfurt, Suhrkamp.
- Anders, Günther (1948): 'On the Pseudo-Concreteness of Heidegger's Philosophy', *Philosophy and Phenomenological Research* 8(3), 337-371.
- (1995 [1979]): *Llámesese cobardía a esa esperanza*, Bilbo, Besatari. [Jatorrizkoa: Greffrath, Mathias: 'Wenn ich verzweifelt bin, was geht mich das an? Gespräch mit Günther Anders', in *Die Zerstörung einer Zukunft. Gespräche mit emigrierten Sozialwissenschaftlern*, Reinbeck bei Hamburg, Rowohlt, 19-57].
- (2012 [1943]): 'Sobre el esoterismo del lenguaje filosófico', in *Si estoy desesperado, ¿a mí qué me importa!*, Bilbo, Besatari eta DDT, 55-74. [Jatorrizkoa: *Über die Esoterik der philosophischen Sprache*].
- Azurmendi, Joxe (2007): *Volksgeist - Herri gogoa. Ilustraziotik nazismo-ra*, Donostia, Elkarlanean.
- Barandiaran, Alberto (2008): 'Menpekorik gabe ez dago boteretik, hori da botere oren problema [Joxe Azurmendiri elkarrizketa]', *Berria*, 2008-02-15.
- Crystal, David (2003 [2000]): *La muerte de las lenguas*, Madril, Cambridge University Press, 2003. [Jatorrizkoa: *Language Death*].
- Goenaga, Angel (1975): *Uts: La negatividad vasca*, Durango, Leopoldo Zugaza.
- Liessmann, Konrad Paul (1998): 'Hot Potatoes. Zum Briefwechsel zwischen Günther Anders und Theodor W. Adorno', *Zeitschrift für kritische Theorie* 6, 29-38.
- Sastre, Alfonso (2011): 'Los traductores también piensan', *Gara*, 2011-02-19 ([www.sastre-forest.com/sastre/pdf/traductores.pdf](http://www.sastre-forest.com/sastre/pdf/traductores.pdf)).

# Zegamatik Arantzazura, pentsalariaren lehen paisaiak

Elixabete Garmendia Lasa

*Kazetaria*

**T**oki fisikoek egiten eta moldatzen gaituzte neurri handian. Joxe Azurmendi hainbat lekutatik pasatu da bizitzan zehar: Zegama, Arantzazu, Forua, Erriberri, Erroma, Münster; gordeta ibili zenean Donapaleu, Hazparne, Baiona... Azken urteotan Kolonia eta Donostia konbinatzen ditu.

Nik lehenengo bi egonarriak aukeratu ditut: Zegama jaioterria, eta Arantzazu, hamar urterekin joan zen parajea. Batak zein besteak bere idazlanetan eta adierazpenetan daukaten presentzian aztarrika ibili naiz, eta aurkitu dudanaren hainbat printza bildu ditut, bi leku horiek munduaren bere ikuskera nola determinatu duten zantzu batzuk ateratzeko.<sup>1</sup>

## Manifestu atzeratua

Hasteko, *Manifestu atzeratua*-ri heldu diot, Azurmendik 1968an idatzi eta oraindik iraungi ez den hari.

*Manifestu atzeratua* lehen aldiz irakurri nuenean, konplizitate zartada bat sentitu nuen: goierritartasunetik –Goierrikoa izatetik– ulertu eta partekatu nuen poetak zioena. Izan ere, parafernalia gutxi ageri zen gure iraganaren kontakizunean. Izatekotan, Zumalakarregi geneukan guk, ormaiztegiarrok, zegamarrekin partekatuta, harrotasun apur bat ematen

ziguna; hari ere moztu zion burua Azurmendik *Manifestu atzeratua*-n. Aurretik, ahapaldi hau idatzi zuen:

Gure herriak ez dauka kondairarik.  
Pobrea da. Ez dauka  
pirata koxkor pare bat,  
langile sofritu batzuk,  
muga zentzugabe asko,  
mila zorigaizto  
besterik. Ez da gutxi.  
[...]  
Ta euskalduna konforme zegoen.  
Ta libre izan nahi zuen.  
Baina libre izatea  
gauza ikaragarri zaila da  
Marx bat  
edo 1789 bat izan ez duen  
herri zorigaiztokoarentzat.  
Zerekin pagatu behar du?  
Ikaragarri zaila da.  
Ze guk ez daukagu  
pirata pare bat, langile on batzuk,  
muga txar gehiago eta holako zerbait  
besterik. Kalderilla hutsa.

## Aizkorri Zegamatik

Imajinatzen al du norbaitek bilbotar bat aurreko hori esaten? Edo donostiar bat? Nekez, ezta? Goierritar baten ahoan, berriz, egiantzekotasun erabatekoa hartzen du. Goierritar batek errotik ulertzen du poetak dioena; ulertu, ez bakarrik hitzez hitzeko sekuentzia, ulertze hori sakonago gertatzen da: belaunaldiz belaunaldiko herentzia kolektibo batetik dator.

Bi ezaugarri ditu autodefinizioak: pobre izatea eta txiki izatea. Nik beste bat gehituko nioke, poetaren hitzek espresuki esaten ez badute ere, berak dioenetik eratorria: urruti egotea.

- Pobre, diruz eta boterez eta garrantziz.
- Txiki, ezdeus izatearen zentzuan.
- Urruti egotea, baserriak herrigunetik urruti egon ohi diren bezala; eta herriak hiriburutik urruti. Urruti distantzia

fisikoan bakarrik ez, baita sozialean, kulturean eta politikoa ere. Urruti erabakimena eta itzala daukaten tokietatik.

Nire aburuz, ez bilbotar batek eta ezta donostiar batek ere ez lukete esango Azurmendik *Manifestu atzeratua*-n dioena. Ez dakit bera ados egongo ote den baieztapen horrekin; izan ere, berak baserri kultura ikusten du nonahi, baita hiriburuetan ere, bere herritik abiatuta:

Zegaman, kalean jaio ala baserrian jaio, baserri kulturak agintzen du. Eta Donostian, eta Gipuzkoa guztian, eta Euskadin. Donostian, beraiek besterik uste dute, baina baserri kultura da: auzo kultura, ez dauka beste kulturarik. Gero, burges txiki donostiarren zerbait diren harrokeria. (Maiz 2015)

Goierriko *Goiberri* aldizkarian egin zituen adierazpen horiek Azurmendik, 2015eko azaroan, Aimar Maiz kazetariaren galderei erantzunez.

## Otsaurte, 1944

Otsaurteko Bentan bi argazki daude, Otsaurten bertan ateratakoak, 1944an Gipuzkoako Slaloma jokatu zenean: eskia-tzaileak Otsaurten, emakumezko eskia-tzaileak barne. Hiria eta joera modernoak Otsaurteko gaineraino iristen ziren, baina ez bertakoen eskutik. «Burges txiki donostiarren» gauzak izango ziren, eta seguru aski baita Tolosako burges txikienak ere, handik sartu baitzen eskia Gipuzkoan.

Zegama, Gipuzkoako hegoaldean, mugako herria da geografiaren aldetik: muga Nafarroarekin; Otsaurteko Bentara igo,

Goierritar batek erotik ulertzen du poetak dioena; ulertu, ez bakarrik hitzez hitzeko sekuentzia, ulertze hori sakonago gertatzen da: belaunaldiz belaunaldiko herentzia kolektibo batetik dator

behe aldera abiatu eta laster sartzen zara Altsasun; Aizkorri aldetik, mendiz, San Adriango tunela pasatu eta beherantz, Arabako lautadara jaisten zara zuzenean. Zegama bukaera da, Gipuzkoaren bukaera hego aldetik, Goierriren bukaera.

Zegama mendiko herri tipiko modura ikusiko zuten Donostia aldeko mendizale eta eskiatzaileek garai batean. Azken urteotan, berriz, Zegama famatu egin da nazioartean ere, Zegama-Aizkorri mendi lasterketarengatik. Zegamak badu zerbait Pirinioetako edo Alpeetako herriekin senidetu eta parekatzen duena: Aizkorriren presentzia inponente hori... lainoak ezkututzen ez duenean.

Azurmendik honela deskribatu zuen Aizkorri *Zegama Urtekaria*-n 2011n:

Aizkorri aurpegi bat da, alaia, gaiztoa, kanbiatzen dena, nagusi handi baten edo izaki mitologiko baten antzera gure arimaren zoruan grabatuta daramaguna. (Azurmendi 2011)

Aizkorri koloso bat da.

## Arretxe

Zegaman, Azurmendi-Otaegitarren jaiotetxea Arretxe kale baserria da. *Arretxe* izena ageri da kalean bertan, ate baten gainean, beste bi etxeren artean geratzen den fatxada zati estu batean. Baserria bere osotasunean harrapatzeko, atzeko aldera joan behar da; etxeak bi aurpegi eta izaera edukiko balitu bezala da: kale aldekoa, urbanoa, eta mendi aldekoa; zirrikitu bat kalera, ikuspegi zabala mendira; bikoiztasuna eraikin bakarrean.

Izan ere, Zegama ez da mendia bakarrik. 2011ko artikulu horretan bertan –‘Nire Zegama neure barruko Zegama da’ izenburua ipini zion egileak idazlanari–, beste pintzelada hau ematen dio Azurmendik jaioterriari:

Lan egunaren erlojua papelerako adarra zen. Zegama baserritarra zen, baina herriko jende askok baserrian eta fabrikan, bietan lan egiten zuen. Hala egiten zuen gure aita zenak ere; fabrikako istripu batean hil zen. (*Ibid.*)



Papelerako adarrak pautatzen zuen eguneroko bizitza; papelerak heriotza ere ekar zezakeen. Papeleran gauzatzen zen nagusi/langile kontraesana.

## Mazkiaran Barrena

Arretxeren auzoan beste etxe bat nabarmentzen da: Mazkiaran Barrena. Eraikin dotore bat da, bere lorategi eta guzti, oraindik aurreko mendeetako tankerari eusten diona. Hor Giménez Caballerotarrak bizi ziren, papelerako nagusietakoak; Azurmendiren apuntea, haurtzaroko oroipenetan:

Giménez Caballerotarrek itzal handia zuten (don Ángel, don Ernesto; azkeneko hau, falangista ilustrata, geroago liburuetan aurkituko nuen). (*Ibid.*)

Arretxe eta Mazkiaran Barrenaren artean bazen lotura bat: esnea eramaten zieten Arretxeok Mazkiaranekoei, bezeroak zituzten horiek (Joxe Mari Azurmendi Otaegiren testigantza, 2019ko apirilean).

Mazkiaranek badu tokia historian: hortxe hil zen Tomas Zumalakarregi, buruzagi karlista. Izan ere, Bilbon zauritu ondoren, arrebaren etxera joan nahi izan zuen, Zegamara, Ormaiztegitik eta han zeukan anaia apaizarengandik paso eginda, Zeraingo petrikiloak –Jose Frantzisko Telleriak– aratu zezan eta, bide batez, arrebak zaindu.

## Zumalakarregi

Zumalakarregiren mausoleo galantak ezaugarritzen du Zegamako eliza. Azurmendik aipamen hauxe egiten dio *Manifestu atzeratua*-n:

Zumalakarregi? Tonto baten moduan  
hil zitzaigun azkenean hura ere.  
Preso daukagu orain Zegama-ko elizan  
berpizt ez dakigun,  
esan ez dakigun bala batek  
asesinatu zuela libertadea.

Zegamatik Arantzazura, pentsalariaren lehen paisaiak

Zegama, bistan da, 'itzal handiko' jendearen kokaleku ere izan da. Ez ditugu denak aipatu oraindik.

## Telleria

Zegamako hilerrira sartu eta berehala topatzen da Telleria-tarren panteoia: hor dago hilobiratua Juan Telleria musikaria, *Cara al Sol*-en egilea. Azurmendik oroitzapen gozoa du musikagileaz, *Zegama Urtekaria*-n idatzi zuenaren arabera:

Jauregiko presako petrilean eserita umeoi gozokiak ematen gogoratzen dut Juan Telleria. Haren emazteak bizkaieraz egiten zuen. (*Ibid.*)

Telleriaren obra famatueneri buruz, ohartarazpen hau egiten du Azurmendik:

Mundu guztiak daki *Cara al Sol* himno falangistaren egilea zegamar hori izan zela. Baina musika horren iturria autore beraren *Amanecer en Cegama* omen da, eta hori inork ez dugu ezagutzen. (*Ibid.*)

Zegamarrei lapurtutako egunsentia falangisten himno bihurtu eta zapalketaren ikur nagusi bilakatu zen eskola frankistetan, Espainiako banderarekin batera.

## Artzainak Urbian

Zuri-beltzeko argazkian, serio eta formal, artzain familiak Urbiako baselizaren atarian, xx. mendeko erdialdera. Irudi horrek bikain ilustratzen du Azurmendik *Manifestu atzeratua*-n egindako beste erretratu psiko-soziologiko hauxe:

Gure jendea pobrea da, trixtea da.  
Gure jendea ez da poesia batean kabitzen.  
Gure jendea ona da. Kulpa gabe  
hiltzen da, handitasunik gabe  
bizi da, sekretuan maite du  
(tabuak errespetatzen ditu),  
errezatzen du (tradizionalista da)  
engainatu egin dute,  
ez da asko fiatzen. Gure jendea

bulgaridade hutsa da.  
Inpresionistek bakarrik pintatu dute.  
Edozein etnologoren armario batean  
dago, eskuliburu batean  
deskribatzen da.

Manifestuaren zati horrek epatatzeko tankera du, oso 68koa, Parisko Maiatzaren aireak harrapatu izan balu bezala. Hogeita zazpi urte zeuzkan Azurmendik hori idatzi zue-  
nean, eta sasoi egokia da oso horrelako tonua erabiltzeko.

Ikuspegia –edo epaia– aldatu egin zitzaidan, ordea, Rufina Otaegiri –Azumendiren amari– *Zegama Urtekaria*-n egin zio-  
ten elkarrizketa irakurtzean (Gorrotxategi 2013). Azurmen-  
di ez zebilen kanpoko haizeak jota –edo ez behintzat horrek  
bakarrik–; Azurmendik oso ondo ezagutzen zuen jendea eta  
bizimoldea deskribatzen zituen ahapaldi horretan. Rufina  
Otaegiren elkarrizketa xumea da, emakume hark izandako  
bizitzaren egunerokoaz hainbat argibide ematen dituen; Azurmendik aipatzen zuen etnologiaren alorrean sar daiteke.

## Koba

Rufina Otaegi Zegamako Koba baserrikoa zen; Koba Otsaur-  
tetik behera, herrigunerantz doan errepidean, eskuinean  
dago, Otsaurte eta Zegamaren arteko erdibidean, lau kilome-  
trora batetik eta bestetik. Ezaugarria hauxe du: haitz handi  
bat, etxearen ondoan, ia-ia gainean. Kobazulotik etxerako  
jauzia sintetizatzen dizu, autoan zoazela ikuste hutsarekin.

Joxanton Artzeren *Nere ama hil zait* poemako protagonista  
izan zitekeen Rufina Otaegi:

Niretzako beti eta leku guztietan guztia lana eta lana izan da,  
oraintxe nago gabe eta hori ezin dudalako.

Kexu zen Rufina Otaegi adinarengatik lanik ezin egin ahal  
izategatik.

Berrogeita bi urte nituela eta hamaika seme-alabekin alargun ge-  
ratu nintzen.

Hamaika senide horien artean Joxe seigarrena da, erdi-erdikoa, beraz. Rufina Otaegiren aita «trenbide-gizona» zen, senarra, berriz, lehenago aipatu bezala, papelerako langilea, baserritar mistoa; aurretik meatzari ibilitakoa zen, Asturiasen, Azurmendik Lorea Agirrerri kontatu zionez, Jakinen webgunean 2013an argitaratutako elkarrizketan. Aita laneko istripuz hil zenean, papeleran sartzea eskaini omen zioten seme zaharrenari, baina horrek ez zuen onartu, artzain izan nahi zuelako. Aurrekoek beste ofizio batzuk izan arren,

artzaintzara jo zuen Julio Azurmendik.

Zegamak, kokapenarengatik, harreman estua izan du –eta du– artzaintzarekin; artzainaren ofizioa ez da iraungi han. Ez da harritzekoa, beraz, Azurmendik artzaintzan ere arreta jarri izana. Bere ikuspegia, jakina, ez da etnografikoa. Beste talaia batetik heltzen dio gaiari, Zegamako artzaintzari 2002an eskaini zion artikuluan.

## **Artaldea, artzaina**

Honela dio Azurmendik:

Artzaintza ez da lanbide eta bizimodu bat bakarrik. Kultura modu bat da, izaera edo gizakera bat. Esan daiteke, lehen gizakia zen pizti primitiboa artzaintzarekin etorri zela kulturarako animalia izatera. (Azurmendi 2002)

Noizbait adierazi izan du Azurmendik artzain izatetik libratu egin zela Arantzazura joateko erabakia hartuta. Libratu, alegia, mendiko langintzatik, eta horrek lan intelektualari heltzea ahalbidetu zion. Eta, hala ere, artzaintzaren kultura aldarrikatzen du errotik:

Gaur garen gizatasun hau, gure balioekin eta idealekin edo gure obligazioaren eta leialtasunaren zentzuarekin, artzaintzak eratu izan duena da. [...] Zibilizatu guztiok artzaintzan ditugu gure erro espiritualak. (*Ibid.*)

‘Iraultza neolitikoa’ deritzana, hau da, «gizon-emakumeak artzain bilakatu zirenekoa», oraindik gainditu gabeko mugarritzat aurkezten du Azurmendik. Zegamako artzaintzari eskainitako artikulua horretan, ikuspegi historikoari heltzen dio:

Artzainen aspaldiko ibilbide hauetxek –transhumantziakoak– omen dira gero erromatar-bideak eta Santiagoko bidea bilakatu direnak.

Herriko maila horretan egiten du zibilizazioaren fenomeno unibertsalaren irakurketa pentsalariak, mitologia eta tradizio kristaua uztartuz:

Marik ardi edo ahari bat izaten du alboan, Jesukristo Artzain Ona da. Horregatik Zegaman, Aizkorrin gurutzea dago, Aketegin Dama daukagu, badaezpada ere, artaldeak bezala herritarrak uda eta negu goitik begiratzeko. (*Ibid.*)

Artzaintza bakarrik ez, kultura rural osoa du jo puntuan pentsalariak; zein landa kultura, nolakoa? Ez, behintzat, Orixerena:

... hiltzera kondenatua dagoen mundu bat da hori [...]. Berriro deskubritzen baldin badugu, landak etorkizun handia daukala uste dut, baina kultura diferente batetik eraikitako landak. [...] Rurala niretzat, lehenik eta behin, ez da negatiboa, salbu eta Donostiako burges txikiak pentsatzen ari naizenean. Orduan *rurala* irain bezala erabiltzen dut kasik. (Agirre 2013)

Goierritarra burges txiki donostiarrekin tematuta berriro ere; Azurmendi zorrotz eta probokatzailer jartzen da batzuetan. Ez da, hala ere, txokokerian trabatzen; aitzitik, dimentsio kosmopolitaraino eramaten du ruraltasuna.

Nik zentzu positibo batean esaten dudana kultura rurala badago, New Yorkekoak ere ruralak dira, eta beharbada gu baino gehiago. Euskal Herrian pasa izan gara mundu rural batetik, Orixeren mundu rural horretatik, mundu urbanoa uste dugun eta ez den

batera. Baina pasa gara, beste gauza askotan bezala, aurrekoa galduz. Hemengo jendeak gutxiago daki behiei edo lehoiei buruz Koloniakoak baino. Beraz, hango kultura urbanoa ruralagoa da gurea baino. Eta zentzu positiboan. (*Ibid.*)

Non dago deskulturizazio horren giltza? Aurrekoa baztertze horretan, iraganeko ondarea ukatzean. Gutxitasun konplexuan, azken batean. Horren kontrako jarrera eta jokabidea erakusten ditu pentsalariak.

## Zegama

Zegama landa lanerako kokagunetzat hartu izan du Azurmendik sarritan; lan akademikoak baino gehiago, dibulgaziozkoak egiteko. Adibidez, Zegamako diosala eta kunplimentuen bilduma bat argitaratuta dauka Goierriko *Ostiela* aldizkarian (Azurmendi 2003). Harreman sozialetan erabili izan diren kortesiazko formulak dira, agurretan, despedidetan, jaiotzetan, heriotzetan eta abarretan erabiltzen direnak –edota zirenak–. Ama zuen horretarako informatzaile nagusietako bat.

Bilduma hutsaz harago, sumatzen da Azurmendirengan halako ahalegin bat baserri giroko hezibideak duindu eta aldarrikatzeak; horren oinarrian badago premisa bat: pobrea eta ezdeusa izateak ez du esan nahi arlotea eta hezigabea izatea. Ukazioaren kontra, merezi duen ondarea ezagutu, aitortu eta asumitzea planteatzen du Azurmendik.

- Ez men egin beste giro eta instantzia batzuetatik datozen arau, joera eta jokamolde inposatuei.
- Ez gutxietsi norberarenak. Azken batean, ez lotsatu xume bezain eder izan daitekeen estiloarengatik.

Gai horren inguruan, *Azken egunak Gandiagarekin* liburuan, haren *Hiru gizon bakarka*-ko poema zati hauxe dauka azpimarratuta: «herri bat dugu egin/ kanpotarren lerroz,/ euskal oinarri xumez/ lotsa ginalakoz». Eta, segidan, sententzia hauxe botatzen du Azurmendik: «Euskal Herriaren historia haren alienazioaren historia da».

Berak kontrakoa egiten du. Dabilen Elea saria jasotzera-koan, 2012an, haurtzarotik datozkion ipuin eta mitoak ekarri zituen gogora:

Aizkorri, Aketegiko Damea (Mari), Sandratiko mendilapurak, Saadarko jentilak, Tartaloetxe, Astregi erreka lamiak gauean, Ama Birjina Harri Urdingo jarlekuan eserita gona barrena ihintzetan bustita.

Arrapaladan jaulkitzen ditu bere inguruko tokiak eta bertako pertsonaia mitologikoak, eta amaiera poetikoa ematen dio jarioari, «gona barrena ihintzetan bustita» daukan Harri Urdingo Ama Birjinarekin. Bilduma ez da, ordea, apaingarri hutsa; hizkuntzaren zentralitatea azpimarratzen du zerrenda horrekin Azurmendik.

## Hitzen zerrenda

Zegamatik Arantzazura bidean, geldialditxo bat Azurmen-  
diren euskarari erreparatzeko. Berak hauxe dio Lorea Agi-  
rrerekin izandako solasaldian:

Etxera joaten naizenean, Zegamara, ikusten dut jendeak ikara-  
garri ondo hitz egiten duela, aberats eta libre. Esaerak dauzkate,  
nik ez dakizkidanak. Nire euskara izugarri artifiziala da. Bilaketa  
bat da. Ez da Zegamako langileen euskara jatorra, librea, benetan  
bere baitatik sortzaile dena. (Agirre 2013)

Horixe dio eta berak hala sentituko du. Jakinekoa da eus-  
kara galduta ere eduki zuela Arantzazura joan zenean, eta  
gero berreskuratu zuela hainbat bidetatik. Alde horretatik,  
euskara *auto-pidgin* bat daukala onar dakiok. Baina, idaz-  
ketan behintzat, antz ematen zaio euskara bihurritu, hitzak  
kiribildu eta hiztegietan ez dauden terminoak asmatzen edo  
erabiltzen dituela: «ikerlanda», «lehentiarki», «gogosoraiotu»,  
«ongietortua»... eta, ironiak jota, «Sukal Herria».

Bere jarrera ez da, ordea, neologismo asmatzailearena; su-  
matzen zaio hizkuntza eta hizkera konbentzionalak motz  
geratzen zaizkiola esan nahi duen guztia esateko. Eta orduan  
konbinazio sekula entzun gabeak egiten ditu, bide batez,

oztoporik gabe ulertzen direnak. Horretan, seguru asko, berak miresten dituen zegamar hizkuntza sortzaileen eskolari segitzen dio. Termino berri horiei Euskaltzaindiaren ortodoxia gainditzea kostatzen da, agian, baina axola duena zera da, hizkuntzarekiko jokia, hizkuntzari bere zuku guztia ateratzea.

Azurmendik noranahiko eta edozertarako euskara behar du, pentsamenduaren zirrikituak eta ñabardurak zehatz adieraziko dituen hizkera, eta, hori bilatzean, sortu egiten du.

## Harri Urdin: seinaleak

Zegama utzi eta Arantzazurantz goaz. Aizkorri iparraldetik begiratu eta Zegama ekialdean dago, eta Arantzazu,

Bere jarrera ez  
da neologismo  
asmatzailearena;  
sumatzen zaio  
hizkuntza eta hizkera  
konbentzionalak motz  
geratzen zaizkiola. Eta  
konbinazio sekula entzun  
gabeak egiten ditu

berriz, mendebaldean. Zegamatik Aizkorri bost-sei ordutan joan daiteke mendiz. Bidea Oazurtatik pasatzen da; Oazurtza bidegurutze bat da; han biltzen dira hainbat tokitatik datozen bideak: Zegamatik, Zeraindik, Brinkolatik...

Zegama eta Arantzazu, Aizkorriren alde banatan, antagonikoak ere izan daitezke neurri batean: Zegama herri konbentzional bat da, bere udal txete eta abarrekin; Arantzazu santutegia da, terminoaren zentzu literalean eta figuratuan.

Hamar urterekin joan zen Azurmendi Arantzazura, 1951ko irailean. Lorea Agirrerekin izandako solasaldian esplikatu du berak hala erabakita joan zela:

... neuk eskatuta eta, gainera, aitaren borondatearen kontra. Aitarekin haserre handiak edukita. Sekula ez dut jakin zergatik. Familia ez zen oso erlijioso ere, oso deboziozkoa. Aita, batere ez. Ama, gehiago. Baina ez zegoen inolako harremanik apaizekiko edo erlijioarekiko. (*Ibid.*)



Hortik aurrera, aitaren jarrerari esplikazioen bat aurkitu nahian, Azurmendik kontatzen du osaba bat Frente Popularrakoa zela eta kartzelan eduki zutela, eta beste osaba bat fusilatu egin zutela gerran. Gainontzean, Arantzazura joateko erabakiari buruz, berriro aitortzen du ez dakiela zergatik joan zen hara, senide zaharragoei ere galdetu izan diela eta esplikaziorik ez duela aurkitu. Ausartuko naiz hipotesi erdi pare bat botatzera.

Batetik, Jakineko elkarrizketa horretan bertan Azurmendik aitortzen du ordurako irakurzalea zela, eta aitarengandik eta arreba zaharrenarengandik jaso zuela afizio hori. Hipotesi erdi, beraz, liburu usainean joan ote zen Arantzazura. Horren ondoan beste hipotesi erdia, senari egotziko diot; Azurmendi aztia da, eta baliteke hamar urteko mutikoak bere buruari sekula formulatu ez dion zerbait sentitzea, zentzu honetan: Arantzazu toki interesgarria zela benetan.

## Harri Urdin: iturria

Behin baino gehiagotan kontatuta dauka Arantzazura joan zenean apenas zekiela gaztelaniaz, eta han galdu egin zuela euskara. Hizkuntzarekiko atzera-aurrera horrek utzi du marka bere ibilbide ideologiko eta intelektualean: norberaren ondarea galdu eta bere izaera ukatzearen esperientzia bizi izan zuen, neurri batean. Hortik aurrera, behin eta berriz azpimarratuko du galera hori saihestu beharra; alienazioa ekidin beharra, kolektiboki, herri gisa.

Arantzazutik Forura; han bi urte egin eta gero, 1960an itzuli zen Arantzazura; ordurako aldaketa betearen zegoen Arantzazu:

Zorte izugarria izan nuen, garai hartan Arantzazu kulturgune ikaragarria zen-eta. Eliza berria egiten ari ziren eta arkitektoak, artistak (Oteiza, Txillida, Lucio Muñoz, Basterretxea, Eulate...) eta idazleak (Gandiaga, Aresti, Blas de Otero...) ezagutzeko parada izan nuen. Eta, noski, euskal kulturaren lanean zebiltzanak ere bai: Villasante, Gandiaga, Eugenio Agirretxe, Kandiko Izagirre. JAKIN aldizkaria ere han egiten zen, eta beste euskaltzale askoren bilgunea zen Arantzazu. (Azurmendi 2001)

Han, Arantzazun, bere ikaskide izan zirenek kontatzen dutenez, Azurmendik bazuen halako joera errebelde bat, santutegiko ortodoxia toreatzea ahalbidetzen ziona. Jakineko solasaldian balorazio hauxe egiten du Arantzazuk beregan izan duen eraginari buruz:

Zaila da esatea Arantzazu zer izan den. Dena da azkenean, ezta? Dena den, bere on eta txar guztiarekin. Eta nik, neure bizitza nahiko positibo sentitzen dudanez, Arantzazu ere oso positibo sentitzen dut. (Agirre 2013)

## Gandiaga

Arantzazuri buruzko lan monografikoak idatzi izan ditu Azurmendik, baina Arantzazuri buruz, eta bide batez, denaz eta ez denaz jarduteko, Bitoriano Gandiagaren heriotzaz baliatu zen. *Azken egunak Gandiagarekin* liburu mardula da, ia bostehun orrialde ditu, baina liburu mardula da ez bakarrik orrialde kopuruarengatik, obra osoari darion oparotasunarengatik eta musikarengatik baizik.

Izenburuak adierazten duen egoera horretan du abiapuntua, Gandiagaren azken egunetan; samurra eta sentibera da tonua... Samina, ordea, sormenerako indar bihurtzen du pentsalariak. Liburuaren azpтитuluak ematen du gakoak: *Adiskidearen heriotzaren aurrean bakarriketak*.

Azurmendiren direktzio askotako jakinduria dago barreiatuta bakarriketa horietan, pentsalariak ezaugarri duen multierudizio hori. Nik alderdi bakar bati helduko diot: Arantzazuri buruzko ikuspegiari.

Gandiagaren Arantzazu azaltzen digu Azurmendik, bide batez, bere eginez ikuspegi hori. Gandiagaren testamentua transmitituko baligu bezala da, albazea lanetan jarrita, eta testamentua egin duenarekin identifikatuta.

«Zuk zer dezu, Arantzazu?» kanta ezagunaren ahapaldirik abiatzen du esplikazioa, Arantzazuren ezaugarriak aletzeko.

Bigarren ezaugarritik abiatuz: Arantzazu altzo bat da geomorfologiaren aldetik. «Teatro greko erraldoi bat bezala da,

esplikatzten du [Gandiagak]. [...] Inguru guztia altzo handi bat bezala da».

Laugarren tokian ematen duen ezaugarria: Arantzazu iragana berreskuratu duen tokia da.

Gandiaga bera da adibide bat. [...] gure erro estetiko eta espiritua-  
len bila, Oteiza, Txillida, iragan zaharrea arte berrirako iturriak  
desezkutatzen ikusi ditugu. [...] Barandiaranek eta Aranzadik  
agerian ipini zizkiguten [...] ez bakarrik iragan fosila, baina bizie-  
ra bat, arte bat, pentsamendu bat [...]. Gizakiaren historia.

## Urbia

Beste ezaugarri bat: izen propioak ditu Arantzazuk.

Izen propioan iragan desagertu bat presente egiten da. [...] Izene-  
kin hasten da kreaioa. Antzinako jakinduria izen-emaile esote-  
rikoa gordetzen du izenak, gure egunotan ahaztuz doana.

Bosgarren ezaugarria: giza lurra izan da eta da Arantzazu. Gandiagak ikasi du «Prehistoriaz gero han dabilela gizon-  
-emakumea. Betiko euskal jende xumearen, eta horren la-  
nen, borroken, festen erdian pentsatu behar da Arantzazu».

Azkenerako utzi dut lehen ezaugarria: Arantzazu ez da toki isolatu bat.

Arantzazu autopista prehistoriko handien erdi-erdian dago, ez  
munduaren bazter zokoan. [...] Aizkorri mendi sisteman, Arantza-  
zu, orduko mundu zibilizatuaren erdigunea da. (Azurmendi 2009)

Arantzazu ezaugarritzen duten bost puntu horiek bere eginda, ondorio hauxe ateratzen du Azurmendik: «Arantzazu ikusteko eta sentitzeko modua gu guztioi aldatu digu Gandiagak urteotan».

Gandiagaren ekarpena jaso eta xehatzean, Arantzazuk gaur egun eduki dezakeen zentzua eta esanahia zedarrantzen ditu Azurmendik. Zer egin horrekin? Beharbada, herri honetako «puskailak josten» lagundu.

Izan ere, ente hautsi gisa ikusten du Azurmendik Euskal Herria:

Espainia modernoaren esperimenduak Hego Euskal Herria birrindurik utzi du [...]. Gaurko Euskal Herria gizarte desintegratu bat da administratiboki, politikoki, sozialki, linguistikoki, kulturalki. Identitate apurtu bat da. (Azurmendi 2018)

Idea bera beste modu batera esanda: «Gu, gaur, erabat puskatuta gaude barrutik».

Horren aurrean, zer egin?

Gure eginkizuna hori da [...]: mundu puskatu bat nola berregin eta nola errekueratu, berriro esklabo bihurtu gabe. (Agirre 2013)

Zegamatik Arantzazurako bidea ez da Santurtzitik Bilborakoa, ezta Imanol Lartabalek kantatzen zuen Donostiatik Iruñerakoa, edo Iruñetik Baionarakoa ere. Baina, Azurmendiren ibilbideari erreparatuz, bide horiek denak berregiten lagundu dezake Zegamatik Arantzazurako erromeriak –edo periploak–. 📍

## Oharrak

1. Hitzaldian erakutsitako argazkiak: Pello Agirrezabal, Xabier Goñi, Fermin Leizaola.

## Bibliografia

- Agirre, Lorea (2013): 'Joxe Azurmendirekin solasaldia', *Jakin.eus* ([www.jakin.eus/digitalizazioa/azurmendi/solasaldia#ikus](http://www.jakin.eus/digitalizazioa/azurmendi/solasaldia#ikus)).
- Azurmendi, Joxe (2001): 'Eginkizun probidentzial bat bete du Arantzazuk', *Euskaldunon Egunkaria*, 2001-05-20.
- (2002): 'Atarikoak', *xxi. mende hasierako Zegamako artzaintza*: 4-5.
- (2003): 'Diosalak eta kunplimentuak Zegaman', *Ostiela* 32: 31-33.
- (2009): *Azken egunak Gandiagarekin*, Donostia, Elkar.
- (2011): 'Nire Zegama neure barruko Zegama da', *Zegama Urtekaria* 13, 4-5.
- (2018): *Beltzak, juduak eta beste euskaldun batzuk*, Donostia, Elkar.
- Gorrotxategi, Jaione (2013): 'Rufina Otaegi, elkarrizketa', *Zegama Urtekaria*.
- Maiz, Aimar (2015): 'Elkarrizketa. Joxe Azurmendi', *Goiberri* 166, 8-9.

## EGUNEN GURPILEAN

### **251** Kultura

Grebaren biharamun luzea  
Pintzelak eta zentzuak  
Itziar Ugarte Irizar

### **257** Soziolinguistika

Matrioxka  
Euskara oztopo  
Birusak hizkuntza aniztasunarekin  
topo egin du  
Pandemia eta infodemia  
Kutsatu! Ekin, ukan, ekin  
Hizkuntza birus bat da  
Jaime Altuna Ramirez

### **264** Glokalia

Alienatzeaz, asebetetzeaz eta beste  
Bixente Ameztoi  
Atopia Role Playing Game  
Alba Garmendia Castaños



## Kultura

Itziar Ugarte Irizar

### Grebaren biharamun luzea

Ohartzerako aldatu egin zaigu mundua. Aldatu eguna, aldatu inguruarekiko gogoia, urrunago gaude elkarrengandik atzo geundena baino, eta deserosoa da pentsatzea giro honetan, hau dena gertatzen ari den bitartean gertatzen ari zaigunaz nondik aritu asmatzea; nora arte eman dugun amore, zein aukera erreal izango ditugun gauzak bestela egiten hasteko eta zer izango den bihar hemen orain garenaz. Zain bezala gaude. Leihotik so, pantailatik so, klandestinoki elkartzen, eta bitartean hor doa, tirriki-tarraka, zulatuta egunen gurpila aurrera.

Saltoka sumatu dut burua inoiz baino gehiago. Pantaila-irudia atera nion sakelakotik Hedoi Etxarteren txioari:

Ostegunero amesten dut *kultura irrati* publikoa. Arantxa Iturbek eta Nekane Peñagarikanok zuzendua. Literatura, zinema, arte plastikoa, antzerkia, filosofia, historia, antropologia, bertsolari-tza. Finantzazioa? AHTari esleitutakotik 57 metro.

Atera ditut pantaila-irudi gehiago. Hitzaldienak, gomen-dioenak. Baina konfinamenduko egunak aurrera joan ahala, gero eta kasu gutxiago egin diet. Denbora izan dugu egoera berriaren noraezean jaiotako joerak ere hiltzen uzteko. Edo horien gainean eztabaida pizteko. Kulturgileak ikusi ditugu euren etxeetatik denetariko emanaldiak eskaintzen, baina astia eman du honezkero jokamolde horren ifrentzuaz ohartarazteko, eta, bidenabar, egoera honen aurretik zetorren sortzaileen egoera makurraz hitz egiten hasteko. Segida emateko. Hori baita garaiotako kulturako lerroburu eta foroak betetzen dituen gai potoloetako bat, sektorea eta bere prekaritatea.

Bi eguneko greba izan berri da, ordea, eta hori bai da berria. Digitala izan zen, apirilaren 21ean eta 22an, eta kultur edukirik ez partekatzean gauzatu zen plantoa. Zaila zen eragina neurtzen, digitalak hori baitauka, etenik ez duen erreproduzio kate bat da. Grebara batu zirenek bi egunez ezer partekatu ez bazuten ere, mugimendu hori etetea eta etena nabaritzea gaitza zen. Baina milatik gora kultur langile eta eragilek egin zuten bat deialdiarekin, eta hori bai irakur liteke urrats interesgarritzat, are premiazkotzat: behar baitu kulturaren munduak ere batasun bat. Hari zenbait ere ari dira mugitzen horien jarduna eta lan egoera sindikatu baten aterkipetik defendatzeko, eta akaso gremio izaera hori bai indartu da zertxobait krisi honen aurrean haietaz ez ahazteko kultur mundutik egin den garrasi apalean.

Hauek ziren zehatz greba digitalaren deialdiak beltzean zerkartzan eskaerak: bat, gogoeta eta eztabaida soziala eragitea; bi, premiazko neurriak hartu behar direla exijitzea; eta hiru, euskal kulturgintzaren ekosistema osatzen duten guztientzat elkargune izango den mahai/bilera/topaketa antolatzeke lanean hastea. Euskal kulturgintzako jendeak sinatu zuen. Izan, kulturaren sektorea berez da partikularra, ezaugarritzen duen irregulartasun orokorragatik, eta hori ez da oso ezberdina hizkuntza hegemonikoetan egiten den arteetan. Baina gureak kontra ditu merkatu mugatu bat eta desabantaila giro orokorra, segur asko behar baino gutxiago aipatzen den diglosia egoera errotuta soilik ez, ureztatzen segitzen den bitartean –ikusi bestela Jaurlaritzak agiri ofizialekin izan duen hizkuntza politika krisiaren kudeaketan–.

Baina grebak ere piztu ditu zalantza zenbait, eta poztekoa da, hori baita zorrozkaileurik finena edonorentzat, edozerentzat. Aritu gara eztabaidan zer daukagun buruan artisten lana premiazkotzat dugula diogunean, zertaz ari garen horientzat berme duinak nahi genituzkeenean, nola lotu daitezkeen *soldata* eta *artea* gaur eta hemen. Zergatik sortzen dituen *merkatua* berbak halako ikarak kulturaz eta arteaz ari garenean, eta zergatik sentitzen dugun haren alde egin

behar dugula gurea bezalako kultur komunitate baten alde egiterakoan.

Nago idaztea inoiz baino gehiago galderak egitea bihurtu dela orain.

Beste pantaila-irudi batean neukan Gure Esku Dagok antolatutako *Gelditu. Hausnartu. Erabaki* solasaldi digitalen zikloaren berri gordeta. Hedoi Etxarte, Garbiñe Ubeda eta Gotzon Barandiaranena. Saltoka ikusi nuen, baina itzuli egin naiz Etxartek lanak balioa galdu duela azaldu zueneko puntura. Eta ados, aldagai hori ere sartu beharko da eztabaidara kultur gileen lan-egoeraz irmo pentsatu nahi bada. Zeren ez da makala bizitzera behartuta gauden mundu hau eusten duen nahaspila, sokak zirenak hari fin orain, eta nola egin, beraz, artisten jardunak aitortza laboral hori izan dezan, lana bera debalutuz doan zerbait den sasoian.

Kamutsa da perspektiba faltan esatea, baina bati baino gehiagori entzun diot gauzak nabarmen okertu direla alde honetan azken urteetan. Eta ez da kasualitatea izango, hor ere badira estoldak, *prozesuak*, hori horrela izan dadin abian daudenak, milurtekoaren hasieran nolabait posible bazen hitzaren langintzatik bizimodua atera ahal izatea, baina askoz nekezago egun. Koldo Izagirrek azaldu zidan azkena.

Bitartean, kolpea arintzeko lehen neurriak onartzen hasi dira erakunde publikoak. Eusko Jaurlaritzaren kasuan ezohiko diru laguntzak onartu ditu «kultur arloko profesionalentzako», hilean 950-1.200 euro bitartekoak eta alarma egoerak iraun arterako. Ezaugarri jakin batzuk betetzea eskatu dute: besteak beste, diru sarreren %60 jarduera artistikotik jasotzen dela frogatzea, eta beste laguntza batzuekin bateratu ezin ahal izatea; eta ondorioa, beraz: euskaraz lan egiten duten asko eta asko diru-laguntzetatik kanpo geratu dira, baldintzak ez betetzeagatik edo laguntza hori baino beste bat hobetsi beharagatik.

Pentsatu beharko da nola ezkondu lanari dagokion hiztegi guztia arteari eman nahi diogun espazioarekin, baina susmoa dut batzuetan beste ofizio batzuetan ari direnei baino



*koherentzia* gehiago eskatzen zaiela kulturgileei, ez dakit hitza ere hori den. Bakoitzak pentsa dezala bere adibideetan. Eztabaida behar da eta ez utzi hitzak hain erraz maizten, baina debatea hartuz eta apartatuz goazen bitartean, egoeraren antsietate eta ziurgabetasunak zeharkatuta daude hainbat egile. «'Entretenimendu' hitzak estaltzen ditu maiz gure lanak eta langabeziak», Olatz Beobide. «Dohainezko eskaera horiek lotsa eman beharko lukete, ezinegona sortu eskatzen duenarengan: ultramarinoan patata kiloa dirurik gabe eskatuko bagenu bezalaxe. Guk ere gizarteari geure produktua saltzen baitiogu», Maite Larburu. «Uneotan, ziurgabetasun orokor bat da gure bizitza», Nerea Ibarzabal. «Nire edozein bidaia-lagunek, teknikari zein aktore, ziurrenik bizitza osoan ez du kontratu mugagaberik izan, ezta izango ere lanbide honetan jarraitzen badu. Beraz, berezitasun horiek neurri sorta batean izan behar dute isla, gizarte segurantzari, zergei eta halakoei dagokienez; artistaren estatutuaz betidanik aldarrikatu duguna da, ongi landuta dagoena beste hainbat herrialdetan», Marian Fernandez.

Esango du inork: «Tira, bai, baina hori ez da beste langile askok orain bizi duten egoeraren hain ezberdina». Eta ez, ez da. Eta halere, badira aldeak. Hor kokka: zeren langiletzat ditugu Izagirre, Beobide, Larburu, Ibarzabal, Fernandez..., ezta?

## **Pintzelak eta zentzuak**

Zumeta izan zitekeen gaiaz hitz egiteko solaskide egokia. Baina barrurako zurrumbilo honen guztiaren erdian heldu zen heriotzaren albistea, eta kuriooa da nola nabarmendu duten haren gertukoek bizi izan zen bezain diskretu hil dela margolaria. Kolore eta adierazpen eztrandak koadroetarako utzi izan balitu bezala.

Normaltasun berriaz ari dira. Eta ni ere bi muturren artean nabaritzen naiz goiz askotan, pendulu baten antzera, normaltasuna arazoa zela eta beraz hara itzuli ezin garelako

uste errimean, batean; eta gauzak are beltzago jar daitezkeelako izuaz, erreformistarik handienaren gorputzean sartuta biharamunean, lehengora itzuli eta aldaketak sikiera lur eza-gunetik hasi beharko genituzkeelako erabaki herrenean. Asko sentitzen ditut pendulu horretan nirekin kolpeka.

Gauza bat bai: konfinamendua eta horren arintzerako diseinatu dituzten faseena aspaldi ikusi gabeko obedientzia ariketa kolektibo handienetako bat izan da. Marina Garcés da iparra ez galtzeko ahotsetako bat, dioenean *normaltasun berria* bezalako terminoetara ohitzen garenean agerian geratzen dela hitzen boterea, hizkuntzaren egiturek gordetzen duten ahalmena, eta nola eraikitzen dugun obedientzia. Norbanakotik hasten den obedientzia baina ariketa kolektibo bilakatzen dena, komunitatearen nolabaiteko ideia gorputzuz, denon bizitzak lotuta daudela jabetuz. Denok ulertu dugu nolabait men egin behar dugula, non eta gurea bezalako jendarte hiperindibidualista batean. Onartu dugu gure bizitzak gelditzea, afektuak, egitekoak, etorkizunak, dena ordena horri erantzuteko. Kontua da, dio Garcésék, fase berri bat irekitzen dela orain obedientziaren eraikuntza horretan: neurri berri horiek *normaltzat* proiektatzen eta bizi-ohitura berritzat hartzen hastean. Eta argi gorri bat jartzen du filosofoak hor.

Oraintxe Twitterren ikusi berri dut: Singapurreko parkeetan lau hankako robotak jendeari abisatzen segurtasun distantzia bete dezaten. Horra zientzia fikzioa zena beldurrezko pelikula bihurtuta.

Peru Galbete egon naiz entzuten. Eta Quimi Portet. Eta Belako. Saltoka daukat burua inoiz baino gehiago. Iñigo Aranbarriren azken *Larrepetit*-etako batek eraman nau Joxe Azurmendiren *Manifestu atzeratua* berrirakurtzera. Booktegikoen mezu berri bat postan: Iñigo Astizen *Manifestu presentista* sarean da.

Pantailak bihurtu dira kultur esperientziarako agertoki bakar. Ez dut deabrutuko orain digitala, nola ba. Baina badira gauza batzuk berdindu ezin direnak. Eta, halere, ez da hori kontua, egarria baizik.

Egunkaritik moztutako paper zatian, Gantzarain *Lauhazka*-n, egarririk gabe edertasunarentzat begirik izatea zaila dela berresten:

Eta egarririk gabe berdin diola batek artelanak zuzenean ikusi, argazki digitaletan ikusi, edo paperean. Ez badu sentitzen mundua ulertzeko beharrik, ez badu sentitzen munduan norbera izateko beste modu baten beharrik, bati berdin zaio zer ikusten duen. Eta norbera izatea beste bat izatea da, bestea izatea.

Momentu ona da seguru asko zentzuen bilaketan sakontzeko. Kultur desazkundearen garaiak ei datoz, eta moteltasunaren balioaz ere ohartu behar genuke. Baina ez du berdin funtzionatzen ekuazioak gurera etorrira, baldin eta euskal kulturak oraindik hazte bidean badauka egitekoa –ez naiz makroaz ari–.

Josep Maria Esquirolen *Erresistentzia intimoa* saiakera irakurriz hasi nuen konfinamendua, eta zehazki kultur esperientziaz apenas ari bada ere, balio du dioenak kulturarako ere, uneko digresioei eta geroaren fatalitateari aurre egiteko tresnarik onenak memoria eta irudimena direla dioenean:

Badago zentzu bat gertutasunean soilik aurkitzen dena. [...] Landareak haztea, kozinatzea, brodatzea, altzariak egitea... Horrek guztiak bizirik irauteko balio du, baina, gainera, bizitzari presentzia bat eta indar bat ematen dizkio, gehiegizko hitzontzikeriaren bestelakoak [...]. Gertutasuna (etxea, konpainia, baratza, intimitatea...) bideak dira, presentziara eta zentzura daramatenak. Nihilismoaren lanbroa inoiz ez da guztiz desagertuko, giza kondizioaren parte baita. Eta, horregatik, gertutasunak ez du inoiz mundu zoriontsu eta perfektu bat adieraziko. Agian baten bati xumeegia irudituko zaio, baina behintzat ez da engainu bat, eta, tarteka, gutxi dena ere asko da. ‘Zerk salba gaitzake?’, galdetzen zion Heideggerrek bere buruari. Ez soilik jainko batek, ez soilik sormen artistikoak, ez soilik oratoria politikoak; baita gertutasunak ere. 📖



### Matrioxka

Martxoaren 11n Eta Kitto elkarteak Eibarren antolatutako euskararen transmisioaren mintegian izan nintzen. Urtero legez, mintegian parte hartu zuten hizlariak ekarpen interesgarri ugari utzi zituzten. Hori gutxi ez eta, aurtengoan hamargarren urteurrena bete dutenez, mintegiaren ikurra den Матрѐшка errusiarra hezur-haragizko matrioxka eibartarra bihurtu zen aurkezle eta gidari lanak egiteko. Ordurako, airean zegoen birus forma zuen zalantza eta kezka, baina inork gutxik igar zezakeen gerora bizi izan duguna. Bere barnean igarkizunak ezkutatzen dituen matrioxka baten antzera bizi izan ditugu aste luzeak: ondorengo egunek gordeta zituzten enigmak igarri ezinik.

### Euskara oztopo

Euskal Herrian martxoaren hasieran hasi ziren koronabirusa eta hizkuntza lotzen zuten lehen notiziak galdera klasiko eta maltzur batekin: zer nahiago duzu, mediku ona ala mediku euskalduna? Zuzenago izateko, argitu beharko litzateke berria ez den berria ez zela hemen sortu, Madrilan baizik. Bertako egunkariak zalantzan jarri zuten Eusko Jaurlaritzak osasun krisiari aurre egiteko hartutako neurrietako bat: sendagileak kontratatzeke deialdia egitea. Berripaperen kritika, noski, euskararekin lotuta zegoen; notizia ironiaz abiatzen zuten egunkari horietako batek:

Euskara oinarrizkoa eta funtsezkoa da koronabirusaren hedapenari aurre egiteko. Eta, oro har, edozein gaixotasun-mota tratatzeko. Hori da HAEEk egin berri duen azken deialdiaren ondorioa. Bertan, medikuntzako lizentzia duten pertsonak bilatzen ditu, eskualdeko administrazioko lan-poltsa publikoan sartzeko.

Ez da kontu berria, noski; aspergarri eta astuna suertatzen dela ere esan genezake. Euskarari, gainontzeko hizkuntza gutxiagotuei bezala, gaitasuna ukatzea konstantea da: zientzia, jakintza, ezagutza eta pentsamendu konplexurako balio ez duen hizkuntza. Medikua ona eta euskalduna izatea bateraezin bihurtzen dira. Euskara oztopo bihurtzen da eritasunari aurre egiteko, eta zentzugabetzat hartzen da euskal eriak artatu behar dituzten osagileak euskaraz hitz egiteko gai izateko eskaera.

Bitxia bada ere, bi hilabete geroago, mendebaldetik antzeko berria heldu zitzaigun protagonistak ziren hizkuntzak aldatuta: «Kalifornian mediku latinorik ez izateak larriagotu egiten du COVID-19 krisia». Kaliforniako Unibertsitateak egindako txosten baten arabera, espainolez hitz egiten duten medikuen faltak zainketaren kalitatean eragina du. Informe horren arabera, besteak beste, espainolez hitz egiten duen gaixo batek errazago ematen du bere egoeraren berri espainolez hitz egiten duen osasun-langile batekin dagoenean, eta osasun emaitzak ere hobekak direla ikusi dute. Madrilgo egunkarietan ez nuen ironiaz idatzitako notizia horren aipamenik topatu.

## Birusak hizkuntza aniztasunarekin topo egin du

Ekialdeko lurraldeetan guk baino lehenago pairatu behar izan dute osasun larrialdia, eta, egoera berezi horretan, beste hainbat alderdirekin batera, hizkuntzarena ere antolatu behar izan dute. Jia Li-k lan etnografiko handia egingo du Txinako zenbait hizkuntza egoeren inguruan, eta ‘Coronavirus meets linguistic diversity’ artikuluan azaldu du Hubei eskualdean (Wuhan bertako hiriburua da) hizkuntza kudeaketa nola-koa izan den. Txinako hizkuntza ofizial bakarra mandarin

dialekto multzoaren estandarra den putonghua hizkuntza da. Bertako gobernuak hizkuntza estandar hori sustatzeko indar handia egiten du, nahiz eta gaur egun Txinako Herri Errepublikak osatzen duen lurraldean 24 etnia txinatar, beste jatorri batzuetako 55 gutxiengo eta 200dik gora hizkuntza dauden. Txinako herritar gehienek, hortaz, estandarra ez den mandarinarin aldaera bat edo bestelako hizkuntza bat hitz egiten dute egunerokotasunean, nahiz eta putonghua *lingua franca* gisa ikasi eta erabiltzen duten. Azken urteetako Txinako hizkuntza politika ofiziala putonghua zabaltzea izan da beste hizkuntzen kaltean, baina, Lik dioenez, koronabirus epidemiaren ondorioz beste aldaera eta hizkuntzen estatusa aldatu da.

Hubei probintzian, esaterako, osasun krisiaren aurretik putonghua sustatzeaz arduratzen ziren erakundeek betekizun berria izan dute: baliabideak sortzea mandarinarin aldaera ez estandarren ulermenerako. Adibidez, putonghuaren eta Hubeiko mandarinarin artean itzulpenak egiten dituzten audio-liburuxkak eta bestelako itzulpen tresnak sortu dituzte osasun langile eta boluntarioek larrialdietako deiak erantzun ahal izateko eta ospitaleetan kutsatutakoak artatzeko. Izan ere, urte hasieran Txina osoko 60.000 osasun langile baino gehiago iritsi ziren Hubeira bertako sendagile eta erizainekin batera gaixotasunari aurre egiteko. Txinako beste eskualdeetan ere birusari aurre egiteko informazioa 39 hizkuntzatan zabaldu dela azaltzen du Lik.

Adibide gutxi batzuk besterik ez dira, eta ziur aski horrek ez du errotik aldatuko putonghuaren hegemonia, ezta zabalpenaren aldeko plangintzak ere. Baina, Liren ustez, hizkuntza politiken arduradunak konturatu dira hizkuntzek osasunean duten garrantziaz. Bada zerbait.

## **Pandemia eta infodemia**

Txinan osasun krisia leuntzen hasita zegoenean hemen lehertu zitzaigun, eta ia ohartu gabe «balkoiak bihurtu ziren

gure territorio libre bakarrak». Txerra Rodriguezek txiokatu zuen aurreko esaldi hori, baina egun batzuk geroago, Eider Rodriguezek, *Berria*-n idatzitako artikulu batean, ohartarazi zigun «geranioz apainduta egonagatik balkoiak ere hesiak direla».

Birusak kaleak isildu zituen eta sare sozialak piztu. Pandemia infodemia bihurtu zen. John Zarocostas-ek, *The Lancet* medikuntzako aldizkarian, azaldu zigun osasun krisialdiak eta informazio-tsunamiak beti batera etorri izan direla. Orain, ordea, sare sozialekin, fenomeno hori zabaldu egiten da, azkarrago eta urrutiago doa, birusak mundu globalizatuan egiten duen bezala.

Gurean infodemia ez da edukietan soilik nabaritu, erabilitako hizkuntzan ere: erdarak arinago eta urrunago iritsi baitira. Martxo hasieran Madriletik esan ziguten euskara oztopo dela gaixotasunari aurre egiteko. Apiril eta maiatzean 'erdarabirusa' prentsaurreko, hedabide, ostalaritza eta dendetara zabaldua zen. EAEko irrati publikoko esatari bat keXu agertu zen: «ezin ditugu ardura maila handiena duten kontseilariak elkarrizketatu euskaraz». Eguerdiro Gasteizen Jaurlaritzaren osasun arduradunek egiten zituzten prentsaurrekoetan diglosia nabarmena zen. Udalerrri euskaldunetako ordezkariak kezkatuta eta haserre mintzo ziren udalaz gaidiko erakunde publikoetatik heltzen ziren jakinarazpene-tan euskara gutxien zela ikusita. Europako Kontseiluak aholkatu zuen jendartearen ongizatea bermatzeko tokiko hizkuntzak erabiltzeko, baina hemen mezu garrantzitsuak emateko orduan euskara albo batera utzia zen. Premiazkoa azaltzeko ere euskara oztopo da nonbait.

Euskarari zirrikitu handirik utzi ez dieten kamuflaje-uniformez jantzitako erdarak harro nabaritu ditugu. Gerra metaforek diskurtsoak bereganatu dituzte. Lorea Agirrek duela hiru urte idatzitako 'Metaforak eta armajabetzeak' artikuluz oroitu naiz. «Hemen ez dira denak armagabetu» zioen, eta, Adrienne Rich gogoratu, hizkuntza eta hitza metafora direla azaldu zigun:

Hitza metafora bat da. Esaten dugun horrek –honek– zer esan dezakegun eta zer ez inherenteki esaten du.

Hauxe da kontua: zerk egiten du posible esaten dena esatea? Eta ezin esan dena ez esatea?

Botereak. Boterea duenak.

Koronabirusak gauza asko agerian utzi ditu, eta, horien artean, gurean erdarek hizkuntzaz eta hitzez armajabetuta jarraitzen dutela.

## Kutsatu! Ekin, ukan, ekin

Tibeten ere badakite zer den boterea duen hizkuntza batek, txinera estandarrek, bertako hizkuntzak baztertzea. ‘Hezkuntza elebiduna’ izeneko eredu ofizialean, adibidez, presio handia egiten da tibetera geroz eta gutxiago erabiltzeko. Askotan, tibetera hizkuntza bera lantzeko orduetan erabiltzen da soilik. Hau da, putonghua da gainerako ikasgaien irakaskuntza hizkuntza. Eskola komunitario askok Tibeteko hizkuntzak sustatzeko lan handia egiten dute, eta, osasun krisialdia bertara iritsi denean, hizkuntza-lan hori beste zeregin batzuetara ere bideratu da. Yu Lha hizkuntzalariak, ‘Fighting the coronavirus in local languages’ artikuluan, horrelako epidemietan hizkuntza gutxituetan informazioa zabaltzeko garrantziaz hitz egiten du. Azaltzen du Tibetean bideo eta audioen bidez eman den prebentzio informazio gehiena txinerez edo ambo-tibeteraz eman dela, baina lan komunitario handia egin dela material horiek herrialdean hitz egiten diren bestelako hizkuntzetara ere itzultzeko.

Lharen ustez, itzulpen horiek, zabaldu nahi den informazioaren ulermena errazteaz gain, gertutasun sentsazioa areagotzen dute. Informazio ofiziala euren hizkuntzetan ere entzuteak gertaeraren seriotasuna indartzen du, eta, gainera, hizkuntza gutxitu horiekiko aitortzea eta errespetua adierazten da. Tibetar hizkuntzalariaren aburuz, azken hilabeteetan zabaldu diren bideo eta audio horiek baliagarriak izan dira



Tibeteko hizkuntz aniztasuna ikusarazteko, aurretik inoiz ez baita halakorik egin.

Beharbada, Euskal Herrian ibilbide luzeagoa dugu euskararen irakaskuntzan eta itzulpengintzan. Baina egoera berri honek agerian utzi du zuloz betetako botila dela gurea. Esan-guratsua izan zen, adibidez, apirilaren 17an Mertxe Mugikak *Berria*-n eta Maddalen Arzallusek Euskadi Irratian hausnarketa kritiko bana plazaratu zutela larrialdian euskararen inguruko gabeziak agerian geratzen ari zirelako. Izenburu bera jarri zieten euren lanei: 'Euskararen birusa'.

Euskararen birusa irakurtzerakoan *Ukan* birusarekin gogoratu nintzen; *Kutsatu! Ekin, ukan, ekin* leloarekin «euskararen aldeko jarrera baikorrek» sustatzea helburu zuen Eusko Jaurlaritzaren «sentiberatze-kanpaina». Egun, inork gutxi izango du gogoan... Eskerrak!

## Hizkuntza birus bat da

Rosi Braidotti filosofo feministak 1994an argitaratutako *Nomadic Subjects* liburuaren azken kapituluari 'Hizkuntza birus bat da' izenburua jarri zion. Bertan, besteak beste, hizkuntzak erresistentzia eta konplexutasun harrigarriak dituela idatzi zuen eta, ondorioz, hizkuntzaren boterea kalkulazina dela: ezin jakin nor eta nola kutsatuko duten zenbait mezu, zenbait ideiak, zenbait testuk.

Braidottik kapituluaren izenburua Laurie Anderson-en abesti batetik hartu zuen, eta kanta sortu zuenetik 34 urte pasatu badira ere, pandemia eta infodemia garaiotan interesik ez du galdu:

Language!  
It's a virus!  
Well I dreamed there was an island  
That rose up from the sea.  
And everybody on the island  
Was somebody from TV.

And there was a beautiful view  
But nobody could see.  
Cause everybody on the island  
Was saying: Look at me! Look at me! Look at me! Look at me!

Hizkuntza!  
Birus bat da!  
Bueno, irla bat zegoela amestu nuen  
Itsasotik altxatu zela.  
Eta denak ziren irlan  
Telebistako norbait.  
Eta bista ederra zegoen  
Baina inork ezin zuen ikusi.  
Zeren eta irlan denak  
Ari ziren esaten: Begiratu niri! Begiratu niri! Begiratu niri!

Datozen hilabeteetan hizkuntzaren birusari adi begira jarraituko dugu. 🐼



### Alienatzeaz, asebetetzeaz eta beste

Alienazioa: «pertsona edo gizatalde batek, arrazoi ekonomiko, kulturalen edo politikoen eraginez, bere izaera edo nortasuna galtzea» (Euskaltzaindiaren Hiztegia). Besterentze sentazio bat da, dena delakoa egiten ari garenean geure buruen jabe izango ez bagina bezala aritzea. Beste muturrean: gogobetetasuna, autoerrealizazioa, norbere barrua aditzera emanda asebetetzea. Bien arteko desberdintasun bat izan daiteke gizarte alienatua erraz irudika dezakegula eta zailago egiten zaigula gogobetetasuna lehenengo pertsona singularretik askatzea.

Karl Marxek, izan ere, ez omen zuen asko hitz egin gizarte alienatutik ez-alienatura pasatzeko bidez. Bertolt Brechtek, akaso, egin zuen berea: alienaziotik askatzeko modua zuen antzerkia. Historia aldagarria zela erakutsi nahi zion ikusle harrituari, oraina aldarazteko. *Verfremdungseffekt* delakoa sortu zuen, bestelakotze efektua, edo ikuslea istoriotik emozionalki urrundu zedin eta kritikoki azter zezan aurkezten zitzaiona. Ernst Blochek esan zuen bestelakotzeak errealitate ezagunari lotua behar zuela neurriren batean, alegia, ezagun zaigunaren islaren bat erakutsi behar duela ispiluak, harri-dura eta bereiztea izanagatik funtzio.

Darko Suvinek lotu zituen aurreko guztiak nolabait ('Defining the Literary Genre of Utopia'): utopiek, ispilu-lanean, agerian jartzen dute mundu alienatua. Gizarte ez-alienatuen deskribapena egiterakoan, historiak baldintzatu gabeko alternatibak aurkezten dituzte. Beste mundu batzuk eraikitzen dituzte ezagutzen dugun honetan.

Teoriatik praktikara etorrira, denetik egiten dugu gero mundu horiekin. Alienazioari ostrukarena egiteko erabiltzen

ditugu, burua egurasteko dira, horiekiko harridurak gaur eta orain zerbait egitera –egin *nahi* izatera, agian?– garamatza, sorpresa ederrarekin gozatzen dugu, besterik gabe. Umetan, mundua aberasteko (ihes)bide eder nituen literaturako munduak. Euskalduna ez zela mundu magikoa pentsatuko nuen, ezin baintuen atzerrian eta atzerritarrez ari ziren herrialde miresgarriak baino irudikatu. Macondon, Hogwartsen eta melokotoi erraldoi baten barruan bizi ziren truebatarrak, hobbitak eta Bastian. Beste munduetan babesteak begien aurrean daukaguna ukatzeko ere balio du, noski.

Eskualdeko artista izan arren, ausazkoa izan zen egunkaria gainbegiratzuz topatutako Ameztorein erakusketaren albistea eta, bitxia egin zitzaidala-eta, museoari egindako bisita. Tesia utopiaz egiten ari nintzelako, *Atopia* twitter-kontu baten kontu urrunak iritsi zitzaizkidan duela urte pare bat edo; zorionez, baina zoriz.

## Bixente Ameztoi

Erakusketak liluratuta, etxera ekarri nuen haren aitzakian editatu zen liburua (Javier Viar: *Vicente Amezttoy. La transfiguración melancólica*), arte-formaziorik gabeko ikuslearen inpresioak osatu nahian eta Ameztorein munduen zati bat etxera ekartzeko asmo gordearekin. Atentzioa eman zidaten, izan ere, ezagun bezain arrotz zitzaizkidan pasaia haiek giza irudiarekin josteko moduek eta baserri-giroko zientzia fikzioaren kutsua hartzen nien giza txorimaloen irudiek.

Erakusketaren hasierako margolanak paisaia bikoiztuak dira: giza silueta bat erdian eta haren inguruko paisaia, batetik; bestetik, ordea, aurpegi-gorputzen ordez eta siluetaren barruan, beste paisaia bat ageri da, ingurukoarekin hausten duena. Hala, atzeko paisaia puskatzen duen leiho moduko bat irekitzen da gizakiaren figuran. Elkarri gainjarritako paisaiek «errealitate atzemanekin, delikueszente eta fantasmagorikoa» sortzen dutela dio Viarrek, eta nahasmendu hori gizakiaren

presentziarekin sortzen dela (51. or.). Beste batzuetan, giza irudiaren barruko paisaia ispiluekin ordezkatu zuen Ameztoik, ispilua koadroko pertsonaiaren kontzientzia balitz bezala. Jolas horretan, ikusleak betetzen du ispiluak hutsik uzten duen espazioa, eta bere buruaren/kontzientziaren ikusle bihurtzen da (61, 63).

Donostiatik Villabonara etxez aldatu izana nabaritu omen zen margolariaren lanetan: giza irudiekin ordeztu, paisaia irudi geometrikoekin hausten hasi zen. Natura hain presente izanda, haren indarrak konturatu eta naturaren ahalmenen aurreko ezintasunari erantzuteko modua hori zuela esaten da Viarren liburuan, «okupazio bortitza» deitu ziola Ameztoik (85). Zeru-lur alderantzikatuak edo lebitatzen dauden harriak eta irasagarriak ere ageri dira bere lanetan zehar: «zergatik geratu daukagunarekin, gogoak beste mundu batzuetara eraman bagaitzake?» (Ameztoik, 86). Ihes hutsetik gutxi zuen hala ere bere lanak, esanahi politiko eta aldarrikapen ekologista askok zeharkatu baitzuten bere jarduna, insignis pinuaren eta Guardia Zibilaren inbasioak parekatzen zituen irudia lagin (146, 189-190).

Irudi geometrikoak beste mundu bat sortzen hasi ziren. Genoveva Gastaminzak egindako elkarrizketa batean esan zuen Ameztoik aldaketa etengabe dagoen paisaiarekin jolastea atsegin zuela eta leku bat egin nahi ziola bere buruan fenomeno horiek guztiak posible ziren munduaren zatiri (82, 115). Paisaia hausten zuten kubo zuri hutsetatik, beraz, falo itxurako metak sortu ziren eta, horietatik, pixkanaka, giza txorimaloak, Ameztoiren lanik ospetsuenetakoak (100, 117). Modako inbasio estralurtarraren iruditeria bere munduan txertatuz, landa-giroko elementu ezagunak arrarotu zituen Ameztoik, ironia eta umore zantzuarekin batzuetan. Euskal paisaiak eta baserri-giroko elementuek pop kulturari, zinemari, erotismoari... keinu egiteak frankismo osteko nazionalismoaren arazoetako bat erakusten zuen Viarren ustez, kanpoko elementuen inbasioaren eta identitatea mantentzearen artekoa, hain zuzen ere (102-103).

Giza txorimaloek presentzia misterioitsu bat txertatzen bazuten errealitatean, horien osteko lanetan errealitatea bera da misterioitsu (136). 80ko hamarkadara gerturatzen ziren urteetako margoetan, detaile handiz aurkezten den naturan aho, begi edota eskuak ikusten dira tarteka. Naturak berak irudikatzen du orduan kolonizazioa, mehatxua, arrarotasuna (139-140).

Gero etorri ziren Remelluriko ermitarako egindako zazpi santuen eta paradisuaren margolanak. Azken horretan, oraindik ez dakit ondo zer esan nahi didan, marihuana hosto bat eskuan, Lady Diren heriotzagatik doluz doan Mikel Laboaren diskoko tximinoak. Misterio bat zait ere liburuan 74.a den irudia. Zeru lainotu bat belaze, baso eta mendi batzuen gainean; erdian, koadrotxo bat. Koadroaren barruan, pareta bat, eta paretak, leiho bat. Leihoaren bestaldera, gaua sartzen ari da beste mundu batean.

## Atopia Role Playing Game

Burujabetza ludikoa helburu, euskaraz sortutako eta argitaratutako lehen rol-jokoa da AtopiaRPG. Liburukote mardula, fisikoki; <https://atopia.eus>, birtualki; jokalarien irudimenean dagoen mundu arrarotu bat, batez ere. Jokoaren dinamika, funtsean: fikziozko mundu batean bizi diren fikziozko pertsonaia bana eraikitzen dute jokalariek, eta elkarrekin eraikitzen eta bizitzen dituzte mundu eta pertsonaia horiek, jokoaren gidariaren –«maizterraren»– laguntzaz.

Rol-jokoek telesail ezagun hori gogorarazi ohi didate. Gaitasun sozial handirik gabeko jarraitzaile sutsuak etxe-zuloetan sartuta *Dungeons & Dragons*-era jolasten, *Star Wars* ikusten. Karikatura ez oso bidezkoa. Etxe-zuloan ni oraingoan, ordea, asteburuan zer egingo, Durangoko Azokatik ekarri genuenetik hautsa hartzen ari den liburura joan zaizkit begiak.

Dirudienez, bost fakziotan dago banatuta balizko Euskal Herria. Pertsonaiak fakzioren batekoak dira, edo azpifakzioak

sortu dituzte, edo eszizioak... «Hipotesi guztiak zabalik daude[la]» diote, eta jokalariek nahi adina arrarotu daitekeela Euskal Herria, gaurkoa, etorkizuneko zein iraganeko.

Lehenengo fakzioa, *STMA*. «Moztu eta berez hazten den sugandila gara. [...] STMA-k funtzionatzen du. STMA bizirau-pena da. STMA bizitza da. Denok gara STMA» (16). Bigarre-na, *Internazional Ikus(T)Ezina*. «Porrot egindako Oteizaren egitasmu bakoitzean gaude [...]. Hutsune horretan bilduko gara, eta eraiki egingo dugu gizaki berria, gizarte berria» (34). Hiru, *Lur4a*. «Denec dituzte interesac fictione honetan. Gu, ordea, ez gaituzte engainatu, eta ez gaituzte engainatuco» (52). Lau, *Marxialistak*. «Langile-borroka ekintza zuzena da, aurrez aurrekoa, eta gertu behar dugu egon» (71). Eta bost, *Agentzia*. «[G]utxik ulertzen dute informazioa dela moneta bakarra, eta ez dagoela botererik ez dakarren ezagutzarik» (90).

Zaila da fakzioen nondik norakoak irakurtzerakoan norberaren eta lagunaren argazkiekin ez identifikatzea bakoitza. Baina nahikoa urruntzen dira errealitatetik Atopiaren egileak. Zuberoko azken biztanlea hil denean, lur4tarren helburua da:

Zuberoan teokrazia taoista ezartzea, krudibeganismoa, sexaria-nismoa eta terraplanismoa oinarri moral izanik. Industriarekin lotutako edozein ebidentzia material ezabatzea lurraldetik. (234)

2027ko Turreko lehen astean Mikel Landak ez zuen erorikorik ez eta denbora galerarik izan. Apokalipsiaren seinaleztat hartuta, masa hirietatik arrapaladan ihes egiten saiatu zen, eta A8an inoizko kolapsorik handiena eragin. (386)

FaceAppen filtro ezezagun batek bizitzaren bidegurutzeetan hartutako erabakien orde alder batera utzitako hautuak egin izan bagenitu izango genukeen aurpegia ikustarazten du, eta ez hori bakarrik: bizitza alternatibo horretara jauzi egiteko aukera ematen du. Iñigo Urkullu sanba-irakaslearen afro orrazkera modan dago aurtzen. (395) ...


Dena ez da fantasiako historia alternatiboa, ordea. Alienaziotik askatzeko nahia erakusten du azken orriko letra txikiak. Espazio publikoa egituratzeko, hizkuntza arautzeko, teknokapitalismoa borrokatzeko, teknologia libreak sortzeko... eskatu

ohi da burujabetza. Atopiatarrek, aurrekoez gain, «burujabetza ludikoaren» garrantzia azpimarratzen dute (Atopia dira, bide batez, Nerea Ansa, Ohiana Calparsoro, Yeray Gascon, Galder Gonzalez, Unai Gorrotxategi, Beñat Irasuegi, Xabier Landabidea, Eneko Olazabal eta Gorka Salces).

Kapitalismoak bere burua berrasmatzeko duen gaitasun harrigarriaren zeinu ere bada, batetik, aisiak egun duen pisua eta, bestetik, gure aisiazko formek bizi duten eraldaketa-abiadura azkarra. [...]. Burujabetza ludikoa zuzenean lotuta legoke zaletasun komunitateekin, jolaserako eta solaserako espazio eta denbora elkarbanatuen sorrera eta zaintzarekin, interes eta arretaren lan-keta eta elkarbanatze-sareekin... (398)

Marxek esana ez bada ere, lehenengo pertsona singularreko autoerrealizazio-esperientziak plural bihurtzeko modua izan daiteke jolas kooperatiboa. Jokalariak ez du bestelakotze-efektu brechtiar hura bilatuko –badakigu dagoeneko beste munduak ez direla berez askatzaileak–, baina elkarrekin sortutako mundu arrarotuaren ispiluak geure buruen/gizarteen ikusle bihur gaitzake. Beste baterako utziko dugu dakigun beste gauza bat, hots, ispiluak gizakion alde bi erakartzen dituela, kritikoa bezainbeste nartzisista. 🌀





 euskadi  
irratia  
gertu

## IZAN ZAITEZ JAKINKIDE

### Harpidetuz

- Euskal Herria **60 €**
- Europa **75 €**
- Mundua **85 €**

### Nola jaso nahi duzu?

- Paperean bakarrik
- Digitalean bakarrik
- Paperean eta digitalean

Harpidetuz gero, %30 aurreztuko duzu.

### Babesle izanez

120€ ordainduz, Jakinen proiektu berria sustatuko duzu eta paperezko aldizkaria eta aldizkari digitala jasoko dituzu etxean.

### Ekarpena eginez

Nahi duzun kopurua

## EROSI

### Aldizkaria

#### PAPERA

- Euskal Herria **14 €**
- Europa **17,50 €**
- Mundua **20 €**

#### DIGITALA

- 14 €**

3 urtetik gorako zenbakiak DOAN eskaintzen dira DIGITALEAN.

### Artikuluak

#### DIGITALA

- Jakinkide bazara **Doan**
- Jakinkide ez bazara **3 €**

3 urtetik gorako artikuluak DOAN eskaintzen dira DIGITALEAN

### Liburuak

#### PAPERA

- Jakinkide bazara  **10 €**
- Jakinkide ez bazara  **12 €**

#### DIGITALA

- 4 €**
- 7 €**



## JAKINKIDE TXARTELA

Izena .....

Abizenak .....

Helbidea .....

Herria ..... Posta kodea .....

Telefonoa .....

Posta elektronikoa .....

Kontu zenbakia

Kontuaren jabea .....



**Jakin** • *eus*  
herria kultura hizkuntza

Martin Ugalde Kultur Parkea  
Gudarien etorbidea, 29  
20140 ANDOAIN  
Tel. 943 218092  
jakin@jakin.eus  
www.jakin.eus




$Eh^7 =$   
(di)soluzioa



Mito pixka bat  
-libertatez-...



utopia apal bat...



... eta mundua  
gure aurrean zabalik.

**Jakin** •eus  
herria kultura hizkuntza

Martin Ugalde Kultur Parkea  
Gudarien etorbidea, 29  
20140 ANDOAIN  
Tel. 943 21 80 92  
jakin@jakin.eus  
www.jakin.eus

